Gure Baserriak. Hernani





Gure Baserriak. Hernani





Gure Basemiak. Hemani

Kultura Batzordea • Hernaniko Udala

Egile eta Koordinatzaile:
Fernandorena Setien, Hiazinto
Iartza Martiarena, Maria Jesus

Diseinu orokorra:
Jorge Ullate
Diseño Gráfico

Inprimaketa eta enkuadernazioa:
Michelena Artes Gráficas

I.S.B.N.
84-920711-9-2

Lege Gordailua
SS-0425/03

Aurkibidea Auzoka

- *Antziola* 7
- *Elizatxo* 21
- *Florida* 25
- *Karabele* 37
- *Latsunbe-Karobieta* 43
- *Portu* 47
- *Sorgintxulo* 63
- *Zikuñaga* 69

- *Galarreta* 85
- *Jauregi* 103
- *Santa Barbara* 139

- *Akerregi* 159
- *Martindegi* 177
- *Osinaga* 195

- *Lastaola* 241
- *Epela* 263
- *Ereñotzu* 277
- *Ugaldetxo-Pagoaga* 303

Hitzaurrea

Izenburutzat "Gure baserriak" eman diogun liburu gotor hau zer eta nolabait Hernaniko herria bere baserrietan adierazi nahirik bezala egokitua da. Gure herriko baserrien izaera eta historia ikasi eta biltzeko ahalegina burutzea baizik ez dugu egin bertan. Behar da esan, aurrera jo baino lehen, baserria esatean, Euskal Herriko Kantauri isurialdean bederen, baserri hitzaren esanahia basetxe hitzaren pareko dela eta halaxe ulertzen duela, gainera, edonork gurean. Horretan ez dago eztabaidarik. Oinarri horrekin, bada, jardun dugu gure eginkizuna ahalik zintzoen betetzen.

Egun, baserri asko eta asko bertan bizi ahal izateko txukun egokiturik dauden arren, ez da beti horrela gertatu. Batzuek borda txar batetik sortuak dira. Beste batzuek lurralde koxkor baten gainean ahal bezala eraikiak, karea, lurra, erreka harria... bezalako lehengaiak erabiliz. Gainerakoak, ez gehienak Hernaniko kasuan ere, harlanduz eginak eta hauetarik zenbait dotore eginak: kantoi harriak, leiho ertzak, ate gainak, arku politak, etab. erakutsiz. Antzina jauregi edo dorretxe izandako batzuk ere baditugu. Den-denak ataria edo sarrera eguzkialdera daukatenik, hala ere, ez daiteke esan, baina gauza nabaria da zentzu hori aski ongi gorde dutela gure aurrekoek baserrien eraikuntzan. Eta beste gauza bat, baserri txar, sastar edo ona izan gure baserri edozeinen ezaugarri izan da mendeetan zehar euskal poeta ezagunak zioen bezala: *"O baserritxo... Zenbat famili hazi duzuen Jainkoak bakarrik jakin..."*.

Azken batean, zibilizazio molde jakin baten gordailu izan da baserria, bere garaian artzaintza izan zenaren antzera edo gaur egun industria eta hiria diren bezalaxe, bere alde on eta txar guztiekin. Bizimolde berezia izan eta erakutsi du gure baserriak edo laborantzak hainbat mendetan zehar. Ez daiteke jada esan orain horrelakorik, zeren eta baserriaren lehengo moldeak desagerturik baitaude hein handi batean. Baserriak orain bizileku bilakatu dira gehienak eta bizirik dirautenak baratzea, esnea, haragia... dute ekoizpen nagusi bakarra edota sagardotegi nahiz jatetxe bilakaturik ageri zaizkigu.

Hari honi jarraiki, esan gabe doa hein handi batean autosufiziente izan dela gure baserria lehengo denboretan. Baserriak etxea zuen berekin familiaren bizileku izateko; ukuilua ganaduak edukitzeko edota artegia mendi etxea bazen; baratze koxkor bat lore batzuekin etxe ondoan, gutxienez etxerako barazkiak izateko, edota handiago bat, arrautzak eta esnearekin kalera eramanez "olioa eta xaboia" bederen etxera ekarri ahal izateko; soroak artoa eta babarruna, patata... ereiteko; belardi eta larreak ganaduen jatekoa, berdea nahiz ondua, garraiatuko baziren; eta azkenik, mendiko sailak eta basoa iratzea edo inaurkina ganaduen azpigarritzat biltzeko eta su egurra etxeratzeko. Horra baserria zertan izan den gurean.

Guk geuk, baserrien historia gurean egiteko mandatua eman zaigunean, aipaturiko bizimolde berezi hori gogoan harturik jo dugu bat banaka baserri bakoitzaren berri jakitera. Eta esan behar da arestian aipatu baserri molde hori eta guk geuk aurkitu dugun baserria ez direla berdinak. Ia baserri gehienetan ohartu gara gertaera honetaz; izan ere, tarte horretan sekulako aldaketa jasan eta ezagutu baitu urte gutxitan gure baserriak. Dena den, bi zeregin nagusi burutu ditugu ororen gainetik: *ikusi* eta *entzun*. Beraz, eskuetan duzun liburu hau ikusi eta entzun dugunaren arabera moldaturik dago.

Lehenengo eta behin ikusi, argazkigile ere geu izan garelako, eta hala ehunka argazki eginez, baserri zahar eta berriei buruz, berauen elementu apaingarri eta osagaiak aintzat hartuz, eta berebat, desagerturiko baserri hondakinen agerpenak bilduz edota familiak gordetzen dituen baserri izandakoaren argazki zaharrak eskuratuz, egin ahal izan den bilduma duzu.

Alabaina, lehen eginkizunean, argazkigintzan, zer nolabait esateko protagonista geu izan bagara ere, bigarrenean entzule soilak baino askoz gehiago ez gara izan. Argi eta garbi esan behar da, baserri bakoitzean *solaskide* izan dugun aitona, amona edo pertsona heldu horietako bakoitza gertatzen dela protagonista. Horiek dira, zalantza izpirik gabe, eta ez gu, bakoitza bere baserriko historiaren lekuko eta aldi berean narratzaile berebat.

Hitzaurrea

Gu geu, esan gabe doa, halako edo holako baserri baten atarira heltzean, lehenengo agurraren ondotik, ea etxeko zaharrena edo adinekoena zein den galdeginez aurkeztu gara beti. Bidenabar, betidanik adiskiderik hartuenak bagina bezalakoxe harrera izan dugula esan beharrean gaude. Are gehiago, kasu asko eta askotan solaserako gai eta denbora duen jende txeratsua aurkitu dugu eta maiz izan dugu elkar agurtzerakoan honelako esaldiren bat: "Bai al zoaz?" "Joan egin behar al dezu?" "Banuan ba gauza gehiagorik ere esateko!". Eta gehienetan hau izan da, miresmenik handienez baina, geure erantzuna: "Beste batean etorriko naiz lasaiago. Agur"

Eta etxerakoan geure buruarekiko zenbait alditan: "Ai aiton-amona eta adineko jende bedeinkatua! Zenbat buruhauste eta sufrikarioren jabe izan zareten pentsatzeak ere badu lanik asko! Bizitzak zer nola zafratu zaituzten ikusita gero, horrelako barne giroa eta aldartea gordetzeak ez du gutxi-gutxi balio!"

Halaxe da izan ere. Urte luze eta neketsuak, aldapa patar gogor bat igo ondoan bezala eta mendi gainetik bizitzari so ari balira bezala ikusi dugu jende hau. Ez dute ikasketa handirik gehienek, ez baitzen garai batean orain bezala eskola aukerarik. Baina bizitzako karrera egin duen jendea dugu, nortasun aberatsekoa nolanahi ere. Bizitzak, ez liburuek, eman dien filosofia eta pentsamoldea daukate berekin, zernahi puntu edo gai ukitzen duzularik ere.

Funtsean gure baserrien historia egin dugulakoan gelditu gara. Ez dugu gaia inola ere agortu. Ez gara asmo horretan ibili ere. Ezinezko izango zen, gainera, neurri batean, hantustekeria hutsa, horra. Zeregin hau gomendatu zitzaigunean, eskema koxkor bat proposatu genuen: Baserriaren izena eta berau finkatzea, familia eta beronen gora beherak, baserriko bizi baldintzak, gertaerak, jolasak... horrek berekin dakarren muga estuetara biltzeko arriskuarekin. Ez zen posible bestela, arrunt luze joko zuen eta, liburu bakar batean entzun dugun oro sartu ahal izatea. Bestetik, jende helduak oso gauza pertsonalak, konfidentzialak, kontatzen ditu maiz. Familiartean izandako tirabirak, esaterako, edota are pertsonalagoak direnak. Begirunerik handienez entzun, horixe, entzun, eta kito. Gutxi balio al du egungo egunean entzute soilak berak?

Lehenari jarraituz, ez dago baserrien historia hau ahozko historia dela azpimarratu beharrik. Ez da agiri eta dokumentuetan finkatzen den historia, historiaren beraren egile direnen, esparru honetan jakina, eta beraren lekuko direnek kontatua den historia da, hain zuzen. Horregatik da ahozko historia baina ez besteak baino gutxiagoko balioa duena ere. Bizitzako urteek, hasi haurtzarotik, jarrai gazte denbora eta heldu edo adineko izatera iristeak badu, besteak beste, berezitasun bat, haurtzaroko eta gaztetako gorabeherak, bizitzari itsatsita daudenez, inoiz baino hobekiago eta gardenago oroimenean gorde eta azalera emateko gaitasuna duela adineko jendeak. Urrunerako bistarekin gertatzen den zerbait bezala, agidanez.

Hortan da dena. Baina amaitu aurretik. Ez da hasi eta buka, eleberri bat bailitzan irakurtzeko liburua, zeuk ikusiko duzunez. Funtsean, baserri bakoitzak dauka bere historia. Horregatik, zuk zeureari dagokiona irakurriko duzu zalantza apurrik gabe eta... besteren bat edo besteren berri ikusi edo ikasi nahiko duzu halaber, edota baserri multzo baten berri agian, han-hemenka "mokoka" bezala jokatuz, jakin minak ziztatzen zaituenaren arabera. Ororen buru, gure baserria izango duzu gogoan, edo gure aiton-amonen baserria, edota "gure baserriak" ikuspegi zabalago baten baitan.

Fernandorena Setien, Hiazinto.
Iartza Martiarena, Maria Jesus.

Auzoak

Antziola

Elizatxo

Florida

Karabele

Latsunbe-Karobieta

Portu

Sorgintxulo

Zikuñaga

AUZOAREN HISTORIA LABURRA

Antziola nondik heldu den aztertzen hasita hona zer dioten jakitunek.- *Aintzi* (BN-bain, aguazal, cenagal) *–ola* tokizko paratzizkia. Hemengo Antziola kasuan *i* bokaleak ez du zalantzazko tarterik ematen, *cenagal* delakoa nabaria izaki. *Aintzi*-ren ildotik heldu da, esaterako *Aintzimendi* Donapaleu-n (Behe-Nafarroa) Luis Mari Mujika "Euskal Toponimiazko Materialeak" (81. or.).

Auzo hau lehen zer zen ikusten hasita, Antziola biak (Antziola eta Antziola Txiki) eta lurralde bat handia edo koxkorragoa, baina ez zen besterik. Ez diot ongi, Antziolako aldapa izeneko errepidea ere bazen zerbait eta, erdaraz **"Cuesta de la Muerte"** deitzerainoko aldapa gaizto bihurria hala fede! Orain, lurraldez gehitu ez den arren, biztanlez asko gehitu da aspaldi honetan Antziola auzoa, lehengoek berriz jaiota etorriko balira, ezagutu ere ahal ez izateko moduan, agian.

BASERRIAK

- Antziola (Desagertua)
- Antziola Txiki (Desagertua)
- Arizmendi
- Balantxa
- Buskando
- Etxerreaga
- Iturmendi
- Larrabide

SOLASKIDEAK

- Arruti Erdozio, Mari Karmen (Antziola Txiki)
- Jauregi Zabala, Asentsio (Buskando)
- Kortadi Ormaetxea, Joxe (Etxerreaga)
- Oiartzabal Villaborrain, Karmen eta Joanito (Iturmendi)
- Urretabizkaia, Zezili (Balantxa)
- Urulain Galatas, Mertxe (Larrabide)
- Zaldua Iturralde, Maria (Arizmendi)

Antziola



Antziola zaharra auzoari izena eman ziona.





Hernanitik Donostiara zihoan errege-bidearen ondoan, ezkerraldera, Montes fabrikaren aldamenean. Ez zuen auzoan oraingo etxe pilaketarik. Aipatzen hasita, Artonea, Galletera (Villa Agirre, gaileta fabrika, hortik izena), Imaz-enea, Kurtido fabrika, Pablo Schroeder fabrika eta beste etxe-lehorren bat edo beste.

Bi isuriko etxe errektangeluar oso luzea, sarrera bide aldera, hau da, hegoaldera duela. Sukaldea halako eraikin atxiki baten modukoa, atzera eta behean ukuilua eta goian logelak zituela.

Joxe Arruti bertako semea, Emilia Erdozio Hernaniko **Añoa** baserriko alabarekin ezkondu eta jarri zen bizitzen. Semea eta alaba izan zituzten, Andres eta Mari Karmen. Semea ezkondutakoan etxearen beheko oina egokitu zuten beretzat. Aita artean sasoiko zela hila, 54 urterekin, ama-alabak bizitu ziren urte askotan. Alaba ezkondutakoan bertan jarri zen bizitzen, eta hantxe jarraitu harik eta ama hil (94 urterekin) eta etxea saldu zuten arte. Bertan eraiki nahi zuten eurentzako etxebizitza baina ez zioten horretarako baimenik eman. Halarik ere, ez daukate auzoa hala-hala uztekotan, eta gaur egun jaiotetxetik gertu bizi dira.

Ama-alabak aritu ziren urte askotan lanean, baserrian, behi bat edo bi, beste zekorren bat, eta baratzea batez ere. Auzoko baten laguntza



izaten zuten, baina ama aritzen zela bai segan, bai behiak jezten esan dit Mari Karmen alabak. Antziola baserria izaki auzoari izena ematen ziona eta horregatik edo, etxean hamaika eskutitz jasotzen zituztela dio, hurrengo egunean tranbian edo autobusean, plazan edo bidean auzokideen artean banatzekoak. Gogoan ditu bai, tomate, patata, kalabazin eta antzekoen garaian tranbiaren geltokira egindako joan-etorriak ere. Etxean astorik ez, eta ama-alabak barazkiak edo dena delakoak saskietan hartu eta xestera betetzera joaten zirenekoak.

Egunero Donostiara esnea saltzera, baita Eguberri, Aste Nagusi nahiz San Sebastianetan ere, "alfonbraren azpian uzten ziguten giltza; atea ireki, sukaldean esnea utzi, txerrijana hartu eta buelta etxera, eurak lo zeuden bitartean".

Arizmendi



Aski ezaguna zaigu euskal deitura eta etxe izenetan **Arizmendi** izena, *haritza* eta *mendia* hitzez osatua dagoena. Kasu honetan, Hernani herriaren iparraldera aurkitzen da **Arizmendi** baserria. Antziola auzoko mendi muinoan, haritz ondoan, izenak dioen bezalaxe, Iturmendi eta Buskando baserrietatik gorago, Ergobia eta Astigarraga eta Donostiako parajeei begira eta denekin ere muga eginez.

Etxe errektangeluarra da, teilatua bitan, eki-hegoaldera begira, aurrean lizar handi bat eta atzean haritza dituela. Behean ukuiluak eta eskaileratxo batzuk eta balkoia etxebizitzarako sarreran, batak hegoaldera eta besteak mendebaldera. Goian ganbara. Aterpea etxe inguruan lanabesak eta baserriko gainerakoak jasotzeko.

Maria Zaldua Iturralde dut solaskide, eta esan didanez, aita, Joxe Antonio Zaldua, Astigarragako Urtsula Iturralde, **Larrabide** baserriko alabarekin ezkondu zen eta lau seme izan: Maria, Joxe Mari, Manoli eta beste bat txikitan hila. Maria, nire berriemailea, Urnietako **Legarralde** baserriko Joan Joxe Arrietarekin ezkondu eta etxebizitza batean jarri zen bizitzen, ordurako bitan banatua baitzuten anaia eta biak etxe banatan bizitzearren, eta bost alaba izan, neskak denak: Miren, Manoli, Maria Jesus, Itziar eta Lurdes.

Mariaren senarrak kanpoan egiten zuen lan eta duela 30 urte inguru baserria utzi eta Antziola auzora etorri ziren bizitzera, jaiotetxetik oso urruti ez nolanahi ere.

Anaiak, aldiz, Astigarragako **Santiomendi** baserriko Maria Iturralde hartu zuen emaztetzat eta lau haur izan: Mikaela, Joxe Mari, Isidro eta Enkarni. Alabaina, gaztetxo zirela gelditu ziren haur hauek aitarik gabe, zaharrenak dozena bat urte baino ez zituen izango aita galdu zutenean, eta handik urte batera berriz, ebakuntza baten ondorioz edo, ama galdu zuten, eta hantxe gelditu ziren ia gauetik-goizera ez aitarik eta ez amarik gabe. Gauzak horrela, Astigarragako amaren ahizpak seme-alabarik ez eta, haiek hartu zituzten hasieran behintzat.

Joxe Mari, solaskidearen anaia, kanpoan hasi zen lanean eta baserria saldu egin zuen. Bera hildakoan, Martutenera joan zen familia, urte askotan elkarrekin gozatzeko aukerarik izan ez bazuten ere.

Egun, Arizmendi baserria Astigarragako Adurizen esku dago, etxebizitza batean sagardotegia eta bestean behiak larrean dituztela.

Baserriko bizimodua gogorra dela irizten dio Mariak, 9-10 behi, zekor bat edo beste eta idi-parea izaten zutela esan digu; hori bai, lurrak oso erosoak, denak etxe inguruan. Gaztaroa, ordea, ez du beti gozo-gozoa izandakoaren oroimenik; izan ere, eskola Hernaniko mojetara etortzen ziren eta bazkaltzera etxera, Arizmendiko puntara. Koxkortutakoan, berriz, Latxera joaten ziren garo bila, goizean goiz aterata. Igandetan zeresanik ez, askotan Hirubidera dantzara eta hangoa ikusitakoan Oianumera eta handik etxera, "... eta berandu etorriz gero, ez zen giro izaten...! oraingoak baino zorrotzagoak ziren orduko gurasoak, baina ez nahiz damutzen jasotako heziketaz!" aitortu digu.

Balantxa



Nahiko bitxia izena. Hala ere, bi kasu badira Hernaniko baserrien zerrendan, Karabelen bata, Antziolan bestea, elkarrekin zer ikusia dutenak. Ez dakite ziur izena nondik datorkion baina etxeak hiru eustorma edo matxoi ditu eta, antza, balantza egiten zuelako jarriak eta hortik ote datorkion ere esaten omen zuten aurrekoek.

Tranbia bideak Antziola auzoa zeharkatzen zuen bidegurutzetik iparraldera, berrehun metro ingurura kokaturik dago **Balantxa** baserria, zuhaitzez inguraturiko txoko batean, Arizmendi aldetik datorren erreka koxkor bat ezkutatzen den aldamenean. Etxetik berrogeita hamar metrora Buskando baserriaren atzealdea ikus daiteke ekialdera begiratuz gero, eta Larrabideren aurrealdea ipar-mendebaldera.

Fatxada nagusia hegoaldera begira duela eta sarrera iparraldetik. Hiru eustorma ditu etxeak eta aldapatxo batean egina dagoen arren, ez du mandiorik etxera sartzeko, aitzitik, lurraren arrasean eta halako teilatupe edo ipar-mendebaldeko hotz eta euritatik babesteko aterpe batetik du etxebizitzarako sarrera. Hegoaldera ematen duen beheko aldean dago ukuilua eta goian etxebizitza eta honen gainean ganbara.

Alboan, goiko sarrera ondoan estalpe bat eta behean etxe-ordekoa, dolarea eta baserriko tresnak, uztak, belarrondoak etab. jasotzeko.

Esan behar baita, etxe ondoan *hilarri* dotore bat daukatela nondik eta nola hara etorria den ez badakite ere, baina, hori bai, ez daukate hola-hola galtzekotan. Inoiz Arantzadi elkartekoak joan dira ikustera, argazkiak atera eta oharrak jasotzera.

Orain ehun urte, 1903an, hain zuzen, etorri ziren Balantxara Joxepa Landa Odriozola eta Anizeto Ezeiza Olazabal senar-emazteak, azken honen guraso eta adimen urriko zen anaia Joxe Ramonekin. Bost seme-alaba denbora baino lehen jaio eta hil zitzaizkien. Hori horrela, bospasei urteko seme-ordekoa hartu zuten inklusatik, Alejandro, buruz oso jantzia ez zena. Ondoren, ordea, bi seme aurrera atera ahal izan zituzten, Andres eta Julian, baina Andresek 11 urte eta Julianek 8 zituela aita hil eta alargun gelditu zen Joxepa. Urte batzuk aurrerago, Aizarnazabalgo Joxe Lizarralde Amutxategirekin ezkondu zen. Andres, semeak, berriz, **Basozabal** baserriko Zezili Urretabizkaia hartu zuen emaztetzat, eta zazpi seme-alaben guraso izan ziren: Agustin, Manoli, Julian, Joxe Mari, Nekane, Karmele eta Mari Jose.

Duela gutxi Andres senarra hil eta egun, Zezili, alarguntsa, bizi da baserrian Agustin (sendagilea), Joxe Mari eta honen emazte, Mari Jose Uzkudun, errezildarra, eta bi alabekin, Ainhoa eta Janire.

Belaunetatik gaizki eta ibilbidea galduta, etxe aldean, babarruna aletzen eta antzeko lanetan aritzen dela esan digu.

Esnea, baratzea, sagarra etab. izan dira beti Balantxan. Ondo gogoan ditu Zezilik baratzeko patata, porru, babarrun, baba txiki, letxu, aza, sagar eta gainerakoak astoan hartu eta esne-marmitak lepo gainean uztarrian hartu eta nola joaten ziren goizean goiz tranbiaren geltokira, Antziolara, Donostiara saltzera joateko. Lurrak berriz, etxetik gora izaki, idiak izaten zituzten hango lanak egiteko. Sagastia inguruan eta dolarea etxean, bai berentzat baita auzokoentzat ere, eta oraindik etortzen zaizkie sagarra jotzera eta erostera ere, izanez gero.

Gazteak denak kanpoan lanean ari badira ere, badute baserriari eusteko grina eta hogei burutik gora dituzte etxe inguruan larrean, eguraldi txarra edo umea egin behar dutenean etxera biltzen dituztela.



Buskando



Ez dakite nondik datorkion izena, noizbait erre izan zela bai, horren berri badute. Antziolatik abiatu eta kilometro ingurura dago, mendi kaskoan, harkaitz gainean, Hernaniko herriari aurrez aurre begira. Arizmendi, Balantxa eta Larrabide baserrietako bide berbera erabiltzen du, guztiak ere bidegurutze beretik banatzen baitira.

Garai batean bi bizitzako etxea izan zen **Buskando**, behean ukuilua eta goian etxebizitza gehi ganbara dituela. Gaur egun, atzean, etxea bezain bateko etxe-ordekoa dauka ormigoiz egindako mandioarekin, eta aurrean ere badu beste oilategi edo antzeko lehorpe bat.

Albizturko Bixente Jauregi eta Leaburuko Manuela Zabala senar-emazteak etorri ziren **Buskando** baserrira. Antza denez, Albizturko baserri deseroso batean bizi ziren eta Bizentek esana izaki "nik hurrena ematen dudan pausua, urak bezala behera egingo det". Hala, Mutrikun bi arreba moja zituen eta haiek eman zioten Hernaniko baserria saltzeko zegoenaren berri. Ordurako bazituzten hiru seme-alaba, baina guztira bederatzi izatera iritsiko ziren: Dolox, Joxepa, Pedro, Joxe, Anttoni, Maria Enkarna, Asentsio (ezkonge), Joanita eta Migel Benardo (ezkonge). Amaren anaia Migel gerra ostean bala galdu batek jo eta odolustuta hildakoaren oroimenez jarri omen zioten haren izena Benardoren aurretik.

Bixentek ez zuen zorte handirik izan, artean sasoiko zela hanka txikitu omen zuen ezbehar batean, eta erietxean luzaro egon arren ez zitzaion inoiz bere onera etorri, okerrera baizik. Eta horrengatik ez bazen ere, seme gazteenak urte pare bat zituela etorri zitzaion heriotza; gerra ondoren fiskalekoek egiten zituzten miaketak zirela eta, bere burua estutu eta handik aurrera ez zuen, agidanez, onik izan.

Geroztik, batzuk ezkondu eta beste batzuk hil, anaia Benardo esaterako, gazteena, traktorearekin lanean ari zela duela gutxi hila; egun Asentsio bakarrik bizi da bertan.

Gaur egun ia inon ikusten ez den esne-marmita ikusi dut lehortzen. Garai batean ohikoa zena, harrigarria bilakatu da egun. Bestelakoan, Buskandon ere baserriaren bere-bereak direnak landu izan dituzte, bai ukuiluan bai sagasti eta baratzean. Baserri egokia eta lurrik gehienak etxe inguruan dituela, martxa handia hartu zuen Asentsiok sasoia zuenean. Berak diseinatu zuen, esaterako, etxe-ordeko berria, behi eta zekor gehiago jarri eta lana erosoago egin ahal izateko.

Manuela, ama, joaten zen Antziolan tranbia hartu eta Donostiara esnea eta gainerakoak saltzera. Lanerako sasoia eta gogoa zuela esan dit nire solaskideak, eta jendearen berriketa guztien gainetik lana egitea zuela helburu aitortu dit. "Baita orain ere, sasoia izanez gero, baina belaunek ez didate erantzuten, eta gauzak horrela ukuilua hustu eta lanak geroz eta gehiago arindu beharra daukat. Gauza badago baina ez naiz gauza lan egiteko. Hara hor mizpirak ere hondatzen, baina nik ezin ditut bildu eta gustuko baldin badituzu, zerorrek hartu beharko dituzu..." esanez egin dit gonbita.



Lope Isastik Hernaniko *jauretxeen* zerrendan ipintzen du (1625) gure **Etxerreaga** hau. Erretako etxea ote zen edo, entzuna dute etxekoek. *Etxe, -erre, -aga* (ugaritasun eta tokizko atzizkia. Ildo beretik Otarreaga/Olarreaga) Luis Mari Mujikaren "Euskal Toponimiazko Materialeak" (101. or).

Hernanitik Galarreta eta Donostiara daraman bidearen eskuin aldean, Gorpu-bidearen erdi parean, mendixkaren muinoan, Hernaniri so aurkitzen zaigu **Etxerreaga** baserria.

Bi isuriko hiru etxebizitza direla dirudite, bata besteari atxikita, eta are, etxe-ordeko bat atzean eta bestea saihetsean. Halaber, oraindik orain egindako ukuilu berri bat du etxetik zertxobait aparte. Horrela taiuturiko baserri honek, edonondik begiratuta ere, auzo koxkor bat iduri. Sarrera eguteratik du, Hernanira ematen duen fatxada nagusitik. Behean sukaldea eta ukuilua, goian komuna, gelak, eta sala, baita belar ondua nahiz lastoa jasotzeko lekua ere; "eta goien txigoia" esan dit aurrean dudan Joxe solaskideak. Hitzak ez du inolako zailtasuni txit goien dagoen zerbait, alegia, baina inongo baserritan ez dudala entzun horrelakorik aitortu behar dut.

Martxial Kortadi, nire solaskidearen aitona eta beste bi anaia (hiru) joan ziren Ameriketara eta han lana aurkitutakoan bakoitza bere aldera joan eta harrezkero ez zuten elkarren berri gehiago izan. Frantziskok, aldiz, familiari idazten omen noizean behin. Etxea saltzera atera zenean berari idatzi zioten horren berri emanez, eta haren erantzuna

"zerbait egiten ahaleginduko zela"; halatan, gutuna iritsi orduko bera ere atzetik berehala etorri eta baserria erosi zuen. Alabaina, bera ez zela lanean ariko, ezta etxekoei errentarik jarriko ere, ordainetan ohea eta mantenua eman baizik. Hala egin ere!

Etxerreagan, ordea, bi bizitza izaki eta biak txiki. Halatan, beste bizitzakoa, *"Txoarria"*, prest azaldu omen etxetik ateratzeko baldin eta lantoki bat bilatuz gero, eta Almidoi fabrikan bilatu ere.

Adinean aurrera zihoala eta, etxea ilobaren izenean jarri zuen, bere senideren bat oso gustura ez bazen ere, baina haren erantzuna "ni urte askotarako ez niok eta hi ere ez; beraz, gaztearen izenean jarriko diat". Esan eta egin, Erramun Kortadiren izenean jarri zuen Etxerreaga. Bost senide ziren hauek: Erramun, Maria, Joxe (ezkongea, 38 urterekin hila), Timoteo (ezkonge), Iñaxi (ezkonge). Hau **Ekogor** baserriko alabarekin, Asun Ormaetxea (Asentsi deitzen zioten), ezkondu eta bost seme-alaba izan: Paskuala, Martxial, Mikaela (11 urterekin hila), Joxe, Asentsio. Joxe gelditu zen azkenerako baserrian, Zaldibiko Natibidad Etxabe Iztueta, **Urtsu Haundi** baserriko alaba emaztetzat hartu eta sei seme-alaba izan: Asun, Mertxe, Milagros, Ana, Joxe Ramon eta Isabel. Alabaina, emaztearen osasun-arazoak medio, aukera izandakoan baserria utzi eta 1975.ean kale aldera atera ziren, ama alargunarekin batera.

Behi eta zekor, arto eta babarrun, sagasti eta baratze, denetarik egiten zuten baserrian. Erramunek bederatzi urterekin komunio handia egin eta bere aitak idi parea erosi eta berekin hartu zuen garraioan. Aieteko bidean sagardotegia nonhai eta haien parera iritsitakoan ez omen zuten idiei "O" esan beharrik izaten. Haiek gelditu, aita sagardotegira eta mutikoa kanpoan haiek zaintzen.

Horrela arituak ziren aurrekoak, baina Erramunen semeak, artean gazteak zirela, kamioia hartu eta garraioan hasi ziren, baita Joxe ere. Ezkontzeko asmoa gurasoei azaldutakoan, ordea, hango indarrak murrizten hasiak zirela eta, etxera ezkontzeko eskatu zion bere aitak, eta orain penaz gogoratzen badu ere, kamioia utzi eta baserrian hasi zen lanean, "etxeko guztiek baino nik bakarrik gehiago ateratzen nuan kamioiarekin. Gainera, gaur, orain ez bezalako erretiroa izango nuan, baina orduan... gehiago pentsatu gabe...". Halere, baserri ona eta leku onean kokatua, ez zen oso neketsua lan egiteko. Ura ere aspaldi jarri zuten (1930. inguruan) **Balantxako** menditik, urtean 10 pezeta pagatzearen alde.

Orain, Errezilgo Joxe Mari Uzkudunek dauka errentan hartuta, eta apusturako idiak, zaldiak, ahariak, etab. ikus daiteke larrean.





Iturritxulo" deitu iturria omen etxe ondoan, oso iturri berezia eta polita gainera. Iduri du eta uste hori dute bertakoek hortik datorkiola etxeari izena. Gainera, harkaitz gainean eraikia dago, kasko-kaskoan, argitasun gehiagoren beharrik ez dago. Bi lizar handi, eukalitu eta beste inguraturik txukun eta tente daukagu **Iturmendi** baserria.

Bi isuriko etxe luzexka, Hernanira begira, harkaitz gainean, eta eskuineko hormari atxikita etxe-ordekoa. Etxeak behean sukaldea eta ukuilua eta goian komuna, logelak eta "beheko ganbara", eta hirugarren oinean "goiko ganbara". Mandiorik ez eta, apika, horregatik deituko ziotela beheko ganbara esan digute anai-arrebek. Etxe-ordekoan dolarea, kanpoaldetik eskailerak dituela eta metro gutxira oilategia.

Oraingo etxe honetan Mikaela Arruti amona ezagutu zuten aurrean ditudan Karmen (82) eta Joanito (79) Oiartzabal anai-arrebek. Honen lehenengo senarra Frantzisko zelakoan daude, eta Benita, Manuel, eta Maria seme-alabak. Karlisten gerrakoan Hernaniko udaletxe azpian bolborina nonbait eta Santiomenditik jaurtiki tiro baten ondorioz lehertu eta bera pare-parean harrapatu eta hila. Mikaela bigarren aldiz ezkondu eta Manuel gelditu zen etxerako, Adunako Maria Villaborrain, Fraisorotik jasotako herri-haurrarekin ezkondu eta Pilar, Patxi

(ezkonge), Benito, Inazio, Karmen eta Joanito (ezkonge) izan zituzten. Karmenek Ereñotzuko **Urmendi** baserriko Angel Agirre senartzat hartu, Portu auzoan bizitzen jarri, eta hiru seme-alaba izan zituzten: Patxi, Manoli eta Joxe Benito. Alabaina, amari urteak pilatzen eta indarrak urritzen zihoazkiola eta, baserrira itzuli ziren esku bat eranstera. Angel, senarra, Loiolako hipikako harrobian lanean ari zela harri batek harrapatu eta hil zen 1960. urtean. Patxi, berriz, beti baserrian aritu zen eta Joanitok kanpoan, azkenean taxista Hernanin.

Urteak aurrera, batzuk hil eta besteak ezkondu, Joxe Benito gaztea gelditu zen Iturmendin ama Karmen eta osaba Joanitorekin. Honek, ordea, euskararen eta kulturaren bidea jorratzeari ekin zion, eta baserrian jarduteko indarrik ez zegoenez, kale aldera etorri ziren mende berria estreinatzearekin batera.

Oraingo baserria baino lehen beste bat zen Arizmendiko Montebideo deitu mendian, "etxe txiki-txikia eta inguru guztia haritzez josia", esan didate aipatu solaskideek. "Bai, gure aurrekoek esaten zutenez zuhaitza besterik ez omen tzan inguru guztian, eta oiloak goizean kanpora ateratakoan aztarrika hasten zianean, ukuilu guztia orbelez betetzen omen zuten, eta bertan nahikoa azpigai izaten".

Iturmendiko Joxe Benito gazteak badu ardura bereziarekin jasotzen duen gauza preziatua, hots, Iturmendiko errenten kontuliburua esango genukeena, eta honela dio lehen orrian: *"Gaur avenduaren ogueigarren egunian, milla ta zortzieun ta larogueitabigarren urtian, Micaela Arrutic, Iturmendico Maizterrac, eman ero pagatudizkquit larogueita hamasei escutu lodi, ero milla bderatzi eunta oguei errial aurtengo errentaren partez, jaquiñarengañian errenta ortan sartuadala bi cupelaren errenta. Lenengo errenta guziyac pagatuac ditu,... Eta eguiyaren siñalian, pasata ustet emen azpiyan, nere izena ta nombria..."*. Hori horrela, Santo Tomas egunean joaten zirela errenta ordaintzera esan digu Karmenek, dirua eta kapoi parea besapean hartuta, eta bakailaoa eman ordainetan, ohitura zen legez, "azken aldera, ordea, bakailaoak gora egin zuen eta turroi pare bat ematen zizkigun".

Baserri ona, nolanahi ere, lur guztiak etxe inguruan, eta sekaina, txukuna baina harkaitz ondoko lur fina zenez, gauza ona ateratzen zen Iturmendin, eta besterik egingo ez bazuen ere, baserri ingurua txukun edukitzea gustatzen zitzaion Patxikuri.



Larrabide



Oriamendiren oinetan zokogune batean kokaturik dugu **Larrabide** baserria. *Larre* eta *bide* bi hitz hauen emaitza du izena eta hortik datorkiola esan behar zalantza-balantzan ibili gabe. Auzoari izena eman zion Antziola baserriaren ondotik hartzen zen Larrabide baserrirako bidea, herri bideari jarraituz, Balantxa, Buskando eta Berakorteko bidegurutzetik berrehun bat metro aurreraxeago, eta hantxe bukatzen da egun ere bidea.

Etxea, baserri gehienen egitura berekoa, behean sukaldea eta ukuilua, goian komuna eta logelak eta teilatupean ganbara. Beste etxeordeko bat, behean ukuilua eta goian belar ondua eta lastoa jasotzeko. Dolare koxkor bat ere badu etxeak atzeko hormaren ondoan.

Harroin antzeko bat ere ikusi dut etxe aurrean, metro inguruko altuera eta metroerdia alde bakoitzean duen hare-harri moduko bat. Landua, lau aldeak berdinak eta alde bakoitzean halako marrazki moduko bat duena. Goian, erdi-erdian 10x10 cm-ko zulotxoa, gurutze edo antzeko zerbait tinkatzeko edo. "Oriamendiko gain horretan ermitaren bat omen zen eta handik ekarritakoa zela esaten zuen hemengo aita zenak", dio Joxe Anjel suiak.

Honen harira, esan dezagun, Bidaurretako historian, Oriamendiko mugan ermita izanaren datuak azaltzen direla.

Familiari dagokionez, Roke Miranda eta Dolores Ugalde ziren Larrabideko senar-emazteak baina hauek seme-alabarik ez eta Hernaniko **Gorria-Ene** baserriko Joxe Antonio Urulain Otaño hartu zuten bertako semetzat. Garaia iritsitakoan, Xalba Galatas Landa, Añorgako **Etxeluze** baserriko alabarekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten: Joan Migel, Gregorio eta Mertxe. Bi mutilak kanpora ezkondu eta alaba gelditu zen aita-amekin etxean. Honek Oiartzungo Joxe Angel Tapia hartu zuen senartzat eta Larrabiden jarri bizitzen. Bi seme dituzte, Joseba eta Aitor, dagoeneko koxkortuak. Duela gutxi hilak dira gurasoak, ama lehenengo eta aita ondoren, urtebeteren buruan, eta biak egun berean.

Joxe Antonio baserrian aritu zen beti lanean, eta morroi baten laguntza izaten zuen askotan. Belarra ebakitzera etortzen ziren batez ere. Xalba, berriz, esnea, barazkiak, arrautzak eta baserrian atera zitekeen guztia hartu eta merkatura joaten zen Antziolan tranbia hartuta lehenengo, autobusez gero... Makina bat aldiz joana da emakume gajoa Estubegiko aldapan autobusetik jaitsi eta Illarreta eta Bidaurretan barrena Larrabidera buruan xestera edo bi besoetan saskiak hartuta.

Gurasoak hildakoan, ordea, Mertxek, baserrian aurrerabide handirik ikusten ez eta, Hernaniko denda batean egiten du lan barazkiak eta fruta saltzen, senarra eta seme zaharrena, berriz, igeltsero. Honenbestez, ardi batzuk eta behorrak dauzkate mendia eta bazterrak garbitzeko, behi batzuk ere jarri zituztela dio, baina ehiztariekin ezin dutela karrerarik atera, eurak pasatzeko alanbrea mozten dietelako.

Urari dagokionez, Larrabidek ez du bere bizitzan arazo handirik izan likido preziatu hori lortzeko, etxe ondoan bertan baitzuen.

AUZOAREN HISTORIA LABURRA

Hegal batean, eguzkiari so, daukagu Elizatxo auzoa. Etxez osatzen hasi zenean, ez hala ere kale edo karrikarik, zenbait eztabaida izan ondoan, eman zitzaion Elizatxo izena, Portaletik hasita Teilerigain eta Urnietarako bidean ezkerretik kokatzen den auzo honi. Ermita txukun eta jaiera isileko bat dauka oinarrian izen honek, Portu auzorako jaitsieran, edo hobe, gurutzetoki deitzen zen horietakoa. Hau goiko bidearen ertzean eskuinetik omen garai batean, Europarako errege bide nagusian hain zuzen, eta presaka bide horretatik zehar zihoan bidaiarien zerbitzua zuen, agidanez, parean pasatzean Aitaren bat, limosnatxo bat edo otoitz labur uzteko eginak baitziren gurutzetoki deitu ermitak.

BASERRIAK

- Pipirita

SOLASKIDEAK

- Goia, Josebe (Pipirita)



Josebe Goia (81 urte) bertako alaba dut solaskide. Honek dioenez, aita zena eta beste obraren bat egiten hasita harlandu eta harlauza dotore batzuk atera lurpetik, eta ondorioz, Pinpirin izeneko baserriaren aztarnak ote ziren susmoa izan zuten, agidanez. Hartatik, aita ezkondu eta bizitzen jarri zirenean **Pipirita** izena etxeari. Aurrez, txabola bat baizik ez omen zen; Lizeaga ahizpena, baserriko lanabes eta tresneria gordetzeko etxe ordeko bezala erabiltzen zutena. Aita hargina, eta hark antolatu zuen baserri bezala, ezkondu eta bertan bizitzen jarri ahal izateko.

Hilerritik hurbil, San Antonio paradorea izandako eraikinaren atzean, hegi edo bizkargune baten gainean, horixe behintzat *pinpirina* edo *pipirita* izena gaizki asmatua dagoenik ezin esan, hortxe kokaturik daukagu **Pipirita** baserria. Lursail onak, dena etxe inguruan. Hara, paradorea izandakoaren lurzoru horretan sagasti bikaina ezagutu omen zuen Josebek txikitan. "Etxea, itxuraz koxkorra dirudien arren, etzan aldrebesa. Behean sotoa eta ukuilua zituen eta lau gela eta sukaldea goian"

Gogoan du amona, Joxepa Iñaxi Urbieta. Gurasoak, Joxe Goia Urbieta, oiartzuarra aita, eta Marta Zubiri Narbarte ama, goizuetarra

Pipirita

hau. Seme-alabak: Joan, Felisa, Patxi, Kattalin, Kandido, Josebe, Miren eta Rita. Josebe, aita hilik, amarekin etxean. Ezkondu eta senarra Joxe Eguren Otegi, ordiziarra, eta Andoni, Amaia, Xabier eta Koldo.

Maizter ziren, eta Telleri Gain deitu etxean jarri ziren bizitzen. Makazaga familia egin zen baserriaren jabe.

Baserrian, behi pare bat, baratzea, oiloak, untxiak eta sagardoa izaten zuten. Sagardoa, bi klase: pitarra eta sagardo ona. Gerrakoan, sagastiak kendu eta soroak landu zituzten, arto eta babarruna ereinez.

Aita, ofizioz hargina, etxetik urrun, kanpoan lanean urte multzo batean ibilia zen, Bernardino Eleizaran kontratistaren menpeko ari izanik. Espainiako lurretan (Palentzia, Logroño, Eskorial...) hemengo beste hiru harginekin batera. "Ama, bere garaian, lan asko egina zan baserrian". Beharrik!

Josebe oroitzen da zapi zuria eskuetan etxe ondotik "mistoa" (trena) zihoanerako aita agurtzera nola irteten ziren. Gogoan ditu baita amaren malko lodiak ere. Urte asko kanpoan, ama eta familia hemen utzita, ibiltzeaz gogaiturik, beste erabaki bat hartzera eraman zuen egoera horrek aita. Joan eta Patxi bi semeekin beren kontura hasi ziren, aita hargintzan eta bi semeak igeltsero.

Gaiaren haritik at, beste gauza bat aipatu dit sumindura apur batez. Nola Telleri Gain parean, errepidez bestaldetik, orain autobusaren geltokia dagoen puntu horretan,



garai bateko labe koxkor bat, teilak egostekoa noski, bazela eta badela, baina hormatzar eta harri mokorren atzean ezkutaturik orain. Penagarria deritzo benetan, eta neroni ere halaxe gertatzen zaidala esan diot. Gera bedi puntu hau geroko historiarentzat lekuko besterik ez bada ere!

Ororen buru, honako hau ere gaineratuko dut. Hilerritik hurbil **Pipirita** baserria, gerra garaian Hernaniko hilerrian Frankok eraildako "hainbat" jenderen eta ekintza izugarri hartako lekuko bizia edo bizidun lekukoa, orduko neskato "kuxkuxera", dugula Josebe solaskidea. Beste batean, luza gabe, elkarrekin gai hau jorratzekotan utziz batak bestea agurtu dugu.

AUZOAREN HISTORIA LABURRA

Halako baserri edo txalet honen aurrean banana nahiz palmondo bat ikustean, edota Pana Parkeko ginkgo bilobaren aurrean, zuhaitz landare arrotzen ideia datorkigu berehalakoan burura. Ez dakit gauza bera gertatzen zaigun baina izen arrotz multzoa dugu Hernaniko herriaren toponimian. Hala, Bakero, Montefrio, Pokopan, etab. lehengoetara jo gabe, eta "Grupo Jose Antonio" (orain Sagastialde) eta horrelakoak garaiaren lekuko izanak aipatzeke ere, badugu beste zenbait Buenos Aires, Montebideo, La Cumbre, La Patagonia... guztiok amerikar airea dutenak, iragan mendearen lehenetan itsasoz ekarriak gehienak.

Gauza bitxiak gertatzen dira arlo honetan. Jende heldu edo adinekoari galdegin, esaterako, Montebideo deitu Sagastia baserriko hegal horren izenaz, eta beti izen horretaz deitu izan delako erantzuna jaso behar. Harrigarria!! Baina, bestetik, ziur nago Montevideo hiria sortu edo eraiki eta handik hona izen hau garraiatu aurretik beste izenen bat, euskaraz, jakina, bazuela honek hernaniarren ahotan.


Eta halaber gauza bera esan beharko genuke auzo osoa hartu eta hedatu den Florida hitz edo izenari buruz ere. Esan gabe doa, Zestoatik Ameriketara joan eta han egindako sos batzuekin Hernanira etorri Illarramendi amerikano etxegileari zor zaiola izen sorta baten sorrera gurean. Gizon adoretsua, "osasuna, pakea eta lana eskatzen zion, agidanez, gure Jainkoari. Osasuna, pakea eta lana eta hortik dator dana", askotan esaten omen zuen.

BASERRIAK

- Karapote (Desagertua)
- Karapote Berri
- Etxeberri (Desagertua)
- Sagastia
- Sagasti Berri

SOLASKIDEAK

- Artola, Jesus (Sagastia)
- Arrieta, Pepi (Karapote)
- Garmendia, Esteban (Sagasti Berri)
- Gorostegi, Inazio eta Jose Luis (Etxeberri)
- Iraola, Maria (Karapote)



Izenaren berri galdeginik, hamaika iseka eta irri jasan dutela lagunartean diote, baina ez dute nondik norakoa den susmo izpirik. "Carapote" izenez azaltzen da Nomenclator zerrendan (1870). "Kapote" horrelaxe soilik dela ere baieztatu didate. Dena den, izengoiti edo izen despektibo baten aireak ditu itxura batean eta erdal eitea gainera, baina ez dirudi horrelakorik. Makur handiegia litzateke hor erortzea. Eta arrazoia, ene ustetan, hauxe da, oso aspaldidanik hiru bizitzako etxea izan zela beti, eta guztiz zaila dela ez-izen bat hiru bizitzari batera itsastea. Izen konposatua dela begi bistan den gauza da: Kara-pote. Azken hau zer den ez dut hain aise ikusten, baina lehenak esango nuke *kara* (kare, konposatzean kara) edo txara (sastraka edo zuhaixkaz osatutako basoa) duela esanahia. Dagoen dagoenean uzten dugu, hala ere, norbaitek areago azter dezan.

Hiru bizitzako etxea zen, hirurak baserri gutxi edo gehiago, hirurak ekialdetik (trenbide aldera) sarrera nagusia eta hirurak teilatupe berean babesa. Hona hiru familiak zeintzuk ziren:

- Arrieta familia hegoaldetik.
- Iraola familia erdian.
- Arzallustarrak estazio aldetik

Etxe errektangeluar eta luzexka zen **Karapote** baserria Florida auzoan "Papelera del Norte" eta Adreilu fabrikek tartean hartu eta betiko jan zuten arte.

ARRIETA familia

Sarrerako atea ate kankar handia zela bere leihatila eta maratila mokorrarekin dio nire solaskide Pepi etxeko alaba zaharrenak. Sartuta eskuinera ukuilua, gibelean barrikategia (etxerako sagardoa eta pitarrarentzat) eta ezkerrera sukaldea, gela ilun bat honek alboan, gazi kutxa eta tresnak hemen. Sukaldean beheko sua eta labetxoa egur ikatzez. Mahaia oso apala oraingo sukaldeetako mahaien aldean, baina erretilu

edo platera beretik jateko egokiagoa inolako duda-mudarik gabe. Gorako eskailerak eta goian etxebizitza eta mandiotik ganbarara igoera.

Gurasoak, Bixente Arrieta Arrieta, bertako semea, aita, eta Maria Arzallus Arbiza ama, Karapote beste bizitzako alaba. Seme-alabak: Joxe (4 urte zituela garrotikoarekin hila), Inaxio, Pako, Pepi, Karmen (txikitan hila), Agustina, Joanito, Joani eta Kontxi. Azkenean, Pako, Agustina eta Kontxi amarekin, harik eta industria berriaren ufadak, beste asko bezalaxe, aurrean hartuta eraman zuen arte, orain izena baizik gelditzen ez zaion Karapote baserria.

Bost behi izaten zituzten. Esnea etxetik saltzen zuten. Uztarrian ere behiak. Etxerako artoa (taloa) eta babarruna eta patata, zerri bat edo beste urtean eta zekorren bat (kontrabandoan hau gerrako urteetan) zezina egiteko. "Familia handia mahaiaren inguru eta jatun onak ginan" dio nire solaskideak. Beharrik, aita itzain ibili ohi zen, Mendia papeleratik estaziora papera eta estaziotik fabrikara egurra eta pastaren garraio lanetan.

Egunaren bukaeran aita Benta Berriko tabernan basoerdiren bat hartu eta lagunartean gelditzen bazen, "zoazte orain etxera" behiei esatea aski zuen, bide bazterretik han joango ziren hauek, eta asko erratu gabe joan ere, etxera. Ongi ikasia zuten etxerako bidea. Amak arduratu behar orduan, behiak uztarritik askatu, hauek jetzi eta gobernatu eta afaria prestatzeaz. "Eraman handiko emakumea zan benetan. Zerurik baldin bada, gure ama oso goian egongo ez dan zalantza apurrik ez det" dio Pepi alaba zaharrenak. Beste jarrera on bat ere bazuen ama honek, irekitasuna. Etxean ezer ez, esaterako, eta zeukanetik beti zertxobait emateko prest. Etxeko atea irekia, eskaleren batek ere lo lekua han izango zuen etxe ordekoan. Besteak beste, Pepi berak eredu eta miresgarri izan du beti ama momenturik zailenetan ere.

Edonon bezalaxe, semeak zertxobait irabazira eta alaba zaharrena laguntzen hastea arnas berria gertatu zitzaion amari. Harrezkero, sukaldeko eta etxeko lanak egiteko, eta arropa garbitzeko bereziki, beso berri bat izan zuen amak alaba hau.

Halako kozkorreriaren arropa garbitzeko nola moldatzen zen galdegin diodanean, ona zein izan den Pepiren erantzuna.

"Al zan bezela. Xaboirik ere izaten al gendun, orduan? Sukaldean arraska sastarra gendun, baina etxe aurrean aska bat egokia arropa garbitzeko, bai, bazan. Igandetan, oheak egiterakoan, goiko maindirea behera pasa eta behekoa bakarrik garbituz eta horrela ibiltzen ginan, zer uste dezu".

IRAOLA Familia

Oroitzen da aitonaz Maria Iraola (70 urte) nire solaskidea. Martxiel Iraola zen aitona, **Bortolua-Ene** baserriko semea eta gurasoak, Euxebio Iraola Rekondo etxeko semea aita. Ama, berriz, Klara Iraola Ezeizabarrena, **Bortolua-Ene**ko alaba. Lehengusu ezkontza egin zuten. Hona seme-alabak: Iñaxio, Maria, Joxe (txikitan pulmoni doblearekin hila), Joan eta Martina (bi urte zituela garrotilloak eramana).



Hauetarik Maria etxean gurasoekin. Ezkondu eta senarra Joakin Arregi Arizaga, **Ikutza** (Andoain) baserriko semea. Seme-alaba hauek izan zituzten: Loli, Klara, Begoña (jaiota berehala hila), Joan Bta. eta Joana Mari.

Karapote zaharra desegitean, **Kapote Berri** (1957) izeneko, Mariak "kale baserria" dio, etxe berrira pasatu ziren, artean Euxebio eta Klara aiton-amonak bizi zirela. Lehengo baserritik aski hurbil zuten berria, baina mira ederra izan omen zuten hauek delako kale-baserrian ohitzeko.

Aitona baserriari loturik bizi izan zen. Makurrena zera zuten, lursailak Akerregi aldean zituela Karapotek. Oinezkoak ibaia zeharkatuz honek ur gutxi bazeraman. Behiak edo aberearekin Balantxan barna.

Aita Euxebiok, ordea, itzain lana izan zuen batik bat, trenaren geltokitik herrirako garraio-lana. Karga handia baldin bazen garraiatu beharra, idiekin eta galeran. Bestela, zaldia eta karroaz. Zer garraio mota izaten zuen? "Ardoa eta olioa Rezolaren (Ate Txikitan) almazenera; pentsua Zozoa-Enera (K. Nagusia). Puntakoak behar askotan Zinko-eneko aldapa igotzeko. Eta fabrika desberdinetara (Zelulosa, Prodesa, Talleres Hernani, Kurtidoa...)".

"Ama oso artetsua zan eta behar ere. Behiak jezten eta gobernatzen, soro-lanean, gazta edo ogia egiten, oiloetan (arrautzak karetan negurako), kontserba gauzak... Eskerrak bestetik osabaren laguntzari, laneko orduz kanpo babes handia zen hau. Ama zena bolada batean gaizki ibilia zan, tentsio altua zuela eta. Gogoratzen naiz, odolik ezin atera, eta lepoan eta sorbaldan izainak ipintzen zizkiola medikuak".

Maria ezkondutakoan, Joakin senarrak bultzada ona sartu zuen berekin etxera, bere lehengo lanean, okintzan edo ogia egiten, jarraitu zuen arren. Baina Joan soldadutzara joatean, osoki baserri lanera jo behar izan zuen honek. Kamioiak hasitakoan idiak kendu eta sei behi eta aberearekin gelditu ziren.

Orain Joakin eta Maria senar-emazteak eta osaba Joan daude Kapote Berri etxean. "Lau zekor eta baratza puska bat dauzkagu, dio Mariak. Gauza geran bitartean...".

ARZALLUS Familia

Maria, bertako alaba, aldameneko Arrieta familiara ezkontzaz joan zenean, senar-emazteak eta semea gelditu ziren Arzallus familian. Inaxio Arzallus aita eta Dolores Arbiza ama eta Joanito semea. Hau etxera ezkondu, Felisa Bergaretxe emaztetzat harturik eta alaba bat izan zuten, Mari Karmen.

Esan ohi den bezala, baserri-lege bat bazuen familia honek baina bai aitonak eta bai aitak fabrikako lana izan zuten bizimoduaren sostengu.

Etxeberri



Agidanez, Karapote Etxeberri izenez ezagunago zen bere azken denboran. Inazio (70) eta Jose Luis (53) Gorostegi anaiak izan ditut solaskide, eta hauen esanetan Pedro beren aita Karapoteko semea zenez, Karapote gora, Karapote behera, bilakatu zen Karapote Etxeberri "gure baserria", baina izatez Etxeberri zen soilik. Hortik, baserria erauzi eta ezkutatu ondoan eraikitako "Hamar Mandamenduak" delako auzuneak **Etxeberri** izena izatearen arrazoia.

Orain, auzune honetako 5. blokea dagoen, plazatxo eta arbustuz eginiko lauburu horren lur eremuan kokatzen zen **Etxeberri** deitu baserri koxkor polita. Etxe luzexka, iparekialdetik sarrera, sukaldea behean, dolare koxkor bat etxerako sagardoa izateko eta traste gela. Etxe ordekoa bi isuritan hegoaldetik eta hor ukuilua, ganbara goian zuela. Iparraldetik beste aterpea baserriko lanabesak edukitzeko eta "San Joanetan familiartekoen bazkaria egiteko" dio Jose Luisek.

Inazio seme zaharrenak gogoan ditu aitonamonak, Simon Gorostegi Olasagasti, amezketarra, aitona eta Anttoni Mujika Goikoetxea amona, Astigarragakoa izatez. Gurasoak, aldiz, Pedro, aita eta Manuela Iraola Ostolaza ama, Urnietako **Ezkerra-enea** baserriko alaba. Lau neska eta lau mutil semealabak: Manoli, Inazio, Karmen, Joakin, Alejandro, Dolores, Maritxu eta Jose Luis.

Jose Luis gelditu zen gurasoekin, harik eta 1969an etxea, aipaturiko auzunea eraikitzeko, erauzi behar izan zen arte. Orain Jose Luis eta Mari Paz Aranburu Etxezarreta senaremazteak eta hauen alaba Elixabete amonarekin kale-etxean bizi dira.

"Amak jenio haundia zuan baratzerako, diote nire solaskideek, Manoli arrebak berdin. Tranbian ongi moldatzen ziran Donostiara egunero joateko. Trenez hasitakoan gutxitzen

joan ziran. Bost behi, lauzpabost zekor, zaldia, oilo eta untxiak. Tratua "rekardera" ezagun bati eraman eta berehala egiten zan gurean Donostiarako joan-etorria".

Amona sukaldari ona. Aitonak baserriari loturik bere bizitza. Aita, ordea, Montes Kurtidura, eta gazteek ere lanera, fabrikako lanaz eta baserriaz ardura harturik.

"Senideak zortzi izan eta zortziak bizi gera. Gainera, elkarrengana biltzean, umore ona ez zaigu falta izaten. Tema pixka bat bai elkarrekin, politikaz hitz egitea debekaturik, baina ongi konpontzen gera. Urtean behin uztailaren lehenbiziko igandean, egun seinalatua, zortziok bakoitza bere familiarekin bazkaltzera. Senide bakoitza, txandaka, arduratzen bazkari hau antolatzeko".

Gero, badute familian beste ohitura bat ere amona edo birramona bisitatzeko eguna, Eguberri Eguna hain zuzen, guztientzat hamaiketako oparoa izaten delarik. Hogeita hamabost sendiko izan omen zituen bisitari amonak azken Eguberriz.

Beste baserri askotan bezalaxe, hemen ere eskaleek bazuten etxe ordekoan aterpea. Aitak belar ondua, amak beldur pixka bat beti, goizean kafesne beroa.

"Ura, mendiko ura, etxe ondoan. Aska bat arropa garbitzeko eta ganaduentzat bestea. Uda sasoian agortu egiten zitzaigun eta ordun gaizki. Zaldia bere karroarekin hartu eta Karapotera ur bila joan behar".

Baina isilpeko trikimailu bat bazuten anaiok. Etxetik beheraxeago bazen uraren gordailu bat, herriko urarena. Pentsa herriko ura esatean, garai hartan bizpahiru iturri zirela ur korrontearekin herrian (Zinko-Enea, Plaza Nagusia...). Delako uraren gordailu horrek, bada, sifoi bat zuen erdian, betetzean, sifoiak kolpe bat jo eta hustu egiten zen. Momentu horretan, hustu baino lehen, giltza batez baliaturik, barrika erdi bi bete eta ganaduen egarria asetzen zuten. Sistema polita ez zela ezin esan. Gero, poliki-poliki estali, bazterrak txukun utziz ederki moldatzen ziren.

Jose Luisek xantxa pixka batekin uraren aska haiek zeuden txokoari berak "Toki Goxo" izena ezarri ziola dio. Zergatik? eta arrebek, bakoitzak bere sasoian, jakina, hantxe izaten omen zuten igande iluntzetan, etxeratu aurretik, azken xanpa. Istorio bat ere badu hari honetatik. Arreba horietako baten senargaia neskari etxera laguntzera joan zitzaionean, autoa utzi du nonbait galga eman gabe eta han joan zaio atzeraka malda behera harik eta baratzeko simaur pila jota gelditu zen arte.



Hasteko, Baserrien zerrendan Sagastiaga bezala daukagun arren, "Sagastiya" dela dio Jesus Artola (80 urte) etxeko nagusi nire solaskideak, jendearen ahotan bezalaxe. "Sagastiya" baita ere etxearen eskrituretan (1918). Sastia, aldiz, Lope Isastik (1625) jauretxeen zerrendan; Sastiga Hamarrenak zerrendan (1610) eta Sagastiya halaber Nomenclator zerrendan (1870). Hauek horrela, ondorioa zera da, **Sagastia** dela oinarrian jatorrena berari dagokion izena seguraski, eta ez Sagastiaga.

Gero, Jesus eta Joana aiton-amonak eta hirurok inguruko erdal izen horiek jorratu ditugu elkarren artean, hala nola Florida, Montebideo, Buenos Aires, La Cumbre, etab. Jesus nagusi zaharrak ezagutu omen zituen "La Cumbre" horretako etxetxo horiek eskeletoan teilatua ezarrita zeudela eta Sagasti Berriko Estebanek aita zenari esan ziona ere gogoan du "Ilarramendik (etxegilea) sonbreroa jantzi lezakek etxeak bota ez dizkionean". Sekulako haize bortitzak izan omen ziren sasoi horretan.

Inguru hau nola ote zen bere umetan galdegin diodanean, beste hau ere jaurtiki du nire solaskideak "Garai batean hala esaten omen zuten, Santio Mendin baserri bat eta Etxerreaga bestea zen garaietan, "aldetxo elkarrekin ondo izateko". Gaur ikusi besterik! Eta hariari jarraiki, aitona zenak esaten zuen beste hau gogora ekarri didate: "Hemengo terrenoak laster bide huts eta etxe huts". Hau, behintzat ez daiteke uka nioen nik neure baitan.

Familian zenbait alditan aitonari entzunda, erre omen zen behin etxea tximiniatik su hartuta. Aitona Epele Errekara joana. Norbaitek abisua etxea sutan zegoela. "Ez nintzan nahi ordurako etorria handik". Hauek horrela kontatu arren, iduri du erreketa hori aurreragokoa dela, non eta bi alditan gertatu ez bazen behintzat, zeren eta 1702ko urriaren



23an etxeak alboan zuen San Martin ermita eta ermitarekin etxea erre zeneko aipua bai baitago (Ik. *Hernani eta Hernaniarrak*, A. Agirre Sorondo, 136 or.) Etxe egokia izango zela esan beharrik ez dago. Ikusi besterik bere kantoi-harri mokorrak, leiho ertzak eta ate gainak. Handiki-etxea nolanahi ere. Hernaniko jauretxeen zerrendan ageri zaigu, gorago esan dugunez.

San Martin ermitari buruz ere jardun dugu. Komentua edo izan zela diote berek. Mojak ere bazirela bertan. Eliza izan zeneko oinarriaren harlauza handiak baziren (lehen gehiago) eta badira oraino, eta baratze zabala horma sendo batez inguratua kontserbatzen da aski egoera onean.

Garai batean, bizitegi bakarra izana, gero Manuel eta Eduardo Miranda bi anaiak ezkontzerakoan bitan banatua izan zena, eta gerora, erre ondoan, hirukoitz bilakatua, agidanez. Hona hemen hiru familiok:

- Miranda-Artola familia (mendialdetik, goikoan)
- Miranda-Vitoria familia (erdikoan)
- Garmendia-Olaziregi familiak (hegoaldetik, behekoan).

MIRANDA-ARTOLA Familia

Eduardo Miranda eta Joxepa Anttoni Artola senar-emazteek haurrik ez eta iloba Joxe Mari hartu zuten semetzat. Eta hala, denborarekin hau, Joxe Mari Artola Eizmendi, **Usategieta** baserriko semea, Beatriz Urrestarazu Zelarain **Meloi** (Aiete) baserriko alabarekin ezkondu zen, eta seme-alaba hauek izan: Jose Luis, Maria, Jesus, Inazio, Enkarna, Joxe Mari eta Joana. Hauetarik, Jesus etxera, Joana Narbarte Zubillaga, **Domiñazpi** (Goizueta) baserriko alabarekin ezkondu eta hiru seme dituztelarik: Xabier, Jesus eta Joan Joxe.

Orain, gurasoak, Xabier semea, Mari Anjeles emaztea eta Amalur eta Izarne bi alabekin bizi dira Sagastia baserri zaharrean. Erosoago bizitzeko asmotan etxetik goraxeago etxe berria eraikitzen ari dira.

Baratzea eta esnea ziren oinarri Sagastia baserrian. Zazpi behi, zekor batzuk, zerria etxerako. Bi baziren bestea saldu, gosetean

biak etxerako. Gauez, kontrola, kontrabandoan hil behar, ateak ondo itxita. "Zerria erretzen izaten ziran komediak, etxe barruan ezin, zokoren bat bilatu edo antolatu behar". Joana etxekoandreak hiltzen zituen zerriak eta zerria puskatu, odolkiak egin, txorixogaiak prestatu eta dena berak egiten omen zuen. Eta zer esanik ez, arkumea, ardia eta untxiak hil behar baziren ere.

Hamar urtera arte joan omen zen Jesus eskolara, "handik aurrera ittaurrera". "Ukuiluak lan handia ematen zuan orduan, ez baitzan orain bezela larrera bota eta kito egiten".

Uraren arazoa Iturmendiko zokoa deitu errekatxotik konpontzen zuten. Hor "arieta" deitu sistema ezarrita zeukaten, agidanez. Gorago presa koxkor bat eta uraren etorriak ezarri presioaren bidez, kolpeka-kolpeka aritzen hau, etxe aurreko askara ekartzen zuten ura. Argindarrez gerora.

Igande arratsaldetan Ezkiaga eta Irubiden festa eta dantza. Satur "Iyola" soinujole. Hamaiketarako etxera, dio Jesusek, ez beti-beti baina...

MIRANDA-VITORIA Familia

Aiton-amonak Manuel Miranda eta Joana Sarobe ziren. Joana Miranda alaba etxean gelditu eta Alberto Vitoria senarra. Honako seme-alaba hauek izan zituzten: Ixabel, Teresa (moja agustindarra) Joxe Benito eta Rosario.

Behi batzuk eta baratze ona beti, Sagastiako beste etxe guztietan bezalaxe. Orain Joxe Benito bizi da, ezkonge, etxean.

GARMENDIA-OLAZIREGI Familiak

Garmendia familia zen garai batean Sagastia baserriko hegoaldeko etxebizitzan. Sagasti handiak zituzten Montebideo deitu mendiaren hegaletan. Dolarea etxetik at, etxe ordeko berezian zuten hau (etxebizitzak orain), sagarra sartzeko mandio eta guzti. Upelategia bertan 10 eta 100 kargako barrikak poliki egokitu edo mailakaturik. Benta Berrira sagardoa eta hor trenbideko langileak omen ziren bezerorik onenak.

Bestetik, baratze ederra beti eta fruta arbolak, udare mota desberdinak (udare beltza, dukesa, San Martin udarea, zakur udarea...) eta hauen pareko sagarrondoak ere. Donostian hoteletara eta San Martin plazan saltzen omen.

Gero, 1939an Valdes Larrañaga familiarena etxea eta hau diruz urri (gerraostea) Esteban Garmendia aitona baserria erostera deliberatu. Agidanez, garaien batean etxe bakarra izana eta gero hirutan banatua, mendiaren hegala bera (Montebideo), ezkerretik eskuinera, hiru zatitan banatua zen.

Hartan, "beste erabaki bat hartu zuen gure aitonak, Sagastia baserria alokatu, dio nire solaskideak, (hau ere, aitona bezalaxe, Esteban Garmendia (42 urte) eta euskara landua Langile ikastolan irakasle) eta etxe berria Sagastiako lurretan eraikitzekoa".

Orduan sartu zen Sagastian (hegoaldekoan) Olaziregi familia, urteetan baratze ederrik landu izan duen familia hau ere.

Sagasti Berri



Sagastia baserrian oinarria zuen familia izaki, eta gainera, etxea bera Sagastiako lurretan eraiki, **Sagasti Berri** izena hartu zuen baserriak. Karapote Zaharra eta Sagastia bi baserrion artean, mendiaren oinetan kokatu zuten berau. Nire solaskide Esteban Garmendia (42 urte) eta biok jorratu ahal izan ditugu etxea eraiki zeneko dokumentu desberdinak, familiak aski txukun jasoak dauzkanak. Izena, "Sagasti Berri", aski garbi azaltzen da proiektua burutu zeneko agirian (1940). Etxerako ura, tranbebidearen azpitik pasatu behar eta Santander hirian emaniko baimena (1939, "Año de la Victoria", eta beronen amaierako agurrean "Dios Salve a España" eta "Viva Franco, Arriba España" bezalako esaldi bitxiak dituena.

Gainera, agiriotan, etxe berriaren eitea eta osagaiak aipatzen dira. Etxearen azalera, 153,60 m²; behean sukaldea eta komuna, sala bat, jangela, gela iluna (janaria gordetzeko), garaje eta almazena eta "ipulategia" (upelategia seguraski), hemen gazi kutxa eta lurpean edaria fresko gordetzeko lekua. Bost gela lehen solairuan, komuna eta albo bietan terraza bana, eta goian ganbara, barrutik eskailerak eta kanpotik mandio gisako sarrera zuela. Ukuilua etxetik at, ondoko eraikin batean, egun baratze ederrez hornitua duen Sagasti Txiki etxea den horretan.

Esteban Garmendia Miranda, Sagastiako semea eta Anttoni Isasa Elormendi, ergobiarra, ziren aiton-amonak. Martin eta Anttonita seme-alabak izan. Hau txikitan hil zen.

Martin etxera ezkondu, emaztea Eskolastika Salaberria Berregi, Loiola auzoko alaba, Esteban, Edorta, Mattin eta Arantxa lau seme-alaba izan zituztelarik.

Baserria desagertu zelarik, bi bizitzako etxea da Sagasti Berri orain. Esteban eta Arantxa Vidal senar-emazteak eta hauen hiru haurrok Endika, Agustin eta Stella bizi dira batean, eta Arantxa arreba, senarra Pedro Valle-Lersundi eta Pedro, Gorka eta Elene beren hiru haurrekin bestean.

Baserri bezala ari izan zen Sagasti Berri aitona bizi izan zen artean bederen, eta gero ere bai amonak, morroi bat edo besterekin, jarraitu ahal izan baitzion. Gurasoen garaian,ordea, aita albaitari, oilategiak izan zuen aldi batean garrantzia etxe horretan. Ondoren kalean denda bat antolatzera jo zuten, Amegar izenez, Izpizua kantoian lehenik, Txirrita kalean gero.

AUZOAREN HISTORIA LABURRA



ntzien pausaleku izan bazen ere antzina, bereziki zubiak zaindu du mendeotan zehar, ia oraintsu arte, **Karabele** izena bera eta beronen nortasuna. Zurezko lehen zubia 1558ko urtean egin omen zen eta 1805ean harrizkoa (Ik. *Indice de Documentos*, Fausto Arocena, Udal Artxiboa, 72 or.). Karabelek izan ditu errota nahiz errementaldegia ere berekin, baina zubia izan du funtsean elementurik aintzatsuena. Zubi honek eman dio Hernaniko herriari, Urumea zeharkatuz, Ergobia, Astigarraga eta Donostiarako edota Zikuñaga nahiz Nafarroarako irtenbidea. Garita bat ere bai omen garai batean hor. Bidezkoen "zaintzarako", noski.

BASERRIAK

- Balantxa
- Eguzki-Alde
- Karabele

SOLASKIDEAK

- Ollo, Joxe Migel (Balantxa)
- Otegi Otegi, Antonio (Eguzki-Alde)

Balantxa



Badira sustrai bereko hainbat izen edo deitura Euskal Herrian, adibidez Balantxategi, Balentxena,... Balantxa hitza omen da (K. Mitxelena) zalantza hitzaren ama ere. Dena den, Balantxa baserritik hona etorri aurrekoren bat eta handik eta harat izena du, bestearen kopia etxe honek. **Balantza** Berri ere entzun izan duela dio nire solaskide Migel Joxe Ollok (79 urte).

Florida auzoa dauka helbide nola Balantxak hala alboko etxeak eta goraxeago dagoen Azkonobieta etxeak. Udaletxean, gainera, "Bajada de Balantxa" esaten omen diote zonalde horri. Dudarik ez dago, Karabele auzoa helbidetzat izatea askoz egokiagoa dela, zeren eta bidearen azpiko zubia pasatzea baizik ez baita horretarako behar.

Esan gabe doa Zinko-Enetik Ergobirako errepide berria (1946) egin aurretik errepide honetatik iragan ohi zela Hernani-Nafarroarako joan-etorri guztia, Goizuetako autobusa, Ereñotzukoa... esaterako. Autobus edo kamioi apalagoak ziren orduan, egia, eta zubi azpiko zorua ere altxatzen joan da denborarekin.

Ez du patxada handiko itxurarik Balantxak, trenak eta errepideak hertsaturik bezala daukate eta, bai hau eta bai albokoa. Bi isuritako etxe luzexka da izatez, sarreran bi ate handi, balkoi eder bat alderik alde. Gerora ezarritako terraza, eta etxe atzean baratzaz aparte iturri-pozadera txukuna, ur garbiarekin noizbait.

Orain Balantxa nahiz alboko etxea, kanpotik behatuz gero behintzat, aski zaharkiturik ageri zaizkigu eta, agidanez, laster desagertuko dira proiektu berri baten baitan.

Aiton-amonak ezagutu zituen, Joxe Ugalde eta Anttoni Olarra eta hauen bost seme eta bost alaba ere bai: Joxe, Euxebi, Ramon, Joan Bautista, Joxepa, Joxe Mari, Joana, Manoli, Fernando eta Mari Tere.

Fernando etxerako, Pepi Irastortzarekin ezkonduta, Pedro, Joana Mari eta Fernando hiru seme-alaba hauek izan zituztelarik.

Gurasoak eta bi semeak bizi dira orain.

Lehengoek behiren bat edo beste eta idi pare on bat izaten zituzten. Funtzio berezia betetzen zuten idiek baserri honetan: Ereñotzu aldetik herrira zetorren kargamendua (egurra, ikatza, papera...) idiek tirata *galerak* deitu lau gurpileko orga haiei, (bi gurpil txiki aurrean eta bi handi atzean), puntako egitea Balantxako aldapan. Atergabeko lana izan ohi zutela esan behar.

Gero bide berriak eta autoen garraioa ugalduz zihoala, aitak fabrikako lanari heldu behar izan zion ("Almidon Remy"). Joxe seme zaharrenak, aldiz, beste bide bati ekin zion: trenbide eta etxearen tartean txapaz eginiko estalpe batean errementari tailerra, sutegi eta guzti muntatu zituen. Han izan zen hasiera, zeren gerora etxepe guztia, terraza etxeari ezarriz eta beronen azpia hartuz, kalderagintzari atxiki baitzitzaion, bost anaiak bertan enplegatzeko modua eginez. Hainbat lan egindako jendea da hau, nolanahi ere.

Gaur, Balantxa hutsik eta bakar aurkitzen da. Floridan daukate tailerra eta denak kalean bizi dira.

Eguzki-Alde



Ez du inolako zailtasunik eta gainera aire modernoa erakusten duen izena da **Eguzki-Alde**, baserri bati baino txalet eta horrelako etxetxoei areago dagokiena.

Eguraldi txarra, Antonio etxeko nagusia artazuritzen aurkitu dut. Artaburu ederrez betetako saski baten gainean zaku bat tolestaturik ipini du eta bertan esertzera gonbidatu nau. Baserri bakarretan baizik ez da jada artorik ereiten. Antoniok bertako artoa goraipatu dit, arto hibrido amerikanoak batere baliorik ez duela esanez. Kasu honetan neure begiz ikusi ahal izan dut batetik bestera dagoen aldea.

Zinko-Enetik behera, Balantxako bidean barna, bide zaharra, trenbide azpiko zubia zeharkatuz, ibaiaren gaineko zubiaren alboan, ezkerrera, aurkitzen den baserri bakarra, Karabelen, Eguzki-Alde baserria dugu.

Ez da zaharra. Duela hirurogeita gehiago urte, lurrak erosi zituen lehenik Antonioren aita zenak, gero orain 54 urte etxea eraiki zuelarik.

Gurasoak, Inaxio Otegi Arzadun aita eta Maria Otegi ama, Felisa eta Antonio semealabekin, **Okendo-Enea** baserritik jaitsi ziren. Ama zena nahiko eri ibiltzen omen zen eta hura saldu eta herritik hurbilago zen baserri berrira lekualdatu ziren. Ama handik bi urte baino lehenago hil zela esan dit Antoniok.

Bideko espaloiaren parean dauka etxerako nahiz ukuilurako sarrera. Etxe azpian, sarrera saihetsetik bodega du etxeak, etxe-ordekoaren zeregina betetzen duena. Goian, hasiera beretik, bi etxebizitza, bata bestearen gainean.

Antonio etxera ezkondu, emaztetzat Maria Angela Zinkunegi Labandibar harturik, semealaba hauek izan dituzte: Inaxio, Arantxa, Antton, Begoña eta Izaskun.

Gurasoak eta bi alaba gazteenak, Begoña eta Izaskun, bizi dira orain Eguzki-Alde baserrian.

Komediak eta bi uholdeekin izan dituzte etxe honetan. Lur onak bai, erribera lurrak, baina betiko zalantza, betiko mamu beltza gainean, goien behean euria hasiz gero. Ondorioak begi bistan: lurrak eta laboreak urak hartu, ganadu jana eta baratza hondatu, metak eta oiloak uraren baitan beti.

Azken aldera, ibaia kanalizatu zenez geroztik, ondo omen dabiltza, baina ibaia zakarrez betetzen ari, ez dela sobera fidatzen dio etxeko nagusiak.

Zazpi bat behi, zekor batzuk, dozenerdi bat ardi eta zerri bat edo beste izaten dituzte. Uztarrirako beti behiak, orain traktore koxkor bat.

Etsipen apur batekin aurkitu dut gure gizona, harritzekoa ere ez da eta. Batetik, zioen, zekorra orain hogei urteko prezioan, 600,- pezeta doi-doian saltzen ari dira, agidanez. "Baserriak ez du etekinik jada, ez esneak, ez haragiak. Lehen, behi txar bat atera nahi, jaten eman eta haragitzen zenun, eta ondo baliatzen zinan, orain..."

Bestetik, Mendia-Enean asto lan askotxo egina dela dio, 200 kiloko fardoak pikotxean jarrita, jaso orga txar batera, dena eskuz mugitu, askatu eta gobernatu behar izaten zuten, eta 60-100 fardo errelebo bakoitzean. Gizon handia ez da, baina, esan beharrik, azkarra eta sendoa bai. Orain belaunak ere ongi ez, aski neketan ageri zaigu Antonio.

Solasa zerbait arintzearren, bertsozale, tabernazale edo izan ote den galdegin diot. Idi-demak izan omen ditu gogoko erantzun dit. Hango eta hemengo zenbait aposturen berri eman, eta bat dauka bereziki gogoan, Oiartzungoa 55 plaza egin eta txapeldun irten zirenekoa. Lagunarte ona eginak dira hainbat alditan Lastaola Berriko Gaspar eta biak.



Karabele



Itsasoaren aipu garbia. Esan behar da **Karabele** azaltzen zaigula dokumentu zaharretan, eta ez Karabel jendearen ahotan entzun ohi den bezala.



Baserri izana dugu garai batean. Bizpahiru behi izaten omen zituzten, eta idi parea garraioan ibiltzen baitzen. Uholde handietariko batean itota hil zen Luis bertako semea eta ezkonge zena.

Etxeak oraino ere tunela dauka azpian. Errota izana, Urnietatik Portun barna datorren uraz baliaturik.

AUZOAREN HISTORIA LABURRA

ernaniko herriak , besteak beste, zonalde horretan izan duen garapenak elkar jotzera, bata bestearekin josteraino, eraman ditu egun bi puntuok, Latsunbe eta Karobieta.

Latsunbe, etxe sastar bat ezagutu genuen oraintsu arte Kiroldegia dagoeneko horren barrenean, behe aldean esan nahi da. Baina Latsunbek, Leokak herriaren beste alderdi batean bezalaxe, bazuen elementu erakargarri bat berekin etxeetan ur korronterik ez zen garaietan, *garbitegia*, arropa garbitu ahal izateko.

Karobieta, karea egiten zen lekua, beste gabe.

Ororen buru, esan dezagun, zentzu batean behintzat, nahiz eta zeregin ezberdina burutu duten, ez direla bata eta bestea hain urrun ibili inoiz, ez orain, baina ez lehen ere, zeren eta esanahi berdina baitute bi hitzak, gauza bera baitira *karea* eta *latsuna*, diferentzia batekin kasu honetan, karea egiten den edo egiten zen lekua **Karobieta**, eta karea dagoen lekuaren behe aldea **Latsunbe**, horra.

BASERRIAK

•Marieluts Haundi (Desagertua)

Marieluts Handi



Ez zen nolanahiko etxea, agidanez, lehengo garaietan. Hamarrenak zerrendan ageri zaigu jada (1610) "Casa Marielus-andia" izenez eta "Marielus" Jauretxeen zerrendan (1625, Lope Isasti). *Maria* eta *eluts* (leku babesa, itzaltsua ere bai) dira izenaren osagaiak.

Hernaniko Plaza Berritik atera eta Sorgintxulorako bidean, garai bateko tranbiaren bide ondoan, egungo Latsunbe-Karobieta auzoko etxe multzoa dagoen horretan zegoen Marieluts edo Marieluts Handi baserria, herriari so, babesgune batean eta inguruko soro zelai eta ordeka orlegiaren erdian. Etxe karratua, sarrera nagusia hegoaldera, uda partean mahatsondoak hormarik gehiena estaltzen ziola.

Anastasio Muguruza eta Nikolasa Aranburu gurasoak eta Maria alaba bizi ziren Marieluts Handi baserrian. Gerora, ordea, Luxiano Barrenetxea Gillenea, Fraisoroko herri-haurra ekarri zuten, laguntza gisa edo. Honek papeleran eta baserrian egiten zuen lan, eta azkenaldian baserrian bakarrik.

Hernaniko biztanleria gora, eta herriak lurrak behar zituela etxeak eraikitzeko eta, Marieluts botatzeko proiektua onartu zuen Udalak. Handik eta harat Maria Muguruza, bertako alabak ez zuen onik izan. Osasun arazo larriak jasan behar izan zituen, eta izugarri kosta zitzaion bere jaiotetxetik ateratzea. Esan behar da, etxea eraisteko egun berean, hau da, 1993ko urtarrilaren 11n atera zirela baserritik.

Gertuko Buenos Aires auzoko kaletxe batean jarri zen bizitzen, baina esanik doa osasunak ez ziola lagundu eta handik laster zendu zen Marieluts baserriko Maria.

Baserri txikia izaki, eta ezari-ezarian herrigunean geratu zenez, ez zuten etxetik inora joan beharrik izaten baratzeko nahiz arrautzak edo esnea saltzera. Etxera bertara etortzen ziren erosleak eta horrela moldatzen ziren.

Bitxikeria modura, etxeko leihotik ateratzen zen zuhaitz bat omen zuen Marieluts baserriak.



AUZOAREN HISTORIA LABURRA



ntzina, jokabide normala izan zen Euskal Herrian, eta nonahi, portuak ibaian urgora izatea. Adibide gisa aipatzearren, Deba ibaia aipatuko dut, Astigarribian zegoen Debako portua, eta Hernanin Donostiakoa. Gainera, horretarako ez dago erromatarren garaietaraino jo beharrik ere (*Oeasso* edo *Oearso*, Irun). Esan behar da untziak, berebat, txanela, txalupa, galeoi, belauntzi, gabarra eta horrelakoak izango zirela, guztiak ere sakonera gutxikoak, nahiz eta ibaiak orain baino ur gehiago eta bertan nabigatzeko halako oztoporik izango ez zen.


Dena den, portu izandako aztarrenak, besteak beste, ez ditugu gutxi hemen. Hala nola **Itsaspuru**, itsasotiko mareagora heltzen zen puntua; **Karabele**, belauntziak pausatzen ziren lekua; eta halaber, diotenez, ia oraintsu arte **Aldagaia** eta **Piper-Enea** etxeek beren ekialdeko hormetan kontserbatzen zituzten untziak lotzeko zirrindolak; **Lonja etxea**, arraina, zureria, egurra, meatzea edo burdinkiak (aingurak, hesiak, tresneria...) saldu-erosi edo trukatzeko etxea; **Portu** edo Portuetxea izeneko eraikina, eta azkenik, **Portu izatea** bera, gaur egun auzoari atxikirik gelditu den errealitatea bada ere.

BASERRIAK

- Aldagaia
- Argindegi
- Diustegi (Diostegi)
- Egaña-Enea
- Egaña Txiki (Sutegi Zahar)
- Erreka Munto
- Lonja
- Paulo-Enea (Desagertua)
- Portu Berri
- Portuetxe (Indiano-Enea)
- Portuzabal (Gorria-Enea)

SOLASKIDEAK

- Barrenetxea, Manoli (Lonja)
- Elizondo, Joxe Gabriel (Portuetxe)
- Iradi, Dolores (Egaña Txiki)
- Iradi, Dolores (Argindegi)
- Izagirre, Rosario (Egaña-Enea)
- Pagola, Agustin (Portu Berri)
- Retegi, Joxe (Aldagaia)
- Urulain, Agustin (Portuzabal)
- Zabaleta, Elias (Erreka Munto)



Bertako nagusi den Joxek **Aldagaia** dela dio eta ez Aldaiaga. Horretarako etxea erosi zeneko eskritura atera dit lehengo izena, dagoen dagoenean, eta berau eskritura zaharretik kopiatua dela baieztatuz. Esanahiari dagokionez, zera zioen, gaiak, lehengaiak (harria, zura...) ibaitik ateratzen zirenez orduan, ikusi besterik Portu auzoko etxe antzinakoenak (eta Aldagaia bera) erreka harriz eginik daudela. Izan liteke. *Alde* eta *gaia* hitzak, konposatzean aldagaia eman izatea. Izan liteke baita bertako portuan kargatzen eta deskargatzen ziren lehengaiekin ikustekorik izatea ere.

Elizatxotik behera Portu auzora jaitsi, trenbidearen azpiko zubia pasatuta bidearen eskuinean daukagu **Aldagaia** etxe zabal handia. Noizbait erre izana denaren berri badu. Dena den, duela 76 urte hiru urteko haurra zela, etorri omen zen bere familia Aldagaia baserrira. Etxe ederra, jauregi airekoa bere garaian, ez da dudarik, gerora, bizileku koxkor bat egiteko ezker hegala luzatu zitzaiolarik.

Ama, Kontxesi Iturralde Otxotorena zen, **Sorozabal** baserriko (gaur desagertua) alaba. Aita, Felipe Erretegi Berra, **Ainhoa**ko semea. (Egungo familiak Retegi deitura erabiltzen du). Gurasorik gabe gelditu zirenez, bi arrebak Donostiara neskame eta anaia **Artola** baserrira (Astigarraga) osabarengana eta handik Hernaniko Portalondo-Enera, barazki, soro (erribera) eta erroskilagintzan ari izateko.

Ezkonduta Karabele etxean jarri ziren bizitzen eta luzaro baino lehen Aldagaia baserrira aldatu. Seme-alabak: Joan Migel, Joxe, Mari Kruz eta Joxe Joakin (haurtzaroan hilak bi hauek). Aita oraino sasoian zegoela hil omen zen. Hala, bi anaiak etxe bizitza banatan, zaharrena ama alargunarekin eta Joxe, nire solaskidea, ezkonduta bestean. Emaztea Joxepa Izagirre Lasa, Zaldibiakoa izatez eta seme-alabak: Joan Inazio, eta beste hiru, jaiotzerakoan hilak, RH arazoa tarteko.

Orain, aita eta ama bizi dira etxean. Semea Donostiara ezkonduta. Eta aldameneko bizitzan, Joan Migel, ezkonge eta bakarrik ama hil zenez geroztik.

Lehen, bi semeak jornalera, ordu tarteka aita eta amari lagunduz. Etxe ederra, baratze bikaina, baina besterik ez. Gainerako lurrak errentan. Barazkiak eta esnea ekoizpen nagusiak. Ama edo izeba hartzaileen zerbitzutan egunero Hernaniko kalera. Erribera-lurrak zirenez, lur aberatsak noski, artoa, babarruna eta patata poliki izaten omen zuten, eta hauek salduz ekartzen zuten etxerako behar zena.

Oroitzapenik badu azken gerrateari buruz (36ko gerra). Ongi gogoan du nola ganaduak hartu eta estu eta larri Astigarragako baserri batera lekualdatu ziren, harik eta gerrako frontea pasatu zen arte. "Hegoaldeko fatxadak badu harturik makina bat balazo, Urnieta eta Ihartza-gain aldetik frankistek tiraturik" dio Joxek.

Gerora, urteen agindura jokatuz, baserria eta fabrika, biak batera eraman ezinik, ganaduak kendu eta ukuilu eta lokalak birmoldatu eta bi lantegi bilakatzeko modua egin zuten: zerrategia eta mekanika. Zerrategia, duela gutxi, Osinaga aldera lekualdaturik dago.

Argindegi




Lanbide edo ofizioaren erreferentzia erakusten digu **Argindegi** izenak (hargin eta tegi, biak batuz Hargindegi edo kasu honetan Argindegi ematen digu. Hala ere esan behar da harriari buruzko ofizioak ez direla oso zaharrak, Arotzanea eta horrelakoak antzinagokoak, agidanez. Eta arrazoiak bistan dago, antzina zurezkoak zirela etxean gurean.

Portu auzoan (lehen Osinagan) kokatzen da, irteerarik egokiena bertara duelako. Ihartza gainetik barna Urnietako mugan daukagu **Argindegi** baserria, Diustegi (Hernani) eta Latxe nahiz Egurrola baserrietatik hurbil (hauek Urnietan), herri honetako trenaren geltokira garamatzan bidearen ezkerretan.

Funtsean, bi isuritako etxea dugu, aurrean, albo batera ukuilu eder bat duelarik behi eta zekorrez hornitua. Beste etxe-abere multzo bat, gainera. Hala nola, zaldi, zakur, oilo, etab.

Ama-semeak, Inaxi Miner Urretabizkaia, **Bentako** alaba (Urnieta) eta beronen seme Joan Bta Iradi, ezkongea, eta langile porrokatua dena. Aita, Tomas Iradi gazterik hil zen (42 urte zituela 1957an). Senideak Mari Karmen, Joan Bta eta Joan. Aurrekoak, amona Maria Abalabide, bertako alaba eta Gilermo Iradi **Ilarratsueta**ko semea aitona. Hamabi seme alaben guraso izan ziren, hauetarik bi seme bikiak. Bost urteko haurra bazuten hilik eta azken gerratekoan bestea, Rafael, Teruelgo frontean. Eta geroago beste bat, Migel Mari Afrikan (Tetuan) soldadukoa egiten zela.

Garai batean bi bizitzako etxea zen, baina aldamenekoa hustu zenean, beraren jabe egin eta bakarra bilakatua da. Beti sagardotegi izana, orain ere etxerako eta saltzeko sagardoa egiten jarraitzen dute; soro, belardi eta behiak ziren bizibidea hemen, eta negualdian artzaina izan ohi zuten, Segurakoa (22 negualditan) Urbiatik uda han pasatu ondoren etorri ohi zena. Esnea, barazkiak, arrautzak eta garaiko fruta eramanez Hernaniko plazara eta etxeetara esnea zerbitzatuz ogibidea egin zuten. Gainera, zenbat behi-gazta goxo ez ote zen oratu Ama Inaxiren eskuetan, artzainarengandik ikasita. Garai haietan astoa izaten zuten garraiatzaile, behorra gero eta furgoneta orain.



Diustegi



Maiz agertu izan da Diostegi bezala ere. Esan nahia, bestetik, Justo-Enea edo horrelako zerbait izango litzateke egungo euskaran. Beste toponimo bat badugu Hernaniko herrian urte asko ez dela berreskuratu eta behin betiko sagaratu dena: Sandiusterri. Hor ibiltzen ginen Sandiosterri ote zen, garai batean ermitaren bat izango zela, edo hilerri... Halako batean D. Manuel Lekuona zenak argitu zigun gakoa: *San Just herri* baizik ez zela adierazi zigunean. Kasu honetan, paralelismoz, Just-tegi edo Justo-Enea, horra.

Portutik Ihartza-Gainean gaindi Urnietarako bidean, Argindegi baserria baino lehentxeago daukagu **Diustegi** baserria. Esan behar da, Argindegik orain baino lehen bere aldamenean, ezker-eskuin, beste bi baserri koxkor zituela, bata **Diustegi** eta bestea **Kontreska**. Eta gauza bat jakingarri dena, hiruok azaltzen zaizkigula ("Casa Arguindeguy", "Casa Diosteguy" eta "Casa Contrasea") *Hamarrenak zerrenda* deitu 1610eko agirian. Azken hau desagertu zen, baina zutik iraun zuen Diustegik, harik eta hutsik zegoelarik, Argindegiko beste bizitzan zen Abalabide-Agirre familiak hona lekualdatzeko erabakia hartu zuen arte. Haren ondorengoa da Garmendia familia, etxearen jabe dena, honetaz asteburu edo opor egunetarako baliatzen delarik.



Egaña-Enea

Buruhauste handirik gabe aurki daiteke beraren esanahia: *hegi/gain* bi hitz hauen konposaketaren ondorio da **Egaña**. Hegiak hegal edota ertza adierazi nahi du, esaterako aski ezaguna da Euskal Herrian Lapurdi Itsas-hegia (kostaldea).

Portutik Errotaberri eta Urnietarako bidearen ertzean ezkerrera, parean eskuinetik Egaña-Txiki edo "Sutegi-Zahar" daukalarik. Iduri du **Egaña-Enea** lehenik eta Egaña-Txiki gero eraikiak direla, baina ez da horrela, alderantziz baizik. Izenaren mailegu kontua baino ez dago hor, agidanez.

Etxe dotore eta tentea izango zen duda-mudarik ez dago. Aski zaharkiturik dago egun, itxuraz bederen. Berritzeko asmotan daude barrutik eta teilatua bereziki. Eta merezi ko luke pixka bat txukuntzea horrelako etxe batek. Harriz egina, harlanduzko kantoiak eta leiho ertzak, ikusgarria izango zen bere garaian, esan beharrik.

"Amona Kattalin", hau da, Rosario nire solaskidearen, birramona, Hernialdekoa zen izatez, handik hiru alaba (Maria, Josepa eta Ixabel) berekin zituela etorria.

Maria Irisarri Arsuaga, zaharrena, denborarekin, ezkonduta gelditu zen etxerako Egaña-Enea baserrian. Migel Mari Otegi jaiotzez Itsasondokoa senartzat hartu eta bost alaba hauek izan zituzten: Antoni, Iñaxi, Manoli, Ixabel eta Tere. Hauetarik, berriz, Manoli etxerako, Kornelio Roteta Iztuetarekin, Alkizarra hau, ezkondu eta seme-alaba hauek izan zituztelarik: Maria Antonia, Migel Mari eta Joxe Jabier.

Gaur egun, gurasoak aspalditxo hil zirenez, bi semeak eta Iñaxi, Ixabel eta Tere hiru izebak bizi dira bertan. Izeba hauek aski merezimendu badute entzunik dudanez, zeren eta **Mandazubi**ko Anttoni ahizparen lau haurrak (zaharrenak 7 urte, ama 35 urte zituela hil zelarik) eta berebat etxeko Manoli ahizparen hiru haurrak, guztira zazpi, berek hazi eta hezi baitituzte.

Bospasei behi, zekorrak, zerri bat edo beste, beti izan dituzte. Baratze on bat ere bai eta soro lana (artoa eta babarruna eta patata...).



Idirik ez da izan Egaña-Enean. Uztarrian ere behiak. Lur gizenak zituzten seinalea da hau (erreka ondo eta ibar lurrak). Dolare koxkor bat ere beti izan dute. Garai batean eskuak eta oinak ongi dantzatuz sagarra jotzen zutela.

Oroitzapen berezia dauka Rosariok "Malakate" deitu astoa lotzen zuteneko txokoaz. Amona Bretxako plazara egunero astoa hartu eta tranbian. Amona hil zenean, Ixabel alabak hartu zuen erreleboa, oraino ilobarekin (furgonetan) jarraitzen duelarik. Aldi berean, beronen ahizpa Joxepa Hernanira joaten zen astoa portalez kanpoan lotu eta marmita eta *txantxila* harturik hartzaileei esnea banatzera. Orain, esne freskoa saltzea galarazi zutelarik, alde batetik barazkiak eta bestetik haragia dituzte ekoizpen nagusi Egaña-Enea baserrian. Barazkiak eta garaian garaiko fruta ere denetarik izaten zuten eta (sagar, udare, piku, intxaur, gaztaina, mizpira edo gerezi). Jende saiatua nolanahi ere.

Egaña Txiki (Sutegi Zahar) Portu Auzoa



Herriko jendearentzat **Egaña Txiki** bada ere, Dolores Iradi bertako etxekoandreak (79 urte) aurrekoei "Sutegi Zahar" zuela jatorrizko izena entzun izan die beti, eta "barkuen piezak" egiten zituztela hor. "Sutegi-Zar" eskrituretan.

"Casilla Ermendaldegi" 1610eko Elizaren hamarrenak zerrendan azaltzen dena berau dela esaten duenik ere bada. Parroki eliza bera baino zaharragoa zela halaber askotan entzuna du Doloresek etxean.

Urnietako **Igerategi** baserrietatik heldu den bidearen eta **Trankatx** erreka deitzen denaren tartean, etxe ondo-ondoan biak, kokatzen da **Egaña Txiki** edo **Sutegi Zahar** baserria. Hala ere, trenbidea eraiki aurretik apartaxeago omen zen erreka, orduan desbideratua izan zen nonbait.

Angelu zuzeneko etxe apala da izatez, bizilekua goian eta ukuilua behean duela. Aurrean terrazatxo bat azpian garajearekin eta atzean beste terraza, handiagoa, etxe-ordeko modura.

Hiru anaia omen ziren antzinako garai batean (agian duela 300 urte edo) eta **hiruok** elkarrekin, gauza jakingarria, eraiki zituzten: **Egaña-Enea** (alboan) eta **Piper-Enea** eta **Xanti-Enea** Portu auzoan berean, antzeko arkitektura eta egitura dutenak hirurak ondo begiratuz gero.

Dolores Iradi, **Argindegi** baserriko alaba, ezkonduta hemen bizitzen jarri zenean, hona zeintzuk bizi ziren bertan: Joana Egaña Nazabal, amona alarguna eta etxeko alaba. Aitona Kaxiano Zubeldia Elizegi hil berria zen, eta hauen seme-alabak: Joxe Joakin senarra, Justa eta Toribio, beste senideok Benita, Manuel eta Maria Luisa kanpora ezkondurik baitziren jada.


Joxe Joakin eta Doloresek lau seme-alaba izan dituzte: Nekane, Daniel, Mari Kruz eta Endika. Hau eta beronen emazte Igone Landetxe Zugarramurdi, eta Dolores ama alarguna bizi dira gaur Egaña Txiki etxean.

Joxe Joakinek, ezkondu aurretik bezalaxe, Zikuñagako paperolan jarraitu zuen lanean, baserriko lana tartekatuz. Eta emazteak, berebat, gogotik ekin zion baratzegintza nahiz baserriari. Bi behi izan ohi zituzten, bizpahiru zekor, astoa eta bi zerri, bata saldu eta bestea etxerako urteko jakia izango bazuten.

Egaña Txikira Dolores ezkontzerakoan beheko sua kendu eta ekonomika ipini zuten. Amona zenak aurrerapen galanta zela askotan aipatzen omen. Ama *buruxesteran* esnea hartu eta barazkiak harturik egunero Leokan gora joan ohi zen Hernaniko plazara. Gero, behiak kendu ondoren, Endikak jarraitu zuen ia oraintsu arte barazkiekin plazara joaten.

Garai batean harrobi koxkor bat ere bazuen familiak baserri-bideetarako harria sortzearren, Egaña baserriaren alboko hegalean.

Endika semeak orain, betiere baratzegintzaren ildoari jarraiki, "gaixotasun mentala" duten talde baten ardura dauka bere gain. Etxe honek berea du nonbait baratzearen habea. Joxe Joakin aita ere, bereziki udare eta sagarrondoen txertaketa lanean langile trebea izana genuen, agidanez. Eta nork ez du ezagutu beronen anaia Manuel Zubeldia Karabelerako bidearen eskuinean baratze txukun bat landuz eta lege zaharreko metodo bitxiak erabiliz txertaketa-lan ikusgarri bat burutzen? Bere denboran fabrikan eta ordu tarteka Pagolaren mintegian lan egin ondoan, jubilatu eta azken hogei urtetan benetako "pertsonaia" bilakatu zitzaigun Zubeldia zaharra. Belar zakar eta sastrakak harturik ageri zaigu orain hain xeratsu hark zaindutako lur zatia. Historia zaharraren orrialdea hau ere ororen buru.



Erreka-Munto



Portuko errekaren ondoan bidez goiti aldapan, edo munto, noski, garai bateko leku izena dela **Erreka Munto** ez dago buru hausten ibili beharrik. Mendiaren kontra ezkerretik lehen "asto bidea" baino areago ez zen bide sastar bat omen.

Iberduerok Ihartza-gainean bere zentrala eraiki zuenean eta berebat Guardia Zibilen kuartela eraikitzean txukundu omen zen bidea. Alabaina, bide bazterreko zanga batere ez, zeren kuarteleko komunetako ur zikinak hortik joaten baitziren, bazterrak narrastuz. Orain, Portu auzoko ur zikinak oro kolektorera doaz.

Elias Zabaleta (72 urte) etxeko jaunak zera dio, hamaika konponketatxo egin diola etxeari urteak joan urteak etorri. Etxe koxkorra zen nonbait, ukuilua behean, bizilekua goian.

Simon Ibarrolaburu (ez izenez "Mataburros"), gizon *azkar* eta lerdena, bizi omen zen aurrez Maria bere emazte eta seme-alabekin **Erreka-Munto** baserrian. Gaur egun Portu auzoko etxeak kokatzen diren lurzoru hori guztia berea zuen, agidanez.

Bestetik, oroitzen da mutikoa zela Simon honek orduan kobrezkoak ziren txanponak hortzekin nola hausten edo erdibitzen zituen.

Gogoan du baita ere, kuartela eraikitzerakoan, frankismoaren garaian, jakina, izan ziren gorabeherak. Ihartza hegal horien lurjabe zenak bertan etxeak eraikitzeko baimena eskatzen Udalari, eta Udalak, ordainez, kuartela eraikitzeko lurra jabeari. Kuartela eraiki bai baina etxerik ez, tarte horretan lurren jabea hil egin baitzen.

Harriturik bezala kontatzen dit Elias nire solaskideak, guardia zibilak hortik irten aurreko lauzpabost hilabete lehenago erabat berritu omen kuartela (tuberiak, sukaldeak, bainugelak...).

Kuartela hustu zelarik "okupa" jendeak hartu zuen eraikuntza. Udalak jende hau kanpora atera eta luzaro gabe erauzi zuen (95. urtean), ia kuartelaren aztarnarik ere gelditu ez delarik.





Ez zuen gaurko lonja zenbaitek duen halako bolumenik izango, edo bai, baina garbi dago zein zen etxe edo eraikin honen zeregina garai batean hor kokatzen zen portuaren baitan: merkataritza, trukea, salmenta... Aspaldi bukatu zitzaion bere zeregina portuari eta... lonjari, portuarekin batera. Zeregin horren izena gordetzen du soilki etxeak, **Lonja** etxeak orain.

Harrizko etxea, dotore gelditu da azken berrikuntzarekin, ekialdera fatxadan bi balkoi erakutsiz, txikia behean, handiagoa goian.

Manoli etxekoandrea nire solaskideak ezagutu zuen amona, Joxepa Aizpurua Aizpuru zena. Gurasoak, berriz, Asentsio Barrenetxea Aizpurua bertako semea aita eta Joxepa Lasarte Kortadi, Urnietako **Altzibar** baserriko alaba, ama. Senideak: Julian, Manoli, Iñaki, Kontxi eta Kristina.

Azken batean, Manoli gelditu zen etxean aitarekin, zeren aski gazterik hil baitzitzaien ama. senarra Mariano Lekuona Borraz, errenteriarra. Hiru seme izan dituzte: Xabier, Iñaki (8 urte zituela min biziarekin hila) eta Julen. Orain, Mariano eta Manoli senar-emazteak bizi dira Xabier eta Julen bi semeekin Lonja etxean.

"Txikia nintzala zer, galdetzen dezu? Ez naiz gauza asko gogoratzen. Oso "mañosa" nintzala esaten zuten".

Txikitan nahiko komedia izan zuen, agidanez. Ume *gozakaitza*, 2 urte baino ez zituela Ormazarreta baserrira (Urnieta, familiartekoa) eraman zuten eta hantxe egin zituen 11 urte bitarteko urte eta egunak. Hala, bi ama izan omen, hangoa Joxepa eta etxekoa Joxepa.

Eskola ere Xoxokako eskolan Pepita maistrarekin. Euskara egiten bazuten eskuko hatzak bilarazi eta makilarekin zarta. Erabat sendatu zen haurra han eta orduan itzuli etxera.

Lonja etxean, etxetik at, edo hobe, etxearen biran zituzten (orain Leoka alderako bidea) zerrategia eta ukuilua. Bata, menditik su egurra ekarri, bertan zerratu edo txikitu eta saltzeko. Behi pare bat ukuiluan, etxerako esnea izatearren, eta baratzea, etxerako hainbat hau ere.

Mariano senarrak hondeamakinarekin lan egiten du. Xabier eta Julen ere lanean ari dira.



Aitarengandik datorkio Gorria etxeari izena, dio Agustin Urulain (77 urte) bertako semeak. "Gorria, aurpegiko kolorea hala zuelako izan daiteke, baina iritziz ere hala zen aita, analfabetoa izan arren "aurrean" ibilia zen eta **"Portu-Zabal"** esaten omen zioten aurrez etxeari.

Orain baino apalagoa zen etxea agidanez eta harlauzez egina, Gregorio Urulain aita zenak altxatu omen zuen, dio, eta adreiluz, goiko bizitza. Argindegitik Portura jaisten den bidearen eta Osinaga aldetik heldu den bide bi hauen kantoian daukagu **Gorria-Enea** etxea.

Aurrez, etxe hura, sutegi edo ermendaldegi izana da, gerra aurretik upelategia, eta gero, Agustin, semea, ganadu tratuan hasi zenean jarri zuten ukuilua. Zurezko komuna omen zen, behean gordailu bat zuen, betetzen zenean, tarteka, bi baldetan haga batean dilindaka sorbalda gainean hartuta baratzerako ongarri izaten zen.

Alboko erreka oso garbia zela orduan, esan dit, "kristala bezalaxekoa"

Agustinek ezagutu zuen aitona, Roman Etxeberria izenez. Gizon alaia, soinua jotzen harat honat ibiltzen zena, "markakoa" zela gaineratzen dit bilobak.

Aita, Gregorio Urulain **Larrabide** baserrian hazia eta ama, Mertxe Etxeberria Loinaz,



Pikoaga Etxeberriko alaba. Honako seme-alaba hauek izan zituzten: Dolores (ama osasun ahulekoa zenez, honek bete izan zuen amaren zuloa), Joxe Antonio, Milagros (petxutik jota 19 urtetan hila), Agustin eta Teresa.

Gaur, Agustin baizik ez da bizi senide hauetatik, eta hau Zaharren Egoitzan. Aski kontent dirudienez.

Aitak Eziagoko "Biyak Bat" papeleran lan egiten zuen. Baratzea etxerako hainbat, txabola bazuten zaldia eta zekorren bat edukitzeko, eta untxi eta oiloak.

Agustin gelditu zen gurasoekin. Aldi batean fabrikan ibilia zen hau, baina lanik gogokoena ganadu tratua izan du bere bizitzan zehar. Baita ere, esan beharrik, aski gogoko izan dituela lagunartea eta parranda puxka bat ere, berak dioenez.



Baserri izen batez ere ezagutzen zen, Abalabide-Enea.

Lehengo garaien batean apaiza, Norberto Abalabide jauna, bizi izan zen Paulo-Enean. Etxearen jabe ere bazen apaiz hau, eta halaber Gorria-Enea eta Argindegi baserriak ere bere jabetzakoak ziren.



Apaiza hil zenean, herentzia bitarteko, Abalabide familiari egokitu zitzaion Argindegi eta era berean Paulori Paulo-Enea. Honek orduan antolatu zuen Paulo-Enea baserri bezala, lehengo dolare eta guzti. Ezkongea zen, eta zaharturik hil zenean, baserria ere berekin itzali zen.

Gaur egun, ordainez, kale-etxe polit bat bilakaturik dugu, azpian zurgindegia duelarik.



Portu auzoaren izena oinarritzat hartu zuela iduri du, baina izen bereko etxe bat bazen Portu auzoan eta agian hortik datorkio **Portu Berri** izena. Hernaniko trenaren geralekuan trenbidez azpitik aurkitzen da aipagai dugun etxea, mintegi zabal batez inguratua.

Bi isuritako etxe tente bat dugu, dotorea, harriz egina eta sarreratik ezker muturrean irtenune zuti bat, jauregi moderno baten eitea ematen diona, eta Zendoia izeneko arkitektoaren proiektua jarraituz eraikia omen.

Agustin Pagola Zabalak (88 urte orain) hamar urte zituela, 1923an, estreinatu zuten etxe berria. Hogei urte lehenagotik, 1903 urteaz geroztik, martxan zuten mintegia, estalpe bat babes edo gordeleku zutelarik. Atzietan, elizatxo ermitara jaisten den eskaileren ezkerretik dagoen etxe horretan bizi ziren aurrez.

Gurasoak, aita Joan Bautista Pagola Ugalde, **Ezekiel-Enea** baserriko semea, eta ama Karmele Zabala Ansa, **Mitxelene** baserriko (Arano) alaba. Honako seme-alaba hauek izan zituzten: Joakin, Maria, Martina, Joxe, Benita eta Agustin.

Joakin, seme nagusia etxera ezkondu zen, emaztetzat Eloisa Urnieta Gabarain harturik. Eta Pedro Mari, Joan Bta eta Mari Karmen hiru-seme alaba izanik.

Gaur egun, osaba-ilobak, Agustin eta Mari Karmen bizi dira lehenengo bizitzan, eta Pedro Mari zenaren alarguna bere familiarekin bigarrenean.

Bidenabar, esan dezadan, "Urnieta" ama zenaren deitura aipatu dugula. Mari Karmen ilobak aurrekoei entzunda ikasia kontatu dit. "Herri-izen deiturak herri-haurrenak dira. Gure birraitona edo honen aita Urnietako Errota Berri baserriko etxe ondoan, norbaitek han utzita, aurkitu eta jasotako haurra omen zan". Hortik datorkie, agidanez, Urnieta deitura. Historia bitxia nolanahi ere.

Abere bi izan zituzten beti garraiorako. "Orduan, dio Agustinek, mintegiko produktu guztiak trenez bidaltzen ziran, Madril, Burgos edo Hendaiara izan. Batzutan bagoi osoa kargatu behar izaten genun, partida zenbait beste batzuetan". Abere eta orga kargatuz Karabele, Balantxa eta Zinko-enean barna estaziora jotzen zuten.

Etxerako bi zerri urtero hazten zituzten eta oilategia, eta gainera, gerraosteko gose-urteetan bi behi etxerako esnea izango bazuten, "izan ere hamabi-hamahiru lagun biltzen baiginan otordurako mahaiaren inguru".


Lanbide osagarri bat bazuen Joakin aitak, Joan Bta aitonak hasiera emandako lanbidea hain zuzen, trena hartu Fraisoroko Nekazal Eskolara joan eta gazteak Diputazioaren mandatuz, landare munduan eskolatzea.

Bolumen handia zuen, agidanez, mintegiak garai batean, Joakin aitaren eta Agustin osabaren ardurapean. Joxe, beste osaba ere, Ameriketara joan artean, zeregin horretan jarduna zen.

Joxe osabaren istorio bat aipatu didate. Oso landare maitea omen zen eta landare egoki bat zainak ongi osatua ikustean, ezpela aipatu didate, hala esaten omen zuen: "Ezpel honi aitzakia ateratzen diona ere alu earra dek".

Etxekoez aparte, orduka eta kanpoko langilerik izaten zuten mintegian. Zernahi landare izan ohi zen hor: zuhaitzak (pago, haritz, urki, gaztaina, zumar..., zuhamuxkak (ezpel, betiraun...) fruta arbola (sagarrondo, udare, intxaur...) eta urteko lorea.

Makinarik ez orduan eta dena eskulana: laia, goldea... idi parea kanpotik ekarrita. Landareekiko lilura beti bizi izan duela dio Agustinek ere, "maiz askotan landarekin hizketan aritzen nintzan". Lanik gaitzena edo delikatuena, ordea, txertaketa lana omen zen.



Portuetxe



Indiano-Enea aski izen hedatua da inguru guztian, baina **Portuetxe** du jatorriz izena etxe edo baserri honek. Aitonak esan ohi zuenez karlistadakoan bere aurreko aitona ihesi Ameriketara joan eta handik sos batzuekin etorri eta etxea birmoldatu omen, eta hortik Indiano-Enea.

Herritik Portu eta Osinagara doan bideak eta Karabele aldetik datorrenak elkar topatzen duten puntuan kokatzen da **Portuetxe** baserria eta puntu horretan zubi bat dago, Urnietako urak eta ur zikinak (Akan, Trankatx, Haitzalde) dakartzan errekaren gainean.

Etxea soil-soilik hartuz gero, koadroko etxea da gurutzean beraren teilatuak lau isuritara ematen duelarik. Lau isuritakoa izatea handiki etxe izatearen seinale dela diote. Bi eranskin bata bestearen jarraian Lonja deitu etxearen aldetik. Sarrera bi halaber, ekialdetik bata eta Osinagako bidetik, nagusia dena, bestea. Bi bideok elkar topatzen.

Joxe Gabriel Elizondo (54 urte), bertako semea eta etxeko nagusiak ezagutu omen zuen amona: Kontxa Larburu Arrozpide, **Berakorte** baserriko alaba, baina aitona ez, Joan Bautista Elizondo Galardi. Hona hauen seme-alabak: Kontsuelo, Joxe Gabriel (Ameriketara joana), Migel eta Petra.

Migel etxerako gelditu eta Sofia Kamio Setien, Urnietako **Portxeta** baserriko alaba hartu zuen emaztetzat. Hauen seme-alabak Mari Lurdes, Joan Inazio eta Joxe Gabriel. Hau bizi da orain Portuetxe baserrian Agustina Ameztoi Elizondo oiartzuarrarekin ezkondurik eta Asier eta Edurne seme-alaba gazteekin.

Erribera lurrak, benetan lur onak dituzte zernahi barazki eta beste lantzeko. Barazkiak eta esnea izan dira Portuetxen ekoizpen nagusiak. Lauzpabost behi beti, baina, oro har, barazkiei garrantzia handiagoa nolanahi ere. Idirik ez du ezagutu, behi parea izaten zuten, ez baitziren batere lur zailak, irastorra edo garoa bera ere aberearen bizkar gainean garraiatu ohi zuten. Duela 30 bat urte sartu zuten etxean traktorea.

Aitak baserriko lanetan jardun zuen bizitza osoan. Semea, Joxe Gabriel, 12 urtetan kanpoan lanean ibilia da. Orain denda dauka Portu auzoan, Elizondo janari-denda. Lehen izeba zen honen arduradun, emaztea orain. Eta bi behi eta zekorren bat edo beste baizik ez dute. Barazkiak bai, baratze ederrik badute etxe aurrean eta inguruetan.

Errepide berria (Hernaniko hego-saihesbidea) Portuzabal baserriko lurretatik barna eraman dute hein handi batean, zutabe lerden batzuetan finkatuz. Oztopo eta buruhaustea franko izan dute berau hasi zenetik eta amaitu arte.

AUZOAREN HISTORIA LABURRA



ski ezagunak dira horrelako izenak E. Herrian eta Hernaniko herrian berean (Buztintxulo, Karobitxulo, Iturritxulo...). Gainera, *txulo* atzizki bigungarri horrek banago zer nolabait goxatu egiten duela izena eta izenarekin parajea bera. Horregatik, zokogune batean kokatzen bazen ere Sorgintxulo baserria, ez diot irizten erabat bazter itsusia zenik.

Bestetik ez dezakegu irudikatu ere Zirkuituko Errepidea urratu aurretik nola izango zen Sorgintxulo baserria eta bere ingurune guztia. Oriamendi eta Donostiarako bidearen adar bat hortik zehar zihoan Marieluts-Sorgintxulo-Ekogor-Berakorte-Bidaurreta...

Orain, oraino urte asko ez dela behintzat, auzo bilakatu da Sorgintxulo, honek, auzoari izena ezarri dion etxea, errepide, zubi eta etxebizitzak barne, mendialdetik izan ezik, inguruan hartu edo inguratua duelarik.

BASERRIAK

- Arrieta
- Sorgintxulo

SOLASKIDEAK

- Arruabarrena Zabala, Joanita (Arrieta)



Harri gainean, harrizko muino batean egina egotearen arrazoia izan daiteke (H)Arrieta izena jartzearen arrazoia. Halaxe esan ere digu bertako alabak. Sorgintxulo etxetik gora, bostehun metrora, Hernanitik Donostiara doan *zirkuituko* errepide berriaren eskuin aldera eta Antziolatik Galarretara doanaren ezkerretara, bien erdibidean, herriari so, honen zelatari bailitzan. Agidanez, baserri hau beste etxerik ez zegoen inguruan eta horregatik jendeak "Arrietako zubia" deitzen zion, Hernani eta Urnietarako bidegurutzean eraiki zuten zubiari.

Bi isuriko etxe handi zabala da **Arrieta** baserria. Hegoaldera begira, bertatik zuten sarrera nagusia bi bizitzek. Goitik behera erdi-erditik erdibituriko etxea da, eta ohiko baserriak baino zertxobait garaiagoa. Metro asko ditu luzeran nahiz zabaleran eta egun ia desagerturiko harresia zuen etxea inguratuz.

Ekialdera dagoen etxebizitza erabat erre zen 1960. urtean, Urte Zaharretik Urte Berrirako gauean. Berria eraiki zuten, baina lehenagoa bezalakoxea jaso zuten Udalak hala aginduta, hau da, goitik behera erabat zurezkoa, kanpoko lau hormak izan ezik. Gaur egun, etxebizitzak egin dituzte baserrian bertako seme-alabentzat, alde batean zein bestean.

ZUBITUR ARRUABARRENA Familia

Pedro Arruabarrena eta Felipa Izagirre (100 urterekin hila) ziren nire berriemailearen aiton-amonak. Antza denez, Feliparen anaiarena zen baserria eta inguruko lur asko ere, eta aipatu anaia Ameriketara joan zenean, arreba txikiari utzi zion Arrieta. Senar-emazteok bi seme, Joxe Domingo (ezkonge) eta Frantzisko, eta alaba (txikitan hila) izan zituzten. Frantzisko Berastegiko Antonia Zabala gaztearekin ezkondu eta Joana (75 urte orain) eta Pedro (ezkonge) ekarri zituzten mundura.

Joanak, Fermin Zubitur, "**Artzabaleta**, Zubieta auzoko azken baserrikoa" hartu zuen senartzat duela berrogeita hamar urte, San

Martinetan hain zuzen, eta horixe ospatzekotan dira asteburu honetan osasunak orain arte bezala laguntzen badie. Bost seme-alaba izan: Narziso, Maria Luisa, Joan Mari, Tomas eta Arantza. Gazteena izan ezik guztiak Arrietan bizi dira eta dagoeneko zortzi biloba ere badituztela jakinarazi digu.

Hamaika gaitz, estualdi, eta kezka pasatutakoa dela esan dit nire berriemaileak. Aita gazterik galdu zuenez, sei urte zituenerako hasia zen amarekin Donostiara joan eta marmita txiki batean esnea hartu eta hartzaileei esnea partitzen, ama San Martin plazan barazkiak saltzen geratzen zen bitartean. Hala ibili zen ezkondu arte; orduan, senarrak Luzuriagan lana egiten eta bera haurdun gelditu zenez, utzi zion merkatura joateari.

Ama perlesiak jo eta handik dozena bat urtera hil zen 73 urte zituela. Bien bitartean, eta gorago aipatu bezala, suak hartu zuen baserria, gauean, denak lotan zirela eta ama zena konturatu omen. Behiak ez beste guztia galdu zuten. Joana bera haurdun, Buenos Aires auzora joan ziren senar-emazteak seme-alaba birekin, beste bi, koinata baten etxera eta behiak Joxe *Enporruren* etxean. Ondo gogoan du Tomas semeak, bi urte orduan, zer nolako negarrak egin zituen bularraldea txinpartaz erreta.

IZAGIRRE Familia

Tolosatik etorri omen Roke Izagirre Jauregi eta Paskuala Irura Berakoetxea aiton-amonak, eta beren hiru semeak, Joxe Mari (7 urte orduan), Pako eta Bitoriano (gerran hila), alaba, Jertrudis (gaztetxo zela hila), eta hauen aitona, gure solaskidearen birraitona. Joxe Mari Zegamako Joxepa Apaolaza Otaegirekin ezkondu eta Ramon, Mari Karmen, Gabriel eta Joantxo seme-alabak izan zituzten. Mari Karmen alaba ezkondu zen etxera, Joan Poza donostiarra senartzat hartuta, "ama emakumezko bakarra etxean ez gelditzearren, etxean aski lan izaten baitzen halako koadrilarekin" esan digu. Bi alaba izan dituzte, Lurdes eta Gema.

Egun, baserriaren aldamenean eraikitako etxe berrian bizi dira hauek, eta ama, Joxepa, kontu hauek idazten ari naizen egun hauetako batean hil dela esan behar dut. Anaia gaztea, Joantxo geratu da baserrian bizitzen, Rosa Mari Basterra, Txile aldera joandako bizkaitar baten alabarekin ezkonduta.

Aita beti baserrian aritu zen lanean, baina 66 urterekin hil zen, eta anaia zaharrena, Ramon, kanpora ezkondutakoan utzi zioten baserrian lan egiteari. Bitartean, ordea, esnea eta baratza asko egiten zutela esan digu Mari Karmenek. Ama goizean Donostiako merkatura eta arratsaldean harako gauzak prestatzen, eta bere ardurapean otorduak, arropak, garbitasuna, eta etxe barruko gainerako lanak. **"Arrietako iturrira"** arropa garbitzera, etxera ura jarri aurretik; ur ona eta nahikoa nolanahi ere, eta gaur oraino bertatik hartzen dute.

Gaztetako garaiak gogora, dolarea bazuten **Arrieta** baserrian eta han eguna pasatzen omen ingurukoek artean Sorgintxulo taberna ez zenean. Janaririk ez zuten ematen, alabaina, batzuk etxera bazkaltzera eta beste batzuk etxetik ekarrita, bertan ematen zuten eguna kartetan, musean jolastuz eta sagardoa edanez.





Gaur egun, baserri izandako etxe isolatu bat, inguru guztiak hartuak dituen etxea, baina hein batean ongi kontserbatua dugu Sorgintxulo baserria.



Patxi Arrozpide eta Anjela Iraola ziren bertan azkenik bizi izandako senar-emazteak. Hona hauen seme-alabak: Migel, Manoli, Dori, Periko eta Pedro Mari.

Azkenik, etxea salduta botatzera doazela diote. Etxe berriak eraiki eta auzoa hornitzeko bidea harturik daude, agidanez.

AUZOAREN HISTORIA LABURRA

araje bukoliko baten erdian Ama Birjinaren ermita eta Altzega jauretxea zituen Zikuñagak bereizgarri nagusi lehengo garaietan. Industria berria etorri zen, joan zen ermita, joan zen baita ere jadanik sasoi bateko ospea galdurik zuen Altzega etxea, zulo zatar bat lekuko utziz.

Zulo gehiagorik ere badu Zikuñaga auzoak, baina, ezin esan, astiro bederen, denbora berrietara moldatzen ari ez denik.

BASERRIAK

- Altzega (Desagertua)
- Altzega Berri
- Andola
- Beloki
- Eziago (Hondakinak)
- Ibarluze (Desagertua)
- Ibarluze Berri
- Karabele Txiki
- Orkolaga
- Zikuñaga (Desagertua)

SOLASKIDEAK

- Aranburu, Felix (Orkolaga)
- Arrieta Otaño, Karmen, (Karabele Txiki)
- Arrieta Zubiarrain, Joxe (Orkolaga)
- Arrizabalaga Zabala, Joxe Mari (Altzega Berri)
- Etxeberria Arregi, Joxe (Zikuñaga)
- Lizaso Aiestaran, Joxepa (Andola)
- Lujanbio Etxabe, Gabriel (Ibarluze)



Gaur egun, Altzega esaten den arren, "Alçaga" eta "Alçega" ageri zaigu dokumentu zaharretan, hala nola Lope Isasti (1625) eta "Nomenclator" (1870) zerrendan. Ahaide Nagusietarikoa zen Gipuzkoan Altzegako jauna, oinaztarren alderdikoa, Murgia (Astigarraga), Atxega (Usurbil), Jauregi (Amezketa), Lazkao edo Loiolako jaunen pareko. Gerlariak zituen menpean (ikus **Altzega** dorretxeko armarrian zilarrezko zuhaitz batetik zintzilik pertza) eta historia luzea duen etxea Hernaniko herrian besterik izan bada. Hernaniko parroki eliza nagusiarekin ikustekorik bazuen gerora ere Altzega dorretxeak. Hilobi berezia zuen bertan, gainera. Etxe zaharrean oraino kapera izandako aztarnak bai omen ziren. Mereziko luke azterlan sakonagoa. Bego oraingoz bere horretan.

Goizuetarako errepidez azpitik, ezkerrera, zegoen **Altzega** edo Altzea baserria, lursail ederrez inguratua, orain papelerak eta Iberdrolak hartzen dituen lursailak eta baserria zen lekuan leize iduriko zulo itsusi bat baino ageri ez delarik.

Etxe luze errektangeluarra, hegoaldetik sarrera nagusia, goien etxebizitza, sala eta



salatik terrazarako irteera. Hegal bat luzeagoa eta beronen baitan dolarea goian eta behean artegia. Negualdian artaldea egon ohi zen hor. Etxeak, bestalde, mandioa zeukan errepide aldetik, eta ganbara belar ondua eta lastoa edukitzeko.

Zizurkildik etorria zen bertako azken familia. Portxeta baserria saldu han eta **Altzega** erosita etorria. Aita, Bixente Arrizabalaga Maiz, eta ama Anbrosi Otaño Aranburu, Astigarragako alaba, eta semealabak: Bonifazio, Maria, Joxepa, Joxe, Gabriel, Martin, Rikardo eta Rosarito.

Joxe gelditu zen etxerako Maria Zabala Zabala aranoarrarekin ezkonduta. Semealabak: Joxe Mari, Arantxa, Begoña, Joxe Manuel, Jexux eta Ana. Joxe Mari etxean orain, emaztea Mari Kruz Ansa Huizi, aranoarra hau ere eta Iratxe eta Asier semealabekin.

Joxe Mari, etxeko nagusia, gaur (49 urte) ozta-ozta oroitzen da aitonaz, baina zortzihamar behi izaten zituztela bai. Zekor multzo bat, idi parea eta aberea egunero Bretxako plazaraino esnea, barazkiak eta ahal zen guztia garraiatzeko, familia handia biltzen omen eta. Ahal zen guztia esatean, ongi oroitzen dira nola platano hostoak harategietara eraman ohi zituzten, orduan ez baitzen ez paperaren ez plastikoaren aukerarik.

Negualdirako, Aralar menditik etorrita, artzaina izaten zuten bere familiarekin, etxeko bezala hartua zen, otordua elkarrekin eta gela berezia zuen etxean. Ondo gogoan du Joxe Marik San Jose eguneko bazkaria artzainak jartzen zuela, arkumea, bi familiak elkarrekin jan ahal izateko, eta handik laster nola Aralar aldera uda guztirako joaten zen.

Idi parea, gehienbat, lur lana egiteko eta simaurketarako. Bidez eskuineko lurrak aldapatsuak zirenez, sagasti eta belardiak, aparteko sistema zeukaten simaurra garraiatzeko.

Goiko punta batean *palanka* bi tinkatzen zituzten, lurrean oso ongi barneraturik eta hor *polea* bat ezartzen, idi parea simaurrez kargaturik, kablea *kabilari* lotuta gora eta beste idi parea goitik behera. Funtsean, puntako egitearen funtzioa konplitzen zuen honek, baina gorago aipatu bezala aparteko *sistema bitxia* erabiliz.

Elkarrekin solasean, Joxe Mari eta Mari Kruz oraingo aita eta amak aurrekoen (aiton-amonak, gurasoak) jarrera noblearen berri eman didate. Ikusi dugu artzainari buruzkoa. Iberdueroko langile bat eta bere familiari buruzkoa esango dugu orain. Enpresa hau muntatzeko garaian langileek barrakoi batean zuten egoitza. Hauetariko bat, bere familiarekin etorri, etxebizitza izango zuen ustearekin, baina ez izan beretzat etxebizitzarik. Aieneka ondoko Altzega baserrira gau bat bederen bertan pasatzeko eskaera luzatuz. Nola edo hala dolare ondoan, bazter bat gortinaz inguraturik antolatu eta... bi urte egin zituen langile familia honek bertan.

Iberduero Altzegaren lurrik hoberenak irensten joateak ondorio bat baino gehiago ekarri zion familiari.

- Zikuñagako fabrikara etxeko gazteak lanera.
- Ganaduak errepidez bestaldera larrera eramateko bera gurutzatzearen zailtasunak.
- Etxea eta ukuilua errepidez goiti eraikitzearen beharra.

Oroitzapenik aski gordetzen dute, gurasoei entzunda, beren baitan. Gerra garaikoa, nola leiho zuloetan artilezko koltxoiak ipintzen zituzten babestearren. Nonahi, baso aldeko lurretan burdinazko bolak eta balak aurkitu izan dituzte. Kontrabando garaian, Joxe Mari berak ere zerbait badaki horretaz, etxez goitiko bide bazterrean, frantses bidea, oinetako nahiz abarka urratuak zirela ezaugarri. Guardia zibilak, beren erronda egin ondoan (orduan kuartela herrian, Txilibita taberna ondoan) Altzega baserrira papera sinatzeko eskatuz joaten zirela.



Altzega Berri



Joxepa eta Iñaki, ama-semeak aurkitu ditut etxean. Hobe, esan dut nire baitan eta halaxe izan da. Andola etxearen izenez galdegin diedanean, Iñakik aita zenaren esaldi bat bota dit arrapaladan.

"Andola, ua han daola"

Eta amak halaber:

"Andola paret zikin, Ibarluze kaka lustre eta Lizarraga salda mehe".

Azken honen zergatiaren berri ematen ez zekien, baina bai beste biena. Andolak iparraldeko etxearen horma betidanik galipotaz estalia izatea. Ibarluze, Laxaro txerri-tratantea, zerriak etxean eta usaina inguruan, horra.

Andola izenak badirudi *"andu"* (lurrean barneraturik zuhaitzak duen partea) gehi *"ola"* (aterpe, tegi, leku).

Goizueta edo Ereñotzurako errepideak Eziagoko pabilioien parean ezkerrera egiten duen bihurgunearen goian kokaturik dago **Andola** baserria. Errepidetik begiratuta etxe koxkorra ematen du benetan, eta guztiz zaharra, bi isuritako **Andola** baserriak, ekialdetik terrazape bat eranskin bezala duelarik. Etxea ez da txikia inola ere. Sarrera nagusitik sartu, egun aroztegi tailer bilakaturik, eta doi-doian 100 m² luze-zabaleko lekua, eta hor sotoa, sukaldea eta upelategia zituzten. Goian bizilekua eta etxetik at terrazape horretan ukuilua. Etxe dotorea izango zen noizbait. Ikusi besterik leiho ertzetako eta etxearen lau kantoietako harlandu ederra.

Joxepa Lizaso Aiestaran, Igeldoko alaba (79 urte) etxeko amona, oraino gordin kontserbatzen dena. Gaur goizean ere autoa berak gidaturik, erosketak egin eta herritik

joan-etorria eginik zen. Amona ezagutu zuen, historia luzeko amona alarguna, Mikela Erdozio Señorena, **Añoa** baserriko alaba eta senarra, amerikanoa, Joxe Mari Erdozio Izagirre. Osaba-iloben arteko ezkontza zen hau.

Kontatzera noan historia eleberri erromantiko bat idazteko gai den historia da. Joxepak esanda bezala hona gertaera:

"Joxe Mari aitona (gaztetan noski) arrebak hiru hilabeteko nexka arrebari ondo zaintzeko enkargua emanez agurtu omen zan Ameriketara joaterakoan. Handik urteetara, sos batzuk eginda etxera itzuli eta iloba horrekin ezkondu Joxe Mari, Andola baserria erosita. Etxea lurrez gehiago hornitu nahirik, berriro Ameriketara.

Diru berriarekin Lanberri lurraldea (20.000 m²) eta orain Eziagoko pabilioiak dauden hori eta beste bat erriberan (Orbegozo). Horrela izan ziran Andolako aiton-amonak". Zazpi seme-alaba izan zituzten: Kattalin, Martina, Inaxio, Joxe, Maria, Jazinta eta Antonio.

Joxe gelditu zen etxean, ezkonduta, gurasoekin, eta emaztea Joxepa Lizaso Aiestaran. Hauen seme-alabak: Patxi, Iñaki, Mari Kruz, Joxe Mari eta Axun. Gaur, Joxepa eta Iñaki, ama-semeak bizi dira elkarrekin etxean.

Joxe eta emaztea baserriari atxikirik bizi izan ziren beti. "Baserria eta lurrak bai, baina dirurik etzan gure etxean" dio orain amonak. Zazpi zortzi behi eta etxerako zerri bat urtero. Esnea etxez etxe banatzen zuten Hernaniko herrian. Ahal zen neurrian etxeko gauzekin moldatzen omen zuten jatekoa, taloak, babarruna, txerrikia, haragi pixkaren bat eta arraina tarteka. Ez ziren barazki eta entsalada zaleak batere.

"Gazteek ez dute baserrirako gogorik ekarri. Esaterako, behiak jeztea bera nire kargu izan zan beti".

Gurasoak nekatzen, industria bultzaka edo bazterrak irentsi nahirik, azkenean lurrak saltzeko erabakia hartzera jo zuten. Salbu baso eta sagasti izandako malkarra eta beheko zelai bat, hau da, "ganadu larreak" deitu lurrak gelditu dira soilik etxe zaharrarekin. Lur hauetarik, gainera, 8.000 m² "eliza egiteko saldu ziren" Joxepak dioenez.

Saldutako lurrekin, lur onak, gaur auskalo zer balioko luketen, zuhur jokatuz bi etxe eraiki zituzten Andola baserriaren alboan seme-alabak horietan bizi ahal izateko.





ZENA: Izen konposatua eta askatzen hasiz gero, iduri du *belar - toki* dela bere esanahia. "Beloqui" horrelaxe, azaltzen zaigu "nomenclator" zerrendan (1870).

Etxe zaharra garai batean, izatez. Ostegun batez, feri eguna Hernaniko herrian, etxeko jauna, beste asko bezala, ferian zelarik suak hartu eta erre egin zen. Ondoren, berritzeko modua egin zuten.

Rekondotar familia bizi zen orduan Beloki baserrian. Zelestino zuen izena bertako aita edo nagusiak. Baserriko lanaz aparte, "Biyak Bat" papeleratik estaziora pasta garraiatzeko zeregina betetzen zuen. Oroit orduan estaziorako bide bakarra Balantxan gora Zinko-Eneatik barna joaten zela.

Hartan, maizter izaki, etxea saltzera atera, 18.000,- pta guztia ere (etxe eta lurrak) baina garai hartarako nahikoa eta gehiegi. Zorrak pagatu ezinik ibili nahi ez, eta ez zuen aurrera jo.

Salaberria familiak erosi zuen baserria bere lurrekin. Gero, Zikuñaga auzoa etxe berriz hornitzen zihoan heinean (tailer, biltegi, denda...) baserria bota, hau Goizuetarako bidearen azpitik zegoen, eta bidez goiti eraiki zuten etxe berri ederra bere armarri eta guzti. Baserria horretan amaitu zen. Berriak izena baizik ez du mantendu, Beloki Berri.





Ez da batere lanbide erraza izen honen sustraia zein den aurkitzea. Esan dezadan "Ceago" azaltzen zaigula Errota eta burdinolen zerrendan eta "Eciagu" (Molino harinero) "Nomenclator" (1870) delakoan. *Iradia* (irastorra den lekua) dela Eziago ikusia dut nonbait. Ez nago ziur non.

Baserri polita omen bere garaian, errota izana, gainera, eta burdinola lehenago. Abeltzaintza eta laborantzarako egokia. Lur onak eta erribera puska batez osatua.

Azken aldera hiru anaia bizi izan ziren bertan: Manuel hanka motza, Xanti arotza eta Anizeto. Honen baitan baserriaren ardura. Joxe "Ezio" itzaina ere horien anaia omen.

"Biyak Bat" papelerak irentsi zuen funtsean Eziago baserria.



Ez du inolako zailtasunik, toponimo edo leku izen garbia baita "Ibar" + "luze" izan ere. Nafarroarako errepidez eskuinera, ibai ertzeko lautada eder batean kokaturik zegoen **Ibarluze** baserria, lur eta etxe bikaina.

Bi bizitzako etxea zen Ibarluze Zaharra. Lujanbio familia etxejabe eta maizterra alboan. Bi isuridun etxe luzexka eranskin zenbaitekin, dolarea, etxe-ordekoa eta garai batean sagardotegia.

Duela sei urte erauzi zen eta ordainez Ibarluze izeneko industrialdea dago orain bere lur hauetan, zeren errepidez ezkerreko hegalean baitute orain etxea, Ibarluze Berri, lehenari jarraiki baratze ederrez (negutegi eta guzti) horniturik. Egia esan, txalet itxura areago du lehengo baserriaren lanabesak oro etxe inguruan dotore kontserbatzen dituzten arren.

Aiton-amonak ezagutu zituen Gabriel (71 urte) etxeko nagusi eta nire solaskideak, Antton eta Joana. Gurasoak, aldiz, aita, Laxaro Lujanbio Beldarrain, etxeko semea eta Maria Etxabe Etxeberria, **Lastaola Goikoa** baserriko alaba. Seme-alabak: Joxe, Gabriel, Manoli, Joana, Martina eta Anjeles.

Gabriel etxerako, ezkonduta Pakita Errazkin Izagirre, eta honako seme-alaba hauek: Gabriel Mari, Ana Mari (23 urtetan Jakako mendietan istripuz hila), Laxaro, Beatriz eta Ixiar. Gurasoak bizi dira etxe berrian eta Laxaro semea.

Hamar bat behi izaten zituzten eta baratze ederra beti. Behiak uztarrirako eta lan gogoren bat egiteko, idiak kanpotik ekartzen zituzten.

Tratuarekin (esnea eta barazkiak) San Martin plazara egunero, tranbian lehenik eta etxeko furgonetan gero, bai ama eta ondoren Pakita emaztea. Sagarra poliki bazuten etxerako sagardoa egiteko eta sagar puska bat saltzeko. Baserriaz aparte, Laxaro aita aski ezaguna zen zerri tratalari bezala inguruko baserri eta herrietan, Joxe seme nagusia lagun zuelarik.

Izeneder aldetik azpigarria etxeratzen zuten, eta orduan bai kanpoko idi parearen beharrean gertatzen ziren.

Gabrielek dioenez, hiru alditan behintzat, uholdeak, urak erabat hartuta ibili omen ziren, eta kalteak ordainduko zizkiotela eta "paperak betearazi bai, baina sosik ez sekula ikusi".

Herriko eskolara joaten omen eta bazkaltzera etxera, joan-etorria 5 km egin ondoan eta hamar guztira egunero.



Ibarluze Berri



Askoz ezagunagoa da **"Karkulo-Enea"** izenez. Agidanez, aitonarengandik datorkio izen edo ez-izen hau, aitona zenak buruz kontuak ateratzeko erraztasun handia zuelako. **Karabele Txiki** du, hala ere, izatez, bere izena.

Karabeleko zubia eta Martindegiko bidearen hasiera berean eskuinera jo eta aurreraxeago, Zikuñagako auzoan, ibaia eta errepidearen ezkerrean aurkitzen da baserri hau.

Aski patxadako etxea, bi isuriduna, orain garajea lehen ukuilua zuen tokian eta orain eskailera kanpotik duen bezala lehen barrutik.

Aita eta aitonaren artean, duela 75 urte, eraikia da etxea, ibaitik legarra aterata.

Karmen etxeko alaba dut solaskide eta gogoan ditu Inaxio Arrieta eta Maria Vitoria, aiton-amonak etxean.

Gurasoak, aldiz, Bixente Arrieta Vitoria eta Joxepa Otaño Mendizabal izan ziren. Hona hauen seme-alabak: Pepi, Mikeli, Maria, Karmen, Inaxio eta Balentina. Inaxio maiorazgoa bizi izan zen aitarekin etxean.

Orain, Karmen alarguna, Mari Kruz alabarekin. Beste bi alaba ere baditu honek, Maria eta Pepi, etxetik at jada.

Aita Mendia papelerara lanera eta baserrian handik kanpo. Baserrian lauzpabost behi izaten zituzten, zekor batzuk, zaldia soro lanerako, jatena nahiz simaurra garraiatzeko. Behiak uztarrian. Baratze ona izaten omen, baina familia ere handia. Zerri bat urtero. Esnea kalera eta jatekoa trukean. Talo-irina Osinagako errotatik. Oroitzapen asko ditu gogoan Karmen nire solaskideak.

Oilaskoa, etxean hazia, San Joanetan eta Eguberrietan. Erregetan mandarina bat zapatetan, "ez zen fantasia handirik orduan bazterretan". Oraintxe balitz bezala oroitzen da Komunio bezperan amonak nola bi arrautza frijitu saritzat eman zizkion, esanez, "jan besteak etorri baino lehen". Gaztetxo zela opari berezi bezala *ispilu* txiki bat eman zioten.

Artoa zuritzeko iluntzeak ere ez dauzka ahantzirik. Artoa zuritu ondoan, afaria eta gaztaina egosiak, *katilutxo* bana bakoitzari. Babarruna bazkaltzen, porru patatak afaltzen.

Beste gauza bat ere bai. Razionamenduko ogia, egunean opil bat izaten omen zen gose-urte haietan. Aitari gosaria emango bazioten, Karmen goizean seietan jaiki eta kalera ogi bila. Etxera baino lehen garbitzen omen zuen berari zegokion opila.

Gerraostean jende gehiago ere gose eta barazki bila Karabele Txikira. Amonak hala esaten omen zuen: "Jainkoari esker, gauza batzuk baditugu behintzat eta har itzazue zuek ere". Eskaleei taloa eta esnea, etxe aurrean, jan zezaten. "Ez da gauza asko eduki behar ematen jakiteko!".

Harriturik dago nire Karmen hau oraino, bere guraso eta aurrekoen jarrera edo jokabideaz. Esaterako, auzolana aipatu du. bost baserri baizik ez omen garai hartan Zikuñaga guztian (Andola, Altzega, Aterpe,...) eta nola elkarri lagundu gero! "Umeak, halakotan, artoa ereiten ari dira eta zoazte hazia botatzera" edota "euria dator eta belarra biltzen laguntzera".

Benetan, gaur egun ahaztuxeak ditugu honelako jokabideak!.





Ez du inoiz entzun eta ez du aztarnarik ere izenaren esanahiari buruz, Felix Aranburu (85 urte) bertako semeak. Hernaniko herriak badu Orkolaga izeneko metereologo aitzindari sonatu bat ere, baina ez du uste **Orkolaga** baserriarekin ikustekorik bazuenik. Alabaina, Orkolaga Hernaniko jauretxe (handiki etxe) ez ziren asko baina hau bat, delakoaren zerrendan ageri zaigu (Lope de Isasti, 1625).

Berebiziko nahasketa dute posta arazoa dela eta beste, zeren ofizialki Martindegi 1 baita beronen helbidea. Lehen, garai batean Akerregi bailaran omen zegoen, baina Zikuñaga auzora dute aspaldidanik irtenbide guztia. Felix txikia zenetik behintzat hala ezagutu du. Zikuñagara, Leku Zahar jatetxearen ondotik bostehun bat metro gora jo eta, ikuspegirik ederrena duen bizkargune batean kokaturik dago **Orkolaga** baserria.

Etxebizitza bakarra izana dugu **Orkolaga**, agidanez. Adarragatarrek erosi zutenean bilakatu zen bi bizitzakoa. Arrieta familia bizi zen bertan. Etxea bi zati berdinetan banatu eta Felixen aitona Martin Bixente bere familiarekin sartu zen bestean. Teilatua eta egitura oraintxe bezalakoa omen zuen. Sarrera nagusia, bi familiek bide aldetik, eta ekialdekoak mandioa, ekialdetik hau ere. Honek, alboan aterpe bat dauka, bere dolare bildu eta modernoarekin. Ekialdetik halaber ate handi bat zeukan *tranka* edo *tala* deitu zurezko tresnaz ixten zena, simaurra ateratzeko. Bide aldetik ere beste ate bat, handia, soto edo *majera* aurrera ganadu jatekoa sartzeko.

Etxea oraino urte asko ez dela goitik behera berritu zuten, zurezko hezurdura ezarriz, beti ere goxoago edo beroago delakoan. Lehengo ukuilua sala eder bat bihurturik daukate, mahai luze sendoa eta beheko suarekin horniturik. Honen aire beroaz baliatzen dira bai beheko sala eta bai goiko bizilekua goxatzeko neguan, eta ahaide eta lagunartean tarteka otorduak eginez elkarrekin biltzeko.

Iparraldeko bizitzak ere, Arrietatarrenak, egitura bera du. Alboan estalpe handi bat eta ukuilua, etxetik at eta gaur egungo baldintzen arabera antolaturik hau.

ARRIETA Familia

Joxe, aitona eta bertako semearekin (75 urte) mintzatu naiz. Aita Gabino Arrieta Goitia, Orkolagako semea, eta ama Axentxi Zubiarrain Ezeiza, ataundarra sortzez, izan zituen. Eta ondoko seme-alaba hauek izan: Agustin, Joana, Isabel, Mikela eta Joxe.

Hau, Joxe, etxerako; ezkondu, emaztea Ramona Larrarte Imaz, Martuteneko alaba, Joxe Mari seme bakarra izan dute. Neskamutiko bikiak ere izan bai (7 hilabeterekin jaioak) baina ez ziren luzaro bizi izan, ahaleginak eta bi egin arren. "Gaur izan balira..." Joxek penaturik zioen.

Joxe Mari dago orain etxean ezkonduta Ana Amondarain, tolosarra, emazte duelarik eta bi seme, Mikel eta Iñaki. Baserrian senar-emazteak bi semeokin bizi dira, aita kaletik egunero laguntzera etortzen zaielarik.

Gurasoak baserri lanari loturik bizi izan ziren dio Joxek. Hiruzpalau behi, beste horrenbeste zekor, zerri bat edo beste, oiloak. Esnea herriko etxeetara egunero.

Gazteak, aldiz, eskolara eta gauza izaten hasi zirenean lanera. Joxek, dio, ez zuela eskolarako gogo handirik eta ongi konpontzen zela aitarekin baserri lanetan. Hau ere, gero, erreleboan fabrikara, ordu tarteetan gurasoei lagunduz.

Joxe Mari semea, berebat, aldi batean kanpoan lanean ibilia bada ere, baserria egungo moldeetan berrantolatzeko modua eginez baserriari atxiki zaio.

Ukuilu zabal irekia etxe alboan, hogeita hamar behi eta zekor multzo bat dauzka. Zekorrak ahal bezain laster salduz, esnea dute gehien batean bizimoduaren oinarri.

Esan gabe doa, lagunarteko gizona dela Joxe Mari, bertsozale nahiz bertsolari porrokatua, bestetik.

ARANBURU Familia

Gure Felix oraingo aitonak gogoan du Martin Bixente Aranburu Oiartzabal aitona. Gurasoak, aita Luxio Aranburu Oiarbide eta ama Jexuxa Arbiza Arrieta, **Karapote Etxeberri**ko alaba. Hona berriz hauen seme-alabak: Martin, Joana, Mertxe, Dolores, Felix, Joxe eta Maritxu.

Felix etxera ezkonduta, emaztea Maria Luisa Oiarbide Zabaleta, **Txabolategi**ko alaba, hiru seme izan zituztelarik: Martin, Joxe Antonio eta Luxio.

Orain Martin, seme nagusia dago etxean, Maria Luisa Jalon Artolarekin ezkonduta. Semea, Joxe Anjel. Senar-emazteak, Joxe Anjel semea eta Felix aitona bizi dira Orkolagako Aranburu familian.

Felix eskolaume zela, gurasoak eta amona ezagutu zituen baserri lanean. Lau behi



jeneralean, beste hiruzpalau zekor, hogei bat oilo, zerri bat hazten zuten urtero etxerako, eta astoa mandatuak egiteko.

Baserri koxkorra eta familia ere nahikoa etxe hutserako dio aitona honek. Egunero, esnearekin herrira, "litroko hiru txakur handiren truke, sardina zaharrak taloarekin jateko baino askoz gehiago ez". Agidanez, orduko otorduak eltzekoa beti, babarrunak, *aza-babarrunak*, odolki edo urdai puska batekin. Arnas berria izan zen amarentzat Felix 17 urte zituela fabrikan lanean hastea. Astean duro bat irabazten zuen, duro zilarra, eta orduan hasi omen zen hau larunbat iluntzetan lagunartera biltzen ere. Oroitzen da Akerregiko sagardotegian nola lau edo bost lagun biltzen ziren. Sagardoa nahizu-nahizu eta txuleta *bost erreal*, erreal bana bakoitzak.

Dena den Luxio aitak ere bazuen zeregin osagarri bat, sos batzuk etxera ekartzeko, zenbait etxeren (kale eta baserri) eta lurren administrazioa. Bestetik, gizon eskolatua zela diote, lagunartekoa eta neurri batean *parranda* ere gustuko zuena, baina baita baserriko lanak zuzen egiteko gizona ere. Oroimen izugarria omen zuen edonoren izen eta deiturak gogoan edukitzeko. Felixek jarraitu zuen etxean, ezkonduta, lanera joanez eta baserrian gurasoei lagunduz.

Argia nahiko nekez iritzi zitzaien etxera. Bitartean, ahal bezala moldatzen ziren kandela, kriseilu eta karburu argiaz baliaturik.

Azkenik bi aitonak, batekoa eta bestekoa, hurbildu zaizkit kontu-kontari. Igande arratsaldetako dibertsio eta jolasak zeintzuk izaten zituzten galdegin diet. Erantzuna: *bilerak* deitzen zitzaien orduan, gazte jendea biltzeko erromeriak soinuarekin, Fagollaga, Irubide, Ibarluze, eta Txikierdi, hau printzipala".

Zikuñaga



Ez du zikoina hegaztiarekin ikustekorik, noski, hala ote den esan badidate ere, besterik da baizik. *Ziga, zigi, ziguin*... orain malma edo malba belarra esaten dugunetik hurbilago dago. Esaterako, *ziguin-aga* (Zikuñaga) *malma lekua*, izango litzateke beronen esanahia seguraski.

Nork ez daki, aldi batetik aurrerako jendearen artean behintzat, Zikuñagako Ama Birjinaren ermita non zen? Orain izen bereko, Zikuñaga, paper fabrika dagoen horretan, hain zuzen.

Ermitak albo bietan, ezker-eskuin, bi etxe bizitza zituen, bi baserri eta bi familia. Etxeberria ezkerrekoan eta Arana familia eskuinekoan.

Honek etxepean zuen ukuilua. Ezkerrekoak, aldiz, etxetik at. Eta sukaldea, komuna eta jangela zituen etxearen behean, logelak goian. Etxe aurrean, albo batera, estalpea, eta bertan ukuilua eta ganbara.

Honela osaturik zen Etxeberria familia: aita, Patxi Etxeberria Loinaz eta Matea Arregi Iraola ama, eta sei senide: Asentsio, Migel, Joxe, Bernardo, Ruperto eta Mertxe. Joxe, nire solaskidea eta arreba Mertxe gelditu ziren etxean gurasoekin.

Azkenik, Joxe ikusten dugu etxean gurasoak hil ondoren, harik eta 1985ean azkeneko meza eman ondoren (irailak 10), epailea tarteko eta derrigorrean, "sos baten alderdirik gabe", kanporatuak izan ziren arte.

Are gehiago, arrunt sumindurik kontatzen du beste gertaera bat ere. Handik bi urtera (87an) ermita eta bi baserriak beren lurrekin bertan behera joan ziren.

Baserria, egia esan, aurrez ere erabat murriztua omen Joxeren esanetan. Beti ere lursail izugarriak ez bazien ere izatez, hiru mila metrora mugaturik zeuden jada. Eta Joxek hau ere barruko minarekin esaten du, oraino aita bizi zela nola aurreko estalpea, bere ukuilu eta guzti, garai hartan herriko parroko zen D. Jose Elgarrestak 9.000,- pezeta

ordainduko zizkiola aginduta omen hura botatzeagatik. Aitak berea konplitu bai baina ordainik jaso ez, horra. "Gozoa egoten zen, bada, gure aita"!

Azken batean, Zikuñagaren historia, oro har, historia aski tristea izan bada, hau, esanak esan, atal bat baizik ez dela irizten diot.

ARANA Familia

Haurtzaro eta gaztetako bizimoduaren berri kontatzen hasi zait bisitatzera joan natzaion bezain laster Domingo nire solaskidea (92 urte), ezindua, etxean, baina burua argi oraino.

Lau urte zituela amarik gabe gelditu eta Hernaniko Ospitalera eraman zuten. Hor eskola pixka bat eta akolito ibili omen zen. Gogoan ditu *Confiteor* eta *introitoak*. Bederatzi urte zituela Urnietako **Barkaiztegi Berri** baserrira morroi. Behiak larrera eramatea, itaurrean egitea eta karburo argiarekin nagusiari ukuiluan argi egitea izan zituen zeregin nagusiak hasieran. Anai-arrebak bertan. Ondo jaten omen. Gosaldu nagusiarekin batera, sardina zarra, arrautza eta kafesnea. Han indartu omen zen. Soldadutza arina, kuota ordaindu baitzioten. Goldea han ezagutu zuen, berak dioenez, idi parearekin lanean, zeren "bitartean laia izaten bai zan lurra gorritzeko tresna". Nagusiak, gizon ona, "Jodida Sos" zuen maldizio bakarra.

Hala-hala, Arbe familia bizi zen Zikuñaga ermitako baserri eskuinekoan eta eskaintza on bat egin zioten Domingo gazteari, San Martinak bitarte baserri lanean haiei lagundu eta urteko errenta ordaintzerakoan bera haien ordez maizter gelditzekotan. Haiek kalera joan nahi nonbait.

Halaxe sartu zen Domingorekin Arana familia **Zikuñaga**ko baserri horretan. Zazpi golde inguruko lursailak zituen baserriak gero Zikuñaga papelera finkatuko zen eremu horretan, eta errenta, goldeko 17 duro. Domingo Arana Garmendia gaztea Manuela Goñi Etxeberriarekin ezkondu zen, **Elorribia** baserriko alaba hau, eta alaba bat izan, Joakina. Eta gerra etorri eta emaztea eta haurra utzita soldadutzara joan behar izan zuen. Bi urte eta erdi iraun zuen honek.

Etxera itzuli eta geroz izan zituzten gainerako seme-alabak: Petra (txikitan hila), Joxe Migel, Rufina, Maria Dolores eta Julian. Lau behi izaten zituzten baserrian.

Bestetik, "gerra bukatu eta berehala hasi zan papelera fabrika altxatzen, eta horko obra lanetan ni ere bai. Eskuz egiten genun masa orduan eta bizikletaren gurpilaz eginiko polea eta sokaz igotzen gora. Gero, barrura pasa nintzan eta hor 38 urte pasatu lanean, labezain. Aldaketa haundiak gertatu ziran elektrifikatu zanean".

Fabrikak, goldeko 35.000,-pta. eman omen zizkien (7 golde honek) uzte aldera, maizterrak izan arren. "Gero, lurrak gutxiturik behi pare bat baino ez genun izaten. Gero, ermita joan zen eta gu ere bai hango parteak eginik".

Auzoak

Galarreta

Jauregi

Santa Barbara

AUZOAREN HISTORIA LABURRA

Galarretak izen bereko etxe bat, handiki etxea hori bai, eta gain bat, Galarretako Gaina izenez, ez zuen besterik bere jabetzan ia oraintsu arte. Baina zer ote da aro berrien ufada? Ezker-eskuin bi besoak sakatuz bezala aurrera egin du. Zirritu bat urratu du lehenik, Jauregi eta Antziola auzoen artean, eta eremu bat finkatu beretzat, hau oso zabala ez den arren.

Esan gabe doa, bere burua janzten hasita moldaera polita izan duela funtsean. Hasteko, etxadi bat eraiki zuen, etxebizitza multzo bat finkatu bertan, "ni hemen nago" esanez bezala, irrintzi aski luzea jaurtikiz. Frontoia bataiatu zuen gero bere izenez, jatetxe eta guzti hornitua hau. Young Play dantzalekua geroago eta Txillida-Leku museoa azkenik.

Zabalegi Nekazal Eskola hor egoki, hau bereganatzeko bidea ere egina du jada eta hor inguru horretako baserri batzuk berebat. Ororen buru, harro sentitzeko moduan ez badago, gero!

Alabaina, kezkatxo batekin ageri zaigu, denboraren joanean gutxitzen ez baina gehitzen dihoakion kezka, geroz barnerago zulatzen ari zaiona. Bere eremuaren gainetik izango dela Hernaniko Ipar Saihesbidea luza gabe, eta horrek, egia, errabiatzen jartzen du pentsatu hutsarekin.

BASERRIAK

- Berakorte
- Bidaurreta (Biorreta)
- Ekogor (Hondakinak)
- Estubegi
- Estubegi Berri
- Galarreta
- Ilarreta
- Limuri (Limoi, hondakinak)
- Ollo (desagertua)
- Zabalaga

SOLASKIDEAK

- Aranburu, Eulali (Limuri)
- Arregi, Joan "Txintxua" (Ekogor)
- Etxebeste, Joxepa (Ilarreta)
- Iradi Pagola, Antonio (Estubegi)
- Jauregi, Joan Joxe (Galarreta)
- Larburu Garmendia, Joan (Berakorte)
- Martiarena, Maria (Bidaurreta)
- Olarra, Kontxi (Zabalaga)



Berakorte izenari buruzko ulerkuntza modu hau. Nolanahi ere, "Beracorte" idatzirik azaltzen da oraindik ere sarrerako fatxada nagusian bere izena.

izkaieraren airea edo eitea ageri zaio baserri honen Berakorte izenari. Iduri du *bera* edo *beratz*, (belaze guretzat) eta *korta* (ukuilu, saroe, ola) direla beraren osagaiak, baina esan behar da ez dela batere ziurra

Antziolatik Oriamendi eta Donostiarako garai batean errege-bidea zenaren aldamenean ezkerretara, Etxerreaga baserritik ehun metrora alde batetik eta zertxobait gehiagora Bidaurreta eta Ilarretatik. Orain, ordea, Galarretako bidegurutzetik du sarrerarik egokiena nahiz erosoena.

Etxe zabal eta ia laukia, bi isurikoa, goitik behera berritua, fatxada nagusiak herri-bidera ematen du eta handik du orain ere sarrera. Etxetik hogeita hamar metrora, belar ondua, lastoa etab. jasotzeko bi oineko etxe-ordekoa.

Joan Larburu, bertako semea, Iñaxi Odriozola, albizturtarrarekin ezkondu eta jarri zen bizitzen, eta honako seme-alaba hauek izan: Kontxa, Joxe Gabriel, Maria, Joana, Manuel (gerra zibilean alemanen kontzentrazioan Frantzian hila), Monika, Andres (indizioren batekin hila) eta Xanti.

Joxe Gabriel, Orendaingo Kontsuelo Garmendia Garmendiarekin ezkondu eta etxerako gelditu zen. Senar-emazte hauek 8 seme-alaba izan bazituzten ere, 3 aingeru

zirela hil ziren: Joan, Manuel, Iñaki, Julian, eta Bakarne. Horiek horrela, hanka puskatu zuen Kontsuclok artean ezkonberria zela eta ez zitzaion inoiz bere onera etorri bere seme Joanek esan digunez. Bereak eta bi jasandako emakumea, 69 urterekin hil zen gaitzak jota.

Duela 24 urte hasi ziren oraingo baserritik goraxeago etxe berria egiten, eta 1987an joan ziren bizitzera baserria zaharberritzeko. Besteak han gelditu eta Joanito bakarrik itzuli da baserrira. Aurrekoak behi, zekor, baratze, sagasti eta antzekoetan jarduten bazuten ere, gaur egun negutegiz josia ikusi dugu Berakorte. Baserriaren etorkizuna ikusita, garbi zeukan Joanek, seme zaharrenak, zerbaiti heldu beharra zegoela. Halatan, negutegiak jarri eta behiak larrera bota zituen. Orain, ordea, erabat baratzeari eman dio, inbertsio handiak egin eta punta-puntako aurrerapenak jarrita.

Orain, aterpean egiten du lan, "orain ez dago lehenagoko konturik, esan digu Joanek, alde earra, euria eta hotza, eta buruan zakua hartu eta erremolatxa edo arbia ateratzen behatz muturrak hozminduta aritzen ginan garai haiek gogoratuta".

Lehenagoko kontuak aipatzen hasita, badu zer kontatu. Dolarea, esaterako, astoak eraginda ibiltzen zen horietarikoa, eta sagardoa franko egiten zuten gainera, eta halaxe jasota dago Hernaniko 1931.eko agiri batean, esanez, urte horretan 1.890 litro egin zituela Juan Larburuk. Beste asko legez, sagardotegia izan zen Berakorten gerra garaia arte eta nire solaskideak aurrekoei entzuna, inguruko baserritar bat etorri eta berea edandakoan, bi botila-sagardo zeramatzala etxera esku banatan hartuta. Hara, ordea, non irrits egin eta lurrera joaten den gure gizona, baina halere, bi botila-sagardoak osorik, bi eskuekin sendo gora jasota.

Aurrekoei entzuna, baita, etxean urik ez eta Arrietako iturrira eramaten zutela ganadua ura edanaztera. Etxerreagako eta Berakorteko bi behi elkarren artean borrokan hasi eta azkenean bateko eta besteko gizonak, elkarrekin haserretuta etxera. "Bai, behiak *komosino* etxera eta gizonak mutu". Gerora, etxetik gertu baina beheko txokoan zuten iturrian ur-ponpa jarri eta konpondu zuten uraren arazoa.

Gaur, ordea, aurrerapen handiz hornitu du Joanek baserria eta ikustekoak dira bertako tomate sailak, denak ere ordenagailu bidez kontrolatuta.



Bidaurreta



Antza denez, garai batean Hernanitik Donostiarako errege-bidea etxe honen aurretik zihoan eta *bide* eta *aurre* osagaietatik datorkio Bidaurreta, nahiz eta urteen joanean gastatzen joan den bere zentzua eta Biorreta izenez ezagunago den. Honela azaltzen da Udal Artxiboan, 1812. urtea, erreg 81.56.13; Nomenclator 1857. urtea. "...á saver la dicha Catalina de Guruceaga trescientos ducados de dote, que llevo a poder de Juan de Goicoechea su marido..., dueño que fue de la dicha Casa solar de Bidaurreta en jurisdicción de esta referida villa".

Galarreta auzotik berrehun metrotara dago bi bizitzetako baserri hau. Orain arte Antziola auzoan kokaturik zegoen, lehen aipatu bidea zela eta, baina gaur egun Galarretatik Donostiara doan errepidean Oriamendiko aldaparen erdialdetik du sarrera nagusia. Urte askotan eutsi zioten auzokideek herri-bideari, *aldiya* eginez, baina ibilgailuentzako errepide berria egindakoan poliki-poliki bidea hondatzen joan zen. Orain, duela dozena erdi bat urte konpondu dute berriro.

Hiru isuriko etxea, lau kantoietan eta leiho ertzetan harlandu ederrak dituela. Fatxada nagusiak aipatu errege-bidera ematen du eta handik zuen sarrera etxebizitza batek, besteak, aldiz, hegoaldetik. Atzean, iparraldetik, etxekoek inoiz ezagutu ez duten dolarera sartzeko mandioa, *tranka* deitu zurezko tresnaz ixten zen ate handi batekin. Bazuen, halaber, halako otoitz leku bat ere, Antton Agirre Sorondoren "Las ermitas de Hernani" argitaratu liburuan azaltzen denez: "En el famoso caserio Bidaurreta del barrio de Antziola (...), D. Miguel de Tarbe tenía su propio oratorio. Este fue el curioso informe que respecto a su estado extendió el 25 de Noviembre de 1745 D. Francisco Ignacio de Beldarrain, Presbitero de la Parroquia de San Juan de Hernani, por orden del Obispo de Pamplona..." (67. or.)

Aipaturikoaz gain, bazen beste ermita bat Donostiako eta Hernaniko muga-mugan, Oriamendiko beheko barrenean, Bidaurretako lurretan. Hortik omen datorkio "Santutx" izena toki horri, eta horren lekuko gisa edo, Larrabiden aurkitu dugu Oriamendin izandako ermitakoa omen den harri bat. Hor biltzen ziren agiriek diotenez bi herrietako agintariak euren gaiak aztertu eta arazoak konpontzera, baina gazteek bestelako gauzetarako erabiltzen zutela eta, ermita eraistea erabaki zuten, agidanez.

Etxe-ordeko bat fatxada nagusiaren ondoan, simaurra eta belar ondua jasotzeko, eta mendebaldeko hormari itsatsia bestea, behean ukuilua eta goian terraza duela. Etxebizitza batek sukaldea behean, sarrera ondoan; besteak, ordea, goian zuen. Zuen diot, duela hogei bat urte, sarrera nagusiaren aldera bizi zen maizterra ateratakoan, etxea goitik behera berritu baitzuten bi etxebizitza eginez.

Hiru iturri ditu Bidaurreta baserriak, horietariko bat Hernaniko **Zinko-Eneko** iturria hornitzen zuena izaki, ez zuten hango urik erabiltzen etxerako. Halere, mendiko iturriko ura aspalditxo ekarria zuten etxe ondora, eta 1920 baino lehen zuten etxean bertan. Lehorte handien garaian, ordea, Larrabideko iturrira jotzen zuten.

OTEGI Familia

Martindegiko **Ariztegi** baserritik etorritako Julian Otegi altzotarra eta Paskuala Ugarte beizamarra bizi ziren, sarrera nagusiaren aldean, eta hauen seme-alabak: Maria, Pedro (ezkonge), Joxe (ezkonge) eta Antonio. Azken hau etxerako, **Lastaola**ko Joana Ugalderekin ezkondu eta seme-alabak izan, semea txikia zela hila, Inaxi alaba bakarra bailitzan hazi zen. Hala, bertan apopilo zegoen Manuel Aiestaran Beitia aiarrarekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten: Mari Karmen, Joxe eta Antonio. Hauek, ordea, 60. hamarkadan kale aldera joan ziren eta etxejabeak lurrak saldu, etxea erabat berritu eta etxe-lehor bihurtu zuen.

Baserri askotan bezalaxe, ganadua eta baratzea egiten zuten Otegitarrek ere. Pedro osasun urrikoa, asto gainean joaten zen hara eta hona, zelaira edo kalera. Joxek Mendia paper fabrikan egiten zuen lan eta Antoniok etxean, baina hau artean gazte zela hil zen. Horiek horrela, apopiloaren eta Lizarragako iloba Manuelen noizbehinkako laguntzarekin eutsi zioten ozta-ozta baserriari.

Bi bizitzako etxea izaki, ongi moldatzen ziren beren artean, eta hala, goizean goiz, Manuel apopiloak, zaldi karroa jartzen zuen, inoiz mandoa ere izan omen zuten, eta bestekoak semea, Joxe, eta hau arduratzen zen bateko zein besteko esneak Gurelesari eman eta baratzeko gauzez hornituriko xesterak, esne-marmitak eta gainerakoak autobusari emateaz. Horrela moldatu ziren urteetan bi bizitzak.

IARZA Familia

Etxeniketarrak ziren bertakoak, 1890. aldera ordea, Dolox Etxenike Berra, bertako alaba, Pio Iarza Esnaola **Basozabal** baserrikoarekin ezkondu eta horrela sartu zen deitura berria **Bidaurretan**, nahiz eta egun Yarza erabiltzen duten. Honako seme-alabak izan zituzten: Asentsio (soldadu zela agintariren bati muturrekoren bat eman eta iparraldera ihesi joandakoa), Serapio, Luis (bi hauek soldaduska ez egiteagatik bata Ameriketara eta bestea Frantziara ihes egindakoak), Joan eta Joana. Honetan, ordea, emaztea hil eta Pio honen ahizpa Pantxika Etxenikerekin ezkondu zen eta seme-alaba hauek izan: Maritxu (bost urterekin gaitzak jo eta gerriz behera elbarri gelditua), Joxe (ezkonge), Maria Dolox, Pepita, Karmen (ezkonge), eta Anita. Joanito etxerako, Ilarretako Maria Martiarena Oiartzabal hartu zuen emaztetzat. Hona hauen seme-alabak: Kontxi, Joxe, Maria Dolores, Pepi, Ana, Maria Jesus, Mari Karmen, Begoña, Milagros eta Jabier. Egun, seme gazteena, Jabier, bizi da baserrian Pili Zapirain, oiartzuarrarekin ezkonduta.

Aitak ukuilua (zazpi-zortzi behi, lauzpabost zekor eta idi parea) eta sagastia, eta amak baratzea eta lorea; horiek ziren senar-emazteen gustukoenak. Sagasti handiak agidanez, eta 100 kargatik gora sagar bildutako urteak izan omen zituzten; halere, bitxikeria modura, bertako semea, Joxe, *abadua* atera zen.

Donostiako merkatura egunero, Joanen arrebak lehenengo eta emaztea gero. Solapan jartzeko lore-sailak egiten zituzten uda partean; bai festetarako bai Donostiako Zinemaldi eta zaldi lasterketetarako ere. Eguzki galgetan batzuetan, euria zetorrela eta lorea hondatu baino lehen lasterka biltzen besteetan.

Alabaina horiek baino pasadizo tristeagoak ere gogoan ditu nire solaskide Maria Martiarenak; gerra garaiko kontuak, esaterako. "Koinata Karmen eta biok joaten ginan goizean goiz Galarretako bidegurutzera esnea eramatera eta ondoren, bezpera gauean, Arrietako zubipean eraildakoen aztarnak ikustera jotzen gendun. Etxetik entzuten genittun tiroak eta kontatzen aritzen ginan, zenbat ekarri eta zenbat hil ote zituzten".

"Gogoan det behin, uda partean, Estubegiko eta Ilarretako mugan, arratsaldean etorri eta nola aritu zian zuloa egiten. Bero handia eta Ilarretara jo zuten sagardo bila, eta han galdetu zenbat zituzten, eta haiek "hamahiru". Gauean automobilaren argira jarri eta tiro egiten zieten. Gero jakin gendun Loiola auzoko bi ahizpa (ezagunak) hil zituztela, besteak beste, nazionalisten arropak josten zituztelako. Hurrengo egunean Hernaniko kale-garbitzaileak etortzen zian, zaldi karroan hartu eta kanposantura eramateko".





Ez daki nondik datorkion baserriari Ekogor bere izena. Bestetik, Egigoien (hegigoien) baldin bada Ekoien, **Ekogor** *hegi gogor* izan daitekeela pentsatzea ere ez da batere aldrebeskeria izango. Zilegi izan ala ez bego bere horretan auzia. Bestetik, bidea Galarretako bidegurutzetik baldin badu ere, garai bateko Sorgintxulo baserriaren eta gaur egungo auzoaren gainean dago, zelatari, Hernaniko herria begi aurrean duela.

Bi isuriko etxearen hondakinak baino ez daude gaur egun. Kare-harriz nagusiki egina nahiz eta tartean adreiluak ere ageri diren. Mugitu zenaren seinale edo, eustormak ditu hego-mendebaldeko horman bat eta bi ekialdeko fatxadan. Lau leiho oraino egoera onean ikus daitezke.

Joxepa Lizarralde, amaginarreba, ezagutu zuen nire solaskide Joanek (82 urte) hona etorri zenean. Ordurako hila zen honen senar Asentsio Ormaetxea, *sasi albaitari* izandakoa. Hauek ziren aipatu Ekogor baserri zaharreko senar-emazteen seme-alabak: Bittori, Pako (ezkonge), Joxe, Manuel, Prontxio eta Ramon.

Bittori etxerako, Joan Arregi Alberdi "Txintxua" izenez ezagunagoa den **Elizalde** baserriko semearekin ezkondu eta Joxe Agustin, Arantxa, Lurdes, Itziar (gazterik hila) eta Izaskun izan zituzten.

Hauek gelditu ziren baserrian, ama alarguna eta Pako anaiarekin. Halatan, baserria zaharra batetik eta nagusiak suhiari inolako eskubiderik aitortzen ez eta, etxe berria jaso zuten duela 40 urte lehenagoko

baserriaren aldamenean, baina beren jabetzako lurretan.

Ez dute, ordea, hemen zahartzeko aukerarik izan. Emaztea galdu, alaba bat ere bai, eta orain gutxi, saltegi erraldoi horietariko bat egin behar zutela eta, etxetik bota ez baina nolabait saltzera behartua ikusi du Joanek bere burua. Egun, kale alderako bidea hartua du, alabaren etxera.

Ekogorren ukuilua eta baratzea ziren ogibide nagusiak. Donostiara joaten ziren saltzera, Galarretan autobusa hartuta. Alabaina, esana dut, "Txintxua" dudala solaskide, eta Hernaniko gizarte-bizitzaz arduratzen den edonork daki nor den bera.

Bederatzi (9) urterekin atera omen bere baserritik morroi Amezketara, artzain, eta 11 urterekin bakarrik egon ohi zen Aralarren "Etizei" bordan artaldearekin. Beldurrik edo izaten ote zuen galdetutakoan, "lana eta gosea, makina bat ikusitakoa naiz ni. Poltsa galanta bizkarrean eta gosea sabelean, baina janari gutxi; goseak penatzen niñun. Hala, behintzat, 18 urte konplitutakoan, handik joan nintzan soldadu, gerrara, eta 7 urtez ibili nintzan harat-honat, azken-azken arte. Hogeita bost urterekin etxera etorri eta Zikuñagako papeleran hasi nintzan lanean".

"Ezkondu eta Ekogorren jarritakoan, ostera ardiak erosi nittun. Izugarrizko zaletasuna det artzaintzarako, eta orain ere, lurrik dudan bitartean, ez da ardirik faltako nere inguruan".

"Lana egitea tokatu zait, baina bertsoak eta dantza egitea ere oso gogoko izan dittut. Ez naiz sekula plazan aritu bertsotan, lagunartean eta horrelakoetan baizik, eta dantza, berriz, soinua entzun orduko beti pronto neon hartarako. Lehiaketa batean edo bestean aurkeztu eta sariak ere atera izan nittun". Esan gabe doa hitz aspertu hagitz atsegina izan dudala nire solaskidearekin, eta orrialde-arazoak medio, moztu beharra izan dudala elkarrizketa.



Ekogor Berri



Hernanitik Donostiarako errepidearen ertzean, *Goiko Galtzada* deitzen lehengoek, eskuinaldera, aldapa erdian, Oriamendi mendixkaren hegalean eta bi udalerri hauen muga-mugan **Estubegi** baserria.

Bi eraikin angeluzuzen dira elkarri itsatsita; eta atzean, mendebaldera, errepidearen ondo-ondoan, beste txikiago bat atxiki zioten, alabarentzat noski. Aldamenean bi oineko lehorpe ederra, behean ganadua eta goian belar ondua jasotzeko. Gaur egun, ordea, etxebizitza zaharra lanabesak jasotzeko erabiltzen dute eta berak bide ondoko etxean bizi dira.

Joxe Iradi eta Maria Frantziska Loinaz gurasoak, lau seme-alaba zituzten: Agustin, Tomas, Bautista eta Markos. Tomas Iradi Loinaz bertako semea, Maria Iradi Loinaz lehengusuarekin ezkondu eta seme bat izan zuten, Agustin, eta bera bizi da oriotar batekin ezkondu eta 22 urteko seme bakarrarekin baserrian.

Beste aldeko etxebizitzan, Mariaren ahizpa, Joxepa, Aieteko **Benta Haundi** baserriko Felix Otegi Elizondorekin ezkondu eta jarri zen bizitzen, eta hiru alaba izan: Pakita, Kontsuelo eta Mari Kontxi. Felixek fabrikan egiten zuen lan eta hara joaten zen egunero bere bizikleta hartuta.

Garai batean baserrian ganadua eta baratzea, baita pentsu biltegia ere Agustin anaiarekin batera. Esnea etxez-etxe eta barazkiak Donostiako San Martin plazan saltzen zituen Mariak; gero legeak hala behartuta kooperatibari ematen zioten gainerako baserritar gehienek bezalaxe. Maria urteetan sartutakoan, merkatura joateari utzi, eta bestetik, fabrikan hasi zen lanean Agustin, semea. Halere, baditu behi eta zekor batzuk, udan kanpoan larrean eta neguan etxean edukitzen dituenak; baita etxerako adina baratze, oilo, etab. ere.



Estubegi Berri



Aldameneko Estubegi baserriko seme Agustinek egin zuen etxea eta jaiotetxearen izena jarri zion, Berri erantsita. Galarretatik berrehun metrora, Hernani eta Donostiako muga-mugan, errepide ertzean ezkerrera. Guztiz eguteran, Oriamendiren babesean, alde batean Zabalegi nekazari eskolako lurrak eta bestetik desagerturiko Limuri baserriko soroak dituela.

Eraikin laukia, ekialdera begira, atzean etxe-ordeko isolatua duela. Agustin Iradik ezkontzeko aurrean 1936an egindakoa da **Estubegi Berri**. Beheko oina sukaldeak eta pentsu, patata, ongarri etab.en biltegiak hartzen du gehiena baina ez guztia, hor sartzen baitzuten, halaber, pentsu banaketan erabiltzen zuten kamioia ere. Goiko oinean logelak, komuna, etab. Atzean etxe-ordeko isolatua, bi oinekoa, lastoa, belarra eta tresneria gordetzeko. Ura izateko, berriz, etxeko teilatukoa jaso eta pozaderan jasotzen du oraindik ere, nahiz eta herriko ura etxera jarria duen.

Agustin Iradi Loinaz, aldameneko **Estubegi** baserriko semea, Pilar Pagola andoaindarrarekin ezkondu eta jarri zen bertan bizitzen; bi seme-alaba izan zituzten: Antonio eta Maria Pilar. Egun, Antonio semea bakarrik bizi da bertan, gurasoak eta Maria Pilar, arreba bakarra, hil ostean. Aipatzekoa, Agustin aita, Hernaniko Udaletxeko zinegotzi izan zela 1954. urte inguruan.

Ezkondu aurretik ere, ganaduarentzako pentsuak, belardietarako ongarriak, eta hazitako patata saltzen zuten Agustin eta Tomas anaiek. Ogibide horri eutsi zion bere bizitza osoan Agustinek, nahiz eta etxean behi bat edo beste, zaldi bat eta oilo batzuk ere urte askotan izan zituen. Ama, Pilar, joaten zen Donostiako San Martingo merkatura etxeko esne eta barazkiak saltzera.

Biltegiaren ardura Agustinek bazuen ere, laster hasi zen Antonio, semea, zakuak alde batetik bestera mugitzen eta aitari kamioia kargatzen. Guztiz ezaguna auzoan Agustin Estubegikoak zuen kamioi berdea, manibelari eraginez motorra martxan jarri eta pentsu partiketan erabiltzen zuena. Baita telefonoa ere, hango eta hemengo enkarguak jaso eta auzokoek larrialdietan mediku eta albaitariari deitzeko hainbat bider erabilitakoa.

Aitak duela hirurogeita urte gehiago abian jarritako pentsu biltegia da egun Antonioren bizibidea.

Galarreta



Galar: lurrean zuloa eginda egosten den gaztainondo-ikatza" Luis Mari Mujikaren "Euskal Toponimiazko Materialeak" (103. or.) Eta *zuhaitz* edo *enbor ihartua* ere izan daiteke.

Hernani, Donostia eta Errekaldetik datozen bideek bat egiten duten bidegurutzetik berrogeita hamar metrora dago **Galarreta** baserria, hegoaldeko muinoan. Aurrean bere izena hartu duen pilotaleku handia eta aparkalekua, eta atzean, beste bailarari izena eman dion Jauregi jatetxeko aparkalekua. Alde honetatik du baserriak sarrera eta bidea. Pilotalekura begira berriz, etxe jabearen etxebizitza izandakoa eta bertarako sarrera.

Karlistada bietan errea izan zen **Galarreta** baserria, eta beste hainbestetan jasoa. Bi isuriko eraikina baina mendebaldeko teilatua askoz luzeagoa du eta lurra jo behar duela dirudi. Sarrera nagusia ipar-ekialdetik, Markesen etxea izaki, Pedro Salas Fernandez etortzen zen bere familiarekin asteburuetan eta udan, eta hauek erabiltzen zuten etxearen beheko aldea eta maizterrak goiko solairua eta atzealdea, eta handik dute hauek oraindik ere sarrera eta bidea.

Josepa Barandiaran bertako alaba Albizturko Bernardino Jauregi Urangarekin ezkondu eta seme-alaba hauek izan: Joan Joxe eta Mari Karmen. Joan Joxe semea etxerako, Joana Leunda Goenaga zizurkildarrarekin ezkondu eta bi seme izan dituzte: Josu eta Koldo. Duela hogeita bost urte hil ziren ama eta hilabete baten buruan aita "penaz, noski" esan digu semeak. Egun, Joan Joxe eta Mari Karmen senar-emazteak bakarrik bizi dira Galarreta baserrian.

Baserri handia ez izan arren, baratzea eta ganadua zituzten bizibide. Alabaina, 1971. urtean baserriaren izena hartuko zuen pilotalekua egiteko lurrak kendu zizkioten, han bertan lanposturen bat izango zuenaren esperantzak emanez; baita eman ere, atezain gisa, baina handik zortzi urtera osasun arazoak medio utzi beharra izan zuen.

Joan Joxek (77 urte) entzuna du karlisten gerran etxea erretakoan, Pitikar baserrira joan zela familia etxea berriro eraiki bitartean. Gerra bat edo beste, hogeita zortzi hilabete egin omen berak ere soldadu, batetik bestera, hemendik Burgosera eta handik hona, eta barrua goibeltzen zaio orduko kinta-lagunen heriotzen berri izaten duenean, eta "geroz eta gehiago hiltzen eta gutxiago gelditzen" ari direla dio.

Gaur egun oilo batzuk eta etxerako adina baratze lantzen dute, bi semeak euren ikasketak eta gero, kanpoan ari direlako lanean.



Ilarreta



Hasta gaitezen izena errepasatzen. Hara, *ilar* (hemen txillar esan ohi dugu) gehi *–eta* lekua adierazten duen atzizkia, emaitza Ilarreta ateratzen zaigu. Nolanahi ere, "Illarreta" azaltzen zaigu 1650. urteko artxiboetan.

Hernanitik Donostiara doan errepidetik ehun metrora dago, kasko-kaskoan, **Ilarreta** baserria, Galarretako bidegurutzetik oso gertu. Santa Barbara mendiaren aurrez aurre, atzealdea Oriamendik babesten diola. Eskuinera Estubegi baserria dauka eta ezkerretara Bidaurreta, Galarreta auzo guztia begi-bistan duela.

Eraikin berria ez izan arren (350 urtetik gora), gerra zibila aurretik kanpoko lau hormak utzi eta barrutik erabat berritua da, hegoaldera begira dagoen bi isuriko etxe koadratu hau, nahiz eta etxerako sarrera ekialdetik duen. Ukuilurako sarrera handi bat du fatxada nagusian eta beste bat gibelean. Atzean bi oineko lehorpea etxeari trabeska erantsita, dolare eta sagardo bokoien babesleku. Baita ur gordailu eder bat ere, teilatuko ura jasotzeko, eta etxetik hamar metrora, eta askoz berriagoa, etxe-ordekoa, belarra, lastoa, ibilgailua eta tresneria jasotzeko.

Donostiako **Anoeta** baserria bota egin behar zutela eta, han bizi ziren Xanti Martiarena eta Joana Oiartzabal senar-emazteek erosi zuten **Ilarreta**. Hala, beren 8 seme-alaba, Erramun, Dolox, Maria, Migel, Pako, Joxe, Antton eta Jesusa, eta Balentin Martiarena eta Inaxi Etxenike gurasoak etorri ziren bizitzera. Handik gutxira hilko ziren gurasoak, baita Xantiren emaztea ere, gaitzak jota. Seme-alaba guztiak harat-honat ezkondu eta Migel egin zen baserriaren kargu, Astigarragako **Goiatz Berri**ko Joxepa Etxebeste emaztetzat hartu eta hiru seme-alaba izan: Ramon, Lurdes eta Joana Mari. Eskola utzi eta lanean hasteko garaia iritsitakoan, baserriari heldu zion semeak, Alkizako Maria Jesus Urruzolarekin ezkonduta, eta bi alaba izan: Eider eta Amaia. Hauek bizi dira baserrian, amona alargundu berriarekin batera.

Behi eta zekor suitzarrak izan dituzte ia beti Ilarretan. Lur erosoak eta lantzeko samurrak izaki, behi parearekin egiten zituzten goldaketa eta garraio lanak. Eta betidanik joan izan dira Donostiako merkatura barazkiak saltzera eta esnea etxez-etxe banatzera. Esne kontuak bukatu baziren ere, egunero joaten da Joxepa plazara, eta alde ederra bilatzen duela dio, "semeak eramaten nau goizean eta eguerdian ekarri, eta arratsaldea etxe aldera ematen det. Senar-emazte gazteak arduratzen dira plazarako tratua jartzeaz eta hori ondo estimatzen dan gauza da, goiz osoa plazan pasa eta gero".

Dozena erdi bat behi eta bizpahiru zekor dituzte ukuiluan; halere, baratzea da, lehen eta orain ere, Ilarretaren ekoizpen eta sostengua. Bestetik, lorezaleak izan dira beti familian, eta etxe inguruan nahiz baratzean ez da behin ere lorerik faltatu.



Inguruan gehienek Limoi bezala ezagutua da. Bere lurrek Donostiarekin muga egiten dutenez, mapetan **Limuri** ere agertzen da. Iñaki Linazasorok idatzitako "Caserios de Guipuzcoa" liburuan, 204. orrialdean Limoi (Juanategui) agertzen da.

Zesareo Ormazabal zenak esana (lau belaunaldiz etorritako deitura) 130 urte bazituela 1929. urtean. Obra batzuk auzokoen laguntzarekin egin eta alabak Joana izena zuenez, aitak sarrerako atearen gainean "Juanategui" jarria ote zen dio nire solaskide Eulali Aranburuk. Hala izanda ere, auzokoek **Limoi** esanda ezagutzen dute gaur oraindik.

Hernaniko erdigunetik kilometro pare batera. Galarreta aldeko errepidea hartu, Estubegiko malda eskuinera utzi, eta Lasarte aldera doan bidean eskuinera, Zabalegi, Nekazaritza Eskolako bidean sartu eta honen azpialdean zegoen. Iparraldera Oriamendi, hegoaldera Santa Barbara mendia bere ermitarekin, ezker aldetik Santio-mendi eta eskuin aldera Lore-Toki eta Zabalaga baserria (egun Txillida-Leku).



Limuri

Bi isuriko eraikin garbia zen. Sarrera nagusia hegoaldera begira. Hiru solairu zituen, sarreran ukuilua eta sukaldea. Bigarrenean logelak eta komuna eta goian ganbara garaiko uzta jasotzeko. Atzetik ukuiluko irteera ganadua, hauentzako janaria eta azpigaia sartu eta simaurra ateratzeko.

"Sarrerako fatxada nagusian bazuen mahastia alde batetik besteraino luzatzen zena. Udazkenean mahats-mordo zuriak zintzilika izaten zituen gure atsegingarri".

"Fuerteventura kondearena zen garai batean **Limuri** baserria, eta hor bizi izandako familia guztiak maizterrak ginen. Antza, 1929. urte hasieran atera zen hemendik Ormazabal-Gaston familia alaba batekin Añorgako Amasorrain baserrira. Honetan, 1932ko maiatzaren 13an Juanainaxi Urkizu Altuna, Elduaingoa, eta Felix Aranburu Garmendia, Hernaniko **Agerre** baserriko semea ezkondu ziren, eta **Limuri** baserrian jarri bizitzen. Bi alaba izan hemen: Eulali eta M. Rosa. Hiru urte egon zen hutsik baserria hauek etorri aurretik eta halaxe gelditu zen hauek 1935. hasieran aitaren jaiotetxera itzuli zirenean ere. Gerra zibilaren garaian Santa Barbaran bonbardaketak zirela eta, bertako Justo Izagirreren familia eta ganaduak egon ziren Limuri baserrian".

Gaur egun ez dago baserririk. Gorago aipatu bezala, 1977an eraitsi zuten apurka-apurka goitik behera zetorrela eta norbait azpian harrapatzeko arriskua zegoela argudiatuz. Bertako lurrak saldu berriak dira, agidanez.

Eulali solaskidearen garaian hiru bat behi, oilo batzuk eta baratze koskor bat izaten zuten. "Ama 16 bat litro esne eta barazki apur batzuk astoan hartu eta Donostiara oinez Estubegiko maldan gora. Orduan ez zen artean autobusik. Aitak, berriz, anaia bat zuen Donostian, okina bera, eta harekin hasi zen ogi partiketan, baita txofer ikasi ere".



"Limurik ez zuen urik ez eta argirik, baina etxetik atera eta berrehun metrotara txokogunean Marijoandegiko iturria zegoen. Han garbitzen genuen arropa eta behiak edanaztera eramaten, eta bertatik etxerako ura ekarri ere. Gu bezala inguruko baserrietakoak etortzen ziren. Aska ederra zegoen ganaduentzako eta alboan harria gobara astindu, harraskatu eta marruskatzeko. Rocandio jaunak ederki margotu eta jaso zuen iturri hau koadrotxo polit batean".

"Hara, 1932. urtean egin zen auzolanean Jauregiko eskola. Artean hiru urte egin gabe nintzela, goiz batez hor alde egin nuen eskola horretara, haurren jolas hotsa entzunda. Iritsi nintzen eskolara eta atea itxita. Arbustu tartetik pasatzen hasi eta han gelditu nintzen ez atzera ez aurrera trabatuta. Negarrari eman nion eta barruan zeuden neska-mutilek *señoritari* esan. Joanita Setien zen orduan hango maistra. Atera kanpora eta ni (Eulalitxo) negarrez. Haur guztien artean, eta mimo guztiekin, ederki pasa nuen goiza. Bestetik, asko joan eta ibiliak gara bi ahizpok Marijoandegi baserrian ere, amak Donostiako buelta egin bitartean. Ez baitzen gaur adina automobil ibiltzen orduan!".



Errekalde inguruan, Añorgarekin muga eginez eta egungo Lore-Toki zalditegi (militarrak) eremuaren barne kokaturik eta Txillida-Leku museotik hurbil omen zen **Ollo** baserria.



Ez dugu azken mende honetan han bizitutakoen aztarnarik atera ahal izan.



Dokumentu batean, Hamarrenak zerrendan (1610) "Casa Çavalaga" izenez azaltzen zaigu. Eta beste batzuetan "Casa Solar de Zabalaga", jauretxe beraz, eta "Martin de Zabalaga, hijo Mayor de la Casa Zabalaga". Nolanahi ere, kasu honetan Zabalaga izango zen etxearen izena, eta antzina Euskal Herrian XVI-XVII mende arte gutxienez, etxearen izena izaten zen pertsonen deitura. Esanahiari dagokionean, berriz, *zelai, laukune, ordoki* edo *zabalgune* adierazten duela esan beharrik.

Hernani-Galarreta-Donostiara doan errepidearen eskuinera, Errekaldera iritsi baino kilometro bat lehenago dago garai bateko **Zabalaga** baserria, egun Txillida-Leku museoa dena. Esan behar, zerga kontuetan Hernaniko Udalerriaren baitan dagoela, Añorga, ordea, elizaz.

Bi isuritako etxe handi zabala da XVI. mendeko baserri hau. Handia eta zabala, bertan hiru bizitza izan baitziren.

Domingo Olarra, **Anton-Ene**ko semea eta Joakina Elizegi, Añorgako **Belen** baserriko alaba ezkondu eta jarri ziren bizitzen **Zabalaga**ko bizitza batean, eta honako semealaba hauek jaio ziren bertan: Maria, Joxepi, Euxebi, Kontxi, Ramoni, Ezekiel, Joxe Luis eta Euxebio. Alabaina, Kontxi nire solaskideak (80 urte, elkarrizketa hau izandako egun berean) 8 urte zituenean, 1930ean etxetik bidali zituzten.





Aieteko **Ugalde** baserrirako bidea hartu eta han izan zuten bederatzigarren haurra, Ana Mari.

Aita Añorgako Rezola porlan fabrikan lanean eta orduz kanpo baserrian. Ama Donostiara, Errekalden trena hartuta, orduko gainontzeko baserritarren antzera.

Esana dudan moduan, ordea, etxetik aterarazi zituzten bai hauek bai beste bi maizterrak ere, inguru horretan halako proiekturen bat gauzatu asmoz, eta horrela egon zen Zabalaga baserria denbora luzez, neguan artzaina eta udan hutsik, duela hogei bat urte inguru Eduardo Txillida eskulturgile donostiarrak erosi eta museo bilakatu duen arte.

Hara zer irakurri dugun "Hernaniko kronikak" aldizkarian: "Sartu, propio egina dirudien erreka baten gainetik, eta hura paradisua: jardinak, arbolak, burdinak, harriak... denak bat egiten dute han. Arteak ere leku politean alde ederrean ematen du!" (...) "Hau dena eta gehiago da **Txillida-Leku**, Pakeak ez du preziorik!"

Baina lehenagoko denboretara itzuliz, ordea, **Zabalaga** ez zen hain paradisua, ez baitzuen ez urik, ez argirik, ez surik,... "*laratza*, eta han *paziya* jarri eta esnea egosten genun; eltzeak beheko brasetan, eta iturria, beheko errekara joan behar ura izango bazan".

"Eskola esaten dezu? Zabalagatik 8 urterekin atera nintzela esan dizut, eta artean ez nintzan eskolara joaten. Nire senideek, aldiz, Zabalegin zegoen eskola partikularrera joaten ziran.

Aita oso eskuzabal eta bihotz onekoa genun. Etxeak etxe-ordekoa zuan eta hura uzten zien ijitoei lo egiteko. Amak sarritan esan ohi zion "egunen batean zerbait pasatuko zaigu" eta aitak "ematen baldin badiezu ez dizute kenduko". Aitak bazituen horrelako esaldiak, beste hau ere "atetik ematen dezuna, Jainkoak leihotik sartzen omen du".

AUZOAREN HISTORIA LABURRA

Egia, Lope Isastik (1625) aditzera eman zuen Hernaniko jauretxeen zerrendan ez zaigu agertzen **Jauregi etxea** beste batzuen artean eta ez du halakotzat ematen, baina deituraz bederen, eta kokapenez, *jauregi* denez, jauretxeen pareko azaltzen zaigula esan beharrik.

Gainera, Santa Barbara mendiaz handikaldeko auzo edo bailarak ere beronen izena hartu du, **Jauregi auzoa**, Lasarteko mugarainoko guztian. Jauregi etxea, bestetik, sonatu egin zitzaigun taberna edo ostatu bezala, agian beraren atzeko zelaian burutu *segalarien norgehiagokak* direla medio.

Jauregi auzoan eskola bat izan da azkeneko gerraren aurreratxotik (1932), auzolaneko obra dena. Gerra aipatu dugu eta hor ditugu lehengo gerrateen lekuko **Ingeles Harria** (Koronel harria) eta **Pitikar** etxe gotorra.

Mende berrikoak ditugu, gainera, auzoan azkenaldian eraiki diren zenbait etxetxo polit, txaletak edo, bertako paisaiaren alaigarri, eta halaber oraino beren burua zutik daukaten hainbat baserri ere, esnea, haragia, barazkiak edo fruta arbolak ekoizpen nagusitzat dauzkatelarik.

BASERRIAK

- Anton-Enea
- Arkaizpe
- Barkaiztegi (Barriola)
- Belasko-Enea
- Belasko-Enea Berri
- Bordatxuri
- Erroxali-Enea
- Etxeberri
- Galarmendi Behekoa (Gonagorri)
- Galarmendi Erdikoa (Txanete-Enea)
- Galarmendi Goikoa (Pangorri)
- Ilarratsueta
- Ilarratsueta Berri (Poltserua-Enea)
- Izoztegi
- Jauregi
- Lopetegi
- Marijoandegi (Desagertua)
- Marraka-Enea (Saretxo)
- Pitikar
- Zabalo-Enea
- Zelaiarte
- Zelaigain
- Zozperri
- Zubillaga-Enea (Kanpozabal)

SOLASKIDEAK

- Apaolaza, Emilio eta Julian (Galarmendi Erdikoa)
- Azpiolea Iradi, Inaxio (Zelaiarte)
- Azpiolea Olarra, Antonio (Pitikar)
- Azpiolea Otegi, Joanita (Pitikar)
- Beloki Iradi, Joan eta Antonio (Barkaiztegi)
- Bergaretxe, Mari Karmen eta Muniain, Euxebio (Galarmendi Behekoa)
- Etxeberria, Joanita (Belasko-Enea)
- Etxeberria, Lurdes (Jauregi)
- Garagorri, Fernanda (Etxeberri)
- Genua, Joan Mari (Saretxo)
- Iradi Loinaz, Tiburtxio eta Otegi Otegi, Liberata (Zelaigain)
- Irazustabarrena, Joxe Mari (Bordatxuri)
- Iturralde, Felipe eta Saturnino (Lopetegi)
- Izagirre Genua, Joxepa (Arkaizpe)
- Izeta, Romana (Anton-Enea)
- Lasa, Joxe Mari (Ilarratsueta)
- Mendizabal, Ixabel (Belasko-Enea Berri)
- Mendizabal, Maria (Anton-Enea)
- Miranda Genua, Roke (Ilarratsueta Berri)
- Olasagarre Elizondo, Joxe (Arkaizpe)
- Otermin Agirre, Lurdes (Zozperri)
- Sarasola Arruti, Joxe (Izoztegi)
- Solanas Bagües, Tomas (Izoztegi)
- Uranga, Mari Carmen (Erroxali-Enea)
- Urdanpilleta, Ixabel (Zabalo-Enea)
- Urretabizkaia, Joxe (Galarmendi Goikoa)
- Zabala Artano, Euxebi (Marijoandegi)
- Zubillaga, Joxepa (Kanpozabal)

Anton-Enea



Hirurogeitik alde batera utzita ere, aski ugariak dira euskal etxe edo baserrietan pertsona izenak, emakumezkoen (Erroxali-Enea esaterako) nahiz gizonezkoen izenak, eta beraz, **Anton-Enea** azken multzo honetan sartuko litzateke, etxekoek ez dakiten arren noizkoa edo nondikakoa den.

Errekaldetik gora doan bideak Jauregitik Lasartera doanarekin bat egiten duen bidegurutzean eskuinera, bide ertzean bertan dago **Anton-Enea**, haizeak aide guztietatik ederki harrapatzen duen tokian. Errekaldeko *Cincuentenario* auzoa ikus daiteke bete-betean, urrutirago Igeldo eta Donostiako partea.

Arestian bi bizitzako etxe bakarra izanik ere, egun bi eraikin biki iduri elkarri itsatsita. Bakoitzak lau isuriko teilatua du, heren bat guztiz berria eta hegoaldeko laurdena lehenean dagoela. Guztia ongi zuritua eta alde berrian zein zaharrean ez da lorerik falta leihoetan.

Baserri gutxitan bezala, loreak ikus daitezke etxebizitza zaharreko ganbarako leiho txikietan. Honek badu etxe-ordekorik atzealdean nahiz aldamenean, belarra, traktorea eta gainerako tresneria lehorrean jasotzeko.

Sarrera nagusia bide aldetik; halare, eraikin zaharrak hegoaldetik du ukuilurako sarrera eta handixek ibiltzen direla askotan dio etxekoandreak. Bestelakoan, behean sukaldea eta atzeko partean ukuilua, erdian logelak eta teilatupean ganbara. Atzean lizar handi bi etxea mendebaldetik babesteko edo.

ORMAETXEA Familia

Fernando Ormaetxea, Andoaingo semea etorri omen zen hona, Maria Olarra bertako alabarekin ezkondutakoan, eta zazpi semealaba izan: Paulo, Domingo, Maria, Eustaki, Joanita, Ramoni eta Anttoni, horietarik hiru dagoeneko hilak. Paulo gelditu zen azkenerako baserrian nire solaskide Romana Izeta, Aiako **Zozobarro** baserriko alabarekin

ezkonduta. Hiru mutil eta bi neska izan dituzte: Jesus Mari, Fernando, Koro, Joxe Inazio eta Itziar. Gaur egun bakarra bizi da etxean gurasoekin, kanpoan lan eginez.

Paulo fabrikan aritu zela lanean erretiratu arte esan digu. Halere, ukuiluan beti izan dituzte dozena erdi bat buru eta etxerako adina baratze. Orain, ordea, senarrak erretiroa hartu eta denbora gehiago izan arren, indarrak urritu zaizkie eta duela hilabete batzuk behi bat eta zekor bat utzi eta gainerakoak atera egin dituzte. Halere, denbora pasatzeko baino gehiago direla dio oraino dauzkan oilo, untxi eta, etxea zaintzeko edo, kate motzean lotuta dauzkan zakurrak.

ATXAGA Familia

Nikolas Atxaga Ikutza, Usurbilgo Aginaga auzokoa etorri zen Anton-Enea baserrira bertako Dolores Irazustabarrena Indart alabarekin ezkondutakoan. Bi mutil, Benardo eta Martin, eta bi neska Dolox eta Luisa izan zituzten. Seme bat eta alaba bat kanpora ezkondu eta beste semea eta alaba gelditu ziren gurasoekin. Semea Zaldibiko **Urtxu Txiki** baserriko Maria Mendizabalekin ezkondu eta bertan bizitzen jarri zen, eta hiru alaba eta bi seme izan: Niko, Ana, Txaro, Idoia, eta Iñigo.

Duela hogeita bat urte (1980) jaso zuten etxe berria oraingoaren aurrez aurre, eta hantxe zendu zen orain hamalau urte Benardo eta duela bost arreba Dolox.

Etxearen egituraren berri eman dugunean esan bezala, gaur egun, etxea erabat berritu eta Atxaga-Mendizabal senar-emazteen hiru alabak bizi dira, bakoitza bere familiarekin, aipatu baserrian.

Nikolas Añorgako Rezola porlan fabrikan aritu zen lanean erretiroa hartu arte. Benardo semeak hartu zuen baserriaren ardura. Sei bat behi eta beste hainbeste zekor izaten zituzten baserrian, baita idiak ere lurrak landu, simaurrak atera, eta ukuilukoentzat janaria nahiz azpigaia ekartzeko.

Esnea etxez etxe partitzeari utzitakoan Gurelesa kooperatibari ateratzen zioten, gero Iparlat pasatzen zen esnea jasotzera. Baratzea etxerako bezainbeste egin ei dute, eta oilo batzuk ere beti izan dituztela jakinarazi dit intxaur zuri-zuriak mugitzen harrapatu dudan berriemaile zaldibiarrak.

Senarra hildakoan, ordea, baserriari ezin eutsi eta ukuilua dena hustu zuten duela hamar bat urte.





Joxe Olasagarre Elizondo, bertako semea (85 urte) izan dut solaskide. Bere adinaren berri jakin dudanean eta sasoikoa ikusirik, zera galdegin diot:

- Joxe zer egin behar da horrela kontserbatu ahal izateko.
- "Hara, esango dizut. Bezperan, oheratu aurretik, hurrengo egunerako zeregina pentsatuta edukitzea, ez da besterik nere ustetan. Ni gaur goizean ere zazpietarako ukuiluan ari nintzan ilobari laguntzen".

Zertarako, nion neure baitan, hau baino filosofia hoberik bizitzari buruz.

Arkaizpe etxearen izena begi bistan dago, izen toponimiko edo leku-izen garbia dela. Harkaitzaren behean edo barrenean dagoela esan nahi du, ez du beste misteriorik edonorentzat ere.

Santa Barbara mendiaren handik aldean eta Harkaitzaren babespean (Lasarte aldera) kokaturik den bi bizitzako baserri bitxia dugu. Nonahitik begiraturik ere, gaztelu zuri baten airea erakusten du. Bi mendion artean, Arrikarte deitzen den, bidegurutze bat dago, Urnieta, Hernani, Donostia eta baserrietako bideak gurutzatzen diren lekua. Eta Harkaitzaren mendebaldean beste bat (Urnieta, Lasarte, Hernani, baserriak). Hortik heldu da aipatu Harkaitz horrek **Bidegurutzetako Harkaitza** izatea bere jatorrizko izena eta "ez **Monte Torcido** azken gerratekoan sortutako izen traketsa, kaleko jendearen ahotan entzun ohi dan bezela", dio Joxek.

Santa Barbara bailara dute helbide bai Arkaizpe, bai Ilarratsuetak dakigunez.



Irizpide egokiagoa da mendiz handik aldekoak Jauregi bailarakoak izatea.

Garai batean, angeluzuzen luzexka omen zuen eitea baserriak eta bi bizitza orduan ere, bakoitzak lehorpe bana zuelarik, batak iparraldera, hegoaldera besteak. Hauek lehena erauzi eta berria altxa zuten, lauki zuzena emanez eta dorre zabal baten eitea, lau isuritan, etxeari ezarriz.

OLASAGARRE MERCADER Familia

Joxe Olasagarre dugu etxe honetako seme eta adinekoena gaur egun. Bi ahizpa omen ziren garai batean, Donata eta Dolores, bertako alabak, Urnietako **Sapal** baserriko bi anaiekin (Basilio eta Iñaxio Mari Olasagarre) ezkondu eta etxe banatan bizitzen jarri zirelarik. Joxe honen aiton-amonek, Dolores eta Basiliok, hiru seme-alaba izan zituzten, zaharrena Laureano, Ameriketara gaztetan joana, Migel eta Manuela. Migel Olasagarre Loinaz, Joxeren aita, Maria Elizondo Añorga, **Oria Bentako** alabarekin, ezkondu eta bost seme-alaben guraso izan ziren: Joxe, Joana, Sebastian eta Laureano (garrotiloarekin mutikotan hila hau) eta Joan Bta. Hargina omen ofizioz aita eta hargintza eta baserriko lanen ardura izan ohi zuen bere gain. Aita kanpotik zebilenean, ordea, aitona, ama eta biloben baitan geratzen zen baserria.

Gero, Joana, alaba, ezkondu zen etxera. Senarra, Ramon Mercader Altuna, Astigarragako **Usategieta** baserriko semea. Lau seme-alaba izan zituzten: Anjel, Luis, Mikel eta Pili. Orain, osaba Joxe, Luis eta honen emazte Begoña Soroa bizi dira Maite, Asier eta Iñigo seme-alaba gazteekin baserrian.

"Orduan baserrian burutu beharrekotzat ematen tzan zeregin normala egin ohi gendun" dio Joxek. Artoa eta babarruna, garia (golde bat urtero), arbia, ganaduen jatekoa eta azpigarria... "Bost behi inguru izaten genittun. Ama, Donostiara egunero asto gainean tratua harturik. Aurrerapen galanta izan omen tzan astoa, izan ere bitartean, amona zena (bi ahizpak) *buruxextera* kargaturik eta *burutea* buru gainean harturik oinez egiten zuten



Jauregi eta Goiko Galtzadatik barna Donostiarako joan-etorria, beste urnietar eta auzoko batzuekin batera. Bidegurutzean, Arrikarten, elkartzen zan taldea. Zenbait alditan arrosarioa errezatuz joaten omen ziran". (Beste arrosariorik ere izango zen dudarik ez dago). Eta... "puntua egiten etxerakoan".

Arrazoi hau eman dit Joxek, Donostiara zergatik eta Hernanira zergatik ez esnea eta barazkiak hurbilago izanik? galdegin diodanean. "Hernaniko kalean, garai hartan baserria eta sagardotegia besterik ez zalako, nik uste". Joxe bera ere kanpoan lanean ibilia dago, 19 urtean zehar "Papelera del Norte" deitu lantegian, erreleboan eta oinez baserritik joan-etorria eginez.

Arropa, beheko errekan (Zaltzateko erreka) garbitzen omen zuten, etxean *kuela* deitu hiru hankako barrika zuti batean lixiba egin ondoren. Xaboia garbigai bakarra eta errauts pixka bat, sutako hautsa, bahean pasatu ondoan, arropa zuriarentzat.

"Orain baino lehen etxe atzeko iturritik sarturik genun ura etxera", dio Joxek, gasolinazko motor baten indarrez. Orain, ordea, Urnietako herriko ura daukagu. Alde ederra garai batetik!"

Gaur egun, esnea eta haragia dauzkate etekin nagusi eta bizibide. Iparlat-ek eramaten die esnea. Garrantzi gehiago ematen omen honi haragiari baino. Haragiak baino (hogei

bat zekor) esneak zertxobait gehiago uzten duelakoan daude. Belardi eta bazter ederrez jantzia dago baserria. Luis, aita, eta Joxe, osaba, dira gehienbat baserri lanetan ari. Begoña, ama, ordu batzuetan kanpora joaten da etxerako sos batzuk bildu ahal izateko eta ikasketak egiten dihardute seme-alabek.

URRUZOLA Familia

Esanik dugu Donata, amona, beste etxekoaren ahizpa, Iñaxio Marirekin ezkondu zela. Seme bakarra izan zuten, Joxe Olasagarre, gerora Maria Insausti Urnietako **Txokolateneko** alabarekin ezkondu zen, baina familiarik ez zutenez, **Elutseta**ko ahizparen semea, Joan Joxe Urruzola, zortzi urteko iloba hartu zuten semetzat.

Joan Joxe hau gerra aurretik soldadukoa eginik izan arren, gerrakoan berriro soldadutzara deitu zuten eta halako zortea izan zuen, non elbarriturik etxeratu zuten. Besaburuan zuen balazoa, bai, eta betirako iharturik gelditu zitzaion eskuineko besoa. Hala ere, segan (aparatuarekin) eta aitzurrean ere ongi moldatzen zen. Gero, ezkondu (1945ean) 31 urte zituela. Joxepa Izagirre Genua, **Saretxo** edo **Marraka-Eneko** alaba, hartu zuen emazte, hiru alaba izan zituztelarik: Beni, Agustina eta Maria.

Duela berrogeita hamabi urte, etxea oso zaharkitua zegoenez, obra egin beharrean gertatu ziren. "Eskerrak aita lehendik Mendia Papeleran atezain bezala lanean ari zan zorrak pagatu ahal izateko", diosku amonak. Baina 11 urte bi lanetan jardun ondoan, fabrika utzi eta baserrira bildu zen, baserri lanetara osoki dedikatzeko.

Hiru alabak, bazkaria kapaxoan hartuta, Jauregiko eskolara lehenik, eta Lanbide Eskolara gero. Lehenengoetariko emakumezkoak izan omen eskola mota honetan. Dena den, haurrak eskolatzea estimu handiko gauza zen guraso hauentzat. Hirurak ere eskola aski ona hartuak dira (jostun profesionala zaharrena eta delineatzaileak beste biak).

"Bost edo sei behi izaten genitun. Esnea, arrautzak, fruta eta barazkiekin, astoa kargatu (astoa, egun batean batena eta bestean bestearena) eta Arkaizpe bietako etxekoandreak elkarrekin jaisten ginan goizero Hernanira. Etxea izebaren ardurapean gelditzen zan" (aita lanera, ama eskailerak gora eta eskailerak behera, hiru alabak eskolara joan ondoan).

"Bigarren alaba Agustinak 18 urte zituela, astoa utzi eta 4 L bat ekarri gendun, eta hala, alabak hartu zuen esneak partitzeko lana, Urnietako Vegasa altzari fabrikan lanera sartu aurretik".

Badute bizimolde hartako oroitzapen aski onik. Negu garaia aipatu dute ama-alabek gogoan, "elur egunak zein atseginak izaten ziren, artoa zuritu edo aletzen jardunez eta zepoarekin txoriak harrapatu ondoan kazuela goxo bat janez".

Urtean behin hiltzen zuten zerria. Txokoko Pedro hiltzaile. Festa handitzat daukate egun hura. "Zerria hil bezain laster beraren puskarik samurrenak auzokoekin batera lagunarte ederrean jan eta inguruko etxeetara txerrimoniak eramatera. Inguruko baserriek ere jokabide bera bakoitzak bere aldian".

Artoa ereiteko egunak ere amesgarri zaizkie. "Arto asko ereiten zan garai haietan. Hiru baserriak elkartzen ginan auzolanean: Arkaizpe biak eta Ilarratsueta. Gizonezkoak zuloak egin eta zuloak tapatu, tartean emakumeak eta gaztetxoak hazia bota, eta ondoren soro bazterrean, elkartasunik hoberenean, kontu kontari, arratsaldekoa, gazta eta ogia edo txokolate puntaren bat sagardo eta ardoz bustirik".

Bigarren alaba, Agustina, ezkondu zen etxera. Baserriaren ardura hartzekotan, Vegasako lana utzi behar izan zuen. Senarra Migel Etxarte, izatez nafarra, Mañeru herrikoa eta hiru seme-alaba izan zituzten: Kristina, Luis eta Joan Joxe.

Gaur egun, belardiak alde batera aldamenekoari eta artzainari (neguan) emanik dauzkate. Amona Joxepa (81 urte), alaba Agustina alarguna eta bi semeak bizi dira baserrian, oiloak eta baratzea zainduz eta fruta pixka bat bere garaian bilduz.

Barkaiztegi (Barriola) Jauregi Auzoa



Barriola izenez ezagutzen da normalean baserri hau, baina **Barkaiztegi** (Behe-harkaiztegi esanahia, agian) du jatorrizko izena. Oholtxo kraskatu batean begi bistan dauka oraino etxeak "Barcaiztegui" izena. Barriola deitu goierritarren bat maizter egon ote zen aurretik noizbait eta hortik datorkion zantzua edo entzutea izan dute beti.

Santa Barbara atzean, mendiaren magalean, bidez azpitik eta aldapan kokaturik daukagu **Barkaiztegi** baserria. Belardi eta sagasti ederrak izaniko lurrak etxez goiti, eta zelai zabal txukun eta aberatsa, labore lur eta baratzea izateko egokia etxe barrenetik beherakoa.

Nahikoa zaharkitua ageri da kanpotik bi isuritako etxe hau. Mendialdeko isuria luzatua edo luzeagoa du. Funtsean etxe-ordeko bat da luzapen hau, betidanik *Artegiya* deitu izan dutena. Gainera, nire solaskideen esanetan (Joan eta Antonio bi anaiak) etxea bera baino lehenagokoa zela borda edo artegia entzun izan zioten aurrekoei. Etxearen aurrean, zerbait alderaturik, borda koxkor polita, dolare izana eta dena. Azpialdetik terraza dauka etxeak, azpian oilategia duela.

Aitona, **Ilarratsueta**ko semea (16 senideren artekoa bera), Joxe Antonio Iradi Urkia, eta Lasarteko **Satsueta Handi**ko alaba amona, Joxepa Zuaznabar Arrieta. Lau seme-alaba izan zituzten: Joxe (soldadutzan zela hila), Maria (lekaime Gironan), Iñaxi eta Anttoni. Anttoni ezkondu zen etxera, senartzat Joan Bautista Beloki Zubeldia, jaiotzaz Bedaiokoarekin, eta sei seme-alaba izan: Joan, Guadalupe, Benantxi, Antonio, Joxe eta Ramon. Joan, zaharrena, ezkonge, dugu etxean orain.

Aitona zenaren garaian sagasti handiak ziren nonahi eta Barkaiztegin ere bai. Eta dolarea zeukaten. "Inguruko baserrietako eta etxeko sagarrarekin sagardoa egin eta Donostiako Antigua auzoko *upelategi* batera eramaten zuan, behiak uztarrian eta sagardoa barrikan gurdi gainean hartuta. Bestetik, amona ere egunero, astoa hartuta, esnea eta tratuarekin Donostiara, gero amak bide bera jarraitu zuan. Hona nola zan, diote nire solaskideek, garai haietan hemengo bizimodua".

Sei-zazpi behi eta idi-parea izan dira hauen gogoan Barkaiztegi baserrian. Orain, nahiz eta Joan urteetan aurrera doan, baratze eder bat beheko zelaian, hiru behi, hiru zekor eta... ardi multzo bat daukate, laurogeiren bat badituzte. Esan behar da, Antonio anaia, honen emaztea eta Ramon anaia gazteenaren laguntza ere ez dela txantxetakoa.



Belasko-Enea

Jauregi Auzoa



Granadako dukeen, Velasco jaunen, jabegoa izaki Jauregi baserria eta inguruko lursailak, egungo **Belasko-Enea** eta **Belasko-Enea Berri** (borda izandakoa) baserriak ere eta hortik datorkio izena, egun grafia aldatu baldin bazaio ere. Gauza normala bestetik, zeren eta euskal deitura baita *Belasko* bete-betean, Otxoto, Olaskoagoa, etab. izan daitezkeen bezala. Are gehiago, berauek dira euskal deiturarik antzinakoenak (Ik. Mitxelena, *"Apellidos Vascos"*, 69 or.).

Galarretako bidegurutzetik Errekaldera doan errepidetik ehun metrora dago, Jauregi jatetxea baino lehentxeago, Galarreta baserriaren eta iparraldeko txokoan dagoen lantegiaren erdian, bide ertzean eskuinetik.

Bi isuriko etxea, erabat berritua, teilatua konpontzerakoan goiko ganbara zertxobait altxatua. Behean sartu eta ezkerretara sukaldea, bide aldera begira, goiko terrazak babesturik. Atzean, ukuilua zena, egun baratzeko produktuak jasotzeko hotz-kamera jarri dute, eta garai batean aldamenean bertako alabaren eraikina atxikita bazuen ere, orain isolatua dago eta hutsik.

Jauregi baserriko Antonio Etxeberriak erosi zuen baserria ezkontzerakoan. Emaztea gazterik hil zen tifus gaitzarekin, baita 15 eta 17 urteko semea eta alaba ere, eta Pellorekin bakarrik gelditu zen Antonio. Aipatzekoa, emaztea eta alaba zortzi egunen barruan galdu zituela. Hala, berriro ezkondu eta Felipe, Anttoni eta Joana jaio ziren. Anttoni ezkondu eta aldameneko etxean jarri zen bizitzen, eta Joana gelditu zen etxean



Hernaniko **Arrieta** baserriko Pako Izagirre senartzat hartuta. Bi seme-alaba izan zituzten Maria Jesus eta Joxe. Felipe, ezkonge, baserrian bizitu zen beti. Joxe semea etxerako, Urnietako Maria Anjeles Belaunzaran Egia, **Ormazarreta** baserriko alabarekin ezkondu, eta alaba bat izan dute, Karmele, eta horiexek bizi dira egun baserrian ama Joanarekin batera **Belasko-Enean**.

Garai batean Felipe, bertako semeak behi eta zekor, oilo eta beste zituen baserrian, baita baratzea ere. Arreba, Joana, joaten zen etxeko produktuak Donostiako merkatuan saltzera. Senarra, Pako kanpoan lanean, eta bizikletan egiten zuen joan-etorria. Gaur egun, ordea, ganadu guztiak atera eta negutegiak jarri ditu semeak, etxearen beheko aldean, garai batean Butano biltegia zegoeneko aldamenean.

Aurten, esaterako, tomatea jarri du alderik alde, eta hantxe dihardute lanean Joxe eta Maria Anjeles senar-emazteek eta hauen alaba Karmelek. Ukuiluan behi eta zekorren lekuan hozkailua jarri du baratzeko uzta egoera onean mantentzeko, eta oraingoz ez du damurik egindako aldaketaz.

Belasko-Enea Berri



Nagusi beraren (Velasco jauna) jabetzako borda baino ez. Hortik datorkio nonbait Belasko-Enea Berri.

Jauregi auzoko eskolaren ondotik hartzen da **Belasko-Enea Berri** baserrirako bidea. Handik hirurogei metro eskasera dagoen muinoaren hegalari atxikita, hegoaldera begira, iparraldeko haize hotzaren babesean kokaturik.


Behetik begiratuta lau oin eta bi isuriko etxea da, hego-mendebal ipar-ekialderako zentzuan. Etxe apala, lurraren gainetik beretik belarra jasotzeko lekua eta etxearen mendebaldeko fatxadaren lehen oinean ukuilua ditu. Iparraldeko fatxadan eta mendialdetik lurraren arrasean dauka, hirugarren oinean, etxebizitzarako sarrera eta eskailera gutxi batzuk igo eta ganbara. Hegoaldeko fatxada zertxobait jana dauka mendebaldeko azken metroetan, etxearen atzera igotzeko lurrak ematen zuen eran, beharbada.

Belasko-Enea baserriko Pello Etxeberria jarri zen bizitzen borda izandako honetan Ixabel Mendizabal hernaniarrarekin 1940. urtean ezkontzerakoan, eta seme-alaba hauek izan: Joxe Antonio, Migel Mari, Felipe, Nikolas (ezbeharrez hila), Gabino eta Mari Ixabel. Guztiek kanporako bidea hartu zuten eta Pello duela hamar urte zendutakoan, Ixabel alarguntsa, Migel Mari semeak, Mari Ixabel arrebarekin batera aldamenean egindako etxe berrira joan zen bizitzera.

Lur gehiegirik ez eta, Pello Añorgako harrobira joaten zen lanera. Halarik ere, bertan bizi zirenean, behi, zekor, oilo, baratze, sagasti eta abar izaten zuten eta hantxe aritzen ziren senarra eta semeak fabrikatik edo eskolatik etorritakoan, eta ama, Ixabel, goizean merkatuan etxeko produktuak saltzen eta arratsaldean haiek prestatzen. Gero, ordea, senarra hil, seme-alabak fabrikan hasi, kanpora ezkondu eta egun, aurrerabiderik ez eta, hutsik geratu da baserria. Alabaina, Ixabel hantxe aritzen da oraindik ere baratze lanetan eta oiloak gobernatzen "osasunak laguntzen dun bitartean" dio. Bestetik, sagarra dezente bildu dute aurten ere; belarra inguruko baserritarrari ematen diote, eta soroak garbi daudela esan behar da.



Bordatxuri



Ez dakit nondik eta nola sortutako izena den baina Euskal Literaturan, kantu zaharra oinarritzat hartuz, ezaguna da Pierre Lartzabalen izen bereko antzerkia. Dena den, eraikin mota desberdinen artean aski arrunta da *borda* hitza gurean, aterpe, txabola edo baserri izendatzeko. Kasu honetan borda eta zuria, gainera.

Jauregitik Lasartera doan bidearen ondoan, iparraldera begira, ingurumenari min egiten dion pabilioi handi bat aurrean duela; ekialdera Zozperri, Sarasola-Enea eta Zelaigain; hegoaldera eta zertxobait urrutixeago, zokogune batean, Izoztegi; mendebaldera, berriz, Anton-Ene, hiru Galarmendik, e.a.

Bi isuritako eraikin laukia, 1954an eraikia dugu **Bordatxuri** etxea. Behean, lurraren arrasetik zertxobait beherago, sotoa, eta gora bi oin dituela. Atzean, ukuilua izandako lehorpe handi bat. Ondo zaindua eta egoera oso onean dagoena egun.

Aldameneko **Zozperri** baserrian bizi ziren Jose Bernardo Irazustabarrena, bertako semea eta honen emazte Martina Goenaga, Gaztelutik etorria. Hamar seme-alaba izan zituzten, baina gaur egun 6 besterik ez dira bizi: Joxe (hila), Bixi, Joan Mari, Bixenta (Joxe Luis Intxausperen alarguna), Joxe Mari, Patxi, Antonio eta Nikolas (lantokiko ezbeharrez hila) eta Joxe Ramon eta Joxe Antonio (garrotiloarekin gazterik hilak); "batzuk txikitan beste batzuk gaztetan" hil zirela esan digu. Aita ere sasoiko zela hil zen, 57 urterekin; ama, aldiz, adinekoa, duela 11 urte.



Joxe Mari semea bizi da lehenengo bizitzan Mari Karmen Iturria bidaniarrarekin ezkonduta eta hauen alaba Elisabet. Goiko etxebizitzan Bixenta arreba, ezkondu eta handik gutxira alargun gelditua berau.

Zozperritik ateratakoan, ganadua jarri zuten baserri berrian, baita baratzea egin ere, baina aita hil eta semeak kanpoan lanean hasi bezala, ukuilua murrizten joan ziren, baratzeari eusten bazioten ere. Ama joaten zen Hernaniko arkupetara saltzera, baina hau hildakoan, erabat utzi zuten ukuilua eta baratzea etxerako baizik ez dute egiten. Aparteko ongarri eta zomorro hiltzailerik gabe uzta ona eta osasuntsua ateratzen duela dio Michelin fabrikan urte ugari egin ondoren erretiratuta dagoen Joxe Marik. "Belarra, berriz, garbitze aldera ematen degu, eta gustura horretan".

Erroxali-Enea

Jauregi Auzoa



Pertsona izenen artean emakumezko izena dugu **Erroxali-Enea**. Hernaniko Marieluts Txiki aldetik Jauregi eta Lasartera doan bidearen bazterrean, eskuin aldean, hondar-harrobiaren ezkerrean, eki eta Hernani aldera begira kokaturik zen baserri hau. Aski isolatua, hurbilenekoak Marraka-Enea eta Lopetegi baserriak zituelarik.

Bi isuri omen zituen etxeak, behean sukaldea eta ukuilua eta goian logelak, komuna eta hauen gainean ganbara zuela. Zuela diogu 1964ko apirilean baserria erabat erre zelako. Baita bere baitan zeukan zurezko dolarea ere. Antzina sagardotegi izana, bolatokia zuen etxe ondoko bidearen beste aldean. Egun, berria eraiki dute bidez beste aldetik, iparraldera begira.

Joxe Ramon Kalonje Zubillaga eta bere arreba Joxepa izan ziren bertan azkena bizitutakoak. Arestian esana baitugu baserria erre egin zela eta hor bukatu **Erroxali-Enea** baserriaren bizitza, nahiz orain bertako ilobak berria egina duen. Iloba hau eta bere emaztea izan ditut, hain zuzen, solaskide baserriari buruz galdezka joan naizenean. Agidanez, 1960. urtean, Joxe Irazustabarrena Zubillaga, Zozperri baserriko seme eta Erroxali-Eneko Joxe Ramon Kalonjeren besoetakoa zenak erosi zuen baserria. Aipaturiko Jose hau Donostian bizi zen, eta osaba adinekoa bakarrik eta gaixo ikusitakoan bere etxera eraman zuen. Alabaina, handik egun gutxira goizean jaiki eta osaba falta zela konturatu ziren. Oinez bere baserrira itzulia izaki "jaiotako lekuan hil nahi zula" esanez. Halaxe hil ere, sukaldeko sutondoan beti izugarrizko txotx pila edukitzen omen zuen eta txinparten batekin nonbait su hartu eta ukuiluan behiak ateratzen ari zela suak eta keak hartu eta bertan gelditu zen.

Halatan, 1985. aldera, bere besoetakoa eta aurrekoaren semea zen Joxe Ramon Irazustabarrena Irazustabarrena eta honen emazte donostiarrak, Mari Karmen Uranga Uranga, hartu eta bidearen beste aldean eraikin berria jaso dute hortxe bizi ahal izateko.

Ez nuke esan gabe utzi nahi, Joxe Ramon Kalonjeren aita zenak esan eta ilobak nahiz auzokoek oraino gogoan dutena. Agidanez, abioiak pasa behar zutela eta Hernanitik Santa Barbara mendira omen zihoan jendea haiek hurbilagotik ikustearren edo. "Erroxali-Eneko jaungoiko txikia" lanean bururik altxa gabe, eta hala esan omen zien haien intentzioaz galdegindakoan: "Abioiak ikustea? Oaindik ibili behar dezute hoiengandik ihesi". Bai hala gertatu ere!

Esan beharrik ez Erroxali-Enean ere, orduko beste askoren antzera, behiak, zekorrak eta baratze pixka bat zela bizimodua aurrera ateratzeko bidea.

Duela hamabost bat urte inguru, ordea, Mari Karmenek akademian frantsesa eta ikastolan klaseak emateari utzi eta sagardo-sagarra aldatu zuten senar-emazteek baserri inguru guztian. Laster ohartu ziren urte asko behar zutela zerbait ematen hasteko eta ez zela nahikoa zuhaitza aldatzea, hari eman egin behar zaiola ondoren zerbait jasoko bazen. Hala, sagardotakoa atera eta mahaiko sagarra dute orain.



Usu egin izan dugu euskaldunok etxearen ezaugarriren bat hartu eta berarentzat izen bat edo beste asmatzea. Izendegi luzea da bide honetatik gurean, hala nola Etxebeste, Etxegoien, Etxebeltz, Etxezuri, Etxemendi, Etxezarreta... Eta esan gabe doa zerrenda honetan sartzen dela **Etxeberri** hau ere. Jakingarria, ohar Xabier Deunaren izenak ere sustrai bera duela, Etxaberri, Txaberri, *Xabier* bilakatu delarik.

Jauregitik Santa Barbarako bidearen ertz-ertzean, etxerako sarrera ia bidetik bertatik duela daukagu **Etxeberri** baserria, alde batetik etxe-ordekoa atxikita duela. Sarrerak ekialdera ematen du, baita ukuiluko biek ere, bata ganaduen majerak daudenekoa eta bestea simaurrak atera eta azpitakoak sartzekoa. Aurrean bertan uraren aska estu baina polita, eta pozadera, lurpean, etxea urez hornitzeko, egun herriko ura badute ere.

Bidearen beste aldean eta etxetik hogei metrora gerra aurretik egindako harrizko bi horma eta zurezko bi zutabe dituen aterpea, lanerako tresnaren bat edo beste eta simaurra lehorrean gordetzeko.

Pedro Mari Aia aitonak egin zuen etxea auzoko Maria Anizeta Zubillaga, **Kanpozabal** baserriko alabarekin ezkondutakoan. Fakunda Aia, alaba, Urnietako **Adarraga** baserriko Sebastian Garagorrirekin ezkondu eta bertan jarri zen bizitzen, eta 6 seme-alaba izan, lau neska eta bi mutil: Maria, Agustina (Agustindar lekaimea, Hernaniko komentuan duela gutxi hila), Joana Joxepa (Beneditar lekaimea, Oñatiko komentuan), Fernanda, Joxe eta Ramon, duela 13 urte hila).

Aita ere gazterik hil zela esan digu Fernanda gure solaskideak, 33 urterekin ezkondu eta 54 zituela hil omen zen. Orain, Maria (82 urte), Joxe eta Fernanda, guztiak ere adinekoak bizi dira baserrian.

Behiak eta zekorrak izan dituzte beti ukuiluan eta esnea beren bizibide nagusia. Bospasei buru esan digu, "majera zulo horiek daudelako gure ukuiluan". Esnea Hernanira eta Donostiara eramaten zuten saltzera. Sagar zakuak ikusi ditugu bilduta eta izugarrizko dolarea ez bazen ere, orain arte etxean egin dutela sagardoa esan digu. Halere, anaia hildakoan atzerapen handia izan zuten etxean alde guztietatik begiratuta. Izan ere, huraxe omen zen gidatzeko baimena atera eta ibilgailua ekarri zuena eta hori alderdi handia zen autobusetik aski urruti gelditzen den baserri baterako. Orain, okinarekin-edo herrira joan eta gero taxian egiten duela buelta esan digu Fernandak.

Bide ertzean etxea eta lurrak izateak ere bere alderdi on eta txarrak ditu, handik Santa Barbara aldera edo Hernanitik Lasarte aldera pasatzen zen jendearen irri eta trufak jasan behar izan baitituzte.

Lera ikusi dugu etxe ondoan baina leran baino asto-karroan hobeto errenditzen dela eta orain gutxi erabiltzen dutela esan digu. Eguneko behi jana orgatxoan ekartzen du Joxek, guztia etxe inguruan baitu, eta goldaketa, sega lana edo belar-bola egitea auzokoari eskatzen diotela. Belar metarik ez, baina garo metak ikusi ditugu, Marieluts Txiki baserriaren goiko aldetik garbitzearen alde ekarri eta egindakoak.

Galarmendi Behekoa (Gonagorri) Jauregi Auzoa



"Galar: lurrean zuloa eginda egosten den gaztainondo-ikatza" Luis Mari Mujikaren *"Euskal Toponimiazko Materialeak"* (103. or.)

Nolanahi ere, eta bere izena **Galarmendi Behekoa** baldin bada ere, **Gonagorri** esanda ezagutzen dute inguruko guztiek. Bertako neskak gona gorri-gorriarekin ibiltzen ziren, agidanez, eta handik gelditu zaio nonbait aipatu izena.

Izenak dioen bezala Galarmendi Erdikoaren behealdean dago, erreka moduko baten beste aldean; berrogeita hamar metro baino ez batetik bestera. Jauregi auzotik Lasartera doan auzobidearen aldamenean, mendixka moduko baten bizkarrean.

Bi isuriko etxea da, behean sukaldea eta ukuilua, goian logelak eta ganbara dituela. Iparraldera begira, bertatik du sarrera nagusia, mendebaldeko horman beste atetxo bat duen arren. Etxe luzexka da, eta atzeko aldean zuhaitz handi bat du hegoaldeko eguzki beroari aurre egiteko edo.

Ukuilu handi eta eder bat atxiki diote ekialdeko hormari, etxea bezain handia, luzera eta altuera berberak baititu. Behean behiak eta goiak belarra, lastoa, etab. jasotzeko.

Aiton-amonak, Joxe Antonio Muniain, zarauztarra eta bertako alaba Maria Luisa Zubillaga, eta honen ahizpa Maria Zubillaga bizi dira hemen. Sei seme-alaba izan bazituzten ere, egun hiru baino ez dira bizi, jaioberritan galduak dituzte. Euxebio, Kontsuelo eta Joan Mari. Euxebio, seme zaharrena gelditu da baserrian, Mari Karmen Bergaretxe, Hernaniko **Otsua-Enea** baserriko alabarekin ezkonduta, eta bi alaba dituzte, Ixiar eta Leire, oraino gaztetxoak eta eskolan dabiltzanak.

Ganaduari erabat emanak daude, esnea da beren bizimolde nagusia, eta inguruko belardi franko garbitzen dituzte ukuiluko behi eta bigaiak aseko badituzte. Tresneria ugari dago etxe inguruan belarra mozteko, biltzeko, jasotzeko, baita behiak jezteko, esnea jasotzeko, etab. baina, halere, nahikoa lan izaten dela esan didate senar-emazte gazteek. Aipaturikoaz gain badituzte ardiak, oiloak, ahateak, zaldia, zakur, katu, uso eta bestelakorik ere.

Garai batean ez bezala, orain, kamioia etxera etortzen zaie esnea jasotzera. Baratze asko ez, baina gazta eta sagardoa ere etxerako hainbeste sortzen dute. "Laster hasiko gea berriro ardi esnea biltzen baina horren salmenta ere asko jaitsi da. Jendeak ez du denborik edo ez du sukaldean lanik egin nahi, eta errazagoa zaio nola-hala egindako mamia erostea, norberak egitea baino".

Txirbila eta lastoa erabiltzen dute azpigai; izan ere, "etxeko lurretan hiruzpalau irastor meta egiteko besterik ez degu eta, gainera, lastoa oso ongarri ona da". Halere, aztarrika asko egin beharra dagoela egun baserrian zerbait aterako bada esan didate.

"Guk orain 15 bat urte inguru hartu gendun baserria eta, dena esan behar eta, gu ez ginan gaizki atera. Lursail onak ditu Gonagorrik eta prezioz ere ongi moldatu ginan".

Galarmendi Erdikoa (Txanetene) Jauregi Auzoa



Txanetene esanda ezagutzen dute auzoan. Garai batean txabetak egiten omen zituzten gurdi, sega eta halakoentzat eta hortik gelditu zaio **Txabeta-Enea**, *Txanetenea* izen ordaina.

Esan beharrik ez dago, izenak berak dioen bezala, Galarmendi Behekoa eta Goikoaren artean dago **Galarmendi Erdikoa**, Jauregitik Lasartera doan bidearen ondo-ondoan eta batetik besterako erdibidean.

Guztiz berritutako etxea da, eta garai batean etxebizitza bakarra bazen ere, bi egin dituzte orain. Bi isuriko eraikin soila, hegoaldera begira, aldapatxoaren beheko barrenean; atzea, goiko oinerako sartzeko ormigoizko mandioarekin, bideari ematen dion bitartean. Aldamenean lehorpe eder bat tresneria eta bestelakoak jasotzeko.

Aita, Erramun Apaolaza bertako semea, Añorgako **Olarte** baserriko *(Manttalin)* Joxepa Salaberria emaztetzat hartu eta hiru seme eta hiru alaba izan zituzten: Emilio, Mari Karmen, Julian, Kontxita, Joxe Luis eta Tere. Emilio, seme zaharrena, gelditu zen baserrian Arroako Joana Olaizola anderearekin ezkonduta, eta lau seme izan: Joxe Ramon, Joxe Manuel, Xanti eta Abel; horietarik hiruk aitarekin egiten dute lan baserrian, eta bakarra kanpoan lanean aritzen dena. Bat kanpora ezkonduta, bestea, gazteena, ezkondu eta aldamenean jarri da bizitzen. Emaztea kanpoan aritzen da lanean, irakaskuntzan, eta, agidanez, badute haur bat bidean.

Ondo deritzo gure solaskideari baserrietako datu eta kontuak jasotzea, baina egun hitzetik



hortzera dabilen *futbola* euskaraz nola esaten den galdegin digu, "ostikoketa, behar bada" erantzun diogu baina ezetz *mandostikoa* esaten zela haren gazte denboran adierazi digu.

Behiak eta zekorrak erabat kendu eta baratzeari eman diote. Martxa handia daukate eta etxeko nahiz kanpoko lurrak ibiltzen dituzte errentan hartuta. Etxe inguruan eta, baita, Usurbil aldeko erriberan ere, lur onak eta lanerako egokiak diren lurrak nolanahi ere.

Biltegi handietara, dendetara eta Donostiako Bretxako azokara eramaten dituzte barazkiak saltzera. Aita hiru semeekin, baratzeko uzta bildu berria, harat-honat banatzera doazela harrapatu ditut, eta beraien martxa ikusita ez naiz ausartu denbora larregi galdeketan kentzera.

Etxerako ere ez dutela esnerik dio, "baratzea nahiago, ez baitu marrurik egiten egun batean bere horretan utzita ere". Alabaina, badituzte oiloak, baita txerriren bat ere aldian behin, eta sagardoa etxerako adina behintzat sortzen dutela dio.

Galarmendi Goikoa (Pangorri) Jauregi Auzoa



Pangorri esanda ezagutzen dute auzokoek. Bertako semea okina izaki, eta ogi beltza egin omen zuen, agidanez; harrezkero, *Pangorri* deitzen diote.

Izenak berak dioen bezala, hau da hiru Galarmendietarik goien dagoena. Jauregitik Lasartera doan bidearen ertz-ertzean dago, goiko aldetik, Galarmendi Erdikotik hamar metrora, aipatu bideak bereizten dituela.

Bi isuriko etxea da, mendebaldera begira, behean ukuilua, goian sukaldea, komuna eta logelak dituela. Iparraldeko teilatua askoz luzeagoa da eta badirudi beranduago erantsitako etxe-ordekoa dela.

Aldean badu beste lehorpe koxkor bat ibilgailua eta gainontzeko tresnak jasotzeko. Etxe aurrean, berriz, harrizko aska handi bat, garai batean txerria gazitzeko erabiltzen zena, Joxe semeak Añorgako Taberna Berritik 1930. urtean ekarritakoa. "Geroztik, hamaika bider edan dute hor gure behiek" esan dit.

Anttoni Lizarribar bertako alaba, Bonifazio Urretabizkaia Astigarragako **Basozabal** baserriko semearekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten, Joxe eta Joana. Semea Joxe, *abadua*, gelditu zen etxean, Zizurkilgo Anttoni Garin emaztetzat hartu eta bi seme eta hiru alaba izan dituzte. Denak kanpoan dira gaur egun eta Joxe eta Anttoni bakarrik bizi dira baserrian.

Gurasoak baserrian aritzen ziren eta ama Donostiara joaten zen merkatura baratzeko gauzak, arrautzak eta gainerakoak saltzera. Auzokoarekin txandan jartzen zuten astoa Errekaldera jaisteko. "Han asto-lekua ordaindu behar izaten zan, auzoko asto guztiak bertan lotzen baitzituzten eta ez zegon lekua ordaindu beste biderik. Noizbait komeriak ere izan zian; norbaitek astarrak askatu eta asto-saskiak apurtu eta emeak ernaltzen baitzituzten, baina asto jabeak zelatan jarritakoan konpondu zan, agidanez, arazoa".

Joxe, semea, kanpoan hasi zen lanean 24 urterekin, Michelin fabrikan eta hantxe aritu zela esan dit 58 betetakoan erretiratu zen arte. Ez dute ganadurik etxean, "lau oineko asto bat besterik ez" dio solaskideak. Nahikoa lo egin, enkarguren baten aitzakian kale aldera buelta bat eman eta... primeran bizi dela adierazi dit Joxek.




Ilarratsueta



Ilarra (iñarra, aiñarra, txillarra). Gaur egun aldaki hau, txilarra, erabiltzen badugu ere, begi bistan dago aurrekoek ilar hitza ere erabiltzen zutela, gure *txilar* horren ordez. Oroit Ilarreta baserria Galarreta auzoan. Txilardegieta izango luke Ilarratsuetak, oro borobilduz, bere esanahia.

Arrikarte bidegurutzetik behera **Lasarteko** mugan aurkitzen da Ilarratsueta baserria. Honen jabetzako lurraldea zen etxetik metro asko gabe kokatzen den Lasarteko hilerria. Joxe Mari etxeko nagusi zaharrak dionez, bere garaian Hernani eta Urnietako udalek elkarrekin erositako lurra da, eta izatez Hernaniko partean dagoen arren, Lasarteko udalari jabetzan emana. Hau saltzearekin, esan beharrik, galduan atera zirela, baina orain etxe barreneko erreka ondoan betelana eginez, zelai eder bat berenganatzeko modua egin dute.

Errektangeluarra da etxea ongi begiratuz gero, aski bitxia ere bai urrunetik behatuz. Bi eranskin ditu osagarri eta horiek ematen diote delako berezitasun hori. Goikoak, hegoaldeko eranskinak alegia, noizbait bi bizitzako etxea



bilakatu zenean, gela bat eta sukaldea ditu lehen solairuan; behekoa, dolarea eta sagardotegia egiteko duela 90 urte ezarri omen zitzaion.

Etxetik at, goraxeago, bide ertzean dagoen bordak etxe-ordekoaren erabilpena du. Saihetsean hegoaldetik *perratoki* polit bat dauka, oraino bere-berean kontserbatzen dena. Nagusi zaharraren ideia eta obra hain zuzen, inguruko baserrien zerbitzutan antolatua idiak, behiak edo zaldiak ferratu ahal izateko. Astigarragatik etortzen zen, azkenekoa behintzat, astean behin edo bestetan perratzailea.

Etorkinak ziren gurasoak, alkizarra bata, amezketarra bestea. Etxea hutsik, errentan hartu eta ezkonduta bertan jarri ziren bizitzen. Pedro Lasa Gabirondo aita eta Manuela Artola Nazabal ama. Honako seme-alaba hauek izan zituzten: Paulo (uztargile famatua), Joakin, Joan Bautista, Pilar, Joan Mari, Joxe Mari eta Kontxita, eta beste lau txikitan hilak, hamaika guztira.

Joxe Mari etxera ezkondu eta Maritxu Munita Bordaberri, errezildarra, hartu zuen emaztetzat eta hiru seme izan: Paulo, Joan Manuel eta Joxe Joakin.

Paulo dugu etxeko orain, Margarita Altuna Vitoria, **Intsusadi** baserriko alabarekin ezkonduta honako seme-alaba hauek dituztelarik: Mikel eta Nerea, biak ikasketak egiten.

Ondo gogoan dauka Joxe Marik aita zenak nola esan ohi zuen, bost behi hartuta Alkizatik igande goiz batez etorri zela eta zer nolako lanak izan zituen ukuilua pixka bat garbitzen eta bazterrak antolatzen. Lurrak ere guztiz abandonaturik omen. Josefina deitu Urnietako andere amerikana baten jabetzakoa zen etxea.

Baserri handia, dozena bat behi eta idi parea beti izan dituzte. Labore lur onak eta erosoak dira. Artoa, babarruna eta patata ere aise biltzeko modua izan dute, pixka bat saiatuz gero behintzat.

Amona zena, edo birramona hobe, Donostiara egunero esnea eta barazkiak asto gainean harturik. Gerora ikasi zuten Hernanirako bidea. Astoa lehenik (birramonak), zaldia eta orga (amonak) eta autoa (amak).

Duela 28 bat urte baserriaren jabe egin zirenean, arnas berria hartu ahal izan zuen Ilarratsueta baserriak. Orduan sartu zuten ura etxera argindarrez ponpaturik etxe barreneko iturritik *(Barriola aldeko iturria)*. Beste obra bat: bidearen zabalkuntza, anartean gurdibide soil bat zena, errepide bihurtuz, auto edo kamioiak atariraino sartzeko modua eginez. Beren sakeletik egin zutela diote, udalaren laguntza pixka batekin. Orain Lasarteko herriko ura dute etxean.

Paulok, aita, erreleboan Ingemar enpresan lan egiten du, baserriko lanetan aiton-amonen eta emaztearen laguntza duelarik.

Etxetik aparte daukate ukuilua gaur egun. Aterpe zabal bat da funtsean, ukuiluaz gain, etxe-ordekoa eta garajea bere baitan hartzen dituen aterpea. Behiak larrera etxeko zezenarekin: hamar behi, zezena eta etxean jaiotako hainbat zekor. Etxeko zezena izatearen arrazoia zein den galdegin diodanean, hauxe izan da erantzuna: "Haragitarako biziki ona den arraza *(Limousin)* osoki mantendu ahal izatea".



Ilarratsueta Berri

Jauregi Auzoa



Jatorrizko izena **Ilarratsueta Berri** baldin badu ere, "Poltsero-Enea" esanda ezagunagoa da. Arrazoia, ganaduzaleen ermandadea izaki garai batean auzoan eta hemengo baserritarrari egokitu *diruzain* edo poltsero izatea. Hortik datorkio, nonbait, izena.

Santa Barbara mendiaren atzean, malkar batean, Hernanitik Galarretara doan bidearen behealdean, orain jatetxe den Marraka-Enera begira, eta Ilarratsueta, Barriola eta Arkaizpe ere inguruan dituela. Lasarteko hilerri berria, berriz, alboko mendi hegalean.

Harrigarria bada ere, fatxada nagusia eta sarrera, iparraldera begira ditu bi isuriko etxe lauki honek. Urte asko ez direla teilatua eta solairuak ormigoiz zaharberritu dituzte. Behean ukuilua, goian etxebizitza eta ganbara ditu, eta mendiaren eroria eta etxearen hormaren artean teilatua bota eta estalpea lortu dute. Aurrean beste etxe-ordeko bat, behean lanabesak eta goiko sabaia lasto-fardoz ederki hornituta.

Lau senide omen ziren Mirandatarrak, hiru mutil eta neska bat; horietarik bi gerran hilak. Bestea, Inaxio Miranda Vitoria, semea, **Marraka-Ene**ko Pantxika Genua Genuarekin ezkondu eta bertan jarri zen bizitzen. Seme bat

eta hiru alaba izan zituzten: Roke, Maritxu, Pepita eta Agustina. Inaxio, aita, 66 urte zituela hil zen.

Hiru alabak kanpora ezkondu eta Roke, seme zaharrena eta bakarra, Arantxa Isasa Urreztarazu, Ergobiko **Bilandegi** baserriko alabarekin ezkondu eta gelditu zen baserrian. Honek ere, gurasoen antzera, lau haur izan ditu, hiru neska eta mutila: Paki, Karmele, Aitor eta Arantzazu. Hauetarik bi etxetik berrehun bat metrora, Santa Barbara mendiari aurpegia erakutsiz oraindik orain eraiki duten etxe berrian jarri dira bizitzen.

Idazten duen hau baserriz baserri ibili bada ere, ez du inor ikusi Roke bezala jantzita, eta zinez harrituta gelditu da: alkandora zurixka, galtza urdinak, arbasoek erabili ohi zuten bezalako gerriko beltza (ez egungo larruzkoa), abarkak lokarriak behetik gora ondo gurutzatuz lotuta, eta gorputz segaila.

Gogorra dela esan digu sagar biltzen ari den Rokek baserriko biziera, eta bertan lan eginez gero ez dugula gimnasiora izerdia botatzera joan beharrik izango. Baserria, arestian aipatu bezala, malkar batean egina eta inguruko zelai guztiak ere malkartsuak ditu. Arantxa, emazteak, horixe esan digu: "Zer ikusi nun honea etorritakoan? malkarra, alde guztitan malkarra". Hala bada, lanerako neketsua izaki, larrera botatzen ditu behiak "nahi dutena jan dezaten". Beti izan dituzte sei-zortzi behi, idiak eta behorra; esnea bizibide nagusia, eta baratze pixka bat, ama Pantxikak egunero Donostiara saltzera eramaten zuena. Mendi hegalean eta mendia inguruan baina urik ez eta, udan iturburua erraz agortzen zenez, Marijoandegiko iturrira joaten ziren barrika gurdian hartu eta idiekin ur bila. "Hua zan ibilia, hua!".

Garai onean sartu zutela traktorea eta belarra ebakitzeko makina esan digu. Orain behi gehiago jarri ditu, baita zekor batzuk ere, eta zer moduzko prezioa egiten duen okelak galdetutakoan, ez duela inolako arazorik hauek saltzeko esan digu, "belarra, noski, eta artoa eta garagarra jaten dute gure zekorrek nahi duanak ikusi. Ezagutzen gaituztenek badakite, eta zain egoten dira noiz zekorra izango". Bestalde, gaur egun ez doaz Epela Errekara garo bila, "zer izaten zen hua!, goizean hiru t'erditan jaiki eta hara joan behar azpiak egiteko garoa izango bazan! Orain lastoa erabiltzen degu, nahi dutena jan eta nahi ez dutena azpiak egiteko".



Izoztegi



Izotz eta *-tegi* tokizko atzizkia, izotz lekua edo laiotza nolanahi ere. Gaztelaniazko *nevera* adierazteko euskaraz *elurtzulo* toponimian. Egoki jarritako izena nolanahi ere, toki hozpelean, beheko txokoko erreka ondoan dagoen etxe honi bere garaian ipinitakoa. Honen harira, Asteasuko Sarasolatarrek baserria erosi zutenean, hala esan omen zien herrikide batek baserriaren izena **Izoztegi** zela esandakoan: "Ez dik izen earra"!

Lasarterekin muga egiten duen Hernaniko azken baserria, Jauregi-Lasarte bidean, Zelaigain etxearen parean ezkerretara hartu eta beheko txokoan, bide ondo-ondoan dago **Izoztegi** baserria.

Bi isuri ditu bi bizitzako baserri honek, bizitza bat ekialdera begira eta bestea mendebaldera dituela. Sarrerak ere berebat. Alde bat berritua eta bestea egora aski onean.

ETXEPARE Familia

Tomas Solanas Bagües dut solaskide (77 urte) eta bere esanetan 1940. urte inguruan erosi zuten baserria bertan maizter zeuden Joxe Etxepare Etxepare eta Nieves Burutaran Biriarte, emaztearen gurasoek. Hiru semealaba izan zituzten baina bi gazterik hil eta Mari Karmen bakarrik atera zen aurrera.

Hala, ordea, Joxe 1960. urtean hil egin zen eta handik urte batzuetara lursail bat utzi eta beste gainontzekoa Irazustabarrena lazkaotarrari saldu zioten. Sagasti ederra eta ondo zaindua, bazterrak garbi eta etxea txukun ikusten dira, baina ez da inor bizi egun baserrian.

Joxek Diputazioko moldiztegian egiten zuen lan eta handik kanpo baserrian. Emaztea gehiago saiatzen zela eta Donostiara joaten zela esnea eta egin zezakeen baratzeko gauzak saltzera. Astemea omen Nieves amaginarrebak eta horren kariaz aldian behin bere komeriak izaten zituela dio nire berriemaileak.

Bai, Errekaldera jaitsi eta handik Añorgan barna, Errotaburura joaten omen Nieves. Hemen, bide batez, 2 litro esne uzten zizkion alabari. Behin, ordea, esne-ontzia ostu eta handik aurrera zuhaitz bati lotuta uzten zuten ama-alabek esne-ontzia, eta askotan entzundakoa nola behin kamioi-gidari batek handik pasatzerakoan hori ikusi eta oihukatu zion: "Zer, etxekoandre, esneak ihes egiteko beldurra!".

SARASOLA Familia

Zinez ez dakigu nortzuk bizitu ziren Izoztegiko alde honetan solaskide dudan Joxe Sarasolaren familia bizi aurretik. Gogoan du berak lau urte zituela erosi zutela baserria gurasoek. Asteasun maizter eta hango nagusiak baserria saltzera atera. Aldapatsua eta kaxkarra nonbait eta beste bati begira hasi ziren Joxe Mari Sarasola Alkorta eta bere emazte Ana Arruti Lertxundi eta Feli, Gabriel eta Joxe, seme-alabak. Han-hemenka begiratu ondoren, Izoztegi erosi zuten 1957. urtean 225.000,- pezetaren truke.

Honetan, ordea, gazteek baserrirako zaletasun larregirik ez eta, saldu eta kalerako bidea hartu zuten. Handik eta harat, Donostiako Luis Angel Paisanek erosi zuen, baina baserriak ez zuen jarraipenik izan, eta 1995. urtean beste donostiar batzuk, Jose Luis Lertxundi eta Mirari Terradillos senar-emazteek erosi zuten, hain zuzen ere. Soroak inguruko baserritar batek erabiltzen ditu, eta eurek ahaleginak eta bi egiten dituzte bazterrak garbitzen eta sagastiak zaintzen, baina baserrian ez da inor bizi eta euren bizibidea ez dute baserritik ateratzen.

Berriro ere Asteasutik etorritako Sarasola-Arruti familiaren hariari helduko diot, Izoztegik baserri gisa emandako azken urteak nolakoak ziren jakitearren. Baserria familia batentzat ondo baina birentzat ez omen oso handia, eta Joxe Mari fabrikan hasi zen lanean. Bien



bitartean, amak baratze pixka bat, arrautzak, eta *San Pedro sagarra* batez ere eramaten zuen Donostiako merkatura. "Hura diru gozua, diru ona izaten zan. Sagar goiztiarra eta emankorra, sos politak ateratzen zituen harekin amak".

Esan dut Joxe Mari, aita, Hernaniko Orbegozo fundizioan hasi zela lanean, eta badu bere bizitzan ahaztuko ez duen esperientzia bitxi bat. Goizeko 5:30etan **Pitikar**ren barrena lanera ilunpetan zihoala halako argi distira izugarria ikusi omen bere inguruan, bizikletaren atzetik. Ziztu bizian *trepeta* haren aurretik, Etxerreagako maldan goitik behera, ez omen zen berak nahi ordurako lantegira iritsi. Beste nonbaitetik etorritako *ovni* edo horietakoren bat zelakoan dago Joxe Mari.

Alabaina, bestelako kontuak ere bagenituen. Esaterako, "nere arreba Feli gazterik hasi zan Errekaldeko Bianchi fabrikan lanean, baina denbora gutxi iraun zuen. Egun batean, negu partean, goizean iluna eta mutil bat atera zitzaion nonbait bidera. Gaur *eraso sexuala* esango genuke, eta neska zeharo izutu eta *hanka-joko* ederrean etorria zan etxera". Esanik doa, garai haietan ere hainbat beldur eta izu jasaten zutela baserrietako neska gazteek.

Jauregi



Ospe handiko etxea, agidanez. Bestetik, Erdi Aroto etxea.

Galarretatik Lasartera doan bidearen aldamenean, ezkerretara, errepidetik berrehun bat metrora, Galarreta baserritik hurbil eta Belasko-Enearen aldamenean eta Eskola baino zertxobait lehenago, Hernani aldera begira.

Lehengo baserri zabal patxadako horietarik zen, karratu eta handia bi isuritan eraikia eta hura 1997ko maiatzaren 20an eraitsi eta antzekoa baina handiagoa eraiki dute oraindik orain, ostatu eta jatetxe izateko egitura aproposarekin

Antza, Granadako dukeen, Velasco jaunen jabegokoa zen **Jauregi** baserria eta berdin inguruko lursailak, egungo **Belasko-Enea** eta **Belasko-Enea Berri** (borda izandakoa) baserriak barne. Hala, Ameriketan egindako diruarekin baserria erosi eta hantxe jarri ziren bizitzen Joxe Joakin Etxeberria eta Frantziska Mintegiaga senar-emazteak, Elduaingoak nola bata ala bestea. Bi seme izan zituzten, Rikardo eta Antonio. Rikardo Elduako Martina Gorostidi gaztearekin ezkondu eta bertan jarri zen bizitzen, Antonio, beste anaia, aldameneko Belasko-Enea baserrira joan zen bitartean.

Rikardok eta Martinak lau neska eta seme bakarra izan zituzten: Frantziska (Hernaniko Agustindarretan lekaime sartua), Joxepa (etxean ezkonge) Dolox, Teodora (frantziskotar lekaimea) eta Sotero. Honek, Itsasondoko Maria Sarasola hartu zuen emaztetzat eta alaba bat eta hiru seme izan zituzten: Lurdes, Martin Joxe, Joxe Mari eta Ramon. Gaur egun, Ramon, seme gazteenak, Adelina Abad emaztetzat harturik eusten dio gurasoek abian jarritako jatetxeari.

Baserri batean ohiko den bizimoduaz gain, hiru bereizgarri azpimarratuko genituzke Jauregiri buruz zerbait esan behar eta. Bata, dolarea, auzoko gehienak bertara etortzen baitziren euren sagardoa egitera, eta aitzindarietako bat izan zen Jauregi sagarrak ganbarara igotzeko eta sagarra jotzeko makina elektrikoak jartzen. Honen harira, zera dio **Sebastian Salaberria**k *"Sagardotegiak"* liburuan "Ernani" herriari eskainitako atalean: *"Jauregi baserrian sagardotegia ezagutu genduan. Jakiña orain dala berrogei ta hamabost edo irurogei urte"*. (117. or.).

Bestetik, Jauregi baserria beti izan da auzoko hainbat ekitaldi, bilera, eta abarren topagune, hala nola, herri bidea auzolanean konpontzen aritzen ziren baserritarrek han egiten zituzten otorduak, Jauregiko eskola eraikitzeko batzarrak, eskolan urtero jartzen zen jaiotza ikusi ahal izateko giltza ere Jauregin jasotzen zen, Gabonetan etxez etxe ibili ostean Jauregin ematen zitzaien neska-mutilei askaria edo merienda. Eskean ibiltzen ziren Arantzazuko fraideek, pasionistek, etab.ek ere Jauregin hartzen zuten ostatu.

Eta hirugarrenik, sega apustuak dira Sotero Etxeberriak sustatu eta Jauregiren izena Euskal Herrian alderik alde barreiatu dutenak. Guztiz ezaguna bilakatu zen Jauregiko etxe atzea, duela berrogeita bost urte inguru **Polipasok** han egiten zituen sega apustuak zirela eta. *"1958-ko urrillaren 18-an eguerdiko amabietan, ain zuzen..."* (*Sagardotegiak"* (120. or.). Horren ondoren, egun halako arrakasta duen segalarien arteko lehiaketak antolatzen hasi ziren.



alardi-Berri omen zuen jatorrizko izena. Hala ere, **Lopetegi** izenez areago ezagutzen dugu orain. *Lope* eta *tegi*, Loperena edo Lope-Enea esanahia funtsean duelarik. Bestetik, Lope guztiz antzinako izan propioa dugu, antzinakoenetarik, hala fede!

Gaur egun Hernanitik Lasartera, Erroxali-Enetik barna doan herri bidearen eskuinean, ehun metrora, Kanpozabal baserria zenaren aldean. Bidea kaxkarra daukate azken metrotan, eta ez daude oso pozik Udalaren jarrerarekin.

Sarrera nagusia iparraldera begira, bi isuriko etxea, jatorrizko bidea, orain ez bezala, handik zuelako, nahiz egun izena hegoaldeko fatxadan jarrita duen, egungo bidea alde horretatik datorrelako edo. Berrehun urtetik gora izango dituela esaten omen. **Sorgintxulo** eta **Lopetegi** dira, agidanez, inguruko baserririk zaharrenak. Aitzina bi bizitza baziren ere, gero bakarra izan zen, alabaina gaur egun lau bizitza antolatu dira bertan.

Feliperen emazteak esan didanez, baserrira daukaten bidea ez da nahi bezain ona eta udaletxean hainbatetan erregutu arren ez da haientzako oraindik horrelako pagotxarik egokitu. Ez dago batere pozik Herriko Etxeak duen jokabidearekin, eta, bere ustez, "ez du beti eta guztiekin berdin jokatzen".

Hego haizeak bazterrak astindu eta orbelak harat-honat solasean dabiltza etxe ondoko baratzean Saturnino Iturralde bertako semearekin topo egin dudanean. Bere aita zenak, Frantzisko Iturraldek erosi omen zuen bi bizitzako baserria bost mila durotan (25.000,- pezeta). Urnietako Joana Gaztelumendi, **"Portxeta"** baserriko alabarekin ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituen, baina seme gazteak 8 urte zituela hil zitzaion emaztea, eta handik eta harat, bere arrebak egin zituen amaordekoarenak.

Gerora, seme-alabak ezkontzerakoan, etxea konpondu, eta egun Saturnino batean, bere anaia eta emaztea bestean, eta ilobak daude besteetan.

Fabrikan, papeleran, aritu zela esan dit Saturninok, garaia heldu baino lehen lantegia itxi eta erretiroa eman zioten arte. Orain bere baratze puska landu, otorduak jarri eta lasai bizi dela adierazi dit.

- Eskola? Galdegin diot.
- "Jauregiko eskolan ikasi genun dakigun pixka, Ixabel Iturriotz maistrarekin. Bai, goizetan besoa altxa eta *"Buenos dias, señorita"* esanez agurtu behar izaten zan hua, ondoren, bandera jaso, beti besoa altxatua, *"Cara al sol"* kantatzen genun bitartean eta arratsaldean jatsi".

Honen harira, zera kontatu dit Felipek bitxikeria modura, "...bai, gaur bezalako haize bolada batek, erregearen erretratuarekin eskolako horman zintzilik zegoen koadroa bota zuan eta handik bi egunetara Errepublika aldarrikatu zuten".

Marijoandegi

(Desagertua) Jauregi Auzoa

Pertsona izena oinarrian kasu honetan ere eta emakumezkoarena. Ez du inolako sekreturik. *Maria-Joana-tegi*, Maria Joanaren etxea, horra.

Galarretatik Errekaldera doan errepidearen aldamenean, Zabalegi parean, Butano gordailua izandako eta egun zerrategia dagoen lekuan kokatzen zen **Marijoandegi** baserria. Bi isuritan eraiki etxe zabala, atzean etxe-ordekoa, 36.eko gerra denboran alde bat erori eta atzealdea libre zuela. Aldamenean, atxikita, D. Joaquin Zayas nagusiaren etxebizitza bere lorategiarekin.

Elias Garmendia eta Bernarda Intxauspe ziren **Marijoandegi**ko senar-emazteak, eta hauekin batera bizi zen emaztearen ahizpa. Bi seme izan zituzten: Ulpiano eta Joxe. Azken hau jaiotzerakoan edo, ama erabat elbarri gelditu zen "nire senarrak ez omen zuan inoiz bere ama zutik ikusi" esan dit nire solaskideak. Burua bakarrik ondo, eta hala bizi izan omen 45 urte, dena bestek egiten ziola. Esan gabe doa, ama horren sufrimendua.

Joxe etxerako, Zabalegin neskame zegoen Euxebi Zabala Artano, Amezketako **Marta-Enea** baserriko alabarekin ezkondu zen, eta bi seme eta alaba izan: Martin Joxe, Ulpiano eta Mari Kontxi. Sasoiko zela hil zen Joxe, baserritik aterata 6 urtera, "han jasandako martingalen ondorioz" dio alargunak. Hauekin batera, ia etxeko egindako morroia, Antonio, artean gaztetxo zela etorri eta 33 urte egin zituen Marijoandegin, baserritik atera ziren arte.

Ondo gogoan ditu Euxebi nire solaskideak arratsaldeko bostetan puntu-puntuan egunero, hutsik egin gabe, nagusia bisita egitera etortzen zeneko garaiak. Baita honen arreba eta bere lagun Fabiola ere, (Belgikako erregina izango zena), askaltzera etortzen zirenekoa, janaria Donostiako *Casa Nicolasa* etxetik ekarrita. "Goxoak izaten zian gero hango mokaduak!"

Baserriko gorabeherak idatzi behar baditut, liburu osoa motz gelditu zaidala esan dit solaskideak. Oso oroitzapen tristeak ditu Marijoandegin bizi izandakoak. Denbora gutxian ez lur eta ez etxe gelditu zirela diosku. Errepidearen beste aldetik, **Zabalegi**ko azpialdean zituzten lurrak erosteko aukera eskaini omen nagusiak senarrari, eta baiezkoa esandakoan, dagoeneko salduak zituela erantzun, nori eta Añorgako apaizari, alajaina! Handik gutxira Aurrezki Kutxak hartu zituen lur horiek guztiak. Etxea eta bere inguruko lurrak, berriz, butano gordailuak eraikitzeko saldu zituen nagusiak. Ondo gogoan du auzotar guztiak Butanoa jartzearen aurka izan eta nola ibili ziren sinadurak biltzen; halarik ere, orduan Hernaniko alkate zen Tiburtzio Agirrek baimena eman (berak jakin zergatik) eta jarri zituzten butano gordailuak. Baina ez zen hor bukatu gure solaskideak eta bere familiak jasan beharreko guztia; izan ere, errepide ondo-ondoan zegoenez, ez zitzaiela inolako kalte-ordainik tokatzen esan zien nagusiak. Hango eta hemengo ate guztiak jo ondoren sosik jaso gabe atera behar. Etxetik ateratzeko emandako denbora ere aski ez beste etxea eraikitzeko eta **Limuri**ko baserri zaharrean eduki zituzten ganaduak.

Han ziren bitartean, Joxe eta bere anaia Ulpiano baserrian aritzen ziren lanean, baita Antonio morroia ere. Sei-zortzi behi, zekor, oilo, zakur, eta baratzea ere egiten zuten. Joxe joaten zen egunero zaldi-karroarekin Añorgan barna Donostiara esnea saltzera eta bidez hango eta hemengo mandatuk egitera.

Aipatu gorabeherak gertatutakoan, **Anton-Ene**ko ondoan egin zuten etxe berria (1967) baina senarrak ez zuen luzaro gozatzerik izan. Oraindik ere ez dira amaitu familia honen zorigaitzak; izan ere, Hernaniko Ipar Saihesbide berriak etxea parez pare harrapatzen die. "Lotsarik baldin badute behintzat azpitik egin beharko dute, nahiko terreno badagota" dio Euxebi Zabalak. "Pentsatutakoa baino beheraxeagotik egin eta kitto". Modu horretan, ordea, errepideak Txurruka markesen lur mutur bat jango luke, eta hori traba izango delakoan daude.



Marraka-Enea (Saretxo) Jauregi Auzoa



Eskrituretan "Marraca-Enea edo Sarecho" izenez azaltzen da. Saratxo izan liteke *(txara txikia)* edota Saretxo *(saroe)* artegi esanahiarekin. Dena den, **Marraka-Enea** nondik heldu den ez dakite, baina antzinakoa dela bai.

Etxeak orain gailurraren azpian eta bi leiho nagusiren erdian **Marraka-Enea** izena dauka oholean euskal hizkiz egina eta lauburuz apaindua. Eta Saretxo balkoipean, etxeari oro har Marraka-Enea ezarriz eta jatetxearentzat (edo hobe askaldegia=merendero) Saretxo izena gorde dutelarik, bi izenak beti ohi izan den bezala jokoan sartuz.

Santa Barbara atzean, iparraldean, mendiaren hegala amaitzen den puntuan orografiak lepo bat egiten du non bitan banatzen den Urnietako Oztaran eta Arkaizpe aldetik heldu den bidea Jauregin barna Donostiarakoa eta Ategorrieta deitu puntua zeharkatuz Laubidetatik Hernanira doana. Ategorrieta aipatu du nire solaskide Joan Marik eta bazuen agidanez "baserritarrak herrira nahiz elizara etortzen zirenean Arrigoain baino lehenago zegoen Ategorrieta delako puntu horretan oinetako aldaketa egiten baigendun horma zahar baten zuloetan oinetako zaharrak gordez".

Berau bezalaxe bi isuritako etxea zen lehenagoko etxe zaharra. Behean, atetik sartuta eskuinera zuen sukaldea eta barrurago ukuilua eta beste ate bat, simaurra etab. ateratzeko. Lehen solairuan bizilekua eta goian ganbara, baina oso apala hau, etxea bera apala edo bajusta zen bezalaxe.

Oraingo berriak mendebaldeko isuria aski luze eta zabala du eta eranskin handi bat dauka saihetsean eta honek berebat beste txikiago bat, ia oraintsu arte zurgindegi izan dena.

Marraka-Enea etxeak, jatetxe edo askaldegi bilakatu denez geroztik, aldaketa handiak ikusi ditu, barne eta kanpo erabat berriturik ageri zaigu eta. Mandioa gordetzen du etxeak atze aldetik eta eranskin handi bat bere terrazarekin azpian jatetxearen jangela nagusia duelarik.

Etxe aurrean, aparkaleku zabala albo batera, haurren jostalekua tramankulu politez hornituta azpiko bidearen bestaldetik, eta handik gorago, ia Santa Barbara mendiaren hegalean, ukuilua.

Nire solaskide Joan Mari etxeko nagusiak (48 urte) gurasoak baizik ez zituen ezagutu. Aita, Joxe Kruz Genua Genua, bertako semea, eta ama Dolores Etxaiz Pellejero, Astigarragako **Artola** baserriko alaba. Ezkondu zirenean, ama alarguna hiru haurrekin (Euxebio, Pako eta Pepita), bildu zen Marraka-Enea etxera eta Joxe Kruz senarrarekin beste lau izan zituen: Anttoni, Maritxu, Joxe Mari eta Joan Mari.

"Aita zena gerran ibilia zan eta metraila (hirutarik bat) berekin zeraman, urteen burura besoaren beste aldetik atera zitzaion arte". Aski gogoan du oraino Joan Marik, bera etxeko gazteena izan arren.

Joan Mari, etxerako, ezkonduta, emateaz Izaskun Sistiaga Karrantza, jaiotzez Pasai Donibanekoa eta seme-alabak dituzte: Ainitze eta Igor.

Normalean sei behi eta idi parea izaten zituzten, eta behorra ganaduen jatekoa garraiatzeko eta astoa goizero herritik joan-etorria egiteko.

Joan Mari oraino oso haurra zela ama joan zitzaien eta arreba Pepik bete behar izan zuen ama zenaren zuloa. Honek jarraitu zuen egunero esnea eta barazkiekin herrirako eginkizuna. Joan Marik dioenez, "aitonarengandik zetorkion familiari baratzegintzarako zaletasuna. Egia esan, lurrak ere baratze izateko eta laborantzarako benetan lur onak omen ziran".

Aitak bere bizitza osoki baserri lanean eman zuen bezala, Joan Mari soldadutzatik etorrita laster Orbegozo fundiziora joan zen lanera, hantxe jardun zuelarik enpresa 92an itxi zen arte.


Orduan zerbait egin behar eta, emazteak jatetxe bateko esperientzia zuenez, jatetxe koxkor bat antolatzea otu zitzaien, gero handiagoa eta ederragoa bilakatu den jatetxea.

Egun, Joan Mari eta Izaskun senar-emazteak eta Ainitze eta Igor seme-alabak bizi dira Marraka-Enean, jatetxea eta abeltzaintzaren bitartez bizimodua antolatua dutelarik.



Pitikar

Jauregi Auzoa



Inork ez daki zer esan nahi duen **Pitikar** hitzak, gure solaskideak dioenez, Txitibar dela ere noizbait entzuna omen du, baina inork ez dakiela gauza jakinik. Hala ere, itzal handia erakusten du etxe gotor honek.

Hona zer dioen Luis Blas Zuletak *"Hernani entre dos guerras: 1872-1936"* liburuan: "El caserío Pitikar, entre Hernani y Lasarte, esta situado bajo el monte de Santa Barbara, bastión fortificado por las tropas cristinas para asegurar el paso entre los dos pueblos, tenia una guarnición de 20 hombres mandados por un teniente". Por la trascripción de un trabajo de "Alfredo Laffitte en *"La Unión Vascongada"* de 20 de Julio de 1896. (95. or.)

Galarreta–Jauregitik eta Hernani–Santa Barbara aldetik Lasartera doan bidetik hogei metrora, eskuinaldera, kasko-kaskoan, aurrean eta zertxobait aparte Zabalo-Enea eta Zelaiarte dituela, ezkerrean Belasko-Enea Berri, eskuinaldera Zelaigain, Zozperri, etab., eta atzean, aldenduxeago, Txillida-Leku, Zabalegi, etab.

Bi isuriko eraikin laukia, hegoaldera ematen duen fatxada nagusian hiru arku, erdikoa erdibitu eta etxebizitza bakoitzak bere sarrera bertatik duela. Beste arku bana alboko horman, fatxada nagusiaren aldamenean. Bi etxebizitza egiteko, sotoaren erdi-erdian horma jaso eta erdibitua dago. Ondo ordainduko lukeela, jakinarazi dit Antonio bertako semeak, baldin eta etxea eraiki zeneko aztarnarik emanez gero.

Etxebizitza bakoitzak badu aldamenean belar ondua, lanabes eta gainerakoak jasotzeko bere etxe-ordekoa. Baita halako arku dotorea estaliz eraikitako ur-gordailua ere ekialdeko hormari itsatsita.

AZPIOLEA OLARRA Familia

Joxe Mari Azpiolea Urkia, bertako semea, auzoko **Anton-Ene** baserriko Eustaki Olarrarekin ezkondu eta bederatzi seme-alaba izan zituzten, baina bi, bikiak, jaioberriak zirela hil ziren. Hona besteak: Maritxu, Joxe Ramon, Inaxi, Joakin, Antonio, Inaxio eta Mari Tere. Hala bada, zazpi senide izan direla nolabait dio horren berri ematen didanak. Bat eta beste ezkondu eta kanpora joan eta Joakin eta Antonio gelditu ziren azkenerako baserrian aita-amekin. Gaur egun, Antonio bakarrik bizi da, ibilbidea aski mugatuta duela.

Gurasoak baserrian, sei-zortzi buru ukuiluan zituztela eta baratzea etxerako adina landuz. Garai hartako beste guztiak bezalaxe, etxekoandrea joaten zen esnea saltzera; gero, ordea, Gurelesa etorri zen eta hari ematen zioten esnea. Gurasoak eta Joakin anaia ere beti baserrian aritu omen, "ni aldiz, lehenengo kanpoan aritu nintzan, baina 50. urte aldera fabrika utzi eta baserrian hasteko bidea egin nun" esan digu bertako seme Antoniok. Orain, bakarrik, osasunak gehiegi laguntzen ez eta guztiak utzi beharra izan du. Kanpoko laguntza jasotzen du egunero, etxeko garbitasuna eta abar egiteko; alabaina, Antonio bera ibiltzen da oraindik ere harat-honat bere autoarekin etxerako behar diren enkarguak egiten. Ibilera moteldu zaion arren,

ondo moldatzen da harakin, dendari eta bestelakoekin eta autotik atera gabe egiten ditu egin beharreko guztiak.

AZPIOLEA OTEGI Familia

Joxe Ramon Azpiolea eta Josefa Urkia senar-emazteak ziren **Pitikar** baserrian eta hiru seme izan zituen: Inaxio Mari, Joxe Mari eta Justo. Aipatu bi lehenak ezkontzerakoan, duela 84 urte (1916) etxea erdibitu eta anaia biak jarri ziren etxe banatan. Inaxio Mari jarri zen nire solaskidea bizi den honetan. Beste anaia Justo auzoko Zelaiarte baserrira joan zen morroi eta bertan neskame zegoen Pantxikarekin ezkondu.

Inaxio Mari Azpiolea Urkia, Anttoni Otegirekin ezkondu eta lau neska eta mutil bat izan zituzten: Manuela, Joxepa, Joanita, Karmen eta Pello, baina azken hau jaiotzerakoan hil zen ama. Egoera aski tristea emaztea hain gazterik galtzea eta, hori gutxi bailitzan, seme-alaba gaztetxoak aurrera atera beharra! Halatan, emazte zenduaren ahizpa, Manuela Otegi, Donostiako Antigua auzoko **Txapaldegi** baserriko alabarekin ezkondu zen, alarguna eta seme-alaba bi zituena, Martxiel eta Mari Karmen. Bien artean zazpi seme-alaba mahai inguruan bilduz.

Garaia heldutakoan, Joana, **Lastaola** baserriko Erramun Ugalde, igeltseroarekin ezkondu eta etxean jarri zen bizitzen eta hiru alaba izan: Axun, Milagros eta Andone. Alabaina, labetzarrak konpontzen ibiltzeak ez zion onik egin Erramunen osasunari eta hamaika medikuren eskuetatik pasa ondoren, 57 urterekin hil zen.

Artean Pello, seme gaztea, ezkonge zegoen etxean eta auzoko Tere Apaolaza, **Galarmendi Erdikoa (Txanetene)** baserriko alabarekin ezkondu eta bertan jarri zen bizitzen, etxea bi familientzako antolatu ondoren. Hiru seme eta bi alaba dituzte: Maite, Maria Jesus, Iñaki eta Joseba, eta denek ere badute eskolarik, "bizimodua baserrian baino errazago ateratzearren" dio amak. Alaba zaharrena dagoeneko ezkondu eta kanpoan bizi da.

Etxe ondoa kalabazaz josita zegoen bertara inguratu garenean; batzuk gizakiak jatekoak, beste batzuk ganaduari ematekoak eta beste batzuk apaingarri gisa saltzekoak. Hantxe ari ziren senar-emazteak eta seme gaztea kalabazak garbitzen, sailkatzen eta ganaduari ematekoa txikitzen. Ondo ematen omen da lur horietan eta horixe erabiltzen dute garai bateko erremolatxa eta arbiaren ordez ganaduari emateko. Dozenerdi bat buru izaten dituzte ukuiluan, baina okeletarako bakarrik, ez dute esnerik jasotzen, eta baratzea etxerako hainbeste egin izan dute beti. Aspaldi batean buruan xestera hartu eta Errekaldera joaten ziren, han Tolosako tranbia lehenengo eta hura desagertutakoan autobusa hartu eta Antiguara esnea saltzera joateko.

Lursailak ere nahiko aldrebes dituela Pitikarrek dio, han-hemenka barreiatuta eta, okerrena, urik ez. Auzoko "Itxurrinia" deituriko askara eramaten zuten ganadua egunero ura edanaztera, eguerdiko hamabietan, txandan, Kanpozabal, Etxeberri eta Pitikar (bi bizitzakoak), bat aurrean eta bestea atzean jarrita. Udan, ordea, hango ura agortu egiten eta Marijoandegiko iturrira eramaten zituzten trailan hartuta, baita gauean ere, behin baino gehiagotan, bokoiak gurdian hartuta; "izan ere, Ilarratsueta Berri, Barriola, Kanpozabal, Pitikar (bi bizitzak) eta Belasko-Enekoak joaten ginen eta han ere ez zen nahi hainbeste ur sortzen".



Zabalo-Enea



Gauza bata da izenaren sustraia, *zabal* eta *–o* atzizkia, inolako zailtasunik ez duena, eta besterik **Zabalo-Enea**, pertsona jakin baten deitura (Zabalo) erabiliz etxeari bere izena ezartzea.

Jauregitik Santa Barbara aldera abiatu eta Ikusmen-Alaiko kaskora iritsitakoan eskuinera hartu eta hirurehun metrora dago **Zabalo-Enea**, Zelaiarte baserriaren aldamenean. Goitik begiratuta zuloan dagoela dirudien arren, ez da horrelakorik; izan ere, bertara iritsitakoan bista ederrak dituela egiaztatu ahal izan dut; esaterako, Santa Barbara aurrez aurre—aurreko pinuek ikustea galarazten badiote ere—, Andatza eta Ernio mendiak eta Lasarte, Usurbil nahiz Aia aldeko hainbat baserri.

Bi isuriko bi eraikin elkarri atxikita, ekialdera begira, atzean, mendebaldean halako etxe-ordeko txiki bat etxeari berari erantsita. Ez da baserri zaharra gure berriemaileak esan digunez. Kontuak ateratzen hasita, 1913. urtekoa dela uste du.

Erabat berritua dago, eta atxikitako eraikin bakoitzean etxebizitza bana egin dute orain.

Markos Iradi, **Ilarratsueta**ko semea Agustina Loinaz, **Estubegi**ko alabarekin ezkondu eta emaztearen etxean jarri ziren bizitzen. Han izan zituzten bi alaba eta semea, Maria, Pantxika eta Gilermo, semea; honek 18 hilabete zituela jarri ziren bizitzen Zabalo-Enea baserri eraiki berrian, eta Joxepa, Pilar, Benita, Tiburtzio, Anuntxi, Kontsuelo eta Joakina seme-alabak izan. Horietarik Gilermo, semeetan zaharrena, gelditu zen baserrian Zubietako Ixabel Urdanpileta nire berriemailearekin ezkonduta. Hamaika seme-alaba izan dituela esan dit, 8 mutil eta 3 neska: Markos, Joxe Antonio, Tiburtxio, Agustina, Mari, Manuel, Joxe Luis, Joxe, Kandido,

Gillermo eta Mari Lurdes. Senarra duela 27 urte hila, 62 urte baino ez zituela.

Guztiak ezkonduta, eta guztiak kanpoan, bat izan ezik. Honenbestez, etxebizitza batean Ixabel bera bakarrik bizi da eta Manuel semea aldamenekoan Hernaniko Itziar Peñagarikano emaztea eta Maddi alabarekin.

Baserri gehienetan bezalaxe, hemen ere ganadua izaten zuten bizibide; hauek ere, lauzpabost behi, zekor, zaldi, untxi, oilo, zakur, zerri etab. izaten zuten. Esnearekin Galarretara joan, han autobusa hartu eta Donostiara nahiz Hernanira joaten ziren saltzera, baita baratzeko produktuak ere.

Gilermo senarrak fabrikan ere lana egin zuen baina baserriari uko egin gabe. Alabaina, osasunak lagundu ez eta gazterik gelditu zen alargun Ixabel. Halarik ere, eutsi egin zion baserriari, baina 65 urte konplitutakoan ganadu guztiak atera zituen "nere bizitzan nahikoa lan egin nuela eta, gelditzen zaizkidan urteak lasai bizitzeko" esanez hartu omen zuten amaren erabakia seme-alabek.

Lur onak batetik eta zaletasunak bestetik bultza diote Manuel semeari libre dagoen lurmutur orotan fruta arbolak aldatzera. Ez dago metro karraturik zuhaitzik gabe eta zuhaitzik ere ez frutarik gabe. Harro erakutsi dizkigu etxekoandreak, eta ez da gutxiagorako; bestela




ez dago han-hemenka irabazitako lehiaketetan emandako sariak ikustea besterik.

Etxe ondoan bertan du iturria, gorago ere beste bat bai omen du eta ur ederreko erreka ere aldean du. Beraz, etxe ondoan pozadera egin eta ez dute inoiz ur arazorik izan. Alderdi ederra!

Hariztegi bikaina inguruan, Gilermo sagarra biltzeko saskia hartuta joaten omen zen onddoak eta kuletoak biltzera, "baita saskia mukuru ekarri ere. Ikustekoa izaten zan" dio nire hizketakideak. Batzuk Donostiara eramaten zituzten saltzera eta besteak etxean jan. "Gaur ez dago horrelako konturik, basoa arrunt zikina dagoelako eta garbitzeko jende gutxi; halere, zerbait izanez gero, izango litzateke nork bildua" esan dit Ixabelek.

Zelaiarte



Naturari itsatsitako izena darama **Zelaiarte** baserriak, bere izena askatzen hasita, *zelai* eta arte edo tarte ematen digu ondorio. Zelaiak, edonork daki, leku laua edo ordokia adierazten du eta gure inguru mundu honetan belardia ere bai. Hona nola josita dagoen, beraz, baserri honen izena.

Jauregitik Santa Barbara aldera doan bidean Ikusmen Alaia etxearen ondotik eskuin aldera hartuta joaten da **Zelaiarte** baserrira, Zabalo-Enea baino metro bakar batzuk baino lehenago, hara iritsi aurretik beste hainbat etxe-lehor esker-eskuin utzi ondoren.

Aurrean, ekialdera, Santa Barbara ikusten zuen pinurik ez edo hauek txikiak zirenean, eta mendebaldera Lasarte–Zubieta aldeko ibarra ikus daiteke, Usurbilgo elizaren dorrea, besteak beste, gailen ageri dela; baita inguruko beste baserri nahiz mendi ugari ere.

Fatxada nagusia eta sarrera ere ekialdera dituela bi isuriko etxea, eta baserri gehienek bezalaxe, behean sukaldea eta ukuilua, goiko oinean logelak eta komuna eta hauen gainean ganbara. Etxe-ordekoa aldamenean, belarra, lastoa eta baserriko lan-tresnak lehorrean jasotzeko. Dolarea ere bai, bertako eta auzokoen sagarrak jotzeko. Bestelako etxe-ordeko berri-berria ere badu baserriaren ertz bati atxikita, iloba batek bere zaletasunak asetzeko erabiltzen duena.

Iñaxio Azpiolea Iradi, berriemaileak buruan duenez, bere amaren aitonak, Tomas Iradi zenak hartu omen zuen baserria. Alabaina, honen alabak, Joakina eta bere senar Joxe Azpioleak, ordea, seme-alabarik ez eta Pantxika Iradi Loinaz **Zabalo-Ene**koa hartu zuten alabatzat. Honetan, Pantxika, bertan

morroi zegoen Justo Azpiolea, **Pitikar** baserriko semearekin ezkondu eta seme bat izan zuten, Inaxio, nire solaskidea, alegia.

Orain ez ezik lehen ere ez zen haur asko izan etxe honetan; 126 urtetan 3 seme bakarrik jaio baitziren Zelaiarte baserrian.

Etxea aski zaharkiturik zegoela eta, orain urte batzuk aldamenean eraikitako berrian bizi da, ezkonge, 63 urte gaindituak baina oraino sasoiko dagoen Inaxio.

Baserrian aritu da bere bizitza osoan, Santa Barbarako ermita eta urtero herri-bidea auzolanean egiteaz gain. Lan atsegina izaten zela auzolana, dio, neke handirik gabekoa, lagunartekoa, hango eta hemengo berriak jakin eta astebete behintzat ondo pasatzekoa.

Etxean dozena-erdi bat behi izaten zituzten baina zekorrik ez, jaio orduko kanpora ateratzen baitzituzten. Hala, esnea zen beren bizibide nagusia, baratze pixka bat egiten bazuten ere. Ama Pantxika joaten zen Galarretan Joan Mari Perurenaren autobusa hartu eta Donostiara; inoiz Hernanira ere bai esnea eta baratzeko zerbait saltzera. Bestelakoan, sagarra ere izaten zuten orain baino gehiago, eta irribarrez gogoratzen ditu garai haiek, auzokoak sagar-jotzera etortzen zirenekoa, baita etxe aurrean dagoen petrila ere "zenbat kontu entzun ote ditu horrek! Hizketan baleki, nik baino hobeto eta gehiago esango lizkizuke! Hamaika solas eginak dira hor batzu-batzuk".

Orain, lau behi eta bi zekor dauzka, eta astoa aurrekoei janaria garraiatu ahal izateko. Horiez gain, hiruzpalau arratoi-txakur, bi ahuntz eta aker bat, oilo, eta beste 4 pottoka ikusi ditugu etxe ondoan larrean "bazterrak garbitzeko eta gustuko ditudalako", horra arrazoia.

Lasai bizi dela esan digu **Iñaxiok**, inora asko ateratzen ez bada ere, "ostegunetan feriara joatea gustatzen zitzaidan, Zinko-Enean musean ibili eta garaiz etxaldera, baina orain gero eta gutxiago joaten naiz hara ere".



Zelaigain

Jauregi Auzoa



Zelaitxo baten goiko muinoan egoteak eragingo zuen baserriari izen hori ipintzea. Galarreta–Jauregi aldetik Lasartera doan bidearen beheko aldean, Zozperriko ondoan, Izoztegi baserrira hartzen den bidegurutzean dago **Zelaigain**. Aurrean, Zabalo-Enea (hango lurretan eraikia dago baserria, hain zuzen) eta Zelaiarte, Santa Barbara, Buruntza eta Lasarteko hilerria, Arkaizpe etab. aurrez aurre dituela.

Oraino etxe berria dugu, 1944. urtean eraiki baitzen bi isuriko etxe lauki hau, jatorrian txikiagoa eta gerora zerbait handitua. Sarrera nagusiak goizeko eguzkiaren lehen printzak etxe barruraino sartzeko irekia dirudi. Behean ukuilua eta sukaldea eta goian logelak zituen garai batean, baina ezari-ezarian etxebizitzak lekua jan dio ukuilu eta belar nahiz baserriko beste hainbat gauza jasotzeko biltegiari. Hala, duela hamar-dozena bat urte bi etxebizitza egin zituzten bertan, eta mende berri honen hasieran barrutik hustu eta erabat berritu dute. Ekialdeko partean bat eta mendebaldean, eskailerak kanpotik dituela bestea.

Tiburtzio Iradi Loinaz, **Zabalo-Enea** baserriko semea, jaiotzaz Azpeitikoa, –esan digu gure solaskideak–, baina zortzi urte zituela Lasarteko **Arrillaga** baserrira etorritako Liberata Otaegi Otaegirekin ezkondu zen. Mutila ez zen joan oso urrutira neska bilatzera, ezta bata eta bestea ere beren etxeetatik asko urrutiratu ezkontzerakoan, bi baserrien bistan eta nahiko gertu jaso baitzuten Zelaigain baserria Zabalo-Eneako lurretan.

Hamar seme-alaba izan zituzten: Milagros, Karmele, Ana Mari, Paki, Pepi, Tibu, Arantxa, Donetz eta Xabier, eta horietarik bi mutil dira **Zelaigain**eko teilatupean ezkonduta bizi direnak, Tibu, Jone Iturriotz andoaindarrarekin, eta Xabier, Ikaztegietako Joxepi Etxeberriarekin, azken hau gurasoekin batera.

Udazkeneko hego haizearen indarraz baliaturik, babarrun zuria aletzen eta garbitzen ari direla harrapatu ditut Zelaigaineko senar-emazteak. Erretiratuta dagoela jakinarazi dit Tiburtziok baina oraino sasoiko ikusi ditut nola bata hala bestea ere. Gustura daude duela gutxi zaharberritutako etxearekin, eta zinez, ez baitirudi inoiz baserria izan denik ere. Ezkonberritan, eta gero ere, dozena bat buru izaten zituzten ukuiluan eta hauentzako belar ondu, erremolatxa, arbia eta bestelakoekin batera, etxerako baratzea egiten zuten. Halere, urte asko egin ditu fabrikan lanean, erretiro garaia iritsi zaion arte. Esnea Errekaldeko *Cincuentenario* auzoan partitzen zutela diote. Orain behi bat eta zekor bat ikusten dira ate zirrikitutik ukuiluan, eta aldamenean bibelar ondu berriaren usain gozoa atzeman daiteke. Ez diogu esnerik kentzen "zekorra hazteko uzten diogu, horrelako koipea duen esnea ez zaigula komeni eta; halere, nik gustura hartzen det ahal dedanean, behia umea egin berria eta zekorrarentzat esne gehiegi dunean..." jakinarazi dit Tiburtziok.

Etxea berritzerakoan, alde batetik bestera ibili omen dituzte oiloak, ferianteen modura, eta gauzak bere onera etortzen direnean leku egoki batean jarriko dietenaren esperantza baduela esan dit etxekoandreak.



Baserri bertakoek **Zozperri** dela esan badigute ere, Zotz-Berri ikusi dugu sarreran idatzita. Zosberri, aldiz, Nomenclator zerrendan (1870). *Zotza* zer den jakin arren, eta edonork jakin ere, hori eta horrenbestez hitz hau onartzekoa den ustetan ere ez daiteke egon. Zuatz, zuhatz, zuntz edo bide horretatik zehar jokatu beharko litzateke, agian. Agian diot.

Jauregi auzoko baserririk gehienak bezalaxe, aipatu etxetik Lasartera doan bidearen aldamenean ezkerretara, Zelaigain baserriaren aurrez aurre, ekialdera begira eguterara betean daukagu **Zozperri** baserria.

Etxe errektangeluar luzexka eta handia. Isuri bikoa. Sarrera hego-ekialdera duela, eta baserririk gehienen antzera, behean sukaldea, komuna, sala eta atzean ukuilua zituela; goiko solairuan logelak eta gorago ganbara.

Pedro Sarasola Izagirre eta Joana Goenaga Elola, Asteasuko **Aitzetegi** baserriko senar-emazteek erosi zuten. Handik etorri omen ziren senarraren ama eta zazpi seme-alabetatik (lau mutil eta hiru neska) sei hartuta –alaba bat ordurako ezkondua izaki–, seme gazteenak sei urte zituela. Gauzak horrela, guztiak joan ziren ezari-ezarian kanpora ezkontzen eta aipatu seme gaztea, Pedro, gelditu zen baserrian aita-amekin. Hala, ordea, baserri zaharra saldu eta berria egin zuten aldamenean eta hantxe jarri bizitzen Azkarateko **Herrero-Enea** baserriko Lurdes Otermin Agirre emaztetzat hartuta, eta alaba bat izan.

Amona Joana duela bi urte hil zen 90 urterekin, eta Pedro aitona, oraindik egunero irteten da etxeko atarira, bizkarrean 98 urte dituen arren.

Baserrian jardun zuten Pedrok eta Joanak lanean, baina alderdi ederra Asteasuko baserri neketsuan lan egin edo Zozperrin jardun. Han oso lur malkartsuak nonbait eta ordeka eta lasaiagoak hemen, gainera lursail guztiak etxe inguruan zituzten eta, antza, abantaila handiak ikusten zizkioten baserri berriari.

Halatan, 10 behi, zekor, oilo, zaldi etab. izaten zituzten; baratzea zerbait ere bai, eta Errekaldera eta Añorgara jaisten ziren esnea saltzera. Alabaina, gurasoak adinean aurrera eta baserriari lehengoan ezin eutsi eta, aukera izandakoan saldu eta aldamenean etxe berria eraiki zuten duela 28 urte. Pedro semeak fabrikan egiten du lan baina ezin du etsi etxean behi bat edo beste gabe, eta haientzat janaria garraiatzen harrapatu dugu hizketaldi hau egiteko asmotan bertara hurbildu garenean.

Zozperrin bazuten sagastia, baita dolarea ere etxerako sagardoa egiteko. Orain, baserria saldutakoan dolarerik ez baina sagarra daukatenez, aldameneko etxean jotzen dute sagarra.

Zubillaga-Enea (Kanpozabal) Jauregi Auzoa



Familiaren deiturak eman dio izena baserri berriari. Euren lurretan eraiki baitzuten etxea Kanpozabal baserria erauzi eta handik atera beharra izan zutenean.

Jauregitik Santa Barbara aldera goazela, bide ertzean ezkerretara dago **Zubillaga-Enea**, Iparraldera begira, atzean baina ez urruti aipatu mendia duela. Inguruan, ezkerretara Etxeberri baserria eta eskuinera Erroxali-Enea berria. Badu zer ikusia franko etxetik, hasi Añorga eta Zabalegi aldetik eta Donostia–Astigarragarainoko guztia hartzen baitu aurrez aurre. Halaxe datorkio baita neguan Iparraldeko haize hotza eta Ipar-mendebaldeko euri bustia ere! Hara, 1960. urteko otsailean estreinatu zuten etxea. Bi isuriko eta bi solairuko eraikin garbia, bere eskuinean ukuilua trabeska atxikita duela. Goiko gela batek balkoia du.

Joxe Julian Zubillaga eta Luisa Garagorri, Urnietako **Adarra** baserrikoa, ziren Kanpozabalen, eta sei haur izan: Kontxita, Joxe Ramon, Gabriela, Milagros, Maritxu eta Joxepa. Kontxita Ulpiano Garmendia, **Marijoandegi**ko semearekin ezkondu eta bertan jarri zen bizitzen. Bost seme izan zituzten: Mariano, Joxe Luis, Joxe Joakin, Joxe Ramon eta Frantzisko Jabier. Kontxita alargundu, eta osasunak ere laguntzen ez eta, Ibarran bizi da Joxe Luis semearekin. Egun izeba Joxepa, bizi da Zubillaga-Enea baserrian, Joxe Joakin eta Frantzisko Jabier ilobekin.

Baserriaren bere bereak ziren lanetan aritzen ziren Kanpozabalen harik eta, etxe azpiko lurrak hondartsuak izaki (%99a hondarra), nagusiak baserria saldu eta berehala errepideak egiteko, Tolosa hiribidea hain zuzen, hondarra ateratzen hasi ziren arte. Hasi eta aurrera joan, Kanpozabal baserria lurrik gabe eta ia zintzilik gelditu zen. Hala, etxe berria, **Zubillaga-Enea** eraiki aurretik atera behar izan zuten, eta Jauregin bizitu ziren hamar hilabete.

"Hura zan baserria, esan digu Joxepak, han bazan melokotoi, lore, baratzea, esnea, etab., baita asto zuri handi bat ere, esneak eta tratua Donostiara eramateko". Bere ama Luisak egunero egiten zuen joan-etorria oinez, eta alderdi ederra bilatu omen zuen atzera-aurrera Urnietatik egin edo Kanpozabaletik egin. Gerora, ordea, autobusa jarritakoan, Galarretara etorri eta han hartzen zuten Donostiarako bidea.

Joxepak jarraitu dio orduko ohiturari eta orain ere, badute gauzarik baserrian, hala nola, untxi, oilo, behi, ardi, ehiza-zakur, baratze eta beste.



Santa Barbara Auzoa

AUZOAREN HISTORIA LABURRA

Hernaniko herria, hegi batean kokaturik, naturaren harresiak babesten du iparmendebaldetik, **Oriamendi**, **Santa Barbara** eta **Harkaitza** mendiek osatu zirkulu erdia dela bitarteko. Alabaina, hiru hauetarik hurbilena, handiena eta historiarik gehiena duena, erdikoa, **Santa Barbara** dugu. Santa martiri eta tximista nahiz trumoien kontrako ararteko honek eman dio mendiari, eta ondorioz, auzoari bere izena. Bestetik, aipagarri zaigu Santa Barbara mendia, Santaren ermita hortxe dugulako hernaniarrok aspaldiko mendetan zehar, baina aipagarri zaigu, baita, hainbat oroitzapen goibelen lekuko delako ere. Ohar bere gotorleku eta gaztelukiaren izateaz eta Napoleonen gerratik eta aurretik hasita, karlistada bietan eta 36ko gerrakoan bertatik burutu izan diren borroka latzak. Ermita, gotorlekua eta auzoa, horra hor hiru errealitate, sorta batean bildurik.

BASERRIAK

- Agerre
- Agerreburu
- Aize Eder (Buztintxulo)
- Arriguren (Arrigoain)
- Bakero
- Eguzkitza
- Mandazubi
- Marieluts Txiki
- Sagastitxo (Potrokilo-Enea)
- Santa Barbara

SOLASKIDEAK

- Alkorta, Felisa (Marieluts Txiki)
- Arbiza, Martin (Bakero)
- Arregi, Benita (Agerreburu)
- Arregi, Hipolito (Sagastitxo)
- Arruabarrena, Modesta (Arriguren)
- Esnaola, Joxe (Aize Eder)
- Etxeberria, Karmen (Eguzkitza)
- Izagirre, Lazaro (Santa Barbara)
- Izagirre, Rosario (Mandazubi)
- Urreaga, Kepa (Agerre)
- Urruzola, Joan (Bakero)



Leku ageri edo nabarmenean aurkitzen den zerbait (etxea, mendia...) adierazten du *Agerre* edo baita *Agirrek* ere. Gainera, etxea eta lurren antzinako plano batean (1857) "Aguirre" izenez azaltzen da. Gaintxo batean kokaturik daukagu **Agerre** baserria eta aldi berean, zokogune bat da Santa Barbara mendi hegalaren babespean etxearen inguru guztia. Orografia berezia duen dolina eiteko parajea gertatzen zaigu. Ez da batere gauza erraza Agerre deitura hori zergatik eman zioten jakitea. Santa Barbara mendiaren jatorrizko izena Agerre zelako? Baliteke hori ere. Hara, Urnietako Adarra mendia esaten duguna bera Agerre izenez deitzen zuten (Agerre, Agerreko magala, Agerre azpia...) gure aurrekoek.

Hernanitik eta Arrikartetik nahiz Santa Barbarara doan bidetik hurbil ezkerrera aurkitzen da **Agerre** izeneko baserria. Baserri koxkorra lehen eta are koxkorragoa omen lehenago.

Ataria, berez, bide aldera du, baina sartuirten oro ekialdetik egiten dute. Bi isuritako etxea da, alboan, ekialdetik, terraza eder bat, azpian egurtegia eta lanabesak edukitzeko lekuarekin. Sukaldea eta ukuilua behean, lehengo baserrietan ohikoa zenez, sala eta logelak goiko solairuan eta ganbara sabaipean, artoa, babarruna eta patata gordetzeko.

Lehenik etxea erosi, geroago obratu eta puska berria ezarri diote, lehenagoko estalpearen ordainez. Obra honek, halere, buruhaustea franko ekarri zion zenbait urtetan zehar familiari Udalaren aldetik (bidea, lizar eta magnolia arbolak, *herri-lurra* ondoko lurra). Azkenean, **Akola** aldeko lur zati bat Udalari eta honek etxe ondoko herri lurra trukean emanda iritsi ziren ados jartzera, eta ondorioz, etxeari puska berria ezartzera.

Ama adinekoa bizi da bere 90 urterekin, Iñaxi Urkizu Altuna, jaiotzez Elduaingoa den amona da hau. Bere garaian Agerreko seme Felix Aranburu Garmendiarekin **Limuri** baserrira ezkondu bazen ere, eta han bi alaba izan (Eulali eta M. Rosa), senarraren jaiotetxean aurkitzen ditugu gero, hemen beste bi alaba izan zituztelarik: Benita eta Pakita.

Hartan, aita soldadutzara eraman zutelarik azken gerrakoan, Aragoiko frontean hil zen (1938) 29 urte zituela. Ondorioz, jaso zuen laguntza apurrarekin alabak eskola onaren jabe egiteko modua izan zuen ama alargunak: Eulali maistra, Rosa Mari lekaime atzerrian, Benita 16 urte zituela hil zen, eta Pakita erizaina.

Ama, alargunak hartu behar izan zuen bere gain, morroiaren laguntzarekin, baserriaren ardura. Denetarik egin beharra egokitu zitzaion: segan, aitzurrean, behiak jezten... Handik bospasei urtera Eugenio Urreaga Sasiain **Eguzkitza** baserriko semearekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituen: Maria Pilar, Kepa eta Iñaxio.

Kepa, etxeko nagusia, koxkorra zela, zortzi behi, zekor batzuk eta idi parea ezagutu zituen, eta ama esnea eta barazkiekin egunero, **Erriogoardaneko** estalpean astoa lotuta, goizeko 6,30tako tranbian Donostiara. Gero, Donostian esne freskoa saltzeko arazoak sortu zirenean, Hernanira jo zuten. Orain, halere, esnerik gehiena Iparlat enpresari ateratzen diote. Gurasoak eta seme zaharrenaren kargu dago baserriko zeregina. Berrogei bat behi dauzkate, betiere urruxak etxerako eta idiskoak jaio eta hamabost bat egunera saldu egiten dituzte. Esne putzua biltzen dute egunero, normala den bezala; saltzea bera garai batean baino aiseago egin ohi dute eta baserri lana berdin segadora, traktore eta beste zenbait bitarteko harturik.





Amona zenari entzunik dio bertako Benita etxekoandreak, hau dut solaskide, lehen-lehen ardi borda omen zela, eta artzain nafar baten bizi-leku. Nolanahi ere, **Agerre** etxe nagusia da beraren erreferentzia puntu.

Santa Barbara hegalean harkaitz gainean eraikia dago etxea, Santa Barbara etxetik hirurehun bat metrotara. Etxearen gain eta azpialdean harkaitz mokorrak ageri dira nonahi, eta leize-zulo zenbait ere bai, beherago joanez gero.

Ardi borda izatetik baserri izatera bere aiton-amonek eraman zuten agidanez **Agerreburu**. Ez daki garbi Napoleonen gerrakoan edo karlistadaren batean izan zen, baina kainoi tiroek zulatu zutela, bai, hegoaldetik etxea. Bertan balkoi bat ipiniz hornitu omen zuten irekidura hori. Beste oroitzapen bitxi bat ere gordetzen du. Lau intxaurrondo lerden eta aspaldikoak eta ale ederrekoak omen ziren etxe atzean, egun batez mendiak su hartu eta berekin eraman zituelarik, etxea ozta-ozta salbatuz.

Etxea, orain, barne nahiz kanpo aski ongi egokiturik dute. Harria agerian, bi isuriko etxea den hau. Aurrean aterpea, teilaz moldatua, gainean leiho bat eta honen gainean, sabaiaren azpian hare-harriz eginiko armarria, etxekoandrearen ideia hau ere, etxeko hiru belaunaldien deiturak jasotzen dituelarik: **Izagirre**, **Arregi** eta **Beldarrain**.

Justo Izagirre Rekondo, **Akerregi** baserriko semea eta Benita Genua Genua **Marraka-Enea** baserriko alaba izan ziren bere aiton-amonak. Hauek sei seme-alaba: Joxepa, Luisa, Joana, Maritxu, Martin eta Lazaro. Hauetarik Joana etxean gelditu eta besteak bakoitza bere bidetik joan ziren.

Joana, Esteban Arregi Saralegi berastegiarrarekin ezkondu eta Santa Barbara etxean jarri ziren bizitzen, aurrekoak bezalaxe. Hona hauen seme-alabak: Benita, Iñaxi, Briji, Justo, Antton eta Rosi. Justo gelditu zen etxean eta Benita, senide zaharrena, ezkontzekoan Agerreburu baserri zaharra egokitu eta antolatuz ezkonberriok bizilekutzat hartu zutelarik. Benita Agirre Izagirre eta Santos Beldarrain Gainzerain senar-emazteak bi seme-alaba dituzte, Esteban eta Jone.

Baserri izaten hasi zenetik maizter desberdinen bizileku izan zen Agerreburu, zeren eta familia beti Santa Barbara etxean bizi izan baitzen.

Uraren arazoa etxe aurrean aspaldidanik daukaten terrazaren azpian egindako gordailu handiaren bitartez konpontzen zuten. Teilatuko ura, noski, baina oparo izaten zuten arropa eta garbitasun oro burutzeko.

Senar-emateek, bai Santosek bai eta Benitak kanpoan lan egiten dute. Etxekoandrea, ordea, gogoz sentitu izan da beti ordu libreetan etxean. Sagarrondo, fruta (sagar, udare, intxaur, muxika, kiwi, etab.) eta lore landarez (magnolia, mimosa, kamelia...) beterik ageri zaigu etxe bira guztia. Noski, emaztearen zaletasunari zor zaiola esan beharrik. Ongi ezagutzen ditu inon diren sagarrondo klase guztiak. Sagar kopuru ederra biltzen dute urte normalean. Hegaztiak ere biziki maite ditu.



Zenturion-Enea izenez azaltzen da etxearen eskritura agirian. Ez dakite honen zergatiaren berri ematen, aurrekoren bat gizaki lerden eta tantairen bat ote zen ustea daukate. Dena den, gero **Bustintxulo** izenez azaltzen zaigu baserria kalean. Egun ere *buztintxulotar* deituraz ezagunagoak dira.

Orain **Iruntxi-Berri** taberna dagoen lekuan zegoen **Buztintxulo** baserria, Andre kalea orduan, Kardaberaz kalea gaur. Esan behar da Hernaniko kaleek beren baitan ezagutu duten azkeneko baserria berau dela. Esan didatenez 5-6 behi izaten zituzten han eta aberea (zaldia), ganaduentzat jatekoa ekarri eta pisa, simaurra... soro eta belardietara garraiatuko baziren. Abere honek herriko beste zerbitzu bat ere gauzatzen zuen Praixku (aitona) zenaren garaian: hiltegitik harategietara *okela* eta *haragia* garraiatzea.

Aski gogoan dute etxe aldaketa, kaletik irten, ganaduak eta altzariak hartu, eta Aize-Eder deitu etxe berrira pasatu ziren eguna: Munduko Txirrindu Txapelketa burutzen zenekoa (1965. urtea). Ongi oroitzen dira egun hartan zirkuituko errepidea zeharkatzeko izan zituzten oztopoez.

Ezinezko jokabidea zen jada kalean jarraitzea: pisaren usaina, abereen ukuilurako sartu-irtenetako oztopoak, automobilen bozina hotsa... Ez zuen inolako zentzurik kalean eta kaleko puntu horretan baserriaren izateak.

Hala-hala, Buztintxuloko lurretan, nonahitik ageri den gaintxo batean eraiki zuten **Aize-Eder** baserria, herritik eta Santa Barbarako bidean Sagastitxo pasatuta eta ezkerrera Agerre baserria baino lehentxeago. Etxeak etxe polit baten airea du. Bi isuri eta bi plantako etxe tentea, ataria eguzki aldera begira, saihetsean hiru-lau meta-belar ondu eta oraingo meta moderno bi plastikopean. Atzean, ipar-


mendebaldera terraza eta azpian ukuilua. Aurrean, gainera, metro asko gabe **Institutua** eta **Biteri** eskola kokatzen dira, ez du beste inolako oztoporik. Etxekoandreak dioenez, eskolak eraiki eta lehen urteetan benetan gogaikarriak gertatzen ziren orduko haur eta gaztetxoak (harriak tiratzen, iseka eta iraina baizik ez baserritarrei...) Orain bestelako heziketa ematen zaien seinale garbia dela dio. Etxea ormigoiz egina eta karez ongi zuritua dute. Aize-Eder izena zinez ongi asmatua dela esan zait: alderdi guztietako haizeak (hegoa, mendebala...) jotzen omen du etxea, ongi jo ere.

Aipaturiko Praixku zenaren seme ezkonduak, bere familiarekin estreinatu zuen Aize-Eder etxe berria. Alde batetik, senar-emazteak: Joxe Mari Garmendia Garin eta Joana Aizpurua Arruti, jaiotzez Aiako alaba hau, eta Joan Joxe eta Patxi semeak. Alboan, etxebizitza biko etxea denez, Joana, Joxe Mariren arreba eta Joxe Esnaola Muxika senar-emazteak, **Lukainkategi** (Añorga) baserriko semea hau.

Gaur, Joana, alarguna, Patxi semea eta Joxe, koinatua, alarguna hau ere, bizi dira Aize-Eder baserrian.

Ganaduak, 6-7 behi eta 4-5 zekor eduki ohi dituzte, horrek suposatzen duen guztiarekin; esaterako, ganaduen jatekoa: belarra, artoa, arbia... Esnea eta haragia dira hauen produktu nagusiak: zekorrak hazteaz aparte, gogotik saiatzen dira esnea biltzen. Esne putzu polita, gaur goizean neure begiz ikusi dut, Iparlateko kamioi zisternari etxe azpiko bidegurutzera atera diotena. Etxekoandreari esan diodanean alde ederra Hernaniko kaleetan eskailerak gora eta behera ibili orde. Erantzuna ere halakoxea izan da.

- "Alde ederra litroko 90-100 pezeta hartu ordez, 50 pezeta ozta-ozta Iparlaten eskutik hartzea ere, eta, hori koipea eta beste, esnea ongi analizatu ondoren!"





Arrigurain izenez azaltzen bada ere 1870eko "Nomenclator" deitu Hernaniko baserrien zerrendan, bi mende eta erdi lehenago "Hamarrenak" zerrendan (1610) **Arriguren** izenarekin azaltzen zaigu, egungo egunean **Arrigoian** bilakatu dena. Eta hala, **Arriguren** izan liteke bere jatorrizko izena, izen konposatua jakina, *harri* eta *guren* (muga, zedarri) hitzak osagai dituelarik. Badugu gisa bereko adibiderik euskal izendegian, hala nola Oianguren, Ibarguren, Aranguren *(oihan-, ibar-, haran-muga)*, eta beste. Esan dezadan bidenabar mereziko lukeela sakonago aztertu eta sorreraz zor zaion izena kasu honetan, besteak beste, berreskuratzea. Bakoitzari berea, jakina.

Santa Barbara mendiaren hegalean iparekialdera orientaturik dugu Arrigoain etxea, ezkerraldeko isuriaren aldetik lehen ukuilu izandako etxe-ordekoa, egun, jatetxe bilakaturik.

Arrigoain zaharra, ordea, harrobiak harrapatu eta irentsi zuen. Uraren gordailua dagoen lekutik aurreraxeago zegoen gaur egun *matxaka* zaharra aurkitzen den leku horretan gutxi gora-behera. Baserri zaharraren argazkiren bat bai omen zuten baina...

Modesta Arruabarrena Eskisabel, zaldibitarra izatez, eta bertako etxekoandrea izan dut solaskide. Arrigoaina ezkonduta etorri zenean honela osatzen zen bertako familia: Joan Bautista Izagirre Etxeberria eta Agustina Sosberro Arozena, jaiotzez Astigarragakoa hau, aiton-amonak. Semealabak Maria, Joxe Antonio senarra eta Rosario anaia gazteena. Gaur egun ama Modesta eta Imanol semea, ama-semeen artean daramate baserria eta jatetxea.

Lehen bost behi, zekor batzuk, idi parea eta astoa izaten zuten. Senarrak, baserriko lanaz aparte, idi parea hartu eta inguruko baserri eta kaleko zenbait etxeetara golde-lanera ateratzen zen sos batzuk ekarriko bazituen.

Deigarri gertatzen zaio oraino Modesta etxekoandreari zenbat etxe ezagutu zituen Hernaniko kale eta bazterretan, baratze eta soro eder bat eta oilo, zerri edo zekorren bat zeukatenak.

Bestetik amona eta gero ama Udaletxeko arkupetara egunero barazki eta esnearekin. Ondo gogoan du Modestak zenbat kosta zitzaion, ohiturarik ezagatik, noski, salmentalan eta jendearekiko tirabirak hor jasan beharra.

Gero, harrobiak lurrak jan zizkiotenean, senarrak beste lan batera jo behar izan zuen, kamioi bat hartu eta garraio lanera hain zuzen. Lurrak, harkaitz arteko lur traketsak baziren ere, ez dauka ahaztuta lur horietan landutako azak, esaterako, harria baino gogorragoak izaten zirela baina bai gozoak ere benetan. Simaurra beste ongarririk ez, *ekologikoak* ere izango ziren dudarik gabe.

Etxekoandre honek beste oroitzapen bat ere badu gogoan. Harrobi lana aurrera joan ahala baserria estutzen joan zitzaiela. Esan nahi da, lurrak murrizten eta bizimodua ere bai lurrekin batera. Oroitzen da nola ibili ohi ziren garai horretan. Tiroa botatzeko harrobiko kornetaren hotsa entzutean, idiak eta aberea berekin hartuta, oraindik kontserbatzen da, nola hartzulo gisako *tunel* horretan babesten ziren.

Oroit industriaren aroarekin batera, Hernaniko herriak XX. mende hasieran 3.000 bizilagun inguru izatetik mende erdi batean zer nolako gorakada jo zuen (etxe eta auzo



berrien eraikuntza) eta hor harrobiak izan zuen garapena.

Halatan, aitak baserria erabat utzi gabe, beste aurrerapausoa eman zuen bezala, ama ere, nire solaskide Modesta, gauza bera egin beharrean gertatu zen: *sukaldari* bilakatu zitzaigun harrobiko jangelan, horra. Handik eta harat, hor bildutako esperientziari jarraiki, hasi ziren anartean ukuilua zenaren etxeordekoan taberna koxkor bat (edariak, ogitartekoak, kaxuelak) antolatzen, gero jatetxea eta geroago are hondrosoago bilakatu den jatetxea.

Semea Imanol, halaber, ez da atzera begira egon, zeren jatetxeko lanetan amari laguntza on bat emateaz aparte, baserriari eutsi baitio. Eutsi bakarrik ez, ukuilu berria antolatu eta berrogei bat bururen ardura bere gain harturik darabilgu.

Bakero



Hernanitik Urnietarako errepidean, gaintxo batean kokaturik dago **Bakero** baserria, bi herri hauen arte dagoen muga (Mandazubi muga) baino lehentxeago. Hernaniko hego-saihesbidea egin denean, aurre-aurrean ipini diote, sukaldeko leihoaren azpian esaterako, borobil horietarikoa. Honelaxe Vaquero izena gaztelaniaz idatzita dauka fatxadan, nahiz eta ez dakiten nondik eta nola irabazia duen etxeak izen hori.

Bi isuriko etxea da eta bi bizitzakoa. Biak baserri, bi familia teilatupe berean: **Urruzolatarrak** eta **Arbizatarrak**. Angeluzuzeneko eitea du. Luzexka. Errepide aldera dagoenak albo batera etxeari ezarrita dauka estalpea; mendialdekoak, aldiz, etxetik at etxe-ordeko polit bat, garaje eta ganbara dituena. Ederki kostata egina dela dio Joan (80 urte) nire solaskide etxeko nagusi zaharrak. "Hori eraikitzeko blokeak etxean egin genittun, Mandazubiko errekatik, etxean urik ez eta barrikan ura ekarriz".



URRUZOLA Familia

Urruzolatarren etxeak behean du ukuilua eta lehen solairuan bizilekua, bertako sarrera kanpotik eskailera batzuen bitartez duela. Lehen, hondarrez eta karez egina omen zen etxea, erreka harria eta harrobikoa nahasian eraikia, arrunt horma kaxkarrak zituena, harik eta aurpegia garbitu, zarpeatu eta erabat txukundu zuten arte. Orain, alde batetik *errepide berriak* bere jarraipena nondik izango duen zalantzak, eta bestetik, "baserria erauzi" eta inguru guztia etxe berriz beteko den hotsak buruhauste edo penarik aski ematen diote aiton-amona hauei. Hainbeste lan eta izerdi ipinitako baserria ezkutatzea ere...!

Aurrekorik, gurasoak baino, ez zuen ezagutu Joanek. Ama, Natalia Aranburu Arizala, bertako alaba eta Agustin Urruzola Intxauspe, **Txabola** baserriko semea, izan zituen guraso, eta Joan, Monika, Iñaxi, Frantziska eta Jesus haien seme-alabak.

Etxerako zaharrena, Joan, gelditu eta hau Eujeni Leunda Elola, sortzez Albizturkoarekin ezkondu zen, honako seme-alaba hauek izan zituztelarik: Agustin, Jose Mari eta Marian. Bakero baserrian aita eta ama adinekoak bizi dira orain eskuinekoan.

Hiru edo lau behi beti izan dituzte, baina baratzeak izan du garrantzirik handiena baserri honetako bizimoduan. Amona egunero herriko plazara tratuarekin eta ama Eujeni ere

ia orain arte. Ofizioz hargina zuten aita, *"Bakero hargina"*. Honek burutu zituen, esaterako, Santa Barbara ermita berriko hargintza lanak.

Joan, senide nagusiak, soldadu joan zen arte baserrian jardun zuen. Han (Tetuanen) hiru urte egin ondoren hasi zen fabrikako lanean, *"Champion"* bateri lantegian, hain zuzen. Baserri lana aldi berean burutu ahal izateko errelebo lana nahi, eta lekualdatu egin zen: Mendia paper fabrikara joanez. Gero, Mendiaren argindar zentralera (Abalotz) egunero Bakerotik Lasarten barna, joanez ibili zen. Bizikletaz, lehenik, hainbat urtetan, motoan gero eta autoz azkenean.

Eujeni ama, behar da esan, 13-25 urteak bitarte neskame egona zela. Neskametzari buruz zerbait galdegin diodanean, zera esan dit:
- "Ez dut batere damurik; izan ere, besteren menpe egoteak asko erakusten baitu, burua makurtzen eta hortzak berdintzen batik bat". Hileko soldata, azken urteetan hori, ez aseguru eta ez ezer, 125 pezeta izan omen zuen.

Gaur, Joan aspaldian jubilaturik (80 urte ditu) familia hazita, joanak joan, ongi bizi direla diote. Gainera, orain jada ez, baina azken urteetan, jubilatuekin, harat eta honat bidaia franko egin dutenaren poza daukate.

ARBIZA Familia

Arbizatarren familian Martin bertako semea izan dut solaskide. Etxea berritua eta eroso jarrita dauka Martinek.

Aiton-amonak ezagutu zituen Jose Antoniok, Joxe Antonio Ieregi eta Joana Gorostegi, Bakeroko alaba eta hauen seme-alabak: Joxepa, Domingo, Joakin eta Joxe Mari. Joxepa etxerako, Hernialdeko Anjel Arbiza senartzat hartuta, eta honako seme-alaba hauek izan: Martin, Manuel, Euxebi eta Miren.

Martin oroitzen da ume-umea zenetik zortzi behi, hiruzpalau zekor, zerri, oilo eta untxiak izaten zirela baserrian. Egunero, amona, edota izeba, esnearekin herriko plazara joan ohi zirela ere.

Aita, bere garaian *Mendia* paper fabrikan lanean ibiltzen zen harik eta 36an, gerrakoan, Andoaingo kanposantuaren atzean *"afusilatu"* zuten arte.

Ama, alargun, zerua goian eta lurra behean lanik askorekin gelditu zen. Martin, seme zaharrenak 12 urte, eta Manuel, Euxebi eta Miren txikiagoak. Martin, zaharrena zenez, hau gertatu zen eskolarako aukerarik gutxiena izan zuena. Ama alargun izan arren, aita bestaldekoa izan zenez, soldadutzara beharturik izan ziren bai Martin eta bai Manuel.

Aita, erail eta urte pare batera aitaren lantegi berean lanera sartzeko egokiera izan zuen Martinek. Geroagora, *Butano* lantegira pasatu zen, eta beti ere baserria eta beste lana tartekatzeko modua izan. Azken urteetan, gainera, ganadua larrera bota izan duelarik, bizimodua errazteko bidea egin du.

Orain bere 75 urterekin aski patxada eta egoera onean ageri zaigu Martin. Duela urte pare bat etxe barreneko errepidea zeharkatzerakoan motor batek bota eta eskuineko zangoa zauritu ziotenetik ez da kalera joan, nahiz eta bere denboran lagunartea eta parrandan ibiltzea benetan gogoko izan dituen. Hala ere, umore ona ez zaio falta.

Eguzkitza



Egutera bete-betean, eguzkiak ongi jotzen duen lekuan dagoela adierazten duen izena dauka **Eguzkitza** baserriak.

Agerretik aurreraxeago, Santa Barbara mendiaren babesean kokaturik dago Urnietako mugan eta Haritzola nahiz Gurutzetara doan bidearen azpialdean.

Azkeneko gerratean (1936) Hernaniko **Eguzkitza** baserria eta Urnietako Haritzola eta Bidegurutzeta baserriak, hirurak ere oso urrun ez bata bestearengandik, erreta utzi zituzten.

Bertako iloba den Karmen Etxeberriak familiak jasan zuen zorigaitzaren berri eman dit. Bazkaltzen ari zirela etorri omen ziren "gaixtoak", esanez, etxea erretzera zihoazela eta irteteko berehalakoan. Ordurako etxeari atzetik su emanik zuten eta ozta-ozta ganaduak atera zituzten, Ziolio-Enea baserrira eramanez.

Frontea pasatu bezain laster estalpe bat eraiki eta etxeratu ahal izan zituzten ganaduak. Maizter zirenez, urte multzo bat eman zuten Laubidetan bizitzen, harik eta etxearen jabe egin eta berreraiki zuten arte.

Lehengo egitura bera mantendu zioten etxeari. Baserri ederra da, eta "lehen ederragoa" dio Karmenek. "Intxaurrondo tantai itzaltsua zun eta honen gerizpean afaltzen gendun udako bero egunetan". Erre aurretik dolarea ere bazuen etxeak.

Aitona eta amona ezagutu zituen. Aitona kaletarra, Andre kaleko **Llarga-Eneko** semea, Pedro Joxe Urreaga Aranburu eta Ageda Sasiain **Larburu**, Urnietako Lauterdi baserriko alaba amona. Eguzkitza baserria hutsik eta ezkonduta bertan jarri ziren bizitzen. Semealaba hauek izan zituzten: Pantxika, Txomin, Fermina, Pepita, Damasa, Luisa, Eujenio, Loreto eta Justo, eta Gabriel (buruko gaitzak hartuta 17 urte zituela hila).

Etxe berria eraiki eta amona hil zenetik, Txomin, Loreto eta Justo gelditu ziren etxean, eta azkenik Loreto eta Justo anai-arrebak. Urteetan aurrera eta ezinagatik zaharren egoitzara bildu ziren biak. Justo hil eta Loreto bizi da Sandiusterrin.

Amona emakume langile eta eraman handikoa zela diote. Aitona ere, gorputz azkarreko gizona, eta lagunartekoa ere bai. "Etxetik ateraz gero etxerako presarik etzuna" omen amonaren esanetan. Oraino sasoikoa zela baratzean eroriko txar bat egin, azalore baten zuztarra jo eta begi bat galdu zuena.

Amona egunero Donostiara astoarekin *tratua* hartuta. Astoa Easo kaleko astategian uzten eta handik banatzen hartzaileei esnea eta barazkiak. Gero, tranbian joaten ziren, amona lehenik eta Loreto gero, astoa "ganadu plazan", gaur Plaza Berri, argoilaz beteriko barra batean astoa lotuta utzirik. Behin batean, ijitoak astoa ostu ere egin zioten Loretori, bera Donostian zen bitartean. Hura estura halakoa! Azkenean, Ereñotzun harrapatu zituzten, agidanez, ijitoak eta Eguzkitzako astoa.

Bestetik, esneaz ongi baliatzen nonbait, eta zazpi-zortzi behi izatetik 20 behi izatera heldu omen ziren anai-arrebak sasoiko ziren garaian.



Garai batean Europara zihoan *errepide* (errege-bide) nagusiaren eta gaur egun Hernanitik Urnietara doan errepidearen eskuinean daukagu **Mandazubi** baserria. Txoko eta babesleku goxo batean, bi herrion mugan, etxondoan pasatzen den erreka gertatzen baita muga. Juridikoki Hernaniko Udalerriaren baitan egon da beti "elizaz Urnietako parrokiari zegokion" arren (lk. Teresa Amuategi **"Urnietako Etxe eta Baserriak"**, 277 or.) Esanahi garbia du, *mandoa* eta *zubia*, eta bi hitzok konposatzean *mandazubi* ematen dute.

Bi isuritako etxe egokia da izatez, eta xehetasun bitxiak dituena: esaterako, eraiki edo berritu zeneko data edo izena fatxadan **(Mandazubi, año 1840)** lehen karlistada amaitu ondoko urtea hain zuzen; besteen eite bereko leihoa baina pintura soila dena hegoaldetik; ekialdera orientatua etxea, ondoan erreka polit bat duelarik.

Rosario (55 urte) bertako alaba dut solaskide. Etxearen eskuinera etxe-ordekoa dauka eranskin modura etxeak "Ipulategi" deitzen ziotena, *upelategi* ez ote zen nago, eta "hor egoten ziran dio, gure etxeko idiak eta zekorrak", gainerakoan, soto eta ukuilua beheko oinean, bizilekua lehen solairuan eta ganbara honen gainean.

Amona, Joakina Pagola Sagardia, ezagutu zuela dio nire solaskideak eta beronen ahizpa

Joxepa ere bai; ezkongea zen hau. Joxe Martin Izagirre Bengoetxea zen aitona. Eta hona hauen seme-alabak: Joxe, Maria, Martin (soldadu zela hila) eta Joxepa (lekaimea, Oñako –Burgos- psikiatrikoan erizain dena).

Senideetarik, Joxe gelditzen da etxerako. Anttoni Otegi Irisarri, **Egaña-Enea** baserriko alabarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten: Rosario, Joxe Migel, Joxe Martin eta Maribel. Joxe Martinek darama, gaur, etxearen ardura.

Baratze handirik izaten zenik ez du gogoan. Esnea zen Mandazubin ekoizpen nagusia. Zortzi bat behi ezagutu zituen ukuiluan, eta idi-parea eta zekorrak. Ganadu jatena sortzeak, beraz, bazuen lanik aski haientzat: belarra (ondua negurako) eta alfafa, pagotxa, erremolatxa, arbia... Oraino oroitzen da nola negu partean arbia nahiz erremolatxa beheko suan pertza handi batean egosi eta ganaduari gozalea ematen zioten.

Lur onak ziren, oro har, artoa, babarruna eta patata lantzeko. Sagasti ederra zen garai hartan zubi edo errepidez bestaldeko zabaldian.

Bestetik, ez zuten inolako arazorik ganaduei edaten emateko, askatzea baino ez, etxetik metro asko gabe baitzuten erreka. Hortxe berean zeukaten, etxetik hurbil hau ere, aska berezi bat lixiba egin eta arropa garbitzeko, eta are gorago, eta errekatik aparte, familiak estimu handitan zuen iturri goxoa, edateko ura hartzeko, edariak freskatzeko... Ez du inoiz ezagutu erreka hau agortuta.

Ur garbia eta freskoa du izatez. Oroitzen da nola, tarteka, han aingirak harrapatu eta jaten zituzten ere. Erreka honen txoko batean eduki ohi zituen Paulo Lasak, Hernani eta inguruko herrietan sona handiko *uztargile* trebeak, bere lehengaiak, enbor multzo bat uretan beratzen.

Esanik da Joxe Martin anaiaren ardurapean dagoela Mandazubi baserria orain. Ganadu multzoa dauka, baina ez lehengo ukuiluan, aparteko aterpe zabal batean baizik, eta egungo erosotasunez horniturik.

Kezkarik aski badute zein egoera izango duen aurrerantzean, Mandazubi baserriak. Denbora asko baino lehen Hernaniko *hego-saihesbidea* deitu errepidea Urnieta-Andoain aldera nondik eta nola abian jarriko den pentsatzen jarrita.



Marieluts Txiki



Hemen ezberdinetan ageri zaigu etxe honen izena bere historian edo dokumentuetan. Esaterako **Marielus-chipi**, 1610ean; **Marialuz-Chiqui** 1870ean; Mariluz beste batzuetan, eta **Maria Luz** etxeak ipinita ate gainean. Hala ere, **Mari-Eluts** izango litzateke oinarrizkoa. *Eluts*, leku babes edo itzaltsuaren esanahiarekin.

Santa Barbara mendiaren ipar-ekialdean kokaturik dago, sarrera nagusia mendialdera badauka ere. Bi isuritako etxe errektangeluar luzexka da, azpian alderik alde ukuilua duelarik, etxebizitza lehen solairuan eta goian ganbara. Etxetik at, alboan, etxe-ordeko txukun bat. Orain, etxearen berezko egitura mantenduz, aurpegia garbitzeko asmotan dabiltza.

Felisa Alkorta Irazusta, **Zumadi** baserriko alaba dut solaskide, eta Jose Luis Zubillaga Olazabal bertako semearekin ezkonduta Marieluts Txikira etorri zenean ezagutu zuen etxeko amona, jaiotzaz Bedaiokoa zena, alargundu eta bigarren aldiz esposatua. Lehenengo senarra Joan Fko. Larrañaga, Irurako semea, Ameriketan ibili eta sos batzuekin etorria zen. Ezkontzerako etxea erabat haiek birmoldatu edo antolatu omen zuten. Lehenarekin Jose Mari, Kattalin, Mila eta Pakita seme-alabak izan zituen; bigarrenarekin, aldiz, Kaietano, Iñaxi eta Jose Luis. Egun, Jose Luis etxeko nagusia bizi da Felisa emaztearekin eta Xabier eta Oihana seme-alabekin.

Lehen zazpi behi eta zenbait zekor izaten zituzten. Esnea izan da, noiznahi ere, beren produktu nagusia. Jose Luisek fabrikako lana eta baserria konbinatu behar izan du, lehenago anaiaren eta orain semearen laguntzarekin. Lur onak dira, etxe inguru guztiak, baina arrunt aldapatsuak. Sagarrondo eta fruta arbola ere ondo etorri izan dira hor. Aberea eta lerarekin garraiatzen zuten ganadu jana orain baino lehen. Orain traktore koxkor bat daukate.

Esnea egunero Donostiara eramaten zuten, amona gauza izan zen arte behintzat. Badute azken gerrateko oroitzapen ilunik. Santa Barbara mendia frontearen alderdi bat izanik, handik etxea oso bistan eta arriskuan zegoela eta, ganaduak Pangorrira eta familia alboko bordara, hau hosto artean ezkutatuago zegoen, arropa zuria eta behar-beharreko gauzak hartuta. Amona haurdun omen. Amona bordatik at zebilela, bonba jausi bordara eta erabat txikitu hau. Zorte ederra, inor hil ez zenean! Eta etxea bestalde, ukitu ere ez.

Arropa non garbitzen ote zuten Felisari galdegin diodanean zera zioen:

-"Ahal zan lekuan. Buru gainean barreñoa hartu eta Latsunbeko garbitegian, edo... Leokan eta zenbait alditan hemen jendea bazan, Karabele aldeko ibaian. Benetan jende zaildua eta gogorra zan hura! Eta hala ere 97 urte zituela hil zan"!

Gero herriko urarekin etxe aurrean aska bat eduki zuten. Paraje itzaltsua eta hezea hein batean, belarrarentzat bai ona, baina ez dela, dio, urtsua, iturririk ez den lekua nolanahi ere.

Sagastitxo



Sagasti polit bat omen garai batean ukuilua kokatzen zen estalpearen alboan. Handik eta harat sortu da, beraz, Sagastitxo izena. Alberro sagardotegia pasatu eta Santa Barbarako bidean aurreraxego dago edo zegoen **Sagastitxo** baserria, gaur egun guztia etxez hornitua, baratze eta belardi batzuk izan ezik.

Lehen-lehenik estalpea baino ez omen zen **Sagastitxo**, eta hor behiak eta zerriak aski baldintza eskasetan, ingurua soro, baratze, belardi edo sagastiz osatua bazegoen ere. Familia Zinko-Eneko aldamenean bizi izan zen, harik eta etxea eraiki eta aldi berean lehenagoko estalpe zaharra, terraza egoki bat bilakatuz, ukuilu bezala birmoldatu zuten arte.

Bertako aiton-amonak, Jose Domingo Arbide Aristizabal eta Maria Valle Aristizabal izan ziren, eta sei seme-alaba: Juliana, Joxepa, Bixenta, Anselmo, Manuel eta Karmelo. Hauetarik, Anselmo gelditu zen etxerako, Iñaxi Garaiar Alberro, **Aranburu** baserriko alabarekin ezkondu eta hiru alaba izan zituztelarik: Maria, Pepi eta Bixenta (hau hilabeteetakoa zela hila).

Pepi gelditu zen gurasoekin, Hipolito Arregi Iraolarekin, **Oianeder** baserriko semea, ezkondu ondoan. Bi alaba izan dituzte: Maite eta Rosa Mari.

Potrokilotarren artean Anselmo izan zen pertsonaia nagusia. Egia esan, *Potrokilo, Potrokilo-Enekoak*, etab. ez-izenez askoz ere ezagunagoa izan da familia hau. Iduri du aitona Jose Domingo aski patxadako gizon lasaia izan zela eta harengandik zetorkiela Arbidetarrei, antza, delako izengoiti hori, baina *Potrokilo* izengoitia Anselmok eraman zuen ongien bizkar gainean.

Sagastitxon bospasei behi, zekorrak eta zerriak izaten ziren. Artzaina neguan, Amezketako Etxeberriatarrak hirurogeita (60) gehiago urtetan zehar, uda Aralarko larreetan pasatu ondoan. Esan behar da ez zutela zorte handirik izan artzain hauekin lehen bi familiako belaunaldiek behinik behin. Aitona, azken karlistadakoan ardiekin larrean mendi

hegalean zebilela Santa Barbarako gotorlekuan guardian zeuden soldaduek tirokaturik hil baitzen; aita, aldiz, ardientzat lizar hostoa biltzen ari zela zuhaitz gainetik erorita.

Anselmok eta ama-semeak, uda osoa ekainak 15-irailak 15 bitarteko guztia Donostian *Kontxako hondartzan* pasatzen zuten. Hor, bi kabinaren jabe ziren. Ama bainuzaleen jantzi-erantziaz arduratzen zen. Anselmok, berriz, gerriraino uretan sartu eta udatiarrei ur gainean ibiltzen eta igeri egiten irakasteko eginkizuna zuen.

Izaera gogorreko gizona zela Anselmo diote ezagutu zutenek eta *"sakatrapu"* samarra, tratularia, etab. negoziante bizkorra ere bai. Harrigarria, ia batere eskolarik ez, eta zenbait mendi, etxe eta etxalderen administrari izan zen bere denboran. Udan zehar, gainera, txangoak antolatzen zituen. Tranbian atzeko *"jardinerak"* deitu kotxeetan (irekiak hauek) udatiar handikiak hartu, bera gidari, Hernaniko herria erakustera ekarri ohi zituen, azken xanpa, Sagastitxon sagardoa edo *erreberoa* edanez amaiera izaten zutelarik.

Emazteak bitartean, emakume sufritu eta eraman handikoa, lanik asko izaten zuen agidanez. Goizean 5:30etan esneak bildu eta esnearekin kalera; laguntzaileren bat bai, baina beraren ardurapean baserria. Edozertarako gai zela diote emakume hau: behiak jetzi, sega, belar ontze, soro lanerako, etab.

Gerora, Pepi alaba eta Hipolito suhiaren gain gelditu zen Sagastitxo baserria, beti ere fabrikako lanaz aparte. Duela 14 bat urte, adinak ez baitu barkatzen, beste era batera moldatu zituzten baserriaren lokalak eta lurrak.

Orain, senar-emazteak, alabarekin nahiko osasun onez bizi dira Sagastitxon.



Santa Barbara



Agidanez **Santa Barbara** izan da beti, mendiaren, gazteluaren eta ermita nahiz baserriaren izena, Lazaro Izagirre Genua (70 urte) nire solaskide eta bertako semearen aitorpenetan. Errepublika garaian, 1934an, berak hiru urte baizik ez zituela etorri omen zen familia Santa Barbara baserrira.

Izen bereko mendiaren tontorretik beheraxeago, beronen bizkarrean kokaturik dago baserri hau, bertatik inon den ikuspegirik ederrena ageri delarik, Oriamendi eta Donosti aldea, Hernani eta Urnieta herriak beren baserri eta zelai berde nabarmen eta kolore bitxienez, naturak eta gizakiaren eskuak margoturiko tapiz zabal bat bailitzan.

Sarrerako atea oraintxe bezala arkudun atea zen. Arkupe hori zeharkatuz, aurre-aurrean ermitako ataria, gorako eskailera ezkerrera, eta gibelean 18-20 metro karratuko gela bat sakristia izana. Ermitara sartzeko, ate handi mokor bat, ate osoa zura, batera irekitzen zena. Oraino kontserbatzen dute, orain jangela den horretan Santaren irudia kokatzen zen nitxoa; pintura koadroa funtsean eta belar metatxoa aurrean duela. Etxeak *kanpaitxo* bat omen bere gailurrean.

Goian apaizaren etxebizitza: hiru gela normalak zituena, eta ekialdetik etxearen zabalerako sala. Lazaroren iritzian eskola izanaren tankera zuen sala honek. Sukaldea mendi aldera eta salaren albo batean komuna.

Bizitzera hona etorri zirenean, gurasoek etxea *Atutxa* izeneko bati erosi zioten, eta honek berebat apaizari erositako etxea zuen. Agidanez, mendi osoko eraikuntzak (gaztelukia, ermita, etxea...) Estatuaren jabetzakoak ziren. Erosketa egin zenean ezarri zizkioten etxeari bere mugarriak lau kantoietan. Aurrez *"Soka"* deitu edo Sokatarren familia izan omen zen hemen maizter. Dena den, Izagirre familia sartu zenean nahikoa zaharkitua eta abandonatua aurkitu zuten etxea. Esaterako, garai bateko ermita jadanik ukuilu edo oilategi bilakatua zen.

Gurasoak, aita, Justo Izagirre Rekondo **Akerregi** baserriko semea, eta ama, **Marraka-**



Santa Barbara

Eneko alaba, Benita Genua Genua ziren. Seme-alabak: Martin, Joxepa, Joana, Luisa, Lazaro eta Maritxu.

Joana, gelditu zen etxerako, zeren Martinek igeltserotzari eta Lazarok zurgintzari heldu baitzioten. Esan gabe doa, gerora goiko ermita eraiki zenean (1955) bertako zurgin lana, *musutruk* gainera, Lazarok egina dela.

Joanak, Esteban Arregi Saralegi, Berastegin jaioa, hartu zuen senartzat eta ondoko seme-alabak hauek izan zituzten: Justo, Beni, Iñaxi, Brijida eta Rosi. Hauetarik, Justok jarraitzen du etxean, fabrika eta baserriko lana tartekatuz. Emaztea Josune Azkoitia Arregi, azkoitiarra izatez eta bi alaba dituzte: Josune eta Maitane.

Lau bat behi, astoa eta oilategi on bat izan zituzten. Bizimodua, Lazarok dio, barazki eta oilategiaren baitan egon zela batik bat, gurasoen garaian. Sagardoa, bai, saltzen omen zuten Akerregiko dolarean sagarra jo eta handik sagardoa garraiaturik. Herriko eta baserrietako "*zurrutero*" haiengandik (izen batzuk ere aipatu ditu) oraino aski mutikoa zela ikasi omen zuen honako lelo hau:

"Cuatro tiros al trabajo
viva la ganduleria..."

Lazaro nire solaskideak beste gauza bat ere aipatu dit: berebiziko barazkiak etortzen zirela orduan, barazki oparo eta bereziak izaten zituztela. Apartak dio, marrubi eta esparragoak (harrigarria!).

Eskolarako zaletasun handirik ez omen zutela gurasoengandik bildu, esaten du.



Bestalde, ongi ulertzen du bizimodua ateratzen lanik asko izan zutela haien gurasoek, oteak eta sasiak harturiko lur aldapatsu eta harkaitz artean. "Egia hori ere". Ikasi zuen apurra (Lazarok) 10-14 urte bitarte horretan ikasi zuela dio, eta orduan, aire! Imazen aroztegira lanera.

Gainerakoan, antzinako sagardo zerbitzu hark taberna bilakatzera ekarri zuen Santa Barbara baserria, egun, jatetxe jendetsu bilakatu delarik.

Auzoak

Akerregi

Martindegi

Osinaga

AUZOAREN HISTORIA LABURRA

Aski esanguratsua dugu auzoaren izena, **Akerregi**, kasu honetan. *Aker* eta *hegi*, etxabere bat eta orografiaren aldetik berezia den parajea, horra. Hor, bada, auzo guztira bere izena hedatu duen Akerregi baserriaz aparte, beste hiru bederen badaude landare izena dutenak: Ariztegi (haritza), Erratzu (erratza) eta Zumadi (zumea), naturaren osagai bailiran.

Hegi bat da, beraz, Akerregi auzoa. Jauretxe bat ere bazuen garaien batean, **Erratzu Zaharra** (Ik. Lope Isasti, 1625) "Frantses bidea" delakoaren ertzean, talaia bailitzan, auzoaren zaindari zena. Baina gainerakoan ez da batere auzo arranditsua, erribera lurrak, orain aski desitxuratuak, eta sagardotegiak (bolatokiekin) kenduz gero. Hauek, bai, parranda leku izatez gain, lagunartea franko sakatu izan zuten iragan mende horretan zehar.

BASERRIAK

- Akan
- Akan Berri
- Akerregi (Akarregi)
- Ariztegi
- Au Nerea (Primo-Enea)
- Borda Berri (Desagertua)
- Enporru-Enea
- Erratzu (Hondakinak)
- Erratzu Berri
- Jesus-Enea
- Joananton-Enea (Beloki Berri)
- Munto
- Santsanategi
- Turko-Enea
- Zumadi

SOLASKIDEAK

- Alkorta, Karmelo (Zumadi)
- Aranburu, Antonio (Santsanategi)
- Erdozia, Antonio (Joananton-Enea)
- Erdozio, Mari Jose (Au Nerea)
- Ezeiza, Engraxi (Jesus-Enea)
- Ibarguen, Marta (Turko-Enea)
- Ibartzabal, Asentsio (Munto)
- Irazusta, Felix (Erratzu)
- Izagirre, Joxe (Akerregi)
- Izagirre, Rufino eta Maria Joana (Akerregi)
- San Sebastian, Agustin eta Ugalde, Maria (Akan)
- Zabalegi, Milagros (Santsanategi)
- Zapiain, Mari Tere (Enporru-Enea)
- Zelaia, Joxe Mari (Ariztegi)



Denbora batean "Akan kuartela" deitzen omen zioten, diote Agustin San Sebastian (71 urte) eta Maria Ugalde (67 urte) senar-emazteek. Banago Akerregi jokoaren antzera Aker-Akar-aran (haran) ez ote den ere. Dagoen dagoenean utziko dugu.

Ipar-mendebaldera begira dago etxea, nahiz eta goizetik eguzki goxoa izaten den atzeko terrazan. Lehen, hiru aldetara zuen, agidanez, teilatuak isuria, bi alboetara bana eta txapelaren antzera, babesgarri edo, aurre aldean bestea. Obra egin eta etxea berritu zenean isuri bitan ipini zen etxea, eta gerora, terraza alde banatan ipini zitzaion.

Aita, Agustin San Sebastian Ibarburu, Martuteneko kartzelaren atzean dagoen **Bernategi** baserriko semea, eta ama, etxeko alaba, Maria Zubillaga Arrieta. Kalera ezkondu ziren baina aita gerrakoan soldadutzara, eta ama lau seme-alabekin Akan jaiotetxera izeba-osabaren babes bila.

Hona zeintzuk ziren lau hauek: Kontxita, Joxe Mari, Pakita eta Agustin, eta handik zortzi urtera, berriz, aita gerratik etorri ondoan, Benito senideetan txikiena.

"Gerrakoan aita nahikoa larri ibilia zela esaten zuten" diote. Inguruan bonba lehertu eta lurpean eskuko behatzak baino ageri ez zuela gelditu. Eskerrak ondoko lagunek arrapalada bizian jaregin zioten. Hartatik edo... nahiko gazterik hil zitzaien aita (43 urte).

Azkenean, Benito eta Pakita anai-arrebak gelditu ziren, bi bizitzako etxea antolatuz, batean Pakita eta bestean Benito bere familiarekin kokatuz.

Bizimoduaren oinarri sei-zazpi esne-behi izaten zituzten eta zekorren bat edo beste, haragitarako hauek. Esnea eta haragia, horra. Bestetik, esnea, arrautzak, patata eta ahal zena harturik San Martin plazara egunero. Tranbia Ergobian.

"Ahal zena harturik, bai", dio Mariak bere ama zenak esan ohi zuen bezala: "berdura pixka bat *egunero* eraman behar da, besterik ez bada ere, ogi bat, horrekin, ekartzeko".

Erreka etxe ondoan, arazorik ez garbitasuna egiteko edo ganaduentzat. Lurrak aski aldapatsuak, baina belardi onak. Agustinek aita hil zenean, 9 urteko mutikoa, ez zuen eskolarako aukera handirik izan.

Belar ondua oparo izaten zuten, etxekoaz gain Munto baserriko belardiak ere beren esku izaten zituzten eta. Azpietakoarekin buruhauste handiagoak. Urdaburu azpian eta Epele Errekan hau.





IZAGIRRE ADURIZ Familia

Joxe Izagirre dut solaskide, eskuineko etxeko jauna, Rufino ezkerrekoa den bezala eta Izagirre han ere. Biak lehengusu txikiak; bien aitak elkarren lehengusu eta aitonak, aldiz, anaiak. Garai batean bizitza bakarra, eta bi anaiok ezkondu zirenean bi bizitzako etxe bilakatu omen zen Akerregi. Joxek dioenez, Akarregi ez baino, nahiz eta etxeak "Acarregi" jarrita daukan, **Akerregi** dela baizik.

Gurasoak, Anastasio Izagirre Lasarte etxeko semea, eta Maria Aduriz Miner, Astigarragako **Goikoetxe** baserriko alaba izan zituen aita eta ama. Eta senideak: Axun, Joxe eta Patxi. Joxe, etxerako, Kontxi Ugalde Arruti, Urnietako **Agerre** baserriko alabarekin ezkonduta, alaba bakarra izan zutelarik, Mari Karmen.

Orain Joxe eta Kontxi aiton-amonak, Mari Karmen alaba Joxe Jabier Bengoetxearekin ezkonduta, Ainara eta Aritz seme-alabekin bizi dira etxean.

Sei bat behi, hiru bat zekor, zaldia eta karroa. Garai batean aitona joaten omen egunero Donostiaraino esnearekin, zeren bere alaba batek hotela baitzeukan (Hotel Dominika, Urbieta kalean) eta hara esnea eramaten zuten. Baratze ona, lur samurrak zirenez. Joxeren gurasoen garaian trenez edo autobusez baliatzen ziren. Joxek dio "tranbia hartzeko Ergobia nahiko urrun gelditzen zan eta".

Bi bizitzek betidanik zeukaten bakoitzak bere dolarea, bere sagardotegia eta bakoitzak bere bolatokia ere. Orain, erabat berria den sagardotegia daukate eta egungo makineria modernoaren jabe dira. Ez dute, bada, "arraunketan" jardun beharrik garai batean bezala.

Hamaika apustu jokatutako bazterra da, agidanez, Akerregi alde hau. Apusturako bolariek dirua (gerra aurretik duro zilarra) lurrera botatzen zutela dio Joxek. "Behin baino gehiagotan hatzaparka ederrak eginak zian, txanponak izkutatu ahal izateko, diruzko apustuak debekaturik, herriko guarda azaltzean..."

Apustu gehiagorik ere izaten zen. Esaterako, enborrak menditik garraiatu, bi lagunen artean bizkarrera jaso eta ehun metroko bidea nork lehenago egin jokatuz. Terreoan ere bai. Terreoa zer zen? "Jomuga batera tiro egitea". Eta tokan berdin zenbait alditan.

IZAGIRRE ZABALEGI Familia

Maria Joana (73 urte) eta Rufino (88) anai-arrebak ditut solaskide. Gogoan dituzte aiton-amonak. Aitona Manuel Izagirre etxeko semea, eta Joana Joxepa Rekondo amona, **Beloki** baserriko alaba. Gurasoak, aita Eusebio Izagirre Rekondo, eta ama Luisa Zabalegi Etxeberria, **Santsanategi** baserriko alaba. Seme-alabak: Zelestino, Bittori, Martin, Tiburtzio, Rufino, Benito, Justa, Pilar eta Maria Joana.

Rufino etxerako gelditu zena, ezkongea, Maria Joana arrebarekin bizi da.

Baserrian beti lauzpabost behi izan zituzten, idi parea garraiorako, zerria urtero etxeko jakia izatearren, eta hainbat arto eta babarrun, lur samurrak, erribera lurrak. Bizimodu honek bazuen beste oinarri bat, aitarena, garraio lana, idi parea eta galera deitzen zen orga handiaz baliaturik. Latseko Puig fabrikatik Donostiara *egur ikatza, alkohola eta ozpinaren gisako* zen ekoizpen bat arrain kontserbatarako, etxerakoan harea ekarriz etxeko eta auzoko baratzetarako.

Aitaren pasadizo bat kontatu didate anai-arrebek. Bezperan ekartzen zutela Latsetik karga eta goizeko hiruretan irteten omen Donostiara. Hala, behin, idiek bidea ikasita nonbait, eta badoa gure gizona zaku artean etzanda lotan. Ergobia parean mikeleteak alto!, zaku gainetik jaiki da gure gizona. Mikeleteak:

- Hori duk patxada, hori!
- Aitak (multa jasoko zuen kezkak harturik) ahopean "pezeta pare bat eman egin beharko zieat".
- Bai, bost baino errazago dek, mikeleteak.

Halaxe kontatzen omen aitak eta halaxe kontatu didate nire solaskideek.

Gero, Zelestino semeak jarraitu zuen, baina kamioiarekin. Sagardotegia izan da Akerregin bizimoduaren hirugarren oinarria. Bi etxeetan zen dolarea gorago aipatu bezala. "Orduan, gutxi botilatzen zen sagardoa, txotxean saltzen zen gehienbat". Bi familiak txandakatu egiten ziren. Bateko upela amaitu arte, bestekoa osorik gordetzen zuten.

Bestetik, sagardoa hein batean Hernanira eramaten zuten, "Hernaniko kalean garai hartan sagardotegia bai zan nonahi".

Urteak joan ahala, Rufino semea egin zen baserriaren kargu. Dolarea eskuz mugitu behar orduan, eguerdian senideak bazkaltzera etortzean bazkal aurretik "arraunean" saio bat burutzen zutela dio Rufinok.



Aiztegi



Egi-bistan dago izenaren esanahia eta haritz hitza daramala ere bai sustraian. *Aker– hegi* deitu hegi horretantxe kokaturik dago hain zuzen **Ariztegi** baserria, gaur egun oraintsu abian ipini den errepide berriaren azpitik pasatu eta malda gora joaz.

Zabala ez baina bi isuritako etxe tentea dugu Ariztegi. Ekialdetik sarrera, Akerregi aldetik lehorpe bat ere dolarearekin eta etxe ordekoa atzean, ukuilua eta mandioarekin.

Joxe Mari etxeko nagusia (67 urte) izan dut solaskide, eta aita zenak ezkondu aurretik, dio, erosi zuela etxea. Aita, Migel Zelaia Bereziartua, izatez Gaintzakoa eta ama Joxepa Olano Egia ziren, jaiotzaz Orendaingoa hau. Hona hauen seme-alabak: Maria, Joxe Mari eta Joan Joxe.

Joxe Mari gelditu zen etxean gurasoekin. Ezkondu eta emaztea Salustiana Irazusta Iraola **Landarbaso** (Errenteria) baserriko alaba, hiru seme izan dituztelarik: Migel, Martin eta Iñaki. Orain, aita eta ama Iñaki semearekin bizi dira Ariztegi baserrian.

Gurasoek, bertan bizitzen jarri zirenean, etxea zaharkitua eta bazterrak abandonatuak aurkitu zituzten. Lanik asko ibili zuten oro antolatzen edo birmoldatzen. Lau behi izaten ziren etxean Joxe Mari mutikoa zela. "Amak oiloak eta zerriak gobernatzeko aparteko grina zun, semeak dioenez. Oilategi ona eta hiru zerrama ezagutu nituan".

Aitak, Diputazioaren mintegian (Landare futbol zelaia orain) lan egiten zuen. Egunez, eta esan gabe doa, horrek asko mugatzen zuela baserri lana tartekatzeko. Beraz, seme-alabek gaztetxo zirela ekin behar izan zioten baserriko lanari. Adibidez, Joxe Mari hau bederatzi urte zituenean behiak uztarrian soro lanean hasita zen, eta sobera eskola gabe, gainera, berak dioenez.

Soldadutzara arte, baserria eta lan osagarri batzuk (eraikuntza esaterako) baina erabat baserriari atxiki zitzaion handik etorri ondoan. Emaztea esnearekin herrira. Gerezi, udare, sagar... fruta asko zuten garai batean.

Epela Errekatik azpigarria. Lanik aski eta komeria franko izaten zuten etxe azpiko maldan gora (puntakoak behar) karga garraiatzeko.



Ondik Primo-Enea bota diot aurrean izan dudan Mari Jose Erdozio Zapirain, bertako alabari, eta berak, entzuna, 1900. urtean eratu zela baserri hain zuzen, eta **Au Nerea** izena jarri ziotela ordura arte borda baino izan ez zenari. Honenbestez, argitu dugu izen baten zergatia baina Primo-Enearen aztarnarik ez dugu atera.

Txikia nolanahi ere **Au Nerea** baserria. "Ehun metro karratuko azalera besterik ez du oin bakoitzean, Behea guztia ukuiluak hartzen zuan, goian etxebizitza eta ganbara. Ez zuen besterik".

Joxe Zapirain eta Maria Altuna aitonamonak ezagutu zituen Mari Josek. Eta hauen seme-alabak: Maria, Sebastian, Jesus, Joxe eta Migel. Mutil guztiak ezkonge, eta Maria alaba ezkondu zen etxera, **Andola** baserriko Iñaxio Erdozio senartzat harturik eta honako haur hauek izan: Mari Jose, Joxe, Bixente eta Maria Jesus.

Behin baino gehiagotan entzun zion amari nolako panorama izan zuen ezkonberritan. "Senarra, lau anaia ezkonge etxean eta lau seme-alaba izan sei urtetan". Aita Diputazioko mintegian lanean eta bera, ama, otarrean haurrak hartu eta joaten omen zen zelaira lanera. Bazuen, agidanez, lana ugari haurrak zaintzen eta beste bost gizonezkoei beren otordu eta garbitasunak egiten. "Denak





kanpoan lanean, eta bata ordu batean eta bestea bestean, errelebotan, ordu desberdinetan otorduak atondu behar... eta gainerako lanak, baratzea... etab".

Aitak kanpoan lan egin arren, baserrian ere ari ohi zen orduz kanpo, eta lana franko eginak direla dio nire solaskide Mari Josek. Astoa, behiak eta baratze dezente egiten zutela dio, "patata, artoa eta babarruna, baita sagarra ere, egia esan, aitak eta amak lan ugari egin zuten beren denboran".

"Baserrian garo sailik ez eta Epele Errekara joaten ziran irastor bila, eta behin baino gehiagotan esaten zuan aitak nola handik etxerakoan bere jaiotetxean, Andolan, sartzen ziren salda pixka bat edo mokaduren bat hartzera".

Gero, senide denak kanpora lanera; haiei, berriz, indarrak urritu, eta orain etxe-lehor bilakaturik dago Primo-Enea.



Etxe koxkorra omen, arrunt zaharkitua. Lur onak, bai, eta Genua familia bizi zen bertan.

Etxea erortzear, kalera joan ziren bizitzera. Hartan bukatu zen dena.

Enporru-Enea



Meza Nagusira joateko aitona Antonio, garai hartan, txanbra, brusa gisako janzki bat, eguzkiak ez gorritzearren edo, alderantziz ipinita ekartzen omen, forrua bistan horra, eta handik eta harat enforrua, eta azkenean, **Enporru** eta **Enporrutarrak**.

Amonak, hau etxeko administrari nonbait, pezeta zilarra ematen omen zion aitonari kalerakoan, baina kanbioak ekartzekotan. Ekarri ere. "Hara, batekin bi ekarri dizkiñat" kris-kas eginez itzultzen zizkion txakur haundi edo txiki biak, bi doi-doian. Gainerakoa...

Aski harrera ona egin dit Mari Tere bertako alabak, gauza hauek oso gogoko dituela esanez eta pena duela eskola hain gutxi izatea deitoratuz. Mari Tere Zapiain (66 urte) izan dut, bada, solaskide. Zapiain izan direla beti zioen eta ez Zapirain. Deitura Udaletxeko idazkariak oker jarrita, ederki kosta ondoren (500,-pta.), eta ez oraintxe, zuzentzeko modua egin zuen familiak.

Jesus-Enea etxea dauka, bide aldetik, itzal eginez, **Enporru-Enea**k aurrean. "Angelu" jendearen jabetzakoa, 10.000,-pta. pagatuz erosia omen etxea. Bi uretako etxea zela dio, koxkorra lehen, goian etxebizitza, ukuilua behean, eta terraza eta ganbara zituen, artoa, patata...hemen. Lur onak, "azukrea baino hobeak" zituztela dio Mari Terek. Sokatira franko eginak dira. Astigarragan aspaldidanik 11.000,- pezetetan saltzen ari zirenean, hauek, azkenean erabat nazkatuta 5.500,-pta. metroko saldu behar izan baitzituzten.

"Ni txikia nintzen baina gogoan dut aitona", Antonio Zapiain Mujika bertako semea. **Pardiola Goikoa** baserriko alaba zen amona, Feliziana Iraola Lete. Hauen seme-alabak: Manuel, Isidra, Fidel, Anttoni, Fermin, Bixente, Joxe eta Joan. "Fidel, aita, gelditu zan etxean, goizuetar neska gazte batekin esposatuta". Hernanira 14 urte zituela neskame etorria, jangartxua oso, jaten ikaste aldera. "Bai ikasi ere"! esaten omen zuen berak. Maria Eskudero Arozena zen ama. Hona hauen seme-alabak: Mari Tere, Antonio eta Joan Bta.

Orain, Joan Bta. eta Petronila senar-emazteak eta bost seme-alaba hauek: Sonia, Iban, Igor, Vanesa eta Tatiana bizi dira elkarrekin Enporru-Enea etxean.

Aita "Biyak Bat" paperolan 48 urtetan, salbu eta bost urte espetxeak egindakoak. Zergatia galdegitean, hona erantzuna: "Frankoren garaian paper batzuk pasatzen harrapatuta. Kontrabando pixka bat egina ere bazan... Hiru hilabete osoak aita non zan jakin gabe. Hiru txakur haundi eta bi umerekin ama, ez zerurako eta ez lurrerako gelditu zan. Baldosa fabrikan lanean hasi behar izan zuan, ibaia zeharkatuz, herriraino joan eta itzulia egingo ez bazuan".

Gogoan du Mari Terek ama fabrikara joango bazen, "Xeberi" izenez, emakume heldu bat izan zutela etxean, haurrek izebatzat zeukatena. Egoera honetan, ukuilua hustu beharrean gertatu zen ama (hobe, jan beharrean). Gero, Goizuetako aitonak bidalita, bi zerrama jarri zituan eta ondoren, zerrikumeak hazi eta zerrikumeak osteguneta ferian saltzeari ekin zion.



Nafarroan bada, Baztanen, izen bereko herria. Dena den, garai bateko baserrietan *ainarraz* edo *erratzez* egina izaten zen "erratza". *Ruscus aculeatus* da bere izen zientifikoa. Baso zokoetan arantza eta bikor gorridun hosto txikiko landare apala dugu berau. Erratzuk bada, erratza den lekua esan nahiko luke.



Akerregin, Primo-Enea etxearen atzetik gora jo eta hegi batean kokaturik daukagu Erratzu (Berri) baserria, eta handik goraxeago Erratzu Zaharra, Erratzu (1610), Erraçu (1625) eta Erratzu (1780) idatzita dokumentuetan azaltzen dena. Dorretxe izana, Lope Isastik halakotzat ematen duen bezala.

Bi zatitan banatua eta bi isuriko etxea zen Erratzu Zaharra, esan dit Felix (79 urte) nire solaskideak. Atzeko partea aski urratu eta hautsia zuen jadanik. Aurrekoa belar onduz

tope beteta zegoen. Uda sasoia zen. Suak hartu eta belarra eta baserria han joan ziren suarekin. Beharrik, ordurako etxe berria eraikia zuten.

Albizturko **Urrutune** baserritik, han maizter, Erratzu erosi eta handik etorria zen familia. Gurasoak, Joan Irazusta Berakoetxea eta Fulgentzi Jauregi Uranga ziren, eta seme-alaba hauek: Maria, Antonio, Joxe Mari, Felix, Joan, Bernardina eta Bernardo.

Gauza izan ahala senide denak lanera irten ziren. Felixek dio hiru anaia, lehenik Kerejetarekin ibili omen ziren eraikuntza lanetan, gero beren kontura.

Benardo gelditu zen etxean, gazteena, Mari Karmen Gurrutxaga Arratibel ataundarrarekin ezkonduta. Eta hiru seme-alaba izan: Patxi, Mari Karmen eta Miren Edurne. Ama alarguna, Patxi eta Miren Edurne seme alabekin bizi dira orain baserrian.

Etxe berria eraiki, bazterrak garbitu eta bizimodua antolatu ondoan, hamar behi eta beste hainbeste zekor eta idi parea zituzten. "Pixka bat saiatuz gero, dio Felixek, bizimodua ateratzeko baserria zen". Lur ona, lursail handiak zituen Erratzuk. Iturria etxeko lurretan, baina hura lehortzean gaizki ibiltzen ziren, agidanez.

Gurasoak beti baserri lanari atxikirik bizi izan ziren. Esnea beti Donostiara. Gaur egun



ere, Patxi etxeko semeak, 30 behi eta 15-20 bigai, ukuilu zabala etxetik at, esnea (Iparlat) dauka bizimoduaren oinarri nagusi.

Aita, Felixen esanetan, txantxa puska bat gogoko zuen pertsona zen. Behin auzoko batek, kirten okerreko aitzurra eskuetan ikusita, hala esan omen zion:

- Joan, kirten hori etxean egina al dek?
- Ez, harako lizar azpi hartan.

Beste pasadizo bat kontatu dit Felixek. "Kontrabando bidean, (frantses bidea) pausaleku on eta egoki izana zan Erratzu Zaharra. Altzuetako Florentino "abiadore" famatuak ongi zekien jendea harat-honak pasatzen ibiltzeko, pausaleku eta bideen berri.



Etxe tantai handia da **Jesus-Enea** garai bateko Karabele-Zumadi-Ergobia bide nagusiaren ertzean ezkerretara kokaturik. Nire solaskide Engraxiren senarra Jesus bazen ere, aurretiko izena omen etxeak. Jesus, senarra, oso haurra zela etorri omen zen, 1920. urte inguru horretan, familia Jesus-Enera. Benito Iribar Illarramendi eta Justa Artola Esnaola gurasoak, eta hona seme-alabak: Jesus, Maria, Probi, Agustina, Manoli, Joxe, Serafina eta Mari Karmen.

Etxeak ukuilua eta dolarea zituen behean eta goiko solairuan etxebizitza; atzean mandioa ganbarara sartzeko. Baratze lanean gogotik saiatzen ziren eta bost bat behi, zaldia edo behorra izaten zituzten. Etxea malkartsua zen alde batetik, baina "fruta asko izaten zan eta klase guztietakoa **Jesus-Enean**; hango udare, *peilla*, melokotoi, sagar, gerezi, etab", esan dit Engraxik. Benito aita Añorgako porlan fabrikara (Rezola) joan ohi zen lanera, handik kanpo baserrian jardunez.

Jesus ezkondu zen etxera, emaztetzat Engraxi Ezeiza Iraola, asteasuarra, hartu zuelarik. Jesus ere Añorgan hasi zen lanean, hamaika urte egin bai bertan, baina hango hautsa ez nonbait ona bere birikentzat, hura utzi eta igeltsero lanera jo zuen.

Arropa non garbitzen zuten galdeginda, "errekan" dio Engraxik. Jesusek etxekoentzat eta inguruko beste batzuentzat egindako aska batean zutela *gobara* egiteko lekua. "Makina bat lan eta konponketa egin ohi zituzten aita-semeek han eta hemen".

Baserria eta beste hiru etxebizitza ere ezagutu ditu Engraxik Jesus-Enean. Eta telefonoa, garai hartan ia ezezaguna zena. Kontuak ateratzen hasita, 1950. urte aldera jarria zela uste du. Ondo gogoan du aldameneko tailerreko mandatuak ere beren etxean nola jasotzen zituzten. "Pentsa ezazu, sukaldeko altzariak egiteko tailer koxkor bat muntatu zuten auzoan eta ez zuten telefonorik; gure etxera deitzen zuten enkarguren bat zutenean eta nik sarritan joan behar izaten nuan haiei abisatzera. Orduan etzan gaurko konturik".



Joanton-Enea

Akerregi Auzoa



Antonio Erdozia (78 urte) bertako seme eta nire solaskideak ez du sekula entzun Joananton-Enea izenaren berri edo aztarnarik. "Nomenclator" zerrendan (1870) ageri den "Joanategui" hori berau ote?

Zumaditik gora aldapa atera eta gaintxo batean kokaturik dago, Erroilaburura baino lehen, ikuspegirik ederrenaren jabe den Joananton-Enea baserria. "Belarri muturrak ederki izozten dira neguan, dio Antoniok. Txarrena hego haizea da han, bazter guztiak txikituz".

Esan beharrik, bidegurutze nagusia dela Erroilaburu. Martindegitik gora bertara heldu eta eskuinera garai bateko "Nafar bidea" (Nafarroarako bide zaharra), eta Añoara eta Epele Errekara doana bestea. Orain osoki berriturik dago etxea, baina lehengo molde berberak mantenduz. Etxepean zuen ukuilua, bizilekua eta mandioa goian, eta gorago ganbara, belar ondua mandiotik eskuz jaso behar izaten zelarik.

Joan Bta Iribarren zen bertako aitona. Honen anaia zen Goizuetako "Xardia" deitu kontrabandista sonatua; eta Dolores Otaño, berriz, amona. Gurasoak, aita, Joxe Antonio Erdozia Mendiluze, Martuteneko **Goiaz Haundi** (orain Golf zelaia) baserriko semea eta Maria Iribarren Olano, etxeko alaba, ama. Honako seme-alaba hauek izan zituzten: Joxe, Dolores, Iñaxi, Joxepa, Iñaxio, Antonio eta Adela.

Joxe gelditu zen gurasoekin. Osasun berakoa bilakatu zen, gerrakoan bildutako emaitza zuen inola ere. "Aurrean" ibilia zen, hemendik hasita oinez, "atzeraka" Asturias (Aviles) alderaino. Han nazionalek harrapatu, "Langile Batailoi" batean Kastejon aldera esklaboak bezala trenbideak konpontzera. Gero, Dolores alaba zaharrenak bete zuen haren zuloa gurasoak bizi izan ziren arte.

Lau behi, zekor batzuk, lur samurrak eta baratze ona, Donostiara (Bretxa) egunero. Baserriari loturik bizi izan ziren aita eta ama. Ura nahikoa arazo izan zuten, Santsanategiko iturrira. Herriko uraren gordailua ere, etxetik aski hurbil baina beherago eta ponpatu egin beharra gertatu zitzaien, gero.

Antonio hau, nonahi (eta leku askotan ibili da bere bizitzan), "Patas" izenez ezagunagoa zaigu. Ez-izen hori nondikakoa ote duen galdegin diot eta aitarengandik duela dio berak. Aita zena gizon lerdena omen zen (140 kilo) eta hura deitzen zuten "Patas". Antonio, aldiz, aita bizi zen arte, Patasen semea. Harrezkero hartu zituen, agidanez, titulu eskubideak. Sendagile zeregina ere harengandik jaso zuen semeak. Belar munduan ez omen du halako ezaupiderik, nahiz eta senda-belar asko eta askoren eta hauek dituzten bertuteen berri ongi dakien. Esaterako, pareta belarra (gibela garbitzeko), pixa belarra (giltzurruna), tomate zukua (kolesterola). Berbenari (froga asko egina) ez omen dio fede gehiegirik, jendeak uste duen bezalakorik ez behintzat.

Enplastu edo txaplatak dira bere espezialitatea, infekzio mundua, horra. Barruko (pleura, esaterako) nahiz kanpoko (handitu, zauri, zornadura...) infekzioak.

Munto



Leku izena nolanahi ere, baina Axentxio-Enea ere esaten zaio. Bi isuritako bi etxek osaturik dugu baserri hau, bata altuagoa eta hor etxebizitza eta bestea apalagoa, etxe ordeko dena. Zumadi-Erroilaburuko bidean eskuinera dago **Munto** baserria.

Azpititik etorria zen familia. Aitona eta gurasoak hain zuzen. Aita Inazio Ibartzabal eta Pilar Alkorta ama. Seme bakarra Axentxio, aitona bezalaxe.

Bai aitona eta bai gurasoak baserritik atera zuten bizimodua. Zortzi bat behi izaten ziren hor, zekor batzuk, idi parea, zerria etxerako ("hura hiltzean ondo" dio Axentxiok), oilo eta oilaskoak. Esnea Hernaniko kalera.

"Paradako zezena" izaten zuten etxean eta bi ere bai zenbait alditan, sos batzuen etorria ziurtatuz. Diputazioak antolatu Zezen Sariketa haietan aitak aurkeztu zuen hainbat alditan etxeko zezena.



Axentxio soldadutzatik etorri zenean kanpora lanera joan zen (Landaren lehenik, Arizmendin, Urnietan, geroztik), beti ere ordu tarteetan gurasoei lagunduz. Oroitzapen batzuen artean, baserri lana eskulan hutsa zela dauka gogoan. Lanik astunena Epele Errekatik garoa ekartzea bestea. Eta beste bat bitxia, komuniorako errezoak, ama hilik ordurako, aitona zenak erakutsi zizkiola.



omenclator" (1870) eta Hamarrenak (1610) zerrendan bietan azaltzen zaigu, eta bietan berdin idatzita "Sansanategi". Zer duen esanahia? Bistan da tegi atzizkia, Santso edo Santsa izan liteke sustraia. Agian Santsa-ene-tegi? Baliteke.

Martindegiko hegalean kokatzen zaigu **Santsanategi** baserria, Akerregin, Zumadi baserritik, Erroilaburuko bidean gora jo eta hirurehun bat metro ezkerrera, hain zuzen. Hau izan dute beti "gorputz bidea" eta herrirako bidea. Martindegira, ordea, Ergobia eta Donostiara joateko.

Bi isuritako etxe zabala eta betidanik bi bizitzakoa, erdian horma sendo batek banatzen dituelarik. Terraza ederra alderik alde hegoaldetik eta hau ere bitan banatua. Batak sartaldetik du sarrera nagusia, sortaldetik besteak. Honek, gainera, terraza estalia iparraldera, beiraz hornitua, Hernani eta Donostialdera ikuspegirik ederrenarekin. Nola batak hala besteak lore eta landare apaingarriz jantzirik ataria.

ZABALEGI Familia

Gurasoak, Teodoro Zabalegi Etxeberria, bertako semea, aita, eta Joxepa Petriarena Olaziregi, ama, errenteriarra, Txirritaren kidekoa eta bertsozale porrokatua. Hauen seme-alabak: Pakita, Maritxu, Pilar, Joxe, Euxebio, Xole eta Milagros. Pakita, Maritxu eta Joxek baserrian egin dute bizimodua. Orain, Joxe, honen arreba gazteena Milagros eta Xabier eta Iñigo honen bi semeekin bizi dira Zabalegi familian.

Baserrian eta baserri lanean bizi izan ziren gurasoak. Bospasei behi, zaldia saskiekin, zerri bat etxerako eta esnea nahiz barazkiekin Donostiara egunero, oraino Joxek jarraitzen duelarik.

Baina aldi berean, arreba eta ilobek beste norabide bat eman diote baserriari. Hasteko, ukuilua etxetik at daukate, eta ordainez etxea



nekazal turismoko etxe bihurtu dute. Bestetik, aterpe eder bat, sagardotegi dena, etxetik beheraxeago, aurrean bere aparkalekuarekin.

ARANBURU Familia

Esan gabe doa, Aranburu deitura aspaldiko mendeetan barna belaunaldiz belaunaldi gorde ahal izan dela etxe honetan. Antonio, etxeko semea (57 urte) oroitzen da zerbait amonaz. Praisku Aranburu Señorena eta Joxepa Arruabarrena Irastortza, zaldibiarra, ziren gurasoak. Eta hona seme-alabak: Joakin, Migel, Joxe, Mariano, Manoli, Mari Karmen, Antonio eta Iñaxi.

Antonio etxean gurasoekin; ezkondu eta emaztea, Milagros Sagastume Santesteban, Zubietakoa (Nafarroa) jaiotzaz. Hiru seme izan dituzte: Eustakio, Iñaki eta Antton. Egun, Antonio eta Milagros senar-emazteak, hiru semeak, Antonioren anaia Joxe, eta emaztearen aita eta ama bizi dira bertan.

Lauzpabost behi, astoa eta behorra, zerri pare bat etxerako, zerrama bi eta oilo multzo bat izaten zituzten. Oilategi ona beti, zeren eta aitak Irin Fabrikan lan egin ohi zuenez, *galtxikina* eskuratzeko modua izaten baitzuen. Ama esnearekin, barazki eta arrautzak bereziki, eta fruta bere sasoian (sagar, udare, gerezi...) harturik Donostiara jai eta aste (jai egunetan esnea soilik).

Aita, erreleboan, bada ere, lanera ordu tarteak baserriari emanez. Haurrak eskolara, eta etxean (ganadu jana, behi zain, baratzean) amaren esanera. Gero, Antonio etxean gurasoekin. Neguan eraikuntza lanean, baserrian udan. Soldadutza ostean, fabrikara (Bakeliten) erreleboan, baserriko lanarekin tartekatuz. Gaur, 1963. urteaz geroztik herriko basozain dugu.

Ia oraintsu arte (80. urtea) maizter izan dira, eta legeak bide emanez, orduan egin ziren bi auzoak etxejabe. Antonio, amari entzunda, oroitzen da nola Santo Tomas egunean errenta pagatzera joaten ziren. Hona zer errenta modu zuten: sagarra erdira, gurdi bat egur urtean, gariak egiten zuen prezioaren arabera dirutan, eta gainera, kapoi parea eta oiloa.

Turko-Enea



Ez da batere erraza izen honen nondik norakoa argitzea. "Nomenclator" zerrendan "Turconia" (1870) ageri zaigu. Aurrez, noizbait, "Nagia-Enea" omen zuen ez-izena. Hau argiago dago nolanahi ere. Zumadi – Erroilaburu bidean gora goazela Munto baserria baino metro batzuk aurrerago dago Turko-Enea baserria.

Orain erabat berritua "luze antza zuen, dio Marta bertako etxekoandreak, etxe koxkorra



zenez, zabaltzen utzi ez eta luzatu egin genuen zertxobait ekialdera". Gurasoak bizi dira terraza azpiko apartamendu goxoan, Anjel eta Irati anai-arrebak beren familiarekin goiko bizitza bietan.

Ukuilua, etxetik at. Bi behi, hauen zekorrak, etxerako haragia izateko eta mandoa bere karroarekin jatekoa eta simaurra garraiatzeko.

Gaurko etxekoandrea Marta Ibarguen Mitxelena, sortzez oiartzuarra, ezkonduta hona etorri zenean, ama alarguna Joana Salaberria bizi zen bertan bost semerekin. Zizurkildik etorria zen familia. Aita, Patxi Ormazabal hilik zen ordurako. Hona bost semeak: Antonio, Joxe, Migel, Joan eta Joxe Mari. Beste bat, zaharrena jaiotzerakoan hila, *bularrerako* neska bat ekarri eta arreba ordeko bat, Joxepa izenez ere bazuten.

Antonio eta Martak seme-alaba hauek izan dituzte: Jone, Patxi, Rosi, Joan Mari (Etxeberria parkean poliziak tirokaturik craila), Anjel eta Goreti.

Amak, agurtzerakoan, "zatoz, zatoz" esanez etxe barrura eraman nau, eta ilusiorik handienez, duela gutxi familiari eman zaion oroigarri bitxia erakutsi dit. Zurean landuriko koadroa da funtsean. Bietan jarrai zuhaitza ezkerrean, gurpila erdian sei erradio eta hutsune bat dituena eta euskal mapa hutsune horretan. Eskuinean argazkia eta honen azpian idazkun hau:

J. M. Ormazabal Ibarguren
"TTURKO"
EUSKAL HERRIKO ASKATASUNAREN ALDE BORROKATZEAGATIK ERAHILA"
1964- 1991



Akerregi dago izenaren sustraia zein den *Zume* (zur mehe) + *di*. Ez da besterik. Eta halaxe aditzera eman didate etxekoek. Badute agiri bat, etxean, 1863an eraiki zela dioena. Badator "Nomenclator" zerrendan (1870).

Garai bateko bide zaharra, bide nagusia, ez ordea, errege bidea (gure errepidea), zeren hau Zinko-Eneatik Floridan zehar baitzihoan Ergobiara. Bide nagusia, aldiz, Karabele – Zumadi (bidearen ezkerretik) – Oianume – Gurutzeta – Ergobia izan zen. Etxe apala, orain zaharkitua, baina etxe bildua eta egokia lehengo garaietan. Dolarea ere zuena.

Gurasoak baino ez zituen ezagutu etxean bertako semea den Karmelo Alkortak, (87 urte), eta berak dioenez, munduko lehen gerrakoan jaioa da. Askotan entzun izan zuen aurrekoengandik amerikano batzuk zirela markes edo horrelako tituludunak etxejabeak, Zumadi eta beste askoren jabeak zirenak, negua Ameriketan eta uda hemen pasatzen zutelarik. Haien kotxeroa omen zen aita, zaldiorga dotorean harat-honak paseatzen erabiltzen zituena. Ezkondu aurretik eta gero ere bai urte batzutan, Zumadira ezkondu ondoan. "Ez Jesus eta ez Amen", etena gertatu eta Ameriketan betirako gelditu ziren arte. Hala, familia maizter izan zen duela 30 urte arte, etxegile batek baserria bere lurrekin erosi baitzuen, Karmelo etxeko jaunari paper txar bat sinatuarazi ondoan. Harrezkero, lursailak jan zizkioten eta etxea soilik gelditu bertan bizi ahal izateko, harik eta duela 9 urte baserria bertan behera utzi behar izan zutelarik.

Aita, Joxe Alkorta Arruti, Asteasukoa zen izatez, eta Maria Oiartzabal Arruti ama, **Iturmendi** baserriko alaba. Hauen seme-alabak: Inazio, Patxi, Doroteo, Jesus, Zipriano, Karmelo eta Pilar. Karmelo, maiorazko, Karmen Irazusta Goikoetxea, Abaltzisketan jaioa, ematetzat harturik. Seme-alaba hauek izan dituzte: Feli, Iñaxio, Pepi, Mari Karmen eta Pili. Orain, gurasoak bi alaba gazteenekin bizi dira "Zumadi Berri" etxean.

Hiru edo lau behi, zekor batzuk, zerri bat, eta gerora, Karmelo etxera ezkondu ondoan sei behi eta zazpi-zortzi zekor edukitzera iritsi ziren, eta bi zerrama. Soldadutza luzea egina dugu Karmelo. Gerra aurretik bi urte. Amaitu, etxera etorri eta gerrakoan beste lau urte. Badute garai horretako oroitzapen atsegin bat. Nonbait aldi hartan Karmelo Donostiara esnearekin. Honek dezimo bat loterian jokatu pezeta baten trukean, eta 6.000,- pezeta egokitu, horra. Eskerrak "dirutza" horri moldatu omen ziren gurasoak Karmelo soldadu izan zen bitartean. Gero, amak hartu zuen tratuarekin Donostiara joateko zeregina. Baratze poliki, eta sagar asko. "Etxerako pitarra eta sagardoa egin nahi, auzoko sagardogile handiek muzin, orduan jarri genun tolarea etxean". Ehun karga sagar izandako urteak ezagutu ditu. Karmelok, hala ere, ez du ez ardo ez sagardo edo alkoholik bere bizitzan dastatu. Behin Astigarragatik, bai omen zetorren etxera, tabernara sartu ura eskatu eta ukatu; urik eman ez tabernan.

Lanera, norabait joan ote zen, fabrikaren batera esan nahi nion eta berak: "Lanera? Bai, etxeko zelaira". Parranderoa ez omen inoiz izan, eta ama administrari ona, etxean jateko zerbait sortu izan duen jendea dugu Zumadi baserrian izandako familia.

AUZOAREN HISTORIA LABURRA

Gaur egun ez gara ohartu ere egiten gure herri eta auzoetako bide eta bide sareak zer nolakoak izango ziren, hurrik eman ere, garai batean. Ken esaterako, azkenik egin den hego-saihesbide berria. Ken Zinko-Enetik Orbegozoeneko errepidea eta ken halaber Ereñotzurako edo Nafarroarako errepidea, eta pentsatu al duzu orduko errealitatea zer izango zen?


Martindegi, salbu ordekako zenbait baserri (erribera lurrak) auzorik txiroena bezala zen, iparraldeko hegian eta leku laiotzean kokaturik baitago bere lurralde guztia. Baina Martindegi oroit bidegurutze zen Donostiarako (Hernani-Balantxa-Karabele-Zumadi-**Martindegi**-Ergobia-Astigarraga) eta halaber Nafarroarako (Karabele-Zumadi-**Martindegi**-Erroilaburu-Epela). Hori eta horrenbestez izan da ardatz Martindegi lehengo denboretan.

BASERRIAK

- Añoa Zaharra
- Añoa Berri I
- Añoa Berri II
- Ezekiel-Enea
- Lizardi (Pepa-enea)
- Martindegi
- Oianume
- Polipaso (Polit Baso)
- Santio-Enea (Artiñenea)
- Senper (Bordatxo)
- Tabla-Enea
- Teileri Zahar
- Teileria
- Txandre-Enea
- Zelaia-Enea

SOLASKIDEAK

- Alzuri, Jesus (Añoa)
- Barrenetxea, Asentsio (Oianume)
- Errazkin, Joxe Manuel (Teileria)
- Etxeberria, Joxepa (Añoa)
- Gainzerain, Joxe Antonio (Zelaia-Enea)
- Genbeltzu, Ebaristo eta Bernarda (Tabla-Enea)
- Imaz Etxeberria, Joxe Migel (Senper)
- Imaz Etxeberria, Inaxi (Teileri Zahar)
- Irazusta, Karmen (Polipaso)
- Larrarte, Rosario (Txandre-Enea)
- Lertxundi, Joxepa Antoni (Ezekiel- Enea)
- Lete, Maria eta Inazio (Martindegi)



Añoa" idatzita dator Nomenclator zerrendan (1870). Zer ote den **Añoa** izenaren esanahia? Lizaso familiako alaba Ana Marik zera dio, artalandareari galdorrean ateratzen zaion astaputzaren gisako punpuila beltz hori dela añoa. Dagoen dagoenean uzten dugu auzia.

Erroilaburu deitu bidegurutzean gora jo eta bizkargune baten aurkitzen da **Añoa**. Handik Epele Errekara ere badago bidea, bide sastarra garai batean, gero harriztatu eta zabaldu zena, eta orain azkenik ormigoiz zoleztatua.

Hiru bizitzako baserria, hobe hiru baserrik osatua zen **Añoa Zaharra**. Hauetarik bi, ezkereskuin bide aldetik eta Astigarraga aldera hirugarrena. Duela 35 urte erre egin zen Añoa, eta gaur egitura berriko etxe bi daude, bidez azpitik, lehenaren ordainez, batean Lizaso familia eta Altzuri familia bestean bizi direlarik.

Lehenaren pareta zaharrak ikus daitezke hein batean. Harri mota ezberdinez egina zen, agidanez. Denetarik bada hor, hargorria, tupa harria, erreka harria, kare harria, tupa eta karea nahasiz eta bata bestearen gainean ipiniz eraikia zela nabarmen dago.

LIZASO Familia

Aita, Joxe Domingo Lizaso Otamendi, izatez amezketarra, eta ama Joxepa Etxeberria Zaldibe, Astigarragako **Santio-Enea** baserriko alaba. Eta hona hauen seme-alabak: Joxe Domingo, Pedro Mari, Ana Mari eta Arantxa. Orain, Joxepa ama, Joxe Domingo semea eta Ana Mari alaba Joxe Antonio Galarraga bere senarrarekin bizi dira baserrian.

Bizimodua nola? "Ahal zan bezela, dio ama Joxepak, ezkonduta zorpean jarri ginen eta, ikusi besterik". Bi behi, handik zenbait urtera, zorrak ordaindu ahala, hirugarren behia. Funtsean, baserri koxkorra, aita lanera, jaiegunak barne, hileko 900,- pta, milara iritsi gabe, dio, hasiera batean.

Gaur, etxean, bi behi, bost txahal, zortzi zerri eta baratzea, uda garaian batik bat.





ALTZURI Familia

Etorkinak, arantzatarra familia. Aita Euxebio Altzuri Zozaia eta ama Agustina Altamira Narbarte. Seme-alabak: Maria Luisa eta Jesus. Anai-arrebak orain ezkonduta, bakoitzak bizileku bana hartuz etxe berean bizi dira. Jesus, Mari Kruz Olano Tolaretxipi, Urnietako **Makinetxe** baserriko alabarekin ezkonduta dago. Bi alaba izan dituzte: Gurutze eta Ainhoa. Orain gurasoak bizi dira soilik etxean.

Baserria erosita, zorpean sarturik ziren hona etorri zirenean. Bi behi, astoa, ganadu jana sortaka askotan etxera. Aita Elektrokimikara lanera, bide zidorrean behera fabrikaraino. Erreleboan lan, baserriari ordu tarteak emateko moduan. Hala, seme-alabak eskolara joan ahal izan ziren. Jesus, hamalau urterekin Zikuñaga papelerara eta Bakeliten gero.

Gaur jubilaturik, andreari lagunduz, etxerako baratzea, zekor pare bat eta hamasei ardi bazterrak garbi eduki ahal izateko. Hori da guztia. Eta... dolare koxkor bat etxe ordekoan.

Ezekiel-Enea

Martindegi Auzoa



Izatez, garai batean Etxeberri omen honek bere izena. Martindegi auzoa soilki baserriz osatua zen garietan azkena eraikitako etxea nonbait. Aitona defuntuak hala esaten zuela diote. Gero, **Ezekiel** izeneko beste bat bizi izan bertan eta hortik oraingo izena.

Martindegi auzorako sarreran bidez ezkerretik eta Tabla-Enea baserriaren teilatupe berean. Etxe bezala lehengo moldeak jarraitzen, baina berritua dago. Aspaldi, duela 40 bat urte, obratu zela dio bertako etxekoandreak. Atzean estalpe zahar bat lehen, terraza orain eta eskuinetik, berebat, terraza, luze eta estua, balkoiaren funtzioa duena.

Joxepa Antoni nire solaskidea ezkonduta etorri zenean, senarraren gurasoak eta familia bizi ziren bertan. Hauek ezkondu zirenean, sartu zen Aiertza familia etxe honetan. Nagusiak bidali egin zuen aurreko familia San Martinetan "errenta pagatu ezina edo gustukoa ez zuelako". Joxepa Antoni hau bertara ezkonduta gerotxo ere maizter izaten jarraitu zuten. Gogoan ditu urteko errentaren xehetasunak. Urteko 5.000,- pta dirutan, oilanda parea San Joanetan (Tolosan etxejabeak) eta kapoi parea Santo Tomasetan (13 libratik gorakoa izan behar honek). Nagusiak, aldiz, kapoiak eramatean gosaria eta bakailao eder bat eman ohi zion maizterrari.

Aitona, Bernardo Aiertza, asteasuarra zen, Hernanira morroi etorria, eta amona Teresa Orbegozo, Astigarragan jaioa. Eta Joxe Mari, Manuel, Joxe, Bixente eta Maria Dolores seme-alabak.

Joxe Mari etxean gurasoekin, emaztetzat Joxepa Antoni Lertxundi Mujika, Urnietako **Zuloeta** baserriko alaba harturik. Hiru seme-alaba izan zituzten: Maritxu, Bernardo eta Joxe. Ondo eskolatutako seme-alabak ditu, amaren gogoz eskolatuak, zeren eta amak berak eskola handirik ez eta asko sufritua baitzen. Baserri punta batekoa izatez gain, 9-24 urteak bitarte neskame egona, horra.

Aita, maiorazkoa izanik baserrian ari izan zen beti. Esan beharrik, maiorazko izateak bazuela abantailarik, denborarekin etxearen eta lurren jabe egitekoa. Baina kontrakorik ere bai, aitaren senideak irabaziak (kanpoan lanean) berentzat eta etxean mantentzeko obligazioa zekarkion. Halarik ere, maizter izatetik etxearen jabe izatera pasatu ziren.

Lauzpabost behi, zekorrak txikitan atera, esneaz baliatzeko. Aparte, lur onak eta baratze handia izaten zuten "oraingo fabrika tzar hauen lurretan". Esnea eta barazkiekin, bada, Ergobian tranbia hartu eta Bretxako plazara. "Goizean 5:00etan jaiki ohi ginan, behiak bildu eta 6:40etako tranbia hartzeko".

"Otorduak esaten duzu? Babarruna urdaikiaz gozatua eguerdian. Arrain pixkaren bat (perloia, arrain gorria... merkeena) saltsan patata puska batekin afaltzeko. Amona zenak bazekien, bai, noizbehinka, kokotea egosita zopa goxoa egiten. Bestela taloa eta esnea". Bestetik, entsalada jaten goiz ikasiak omen ziren. Amona zenak azukrearekin entsalada maneatzen zuela dio hasiera batean. Haurrak etxean izan zituen Joxepa Antonik, medikuaren laguntzarekin. Urtetan asegurua pagatu eta pentsio koxkor baten jabe da orain gure amona hau.

Lizardi (Pepa Enea)



Hernani–Astigarragaren arteko mugarri egiten duen etxea dugu **Lizardi** baserria, Martindegiko auzoan eta Martindegi etxearen alboan.

Etxe xaharra, hutsik aspaldian eta ia erorian dagoena. Garai batean hiru bat behi izaten omen ziren hor, baina kanpora joaten bertakoak lanera.

Alkortatarren jabetzako etxea, Alfontso Legorburu eta beronen familia bizi izan zen azkenekoz etxe honetan. Gizaseme tantai eta lerdena zela Alfontso hau ezagutu zutenek diote. Pasaiatarra izatez, eta arraunlari ona izana.



Martindegi



Zumadi eta Erroilaburuko bidearen ezkerretik Zelaia baserriaren atzean, Astigarraga aldetik eta beronen mugan daukagu **Martindegi** baserria. Izenak ez zailtasun handirik, *Martindegi* (tegi), Martin-Enea edo Martinen etxea izango litzateke gaur egun, ez du izen honek isilpean gordeta beste gakorik.

Etxe handia, aski tantaia, bi isuritakoa eta fatxada ekialdera begira, nahiz eta, saihetsetik sarrera eta ukuilua dituen. Bi bizitzako etxea, bi familia, Lete eta Tolosa, elkarren lehengusu direnak. Tolosa familiak, bazterrak garbi edukitzearren, ardi batzuk baino ez dauzka.

Maria eta Inazio anai-arrebak izan ditut, Lete familiakoak, solaskide. Hauek 8 eta 11 urte zituztela jaitsi zen familia Mendizabal (orain jatetxe) baserritik **Martindegi** baserrira.

Aita, Gabriel Lete Albistur, ordurako hilik zen, ama alarguna, Maria Tolosa Lete, hauen seme-alabak: Joxe Martin, Iñaxio, Maria eta Kristina, aitona Iñaxio eta amaren bi ahizpek, Joxepa Iñaxi eta Joakina, osatzen zuten familia. Orain, aurreko guztiak joan eta Iñaxio eta Maria anai-arrebak bizi dira etxean.

Aitarik gabeko familia. Aita nola hil zen galdegin diet. "Aita nola hil zen? Hestea lehertuta, horra". Medikua zaldi gainean ibili ohi zen, agidanez. Abisatu eta ezin zuela hark, ezkontza batera zihoala. Hurrengo egunean etorri bai, baina aita ordurako (peritonitis) hestea leherturik. Hartatik hil zen.

Nahiko bizimodu estua izan omen zuten Martindegin bertako lehen urtetan. Eskerrak aitonari eta izeba biei. Hiru bat behi, baserri txikia zela esan didate, eta maizter ziren, gainera. Lur onak eta baratzea ere bai, aski ederra. Izeba Joxepa Iñaxi, egunero Donostiara (Bretxa) 14 urterekin hasita 88 urterarte. "Zahartuta ere segi, ezin etsi, ito egiten zen etxean".

Aitonaren garaitik zuten idi parea, batera eta bestera deitzen zioten lekura joateko. "Ibili pobrea" dio Iñaxiok. Honek, bilobak, hartu zion gero aitonari txanda, eta honek harri-garraioari ekin zion idi parea hartuta, Atxorroko harkaitzetik (harrobia) Adreilu fabrikara. Harri berezia, *"hargorria"* dio Inaxiok, errotan haustu eta adreilua egiteko erabiltzen zen. Normalean hiru itzuli, goizetik bi eta arratsaldean bat. Goialde hartan lurrak zituztenez, harakoan simaurra eraman eta harria ekarri egiten zuen zenbait alditan. Eguraldi onen batzutan lau itzuli ere egiten zituen.

Urdaburuko harkaitzetik garoa. "Haiek ibiliak, halakoak!" Goizero bostetan irten etxetik eta euriak jotzen bazuen hutsik etxera, edota zenbait alditan su-egurra etxerako nahiz auzorako.

"Nola moldatzen zinen harri garraioa eta baserri lana batera burutzeko?"

"Arratsalde batzuk libre hartuta. Zera izaten zan arazoa, fabrikak eske handia zuanean. Orduan buru belarri ibiltzen ginan".

Komediak idi bat zaharkitu edo zauritzen zenean izaten zituzten. "Zaharrak gutxi balio saltzeko, berriak asko erosi ahal izateko".



Etxeak Oialume dauka, eta Koro bertako etxekoandrea hala den ustetan dago. Oihalume (zapia/haurra) bi gauzak bata bestearekin ikustekorik baduten arren, ez dirudi horrelakorik. Paralelismoz Sagastume sagasti gaztea baldin bada, *"Oihan ume"* ohian edo baso gaztea izan behar. Ez dago sobera zalantzarik horretan. Gainera, lehen-lehenago Litzartxueta omen zuen izena. Hernani—Astigarragako mugaren gain-gainean kokaturik dago historia bitxiko **Oianume** baserria.

Agidanez, Martindegi auzoko seme bat, beste asko bezala, Ameriketara joana, handik sos batzuk eginda etorri eta etxekoek:
- Zer egin behar dek orain?
- Hortxe, etxe bat altxa.

"Leon Castillo" bota eta Hernanira suertatu. Halatan bada, sukaldea Hernaniko partean eta gainerakoa Astigarragan daukala eraikia dago etxea.

Alabaina, orain Diputazioak edo erakunde horretako teknikariek, hori eta horrenbestez, etxekoekin deus kontatzeke, etxe ondoko erreka hartu dute mugatzat. Auzia, begibistan, puntu honetan datza: familiak betidanik hernaniartzat jo duela bere burua, hernaniar izan direla betidanik. (Ikus artxiboa). Zera ailegatzen dute:
- Hernanin jaio eta Hernaniko parrokian bataiatuak izan direla.
- Zergak Hernanin ordaindu.
- Gorputz bidea Hernanira, hildakoak Hernaniko hilerrian.
- Hernanira botoak ematera.

"Arrazoi gehiago behar ote?"

Etxeak oraingo egitura bera zuen, planta bat gutxiagorekin. "Aita zenak altxatu zuen hau". Garai batean, Hernani aldetik sarrera nagusia, behean ukuilua iparraldetik eta, taberna edo denda koxkor bat denetarik (janari eta edari) zuena hegoaldetik.

Asentsio etxeko nagusia solaskide, Joan Joxe aitonaz oroitzen da. Gurasoak, aita Jabier Barrenetxea Aizpurua, **Lonja** baserriko semea eta ama, bertako alaba, Kristina Agirrezabala Lete. Honako seme-alaba hauek izan zituzten: Iñaxio, Joan Joxe, Pedro, Joana, Asentsio, Manoli, Margari eta Joxe Mari. Gurasoekin Asentsio gelditu eta Koro Lasarte Garmendia emaztea, Urnietako **Aierdi** baserriko alaba, eta Ander eta Estitxu seme-alabak. Orain, senar-emazteak, seme-alabak eta izeba Joana bizi dira etxean.

Baserria ez zen handia. Hiruzpalau behi, zaldia (orga, lera, saskiak), zerria etxerako eta baratze puska bat izaten zuten. Esnea eta barazkiekin Donostiara. Beharrik, aita herriko basozain zela, etxerako sos batzuk bildu ahal izateko. Horretaz aparte, taberna koxkor bat, eta bilera igande nahiz jaiegunetan. Aski ezaguna da inguruotan *bilera* deitu gazte festa hau, 58 denboraldi bete dituena. Agidanez, datorren San Josetan beteko ditu 59 urte, apustu bat bitarteko sortu zen bilera edo gazteriaren biltoki honek Oianumen.

Polipaso

Martindegin gora Erroilaburuko bidean gora abiatzean ezkerrera jo eta Santio mendiko hegalean bi baserri baizik ez daude Hernaniko herriaren lurretan, Santio-Enea bata eta Polipaso bestea. Ez dakite nondik etor daitekeen **Polipaso** izena. *Polit eta baso?* Ez ote interpretazio errazegia? Agian bai.

Polipasoren kasura bilduz, borda koxkor txuri eta polit bat baino ez dago orain lehen baserria zen lekuan. Hura, bi isuriko etxea omen zen, aurrean estalpea eta saihetsean mandioa eta beste estalpe bat zituela. Behean sarrera nagusitik sartu eta ukuilu bat eta sukaldea eta beste sarreratik beste ukuilua. Goian solairu bat eta ganbara, garaiko baserrien antzera.

Karmen dut solaskide, eta **Polipaso**ra noiz etorri ziren galdetuta, "Hara, 77 urte ditut egun eta 3 urte nituela etorri nintzan, zuk atera kontuak" Beraz, 1921ean etorri ziren Iñaxio Irazusta eta Maria Goikoetxea senar-emazteak eta Fermin, Joxe, Joxepa, Karmen eta Migel seme-alabak Abaltzisketatik Polipasora bizitzera. Hemengo anaia bat hara eta hauek handik hona trukea egina zuten, agidanez. Eta hemen jaioak dira Antton, Patxi, Joxe Martin, Roxari, Iñaxi eta Anjelita.

Bat hona lanera eta bestea hara, ama Maria eta Migel (*Polipaso* segalari eta aizkolari txit ezaguna) gelditu ziren azkenerako baserrian, eta Migelek Igeldon etxea eraiki zuenean atera ziren baserri honetatik azkeneko Irazustatarrak.

Lur batzuk puskaka-puskaka saldu zituzten; beste lursail batzuk eta baserria, berriz, **Santio-ene**koek erosi eta etxetxo moduko bat egin dute bertan, eta eurek ibiltzen dituzte halaber hango lurrak.

Ez zen urte asko bizitu Karmen **Polipaso** baserrian, baina badu nahikoa bizipen. Esaterako, 7 urte zituela atera zen neskame "Añoa baserrira haurraren sehaskari eragitera. Artean alpargatarik jantzi gabea nintzan, eta hara joandakoan alpargatak eman eta lotzeko esan zian etxekoandreak eta nik enekiela. Nola jakingo nun ba, inoiz enun izanda?". Baserria txikia zelako atera al zen hain gazterik, galdegin diot, baina ezetz, Hernaniko baserririk handiena zela bere garaian. Neguan artzaina eta udan belarra ondu. Zazpi bat behi, lau zekor, behorra "zuri-zuria, ama haren gainean joaten zen enkarguak egitea, eta baserri gehienetakoa, oilo, untxi, zerri etab. Aita, bati eta besteari laguntzen ibiltzen zen beti, eta fede handiko gizona zen, oso elizkoia. Gure etxean asko errezatzen genun, eta



gogoan det behin nola *Aita Gurea* errezatzerakoan *emaiguzu eguneroko ogia* esaterakoan, sardinzarra eta taloa afaltzeko izaki, anaia batek "eguneroko ogia? nik ez det ba ikusi" esan, eta aitak denak kanpora bidali ginun, ez afari eta ez ezer".

"Etxean urik ez eta beheko errekatik ekartzen gendun etxerako ura eta hara joaten ginen arropa garbitzera. Behin ama azaltzen ez eta aitak amaren bila joateko agindu. Han zegoen gaixoa hotzak erabat gogortuta. Etxera ekarri, ur berotan mantak sartu, haiekin bildu eta ekarri zuten nolabait bere onera. Baina gure amak ikaragarriak ikusi zituen. Etxean operatu zuten Hernaniko Doroteo Irigoien eta Donostiako Albea medikuek, hamaika lagun kabitzen ziren sukaldeko aulkia koartora eraman eta haren gainean, petroliozko kinkiaren argira. Garrasi batean egon zen ama gaixoa eta hala esan zigun aitak, ama lo zegoela eta isilik ibiltzeko".

"Ama osatu bitartean, auzokoari eskatu zioten gure kargu egiteko. Egunean ogi xerra bat ematen zigun, horrela pasa genitun 22 egun. Orain anemia eta antzekoak izango lirateke baina guk han pasa genitun sagastiko sagar kondarrak eta harrapatzen genuna janez, bizirik aterako baginan".

Aurrean dudan solaskideak esan bezala, luze joko luke familia honek jasandakoak hemen idazten hasiz gero, eta oraingoan honetan utziko dugu, honenbestez orduko bizimoduaren isla jasorik geratzen delakoan.

Santio-Enea




Inzenak ez du inolako isilpekorik. Hernani eta Astigarragako muga-mugan aurkitzen da; handik aurreraxeago, eskuinera, luze jo gabe Polipaso. Obra ederra egindako baserria dugu **Santio-Enea** orain, baserria ere ez dirudi begiratu batean.

Mari Karmen Leonet Perurena, alarguna eta jaiotzaz aranoarra bizi da bertan. Aita zena, Domingo Berasarte Aizmendi zen, bertako semea. Eta hauen seme-alabak: Mari Jose, Joxe Mari, Xabier eta Julian.

Orain ama alarguna eta Joxe Mari eta Julian bi semeok bizi dira baserrian.

Senper (Bordatxo)




Garai batean Bordatxo izenez ezagutzen omen zen etxe hau. Etxeak **"Senper-Enea"** ipintzen du fatxadan. Bordatxo izaki, nonbait, Astigarragan ere eta karta edo posta arazoan nahasketa sortzen eta horregatik jarri omen Senper baserriari. "Nomenclator" zerrendan (1870) "Bordacho" azaltzen zaigu.

Martindegin gora, Erroilaburu aldera goazela, aldapa igotzen hasita oso urruti ez, eskuinera, hegal batean kokaturik dago **Senper** baserria. Etxerako bidea daukate erabat kaxkarra. Udalaren eta familiaren arteko arazoa nonbait, ezin konpondua. Noiz arte jarraituko ote teman? Egia esan, Hernani guztian ez dago egoera horretako bidea daukan baserririk.

Oraingo gurasoak Joxe Migel Imaz Etxeberria, **Teileri Zahar** baserriko semea eta Domi Loinaz Lasa, **Betolandegi** (Martutene) baserriko alaba. Hauek ezkontzerakoan jarri ziren Senper baserrian bizitzen. Hona hauen seme-alabak: Jose Inazio, Jesus Mari, Joxe Mari, Migel Mari eta Ana Mari. Orain, etxean, aita eta ama Ana Mari alabarekin bizi dira, Jesus Mari semearen laguntza dutelarik.

Nahikoa arrastaka egin dutela dio etxeko nagusiak. Orbegozonean 17 urte, eta zenbait egunetan 16 ordu sartu behar izanik. Emazteak berebat "doble lan" berak dioenez egun horietan. Amak segan (ganadu jana), behiak jezten, ukuiluko eta soroko lanak eta beste.

Hiru bat behi beti eta hauen zekorrak. Esnea etxerako eta zekorrak hazteko. Etxerako baino



barazki gehiago izaten bazuten, dendaren batera barazkiak. Gaur egun, bi zekor dauzkate eta horiek bazterrak garbi edukitze aldera: "Ez luke bestela merezi, zeren bataz beste 80.000,- pezeta ordainduta erosi zekorra, urtebete inguru honi pentsua ematen jardun, ez baita ezer gelditzen. Harategietan, gainera, urruxak nahi dituzte. Saldu aurretik "Labeleko arduraduna eta gero albaitaria, paga itzak. Pobrea beti arrastaka".

Tabla-Enea



Arrasto handirik ez dute Tabla esanahiari buruz baina badute nahikoa susmo, noizbait entzunda, hemengo aurrekoren bat Astigarragako Tabla baserrian jatorria zuena ote zen, esanez.

Martindegi bailarako sarreran bidez ezkerretik dagoen bi isuriko etxe zabala dugu, bitan banatua, **Tabla-Enea** bata, Ezekiel-Enea albokoa. Bi bizitza, beraz, eta bi baserri, ezker-eskuin teilatupe berean, ezker-eskuin, teilatuaren gailurrak banatzen dituela.

Ebaristo (77 urte) eta Bernarda (82) anai-arrebok gogoan dituzte, Lorentxo Genbeltzu eta Ana Joxepa Arrieta, Karapoteko alaba hau. Gainera, inon diren istorio-misterioak badituzte aitonari buruz, tartean gerrakoak ere bai. Bat, bakarra, aipatuko dut lagin modura. Zera, aitona zena, Santa Kruz apaizaren taldean, lizar makila armatzat, bigarren karlistadan gerlari ibilia omen zela.

Gurasoak, aita Pello Genbeltzu Arrieta, etxeko semea, eta Joxepa Sansinenea Arregi ama, Igeldokoa jaiotzez.

- Igeldokoa e? Esan diedanean, hala erantzun dit Felisa oraingo etxekoandreak.
- Bai, aita zenak hala esaten omen, "leihotik leihora ez da ezkontzarik egin behar, zenbat eta urrunagokoa ezkonlaguna, askoz hobe".

Hona haien seme-alabak: Joana, Bernarda, Ebaristo, Joxe, Maria Luisa eta Agustina.

Ebaristo etxean gurasoekin, emaztetzat Felisa Aginaga Begiristain, jaiotzaz Aginagakoa, hiru alaba: Jone eta Amaia (bikiak) eta Itziar, izan dituztelarik. Orain, Ebaristo eta Felisa senar-emazteak eta izeba Bernarda bizi dira etxean.

Sei-zazpi behi, lau bat zekor eta aberea izan zituzten. Etxeberria ijitoari bost duro pagatua omen zuten aberea. Argala eta bizkarra urratua zuen, agidanez, eta oso hezkaitza etorri zenean, baina 22 urte egin zituen, gero, etxean.

Tratuarekin egunero, ama gazterik hil eta besteak beste, 50 urtean izeba Bernarda.

Irastorra, Urdaburuko hegaletik. Goizeko 4:30etan etxetik irteten zirela dio etxeko nagusiak, baina 2:00etan jaten eman behar uztarriko idi eta behiari. Erroilaburutik barna joan eta Karabeletik etorri, lau ordu t'erdi bidean egin ondoan. "Eta ez guk bakarrik, guk bezalaxe beste asko eta asko. Laurogei gurdi errenkadan etorritako egunak ezagutu nitun".

Gaur, industriak, Diputazioak eta erakundeek lurrak irentsita gelditu dira. Hiruzpalau zekor, haragitarako, mantentzeko ozta-ozta baino ez, hutsa.

Soldadutzako pasadizoak kontatzen hasi zait, azkenik, Ebaristo etxeko jauna. Alabaina beste baterako utzi ditugu kontuok.

Teileri Zahar



Izenak ez du buruhausterik ematen, nola Teileria hala Teileri Zahar, bi baserriak teileria izanak baitira aitzina, teilagintzan jardunak, eta hortik datorkie izena. Zumadi—Erroilaburuko bidean, Santio mendirako bidea, ezkerrera hartzen den puntu hau baino goraxeago dago **Teileri Zahar** baserria. Etxea osoki berritua gaur egun, lehengoaren antz apurrik ere ez duena. Baserri etxe dotorea eta erosoa guztiz, atze aldetik artegi eder bat duelarik.

Etxeko alaba dugu Iñaxi oraingo etxekoandrea. Gurasoak, Tomas Imaz Aduriz eta Hilari Etxeberria Etxeberria izan ziren, eta senideok: Joxe Mari, Joakina, Joxe Migel, Esteban, Joxepa, Iñaxi eta Patxi.

Hauetarik, Iñaxi gelditu zen etxean, senide arteko arazoak zirela medio, nahiko bizimodu zailari aurpegi eman behar izan ziolarik. Ezkondu, senarra Karlos Mugertza Tolosa, nafarra, Uztegikoa jaiotzaz eta lau seme-alaba izan: Karlos, Ramon, Ana Mari eta Esther. Orain, Ramon etxean gurasoekin, eta Karlos bere familiarekin baina etxearen goiko bizitzan hau.

Baserrian, bospasei behi, zekor batzuk, zerri bat etxerako, baina zerramak (aldi batean zerri eta ume hirurogei bat izanak dira). Esnea Gurelesari eta aita lanera erreleboan (Policloro) baserriko lana tartekatuz. Ardi ale batzuk beti. Hortik Ramon semeari artzaintzako afizioa.

Baratzea izan dute, "baina baratzeak lan asko du eta etekin gutxi" dio Iñaxik. "Zaku baina dendara eraman eta litro olioa trukean, horrelaxe ibiltzen ginan".

Gero, behiak kendu eta ardiak jarri zituzten, Ramon semearen ardurapean. Artalde handia, lan asko ardiak umatzeko garaian batik bat. Zorrak alde batetik eta buruhaustea franko badute ardiekin. Esaterako, iaz eta aurreko bi urtetan 127 ardi ito dizkiete zakurrek eta oraino apenas laguntzarik jaso. Diputazio eta beste erakundeek agindu bai baina...

Udan artaldea Andi Mendira, goizetik ardietara joan-etorria egin, eta baserrietan belar bolak egiten. Behemendiren ardurapean, ari izaten da Ramon pezeta batzuk etxeratuko baditu.

Dena den, orain eroso bizi direla, etxe berrian, esan diet. Lehengo etxe zaharraz ez dutela oroitu ere egin nahi erantzun didate. Beldurra franko pasatuak dira, "etxea noiz eroriko, etxeak azpian noiz hartuko". Haize bolada edo ekaitz zakarretan, zenbait egunetan, haurrak manta zaharretan bildu eta ukuilura jaisten zirenekoa dute gogoan. "Hura mixeria hura!".

Orain, semeari lagunduz, eta lehen hainbateko esturarik gabe, gizona jubilaturik, bizi dira aiton-amonak.

Teilería



Teila fabrika omen zen garaia batean etxeko zelaiaren aurrean. Hortik izena agidanez. Bi errekatxoren artean (Polipaso eta Atxorro) eta bi bideren artean (Urbieta eta Erroilaburu) kokaturik zegoen **Teileria** baserria. Etxetik oso aparte ez **Buztindegi** parajea, teilagintzarako buztina ateratzen zuten lekua, betelana eginik, gaur egun ezkutaturik badago ere.

"**Telleria** baserria lehenik bi bizitzakoa zen, dio nire solaskide "Otsua" Joxe Manuelek *espetxetik* (Topas, Salamanca) bidalitako idatzi batean, teilatua hiru aldetara zuen, baina nik ezagutu nuanean, bateratua zegoen; gero, berritze batzuk eginda bi teilaturekin gelditu zen".

"Hor jaioa, hazia eta hezia ama gendun, Joxepa Beldarrain Arizmendi. Senideetan zaharrena bera zen, eta aita Joxe Errazkin Iraola **Otsuane Txiki** baserrikoa. Gure gurasoak, esan bezala, Joxepa eta Joxe ziren eta hortik sortu ginan lau senide, Antonio, Martin, Maitere eta Joxe Manuel."

Gure baserrian ez degu lur sail handirik, horretaz gain ia guztiak oso aldapatsuak dira, etxe atarikoa izan ezik. Hemen ereiten eta landatzen zan etxerako eta hartzaileei banatzen zitzaien barazki gauza. Gehienbat artoa eta babarruna ereiten ziran, gero tartean arbia negurako eta pagotxa ganaduentzat. Ez gendun ganadu askorik izaten, lau edo bost behi eta beroeien txalak. Normalean urtebete inguru edukitzen genituen txalak, idiskoak baziren batez ere. Urrixa izan ezkero eta itxura onekoa, batez ere aitarentzat, ba gehien suiza arrazakoak izaten genituen, oso gustokoak zituen aitak, aurrerako gelditzen zan, noski ikuiluan zena zahartzen zenean aldatu ere egin behar zen eta".

"Lehiaketa askotan parte hartu gendun behi eta zekor suizar arrazako hoiekin; Aldundiak antolatzen zituen eta herriko jaietan batean eta bestean egitarauan saio bat izaten zen beti. Garraioa Aldundiak ordaintzen zuen, gero albaitariak eta beste batzuk ganadu guztiei begiratu bat emanez puntuaketa egiten zuten eta sailkatu ere, eta aurren samar atera ezkero, garaikurra lortzen zenduen eta diru pixka bat. Bazkaria gero. Kriston mugida izaten zen.

Martin zena eta ni ibiltzen ginen lehiaketa horietan".

"Aberastasun handia izaten zan inguruko eta aparteko baserritarrekin egiten zendun harremana, batez ere ingurukoekin, ba askotan gertuenekoekin urte osoan etzenuen hitz egiten, eta horrelako bilerak zirenean puskatzen zen baserritarren arteko jela, dakizuten bezala hain ugariak izan dira liskarrak elkarren artean, eta askotan gainera aurrekoetatik zetorren zerbait, baina horrelako bilera zanean eta bazkaldu ere elkarrekin egin ezkero, kontu asko konpontzen ziren, lotuta gordean jasotako kontuei askatasuna emanez. Badut esaldi bat, gaur kalean bizi bada ere, baserritar peto-petoa dena eta behin lantokiko bazkari batean elkarrekin ginela bati gordeta nituen kontu batzuk bota nizkiolarik, hurrengo egunean elkartu ginanean hala esan zidan: "tarteka-tarteka ona dek ardo jan bat, barruan gorderik daudenak botatzeko hi!"

"Gauza bera gertatu ohi zen, jarraitzen du esanez Joxe Manuelek, auzolanean bideak konpontzen ziranean. Lan horri *ahaldia* deitzen zitzaion, eta bide bazterretako sasiak moztu, estoldak garbitu eta bideko zuloak berdindu harri koxkor edo grabarekin. Goizeko zortziretan ahaldian hasi eta hamaikak aldera hamaiketakoa, bakoitzak bere ogitartekoa eta harekin trago batzuk zatoa ondo estutuz, "ardo jan bat" noizbehinka korapiloei askatasuna emanez".

Telleria baserriko lurrak, aldapatsuak gehienbat, ganaduentzat belarra eta sagastiak izateko egokituak izan ziren. Martin anaia lan asko egina omen horretan. Edotariko sagar mota guztiak bazituen honek, agidanez. Esaten hasita, *Goikoetxe, Patsolua, Potrokilo, Baztan, Urtebia (txiki eta handia), Gezamina, Pelestina, Prantzi, Txalaka, Errezila, etab.*

Aitak "Mendia" paper fabrikan, labezain, egin zuen lan eta geroago Martinek ere bide bera hartu zuen diotenez. Gaur egun baserria desagerturik eta lehengo sagastiek ere bide bera eraman zuten, beste leku askotan bezalaxe.



Txandre-Enea



Izenak zer esan nahi ote edo nondik norakoa den galdegin diot lehenengo eta behin Maria Rosario (52 urte) bertako etxekoandre eta nire solaskideari. Ez du inongo aztarnarik. Nik neuk Txandia Etxandia den bezala edo Txaide Etxaide den bezala Txandre Etxandre ote den susmotan nago. Ez litzateke batere harritzekoa hala izatea.

Bigarren karlistadan Santa Krutz hemendik ibilia zela aurrekoei entzunik ikasi zuen Rosariok eta etxeak erreta izandako kedar arrastoak badituela, dio, horma nagusietan. Are gehiago, eta hau beste iturri batetik bildu dut. Agidanez, Santa Krutz gerlariaren hiru kapitainetarik bat, "Luxia", Txandre-eneko semea zen, eta etxearen horma nagusietan kedar arrastoak ez ezik, etxea txukuntzerakoan azaldutako orduko balak ere kontserbatzen dituzte.

Ez omen orain bezalakoa **Txandre-Enea**. Orain nahiko handia da. Hala ere, lehen sukaldea orain baino handiagoa zuela dio, eta sala ere bai. Lehen ganbara, orain etxebizitza. Berritze lanetan ari dira une honetan, gainera. Dolarea zuen eranskin modura mendebaldetik. Ukuilua eta upelategia etxepean. Bestetik, sagardotegi izana eta lehenengoetarikoa auzoan.

Amak sarri aipatzen omen zuen nola garai batean Donostiako elkarte gastronomikoetatik, Ergobiara tranbian, etorri ohi zen jendea eta kaxuelak, bakailo tortillak eta, nola prestatzen zituen haientzat. Dena den, sagardo onen sona izandako baserria dugu Txandre-Enea. Txirrita bertsolariak oso berea zuen sagardotegia da hau Txalaka, Maldaburu eta besteak beste Patas perratzailearekin batera.

Gurasoak, aita Migel Larrarte Agirrezabal, albizturtarra jaiotzez, eta ama bertako alaba zituen, Anttoni Zapiain Portugal, eta alaba bakarra izan Maria Rosario. Eustakio Polo Loinaz, berriz, honen senarra, Hernaniko kalekoa, eta alaba bakarra hauek ere, Oihana.

Aita lanera "Papelera del Norte" fabrikara, han zortzi ordu erreleboan eta gainerakoan baserrian. Behi pare bat, esnea zekorrei, zekorrak hazten baitzituzten eta baratzea. Rosario hamalau urte zituenerako hasi omen zen Donostiara bidean (Bretxa) barazkiak eta ahal zena harturik.

Gero Xey Altzariak enpresan ibili zen lanean, beharrak bultzatua, agidanez, izan ere familian bai omen zen bete ezineko zulo bat, eta oroitzen da bere lehenengo soldatak zer nolako garrantzia izan zuen hor.

Ezkondu zenean, etxean gelditu zen Rosario gurasoekin, senarra lanera, harik eta istripu bat izan eta mugaturik gelditu zen arte. Orduan ekin behar izan zioten indar berriaz baratzegintzari, egunero barazkiak saltzera Hernaniko arkupetara joanez.

Sagardotegia desagertu arren, lagunarteko ohiturak jarraitu zuen gerora ere Txandre-Enean aldi batean. Igandero talde bat hamaiketakoa egitera biltzen zen. Behin lapazopa, bestean zurrukutuna (tipulaz egiten omen zuen ama zenak), bakailo tortilla...eta dozena bat sagardo botila garbitzeko gupidarik ez zuela izaten taldeak esaten du Rosariok.



Edonor ohartzen da zelaia izenaren esanahiaz. Edota belardi, leku lau edo zabalune bat, edota kiroletako lekua, futbol zelaia, esaterako. Zumadi–Erroilabururako bidearen ezkerretik, bide honen eta Martindegi etxearen tartean dago **Zelaia** baserria...

Bi etxebizitza omen zituen lehen Zelaia etxeak, hauetarik bakarra, ordea, baserria. Baserriak, aldiz, sukaldea eta ukuilua behean, lehen solairuan bizilekua eta gorago ganbara. Bi zatitan banatua zen goitik behera: sukaldea eta goian bizilekua; ukuilua eta goian belar ondua edukitzeko etxe ordekoa. Eta bi zation gainetik, alderik alde, ganbara.

Orain erabat berritua daukagu **Zelaia** etxea. Beheko solairuan garaje eta trastegela, uraren arriskuari begiratuz moldatu dena. Duela bost urte izandako uholdea sukaldean su gaina pasatzeraino iritsi zela, dio Joxe Antonio etxeko jaunak. Gainean etxebizitza eta gorago beste berri bat egiteko gai den lokala bere terrazarekin.

Izatez Idiazabalgoa (**Lastaurte** baserria) eta handik etorria zen familia: aitona Joxe Antonio Gainzerain eta amona Prudentzi Aldasoro eta aita zena, Joakin, hau hilabetetakoa zela. Aitaren beste senideak hemen jaio ziren: Lukas, Klaudia, Bixenta, Julian, Felisa eta Andresa.

Joakin etxean gurasoekin, Ines Zapiain Portugal, Txandre-Enea baserriko alaba emaztetzat harturik. Hona hauen seme-alabak: Ines eta Joxe Antonio. Joxe Antonio semea orain etxean, Jaione Santxo Armendariz, tolosarra, emazte eta Oihana, Maialen eta Jaione hiru alabekin, eta Pepita, emaztearen ama.

Idiazabalen baserria saldu eta hemen baserria erosi, Zelaia baserria. Martindegi auzo bereko etxe nagusia barne, bertako laubost baserriak (Lizardi, Txalaka, Zelaia....) erabat aldrebes eta traketsak direla dio Joxe Antonio nire solaskideak lurren antolaketari buruz. Lursailak oro banaturik, denak hanhemenka puskaka zatikaturik, nola Añoa bideko lurrak, Urbieta eta Santio aldekoak, hala etxe ingurukoak eta erriberak. "Ulertezina benetan!".

Lauzpabost behi, idia eta behia uztarrian, soro lanerako eta azpigarria etxeratzeko. Aberea ere bai gero, besaberako. Lau gurpileko orga zuten zaldiarentzat barazkiak eta esnea Ergobiara (tranbia), Bretxara eramateko. Baratze ona beti, Martindegiko etxe guztietan bezala.

Zaldi eta organ joan ohi zen familia jaiegunetan mezetara, Zinko-Eneko etxearen alboan leihoko burdin hesiari zaldia lotuta utzi ondoren. Ongi oroitzen da Joxe Antonio, orduan autorik ez, nola familia osoa San Antoniotan, Astigarraga, Altza eta beste leku askotako familiak bezalaxe, zaldi karroan Ereñotzura joan eta etxerakoan Irubide edo Fagollagan zer merienda goxoa egiten zuten. Egun berezia!.

Aita hainbat urtetan Irin Fabrikan lanean ibilia zen. Joxe Antonio seme bakarra zalantza handiei aurpegi eman beharrean gertatu zen bere aldetik, mundu guztia baserria bertan behera utzi eta industriara zihoanean. Herri gaztedi edo baserri mugimenduan zebilen (Balentin Zamora) eta bi bide planteatu zizkion bere etorkizunari soldadutzatik etorri ondoan: negutegiak eta baratzegintza ala sagardogintza. Bigarren bide honi ekin zion. Hala, sagastiak landatzera jo zuen. Berehala ohartu zen urrats berrien beharraz eta sagastiak are gehiago birmoldatzera jo zuen. Sagarra, etxekoaz aparte, kanpotik ekartzen



hasi ziren (Asturias eta Galizia) eta azkeneko 15 urteotan, Britainiarako bidea urratu dute, jakina, beti ere etxeko sagarra oinarritzat.

Duela 30 bat urtetik hasita arrakasta bereganatzen joan da sagardoa. *Txotxeko* sagardoa sustatzearekin, jatetxe, denda eta elkarte gastronomikoetara sagardo eskea zabaldu baitzen, ondorioz, katean bezala etorri zen gainerakoa.

- Sagardoaren nortasun propioa, sagardoa deitu molde berriko botila, hiru txikikoa.
- Etiketa eta informazioa (garbitasuna zein kalitatea).
- Sagardogintzako makineriaren modernizatzea, betiere edari honi zor zaion nortasuna mantenduz.
- Sagarrondo eta sagar mota berezien lantzea: gazi, gozo eta gezamina orekatuz.

Ororen buru, baikor ageri zaigu Joxe Antonio "Zelaia" etorkizunari buruz, sagardoa alkohol gutxiko edaria dela esanez eta edari sendagarria (diuretikoa bereziki). Beronen arrakasta eta zabalkundea geroz areago doala Europa guztian, eta hemen, Euskal Herrian. Ikusi besterik.

Osinaga Auzoa

AUZOAREN HISTORIA LABURRA



osu Arrieta nire adiskideak, oraino denbora asko ez dela azterlan polit bat egina du Osinaga auzoari buruz eta hark eskuratu dizkit zenbait argazki eta datu aski bitxiak direnak. Lehenengo eta behin, Osinaga baserri bikain edo etxe nagusi baten eta hortik auzoaren izen izatera pasatu den izena bada ere, begi bistan dagoela oinarri-oinarrian toponimo edo leku izena dela. **Osina**, ibai batean gehien bat, ura handi eta sakon gertatzen den tokia dela, alegia.

Alabaina, horretaz aparte, lehengo garaietan portu koxkor bat izan zen lekua dela ere bai Osinaga. Hala berean, Urumea ibaiaren ezker eskuin Osinaga eta Eziagoko *burdinola* eta *errotak* ari izan zirela lanean, XVI. mendera arte behintzat bai burdinolak, eta ia oraintsu arte, esaterako, errotak. Errotaran ere hor dago. Eta honek ere zerbait baino gehiago esan nahi du, ez da dudarik.

Hariari jarraiki, aski garrantzi handiko bide baten *helmuga* izana da, gainera, Osinaga. Arano eta Goizueta nahiz Leitza eta Elduaindik Agerre atzetik edo beronen magalean behera Urnietako Goiburu eta Harlimurin barna bere ibilia zuen bidearen (nafar bidea) helmuga. Funtsean, karga-deskargarako lekua, nonbait.

Horretaz gain, ordea, lurralde aski zabala du Hernaniko herriak Osinaga auzoa edo bailara esaten den horretan, han-hemenka sakabanatu baserri multzoarekin. Alde batetik, beheko ibar edo zelaietan kokaturik daude batzuk Urumearen ibar eskuinean, eta bestetik, mendi hegal eta bizkarrean barna kokatzen dira gehienak, Onddi mendiaren oinetaraino auzoak bere besoa luzatzen duelarik.

BASERRIAK

- Altuna
- Altzueta I
- Altzueta II
- Argurutze (Desagertua)
- Arriatsu
- Elizalde (Txintxua-Enea)
- Belamendi (Elola)
- Bortolua-Enea
- Bortoluene Borda (Txabolategi)
- Don Fermin-Enea
- Elorribia (Elorrabi)
- Elorribi Etxeberri
- Errotaran Behekoa (Amaxanea, hondakinak)
- Errotaran Erdikoa
- Errotaran Goikoa
- Galtzada Berrieta
- Iparragirre
- Itsaspuru (Itxas Buru)
- Lepa Txiki (Perrapa)
- Oianeder
- Oianeder Txiki
- Osinaga (Hondakinak)
- Otsua-Enea
- Otsuane Txiki
- Pardiola
- Pardiola Goikoa (Joxepe-Enea)
- Pardiola Txiki (Goñiti-Enea, Oñati-Enea)
- Sarobe
- Sorozabal (Munto, hondakinak)
- Tolareta
- Txonkua-Enea

SOLASKIDEAK

- Altuna, Arantxa (Lepa Txiki)
- Arregi, Hipolito (Oianeder)
- Belaunzaran, Rita (Otsua-Enea)
- Eguzkitza, Antonio (Iparragirre)
- Elortza, Prontxio (Pardiola Txiki)
- Errazkin, Iñaxio (Oianeder)
- Etxabe Oiartzabal, Iñaxi (Elizalde)
- Etxeberria, Iñaxi (Otsuane Txiki)
- Garin Ugalde, Mari Karmen (Txonkua-Enea)
- Garmendia, Pedro (Errotaran Behekoa)
- Goikoetxea Larburu, Joan (Altzueta)
- Goikoetxea, Iñaxio (Altzueta)
- Goikoetxea, Joan Bta (Elorribia)
- Goikoetxea, Karmen (Altuna)
- Goikoetxea, Teresa (Elorribi Etxeberri)
- Imaz, Kontxi (Errotaran Erdikoa)
- Intxauspe, Asentsio (Itsaspuru)
- Iraola, Joan Migel (Bortolua-Enea)
- Kamio Setien, Maria (Galtzada Berrieta)
- Mendizabal, Jabier (Tolareta)
- Miner, Maitere eta Manoli (Sarobe)
- Mitxelena, Joxe (Pardiola Goikoa)
- Murua, Kontxi (Don Femin-Enea)
- Pagola, Joxe Mari (Bortoluene-Borda)
- Valle, Iñaki (Pardiola)
- Zeberio, Mari Karmen eta Joxe Ramon (Arriatsu)



Izatez, amerikano dirudun baten jabetzakoa omen garai batean baserri hau eta beste bat. Bestea zein zen ez daki nire solaskide Mari Karmenek (59 urte). Bi iloba izan eta bakoitzari baserri bana utzi ziela jabetzan osaba amerikanoak, horren berri askotan entzuna da. **Altzueta** baserriko alaba da Mari Karmen. Ama Maria Antonia Kamio zuen **Altuna** baserriko alaba.

Duela urte asko baserri honetan senar-emazte batzuk bizi ziren, baina hauetarik amerikanoaren iloba zein zen ez dugu argitu ahal izan. Dena den, senar-emazte hauek haurrak izan bai baina jaio ordurako hil egiten zitzaizkien. Hala, haur bat, sortzez tolosarra, semetzat hartu zuten, Kaietano Kamio izenez, gerora Mari Karmenen aitona izango zena. Amona, Manuela Igartaburu Urruzola, Orendaingoa jaiotzez. Seme-alabak: Fermin, Adrian, Joxe, Inazio eta Mª Antonia.

Inazio, seme gazteena ageri zaigu etxean urteen burura, alarguna, eta zahartzaroan Mari Karmen ilobarengana kalera jaitsi zena. Hura hil zenez geroztik iloba honen baitan gelditu zen Altuna baserria, familia osoaren bilgune dena asteburu eta jai nagusietan. Eta astean baratzea, sagastia eta loreak zaintzeko zereginaz.



Altzueta



Itxura batez, (h) altza hitza darama sustraian baserri honen izenak. Haltza + zu edo tsu (ugaritasuna), haltzadi edo haltza deitu zuhaitz mota den lekua adieraziko luke. Eta Joan etxeko nagusiaren ustetan ere (67 urte) halaxe da, beti halaxe entzun izan duelako. Bestalde, zalantzarik aski sortarazten du izen honek zeren eta ez baita altza, *"altzu"* baizik kasu honetan. Eta altzuk, besteak beste, mea edo minerala den lekua adierazten du. Dena den, lehen ildoa jarraiki, badugu Hernaniko herrian Ilarra-tsueta izeneko baserri bat, tsu + eta ugaritasuna eta lekua adierazten duten atzizki bi daramatzana. Adibide hau aplikatuz, gisa honetan askatuko genuke korapiloa: Altzueta = (h)*altza* + *zu*+ *eta*. Litekeena. Altzueta "Nomenclator" zerrendan (1870). Eta Altsuta jendearen ahotan.

Urumea gaineko zubia Osinagan zeharkatu, Loidi bidegurutzean ezkerrera jo eta lehenengo baserriak dira, ibar eskuinean kokaturik, **Altzueta** biak.

Bi bizitzako etxea zen, agidanez, **Altzueta** zaharra. Mendialdetik, osoki ekialdera begira bi isuritako etxe koxkorra bata, eta ibai aldetik bestea, gerora berritua izan dena.

Etxe kaxkarra zela mendialdekoa dio Joanek, baina beren gurasoek hamaika seme-alaba hazitako etxea ere bai. Gero, Munduko Lehen Gerrateko urteetan, alboan lehengo etxe zaharrari begira, egitura luzeko etxe handi bat eraiki zuten, sartuta eskuinera sukaldea eta beheko oinean ukuilua etxearen alde batik bestera, bere luzera guztian, bi ate handi alde banatan zituela, simaurra atera edo azpigarria sartzeko. Ekialdetik beste atea, handia hau ere, ganaduaren jatekoa ekartzeko.

Etxe-ordeko bat ere bazuen alboan sarrerako atearen ezkerretan, gero estalpe baizik ez zena eta 58-59an terrazape bilakatua. Soilik lau horma nagusiak gordez, barne guztia ormigoizko hezurduraz horniturik erabat berritua izan zen etxea (82an). Azkenik, pabilioi berri bat (93an) egungo sagardotegi modernoek eskatzen dutenaren arabera.

GOIKOETXEA LARBURU Familia

Joan nire solaskideak aita eta ama ezagutu zituen, aurrekorik ez. Aita, Joxe Mari Goikoetxea Beobide etxeko semea eta ama Kontxa Larburu Odriozola, **Berakorte** baserriko alaba ziren. Joxe Mari aita bigarren aldiz ezkondua zen. Lehen emaztea Maria Elustondo Odriozola. Urnietako **Egurrola** baserriko alaba eta alaba bat izan zuten, Anttoni, gaur egun Afrika Beltzeko lurretatik (Burkina Faso) lekaime misiolari ibili ostean etorri berria, eta bigarrena izaterakoan ama hilik aita alargun, eta Kontxarekin ezkondu gero. Honako seme-alaba hauek izan zituzten: Joan, Pedro Mari, Maria Anjeles (lekaimea), Bautista, Paulo Joakin, eta Milagros (sei urte zituela hila). Halaber, aita hil eta aitaren anaia Pedrorekin ezkondu zen berriro ama Kontxa, seme bat, Joxe Mari izan zutelarik. Bihurdura handiak jasandako familia, nolanahi ere. Aita bi aldiz ezkondua, eta ama bi aldiz berebat, ez hala ere zentzu modernoan esanda.

Joan seme nagusia etxerako. Ezkondu: emaztea, Agustina Goikoetxea Labaka, Astigarragako **Ipintza** baserriko alaba eta hiru alaba izan dituzte: Maria Anjeles, Jaione eta Aitziber. Orain, aita alarguna eta Aitziber alaba bizi dira elkarrekin Altzueta baserrian.

Dozena bat behi, garai baterako kopuru handia, idi parea eta zaldia bere orgarekin ezagutu ditu Joanek etxean. Eta zezen bat edo bi, etxeko eta inguruko baserrietako behien estaldurak egiteko. Ehun bat litro esne batez beste egunero. Horretaz aparte, baratze, ez txikia, lanik aski izan da Altzueta baserrian. Baserri handiak lanak ere handi.

Alabaina, "buruhausterik handiena azpigarriak ematen zigun, dio etxeko jaunak. Haiek ibiliak halakoak!" Naparralde pasatuta Aranoko mugan dagoen Euntziko harriaren hegalpetik ekarri ohi zuten, eta Borrotolatik. Hau hala ere erosoa omen zen. *Galera* zeukaten, lau gurpileko orga zena eta orain argazki zaharretan baino existitzen ez duena.



Marra deitu arbazta batzuen bitartez eraisten zuten mendian beheko bidera irastorra.

Dolarea beti ezagutu du Joanek etxean. Lehenik, eskuzkoa, gero, eskuzkoa eta argindarrez eragina, biak batera. (Ikus 1926ko ordainketa agiri bat Udal Artxiboan).

Azpigarria garraiatzea ez ezik, lan gogorra izan zen etxe ondoko malkarretan sagarrondoak landatzeko dena aitzurrez, hondeaketa lana eta simaurketa, sagastiak simaurtzea. Oraino gogoan du Pagoagako mandazainaren bidez burutu zutela zenbait negutan lan hau.

Dena ez zen, hala ere, zailtasuna etxe honetan, arropa garbitzea, esaterako. Etxe aurre-aurrean zeukaten, aterpetxo bat erreka koxkor baten alboan bere aska, harria eta guzti, poliki antolaturik.

Baratzegintzak Altzuetan izan duen garrantzia azpimarratzeko, ikusi besterik negutegien sistemari buruzko ezarpena, Hernani aldean aurren samarretakoa dena, nolanahi ere.

Hartan, 76an, ukuilua kendu eta erabat sagardotegi bilakatzen da Altzueta, egitasmo handi baten baitan murgildurik.

GOIKOETXEA MURUA Familia

*Iñaxio Goikoetxea (64 urte), etxeko jauna solaskide izan dut. Altzueta zaharrak, aurrean bide aldetik, jarraipena zeukan lehen ere eta beti bi bizitzako etxea izan omen. Etxea hustu nonbait, aitona Iñaxio, Altzueta zaharreko semeak hartu eta ezkonduta bizitzen bertan jarri zen.

Gaurko Iñaxio, biloba, honen gurasoak Joan Bta Goikoetxea Beobide aita eta Maria Kamio Igartaburu ama, **Altuna** baserriko alaba izan ziren. Hauen seme-alabak: Manoli, Axun, Iñaxio eta Mari Karmen.

Iñaxio etxera ezkondu, emaztea Dolores Murua Maiz, zaldibiarra, eta seme-alaba hauek: Joxe Mari, Axun, Maria eta Ana.

Aita eta ama, Joxe Mari semea eta bi alaba gazteenak bizi dira baserrian.

Gurasoak baserriko lanari atxikirik bizi izan ziren. Zazpi behi, hiruzpalau zekor eta zaldia bere orgarekin. Egunero Donostiaraino zaldia hartuta lehenik, tranbian eta autobusean gero eta furgonetan orain.

Ekoizpenak, esnea eta barazkiak. Baratzeak, oraingo panorama ikusita, etxe honetan tradizio handia izango zuelako ustea azaldu diot Iñaxio solaskideari. Eta honek erantzun:

- "Ezta pentsatu ere. Aita zena izan zan baratzegintzaren eragile etxean eta... inguruotan". Eta hala, aurrekoen istorio bat kontatu dit Iñaxiok, etxean askotan entzuna. "Ari omen zan gure amona baratze sailtxo batean ahaleginetan, hurbildu zaio aita (birraitona guretzat) eta esan omen zion: Emakumea, loiolatarrak izorratuko dituzu". Garbi dago lehen baratzegintza nola zen edo non kokatzen zen, oso Donostia inguruan, agian. Oilo mordoska bat beti eta fruta ere bai. Gerezi asko izaten zuten eta jateko sagarra (San Joan sagarra, pelestina, Berrondo sagarra...).

Gaur egun, bi behi eta zekor bat edo beste, etxerako segida ziurtatzeaz aparte, etxerako esnea eta haragia izateko moduan.

Baratze lanean dihardu gainerakoan gaur Altzuetako familia honek. Urrats berri bat eman zuten orain urte batzuk bide honetatik, negutegiak ipintzea. Eta loragintzari heldu zioten negutegiekin batera. Urte batzutan loragintzak bolumen eta arrakasta handia izan arren, errentagarri izatea galtzen joan ahala, uzten joan dira, erabat uzteraino.

Baratzegintza berezituari atxiki zaio azkenik. Tomatea hartu dute ardatz. Bi uztaldi ditu tomateak, agidanez, negutegien baitan: bata, otsailaren hasieran landatuz, maiatzaren erditik San Inaziotara, eta bigarrena abuztuaren lehen egunetan landatu, Pilariketatik Urte Zaharrak bitartekoa.

Tomatea ardatz eta honako hauek lagungarri: letxua, zerba, aza eta patata. Lekadunik ez? Ezezkoa izan da erantzuna. Eskulan handia eskatzen omen eta kanpoko jendea lanerako hartzea ez delako errentagarri gertatzen.



Badirudi, delako gurutze horiek eman ziotela izena etxeari. Lau hurritz basatiren erdian, ikusi ere, bertara joan ezean, ez daiteke ikus. Horma zahar batzuk baizik ez dago, aterpe izan nahi lukeelarik.

Muniskue bideko harri-gurutzeak baino beheraxeago, Pardiola Goikoa pasa, Arano malda igo eta gaintxo batean, **"Kurtidoko Xabala"** eta albora "Kaixerren gaina" utzita, zabalune honen babesean aurkitzen zen Argurutze baserria. Orain hondakinak baizik ez eta ardi borda txar bat dago bertan.

Pardiola Goiko Joxek dioenez, bere aita zenak ezagutu omen zuen hor familia bizitzen, bertako aita egunero Ezioko fabrikara joan-etorrian etxe ondotik pasatzen zelarik.

Jakingarria, garai batean, bidez ezkerretik bazen, antza, borda bat eta erromeria egiten zen gain zabal horretan. Ez da batere harritzekoa. Benetan paraje polita da eta.

Behin baino gehiagotan herriko apaizekin arazoak izan zituzten aita zenaren esanetan. Gazteak sakristiara deitu eta bronkaren bat edo beste izan ohi zen guztia.

Halatan bada, Onddi mendiaren babesean kokaturiko lautada polit honek badu bere historia koxkorra; gainera, bidegurutzea da (herrira, Muniskuera, Lastaolara) eta bista ederrak ere bai (Urdaburu, Santiomendi, Buruntza, Mendizorrotz...)



Izena ongi ezarria du, agidanez, zeren "oso harritsua baita eskola-bidez azpitik behintzat, diote Mari Karmen eta Joxe Ramon anai-arreba eta nire solaskideek, erreka harria dago nunai". "Ariatzu" dauka erre tantodunaz, ortografia zaharrean idatzita, etxeak ate gainean. Dokumentu zaharretan Arriasu (1610) eta Arriatzu (1870).

Aurrekoei entzunik, oso antzinakoa omen Arriatsu hau. Etxe apala garai batean, eranskin berria du orain, 1942an lehengoaren aurretik ezarria, eta handik urte pare batera anartean baserri zen eraikina ere erabat berritua, etxeari osoko batasuna emanez. Begirada batean, gaur egun, baserri-etxe handi eta zabala gertatzen da, sarreran ezkaratza, eskuinera terraza eta etxearen kantoi batetik besterainoko balkoia. Goian bizitzak eta gorago ganbara. Etxetik at, etxe ordekoak eta ukuilu galanta apartaxeago. Ukuilua, lehen etxepean. Orduan, etxean sartu eta ezkerrera sukaldea, eskuinera sotoa ganaduen jana edukitzeko eta atzean alderik alde majerak eta behiak, eta atzean atea azpigarria sartu eta simaurra ateratzeko.

Ekialdetik sarrera, Argindegiko azpian hegal batean aurkitzen da Arriatsu baserria, ezkerretik Sarobe baserria eta azpian Txonkua-Enea dituela. Eskuinetik, goraxeago, izen bereko eskola.



Aiton-amonak, Santos Zeberio Amundarain, Elduaingoa izatez, eta Maria Aranburu Garmendia ziren, Agerre baserriko alaba hau. Baserria erosi eta bertan jarri ziren bizitzen. "Gerra hasi aurre-aurrean, diote anai-arreba solaskideek (martxoak 1, 1936an). Gerrakoan gora-behera pranko izanak ziala esaten zuten. Okelei-Ihartza Gainaren artean frentea, baserria tartean, nahiko bildur eta larritasun pasatuak zian. Iluntze batean aitonak argia piztu eta Okeleitik erasoa zuzenean. Handik aurrera leihotan koltxoiak jarriz ibili zian".


Gose urteetan, gero, babarruna, zerriak, patata...errekisatu egiten, baina amona ere ez lotan eta babarruna eta txerrikia, etab. edukitzeko despentsa polita izan zuen. Eskola garbitzearen ardura berak omen eta eskolako ganbara gordailu, agidanez.

Gurasoak, aita Nemesio Zeberio Aranburu, sei urte zituela gurasoekin Arriatsura etorria, eta ama Pilar Zubiarrain Izagirre, Artola (Antigua, Donostia) baserriko alaba, eta honako seme alaba hauek izan zituzten: Pili, Mari Karmen, Joxe Ramon, Mirari eta Amaia. Orain, guraso zaharrak, Joxe Ramon eta Manoli Zubeltzu (tolosarra) senar-emazteak, hauen hiru alabak Estibaliz, Ane eta Maialen, eta izeba Mirari bizi dira etxean.

Hiru oinarri zituen baserri honetako bizibideak aiton-amonen garaian. Dolarea eta sagardotegia, etxean eta kaleko lokal batean; hamar-dozena bat behi, eta baratzea, beti ere etxerako baino gehiago. Esnea eta barazkiekin Donostiara (Bretxa), zaldia eta karroarekin bertaraino aldi batean, gero Karabelera eta handik autobusez.

Gurasoen belaunaldiak, sagardoa soilik etxerako eta ganadua gehitzera jo zuen: 20-22 behi eta zekorrak, esnea baino areago haragia eta baratzea baloratuz.

Belaunaldi gazteak, aldiz, esnea du helburu nagusitzat. Behi kopuru handia daukate eta bigantxa multzoa. Idiskoak jaio eta egunetara saldu egiten dituzte. Esnea Iparlatek eramaten die. Bestetik, baratze handia. Egunero Bretxara Mirari izeba. Orain furgonetan, hala ere. Mari Karmen beste izebak ere, alboko etxean bizi ezkonduta, beharrik honek ere lanerako ongi luzatuak dituen bere besoak. Denak bete-betean dihardute baserri honetan. "Etxeko eskulana izan ezik, baserriak etekin urriak" dituela dio Joxe Ramonek.



Bortolua-Enea



Bartolo-Enea, seguru aski izatez, baina **"Bortoluenea"** azaltzen zaigu aspaldiko dokumentu guztietan eta herriko edo auzoko jendearen ahotan. "Bortoluania" aldiz, "Nomenclator" zerrendan (1870).

Bizkargune batean kokaturik daukagu, Osinagatik Onddirako bidearen ezkerretan, Pardiola duelarik (hau eskuinetik) baserriaren paretsuan.

Isuri biko etxe handia, ekialdera begira erabat. Estalpe bat eta aparteko borda eskuinetik, terraza handia ezkerretik. Deigarri gertatzen da zinez etxeak alderik alde fatxadan daukan balkoi zabal bikaina, erabat teilatupean eta beste inon ikusten ez den zerbait nolanahi ere. Pena da etxeak aurre-aurrean daukan belar-zulo mokorra eta platano zuhaitza bistarako oztopo izatea. Gainera, lehen, beste balkoia omen ganbaran.

Aiton-amonak ezagutu zituen eta aitaren lehengusu bat gaur etxeko nagusi den Joan Migelek. Gurasoak Joan Bautista Iraola Ezeizabarrena aita eta Anttoni Urkola Arruabarrena ama. Aita alarguna zen, aurrez Anttoniren ahizpa Maria izan baitzuen emazte eta bi alaba, Maritxu eta Mari Karmen. Anttoni, bigarren emaztearekin, aldiz, Joan Migel, Anjelita, Martina, Arantxa eta Begoña.

Senideak sakabanaturik, Joan Migel gelditu zen etxean, Kontxi Arregi Munita, Urnietako **Agirita** baserriko alaba ematetzat harturik, eta bi alaba izan: Sorkunde eta Garbiñe. Orain, aita eta ama bizi dira soilik baserrian.

Sasoian, zortzi behi eta idia, behi batekin uztarrirako izan dituzte. Zekor batzuk eta hainbat ardi ere bai, ardi ale batzuk dio berak.

Esnea egunero Hernanira urte askotan zehar, gero Gurelesari eta haragitara jotzen dute orain. Aitak artrosia eta amak ere zangoetatik nahiko lanak, osasun urriak mugaturik dauzka biak. Beharrik, pentsio koxkor bana jasotzen duten.

Urte luzeetan jasan dute argindarraren arazoa. Oso nekez iritsi omen zitzaien Iberduero etxera. Bitartean, erremolatxa, arbia, sagarra jotzea... eskuzko makinaz egin beharrak bazuen lanik asko berekin. Ipurtargiaren antzeko zerbait gauetan.

"Argia, doi-doian heltzen zitzaigun dio Joan Migelek, Osinagako zentraletik. Huskeria pagatzen genuen, egia. Geure kontura poste eta linea etxera jartzea, eta noiznahi argirik gabe haize zakarraren bat bitarteko zelarik. Ekaitza eta tximistarekin, plomuak kendu, erramua eta kandela bedeinkatua pizten ziran gure etxean, beste batzuetan bezalaxe".

Dolarea bazuten eta badute, baina osasunaren mugak kontuan, sagarra saldu eta etxe-tarako behar den sagardoa erosi egiten dute orain.

Azpigai bila Onddiko harkaitzeraino joan behar izaten zuten, Urnieta-Hernaniko herrien mugatik irastorra eta mendi belarra ekarriko bazuten. Onddi aldera begira jarrita orain ageri den plaka zuri zabal hori hauen sailetan kokaturik dago. Kable baten bidez etxeratzen zuten azpigaia. Sistema polita eta erraza ematen du honek baina puntu jakin batera bildu behar zen kablez etxera bidaliko bazen. Marra bidez igorlekura eraitsi azpigaia, sortak egin eta sorta txirritan ipini eta... kilometro bat oso-osoa egiten zuen kablean. Gero, Onddi magaletik zehar Iberduerok linea handia pasatzeko hasi zenean, amaitu zen kablearen bidea. Beharrik, pistak egiten lagundu zuten, eta idi pareaz baliatu ziren azpigaia garraiatzeko handik aurrera.



Bortoluene Borda (Txabolategi) Osinaga Auzoa



Txeak fatxadan "Chabolategui" dauka baina **Bortoluene Borda** du jatorrizko izena. Arrazoia? Bortoluane baserriko borda izan zelako noizbait, harik eta Txabolategi bertsolariaren alaba, Praixku Pagola aiarrarekin ezkonduta, ezkonberriak eta Txabolategi aita, borda baserri bihurtuz, bertan bizitzen jarri ziren arte. Hortik datorkio **Txabolategi** izena. Hil ere gure bertsolari famatua hemen hil omen zen. Nola edo zertatik hil zen, aurrez hark iragarriz kantatu bertsoa kantatu dit poliki asko orain etxeko nagusi den Joxe Marik (76 urte).

"Espezia txarren bat
sartu zait barrenen,
bildur naiz nere billa
etorri ote den;
San Pedrok sar nazala
Ate artan barren,
Ala komeni bada,
Biba, Jesus, amen!

Sagardotegian omen zen, esan dit Joxe Marik eta botilaren bat hautsi, kristal pusketa bat basora, sagardoarekin batera eztarrira, eztarria biziki zauritu eta delako bertso hori kantatzeko denbora baino ez omen zuen izan hil aurretik, horra. Beste bertsio bat ere bada. Alegia, sagardoa ez baina esne botilarena.

Osinagatik gora Onddi aldera doan bidean Pardiola Txikiko parean, ezkerrera, Lastaolarako bidean, eta beronen bihurgune baten azpian kokaturik daukagu Bortoluane Borda.

Borda, baserri bilakatu zenez geroztik, duela 40 urteraino iraun omen zuen etxeak. Hormak erortzear zituen, esan didatenez, horma nagusiak azkartu, zura kendu eta ormigoizko hezurdura ezarri zioten, teilatua halaber erabat berrituz.

Ondo begiratuz gero, etxea maldan eraikia dago, goiko isuria ia lur jotzeraino luzatua, etxeak goitik mandio gisako sarrera bizilekura, azpian ukuilua duela bide aldetik sarrerako atearekin. Traktorearen erremolkea deskargatzen (ganadu jatekoa) ari ziren aitasemeak hara hurbildu naizenean.

Nire solaskide Joxe Marik doi-doian ezagutu zuen amona. Bestetik alarguna zen ama ere, Joxepa Alberdi, **Belamendia** baserriko alaba sortzez, bertako seme Inaxio Pagola Erroizenearekin ezkondu, hau hil eta beronen anaia Joxe Marirekin ezkondu zena gero, eta seme-alaba hauek izan: Joxe Mari, Patxi eta Joana.

Gero, Joxe Mari seme nagusia etxera ezkondu, emaztetzat Pakita Leonet Perurena, izatez aranoarra hartu, seme-alaba hauek izan dituzte: Axun, Patxi, Isidro, Julian, Inaxio, Garbiñe, Karmele eta Mirari. Aita eta ama bizi dira baserrian Mirari alabarekin orain.

Lauzpabost behi beti, gero familia indarrean sartu heinean hamar behi izateraino iritsi omen ziren.

Amonaren garaietatik hasita, gero amak jarraituz eta ondoko 25 urtetan emazte Pakita, esne, barazkiak eta garaian garaiko fruta (intxaurrondoz betea dago orain ere etxe aurre guztia) astoan hartuta Hernaniko plazara.
Mandoa eta lera nahiz orga zituzten lehen ganadu jatena etxera garraiatzeko. Traktorea orain. Baina "Kastro" mandoa bizi dute oraindik.

Gaur egun zazpi behi eta zazpi zekor dauzka Joxe Marik ukuiluan semearen laguntzarekin. Haragia dute ekoizpen nagusi orain Bortoluene Bordan.

Etxe aurrean, bidez goiti, zuten "Iturtxulo" iturria lehen. *Gobara harria* kontserbatzen dute oraino hor. Gero, urtea ongi oroitzen dira (1936 urtea) auzoko sei familia ados jarririk sei baserrietara sartu zuten ura "Auxtin Soro"



deitu iturburutik, bertan gordailu egoki bat egin ondoan.

Eskola, Arriatsura. Eguraldi txarrarekin, ordea, kapaxoan hiru senideen bazkaria, han berotuz. Arriatsuko eskola berek eta kidekoek estreinatu zutela dio. Gogotik joaten zirela dio, hiru senideak. Garai hartan, ez daki zenbat urtetan, baina, ikasturte amaieran sari bat zozketatzen omen zen (10 duro), eskolara bost (5) hutsegite baino gutxiago egiten zituzten eskolaumeen artean. Hiru sari urte desberdinetan, jakina, ekarri zituzten, agidanez Bortoluane Bordara: Joxe Marik bitan eta Patxik behin.

Hain hutsegite gutxi egiteko arrazoia zein izan zen galdegin diodanean, zera zioen Joxe Marik: "Hara, esango dizut. Aita erabat ezjakina zan (analfabetoa esango genduke orain), amak eskola bazuan, baina nola bata hala bestea gogotik ahalegindu ziran gu eskolatzeaz. Ez zegoen beste arrazoirik".

Don Fermin-Enea



Aspaldidanik horrelaxe azaltzen zaigu baserri honen izena. "Nomenclator" zerrendan (1870). Notari, apaiz, mediku, indiano edo horrelakoren bat ote zen etxeari izen hori eman ziona, bati eta besteari galdeginik ere, ez dut inolako aztarnarik atera. Auzoan **"Maioazko-Enea"** deitzen zutela ere entzun dut.

Lehengo egitura bera du diotenez, erabat berritua duela gutxi, txukun pintatua eta balkoi ederrez jantzitako bi isuritan teilatua daukan etxe dotorea dugu gaur Don Fermin-Enea.

Joxe Mari Murua Ezenarro bertako semea eta Kontxa Alberdi Intxauspe, **Errotaran Erdikoa** baserriko alaba, senar-emazteak bizi ziren lehen, Manolo eta Kontxi seme-alabekin.

Manolo, ezkonge, honek etxea saldu eta Salaberria goizuetar familia bizi da gaur Don Fermin-Enean.

Aita Joxe Mari, eta bere anaia ezkongea, baserri lanean jardun ziren beren denboran. Kontxi etxeko alabak dio sei-zazpi behi izaten zituztela. Esnea etxetik saltzen zuten (Eziago etxeetako familiak hartzaile seguruak omen) eta gainerakoa barazki, babarrun eta frutarekin Hernaniko plazan. "aran, muxika, udare eta melokotoi ugari izaten zan, dio, orain ez dakit zer pasatzen den bazter hauetan".

Dolarea ere bazuten. Etxe atzeko hegalak sagastiz beterik, etxerako eta saltzeko sagarra izaten zuten.

Eskola Arriatsun, argindarra Osinagako zentraletik eta ura etxeko lurretan zeukaten iturritik.





Ez dakigu zergatia baina Elizalde da baserri honen izena, jatorrizkoa, noski, herrian eta jendearen ahotan "Txintxua" izenez ezagunago bada ere. Deituraren batetik sortuko zen ustea dugu Elizalde izena, izan ere ez baita inoiz entzun herriaren alderdi horretan eliza edo bederen ermitaren bat izan denik.

Muniskue edo Onddirako bidean Altuna baserria ezkerretara utzi eta aurreraxeago hegal edo bizkar batean kokaturik dago Elizalde baserri tentea.

Funtsean, bi isuritako etxea, urrunetik ere aski garbi ageri da etxe zuri tantaia. Ukuilua behean, bizilekua lehen solairuan eta ganbara goian. Hegoaldera, eraikuntza koxkorrago eta apalago bat, bi isuritakoa mandiotik sarrera duena; iparraldetik etxe-ordeko estalpea, mendebaldetik eranskin bat belar-zulo dena, eta terraza zabala ekialdetik. Sarrerako horma eta bazterretan baserriko lehengo lanabes eta tresneria poliki ipinita.

Iñaxi Etxabe Oiartzabal, amona alarguna (80 urte) **Lastaola Goikoa** baserriko alaba da, ezkonduta bizitzera hona etorria. Senarra, bertako semea, Anjel Arregi Alberdi zen eta seme-alaba hauek izan zituzten: Tomas, Joxe Mari eta Maria Dolores. Bera etorri zenean aiton-amonak bizi ziren oraino.

Tomas, seme nagusia, etxera ezkondu, Izaskun Aranburu Etxabe zizurkildarra ematetzat hartu eta bi seme dituzte: Iñaki eta Xabier. Gaur egun, senar-emazteak, bi semeak eta amona Iñaxi bizi dira baserrian.


Bost behi, zekorrak, astoa eta oilategia izan dituzte baserrian. Hernaniko plazara egunero tratuarekin, etxeetara esnea banatuz, 30 urte eta gehiagotan. Anjel aitak, baserriari lotuta egin zuen bizimodua bere denboran.

Dolarerik ez baina sagarra poliki izaten zutela dio amona Iñaxik, eta sagastiak ondo gobernatzen zirela orduan, sagarrondoak aitzurtuz eta simaurtuz.

Belar ontze eta azpigarria biltzeak aski lan ematen omen. Belarrez eta irastorrez meta belar andana izaten zuten etxe ondoan. Oraino ere zutik daude hor bi meta belar. Irastorra edo azpigarriaren lana izan ohi zuten lanik gaitzena, Erreka Gaizto aldetik (Satsain aldean) garraiatu beharra zuten eta.

Nola Elizalde edo Txintxua, hala Altuna eta Belamendia baserriek Otxarramendi deitu zulora joan behar izaten zuten arropa garbitzera edo uraren bila. Zulo itsusia nonbait esaera hau aintzat hartzen badugu: "Otxarramendin Jainkoa bera abarkekin azaldu zela".





Izen konposatua nolanahi ere eta ulerterraza zinez: *bele* + *mendi* hitzez osatua baitago. Elola ere deitzen zaio.

Elizalde baserria baino aurreraxeago Onddirako bidean ezkerrera mendi bizkarraren kontra eta txoko babes batean daukagu Belamendia baserria. Baserri apala egituraz baina apala bezain goxoa eta abegikorra.



Anai-arreba ezkongeak bizi izan dira urteetan ia oraintsu arte, Tomas eta Felixiana Alberdi. Hauek hil ziren eta iloben eskuetara joan da baserriaren jabegoa. Etxean maizterrak daude eta lurrak **Lepa Txiki** baserriko familiak erabiltzen ditu.



Elorrabi Sagardotegia" dauka egun, euskal hizki dotorez fatxadan ipinita izena. Herriko jendearen ahotan ere halaxe entzun ohi da gehienetan. Baina Elorribia da bere izen jatorra.

"Nomenclator" zerrendan (1870) Elorrabia izenez datorren arren, 250 urte aurreko "Hamarrenak" zerrendan (1610) Elorribia ageri zaigu. Bere esanahiari buruz, ez dago zailtasun handirik: *elorri* eta *ibia* (pasabidea) hitz konposatua. Azken urteotan, "ibi iraunkorra", esaterako, administrazioaren korrontean sartu den hitz arrunta da.

Ibaiak orain mendiaren kontra egiten du bere ibilbidea. Lehen, ordea, garaien batean Joan Bautista etxeko nagusiak etxetik aski hurbil zihoala adierazi dit. Oraino bada hor toponimo eder batek harturiko zelaia, "Portu" izenez ezagutzen dutena, portu izana, hein batekoa edo bestekoa, berak dioenez.

Osinaga eta Loiditik barna Urumea ibaia jarraiki, Altzueta, Iparragirre baserriak pasatuta, hauek bezalaxe ibar eskuinean, aurkitzen da **Elorribia**. Ibarluze aldera ibaia zeharkatzeko, zubixka bat du etxetik hurbil, zubixka dilindaria, oholez eta kablez baliaturik egina. Oroitzapen triste batek

markaturik gelditu zen zubixka dugu hau: 1978ko San Joanetan estropadak ikusten jendez mukuru beteta zegoela, hautsi eta sei lagun ito ziren zoritxarreko eguna bilakatuz. Harrezkero *Amilibia* du izena zubixka honek. Amildu zireneko ibia, alegia.

Orain, biziki etxe ederra dugu **Elorribia** baserria. Funtsean bi isuritako etxe handi bat da eta beste estuago bat, hau ere bikoa, bata besteari itsatsita eta azken honen hegal bat bailitzan, are koxkorragoa den beste hirugarren bat ezkerretan. Askoz soilagoa zela esan behar ia oraintsu arte, oro har, guztia.

Joan Bta etxeko nagusiak (66 urte) Frantziska Etxeberria Zipitria, Andoaingo **Sorabilla**ko alaba eta beronen seme-alabak ezagutu zituen: Florentina, Maria eta Manuel.


Florentina Izagirre Etxeberria etxera ezkondu Iñaxio Goikoetxea Beobide, auzoko **Altzueta**ko semearekin eta honako seme-alaba hauek izan zituzten: Joan Bautista, Joxe Mari, Maria Felisa (istripuz hila), Nikolas, Joan, Antonio, Mari Koro, Manuel eta Joan Luis. Hauek bakoitza bere bidea hartzen joan ziren eta Joan Bta gelditu zen etxean emaztetzat Maria Pilar Belaunzaran Kortadi Urnietako **Ormazarreta** baserriko alaba hartuz. Seme-alaba hauek izan dituzte: Simon, Joxe, Xabier, Arantxa eta Ana Mari.

Orain, etxean, gurasoak eta bost seme-alaba bizi dira, Arantxa ezkonberria bere senarrarekin, Joxe eta Xabier kanpora lanera joaten direlarik, eta aitaren anaia Nikolas.

Sei behi eta baratze puska bat lehengo denboretan. Idirik ez, aski lur onak direlako. Astoa, zerri pare bat urtero, dozena bat untxi eta berrogeita hamar oilo.

Amona zena egunero Donostiako San Martin plazara. Etxe honek izan du arropa garbiketaren tradizioa ere. Oraino etxearen alboan bizirik dago *zapi langeta* deitu lur zerrenda bat zubixka aldera zuzendua. Izan ere Donostiako hartzaile handikien arropa zikina ekarri, garbitu, lehortu eta lisaturik eraman ohi zuten, barazkien eta esnearen salmentaz aparte, etxerako sos batzuk gehiago biltzearren. Gero, Pilar oraingo etxekoandreak jarraitu zuen Donostiarako joan-etorria egiten.

Duela hamar urte, behiak kendurik, baratzegintza ere murriztuz, sagasti ederrez jantzirik daude Elorribiako lurrak. Sagardoa da baserri honetako bizimoduaren oinarri gaur.





Elorrabi Etxeberri" esaten zaio normalean, nahiz eta "Elorribi Etxeberri" den jatorriz. Elorrabi-Berri azaltzen zaigu "Nomenclator" zerrendan (1870). Hala ere, bertako alaba eta nire solaskide den Teresa Goikoetxea Errazkin andereak (71 urte), bere aitaren garaian "Txakur-Txarreta" deitzen ziotela dio etxeari. Handik zehar kontrabandistak pasatzen gauez eta etxeko txakurrak gogotik salatzen nonbait, hartatik ez-izen hori.

Ibarluzeko parean Urumea ibaiaz bestaldetik eta Elorribia etxetik berrehun bat metrotara bidearen eta ibaiaren artean daukagu **Elorribi Etxeberri** baserria.

Etxea beti horrela mantendu izan da, bi isuritan egina, ibai aldeko isuria luzeagoa duelarik. Bide aldetik, eskuinera sarrera, sotoa eta sukaldearekin. Eta beste ate bat, handia "liburu bat bezala irekitzen zena" ukuilurako sarrera. Upelategia ibai aldetik. Etxebizitza eta etxe-ordekoa lehen solairuan. Zurezko komuna. Ganbara goian.

Teresa, haurra zela aiton-amonak bizi ziren. Joan Bautista Goikoetxea Lizarribar, **Altzueta**ko semea, aitona, eta Martina Iraola, Urnietako **Antso** baserriko alaba amona. Gurasoak, berriz, Iñaxio, etxeko semea aita eta Joxepa Errazkin Zubiarrain, **Añarregi** baserriko alaba, ama. Honako seme-alaba hauek izan zituzten: Teresa, Joan Bautista, Rufo, Joxe eta Leokadio (hau 18 urte zituela Elorribiako presan itota hila).

Rufok hartu zuen bere garaian baserriaren ardura, baina dio Teresak "ondo gogoan det, San Martin egun batez Zibilak, etxea inguratuz, nola atxilotzera etorri zitzaizkion eta hark eskuetatik ihes egin". Joan Bautista etorri omen orduan baserrira eta beronen kargu egin, bakarrik gelditu zen amari lagunduz. "Orain Rufo non dan susmo izpirik gabe, uste al dezu eskubiderik badagola?".

"Ez zan baserri handia gurea, ezta gutxiagorik ere. Lurrak etxearen biran, hori bai. Aita beti Biyak Bat fabrikara. Labezain. Lau behi izaten genitun beti, edo bost bakarren bat aldatu behar zanean".

Esnea, fruta eta barazkiekin egunero San Martin plazara. Txanelean pasatzen zuten ibaia garai batean, harik eta oraingo zubixka hori (1940an) egin zen arte. Astoa bera, "Matxo" izenez, ohituta zeukaten, bi saskiak kargaturik, poliki-poliki ibaiaren alde batetik bestera txanelaren gainean pasatzen. Eguraldi txarretan, eguraldiaz aparte, Osinagatik barna itzulia egin beharrak lanik aski ematen zien.

Aita ere bai, baina sagasti eta landare zale handia zela dio aitona. Fruta asko izaten zuten. Gerezi garaian, 40-50 kilo gerezi (anpolaia, ginga beltza eta beste zurixka bat euriak berehala zartatzen zuena) merkatura eramandako egunak izaten zituzten, agidanez.

Ororen buru, ordea, baratzea zen Elorribi Etxeberrin oinarri nagusia. "Egunero plazan besteek zer egiten zuten ikusi, eta lehia sortzen zan gurean. Barazkiak: espinaka, apio, perrexil, azenario, txikori, eskarola, letxu, porru, tomate, (ilarrak ez zuen ematen), erremolatxa gorria... oroitzen naiz urte batean etxeko landarea 754 ziento porru aldatu genitula".

Akarregiko basotik ekarrita, beti ezagutu zuen ura etxean, edateko nahiz arropa garbitzeko.





Errotaran Goikoa

Osinaga Auzoa



Hiru Errotaran dira: **Behekoa** (Amaxa-Enea), **Erdikoa** eta **Goikoa** (Artto-enea).

Errotaran izenaren sustraiak, bestetik, ez du sobera zailtasun: errota eta haran hitzen konposaketa baizik ez delako. Antzinako etxea da Errotaran, oso antzinakoa. Hala, 1870eko Hernaniko baserrien zerrenda batean (Nomenclator Provincial de Gipuzkoa) Errotaran, baita Parrokia-elizako etxe eta baserrien zerrendan ere, Herrotaran (1610 urtea) eta azkenik hona 1388ko dokumentu batean zer esaten den:

"Su origen parece ser uno de los más remotos del valle. En 1388 la villa concedía a Sancho Martinez de la Cámara por los servicios prestados, el solar de la ferrería Mazonera Errotaran para levantar en él una ferrería".

"A finales del siglo XX esta ferrería se encuentra en manos de los Elduayen, poderosa familia hernaniarra".

"Hacia 1600 parece que dejó de labrar, y la villa ateniéndose al contrato de 1388 reclamó el solar. No debió prosperar la demanda, ni se reconstruyó la ferrería mayor, puesto que se decie que Juan Lopez levantó en su lugar el martinete de Errotaran". (*Ik. "Ferrerías Guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales. Siglos XIV-XVI"*). Luis Miguel Diez de Salazar eta Rosa Aierbe. Fundación Kutxa).

Nire solaskide Kontxi Imaz andereak (70 urte) neskatikoa zela ezagutu zuen Errotaran Goikoan ura etxepetik nola pasatzen zen. Harri mokor handi bat ere bazela han oroitzen da. Irina egiteko errota (*eihera*) ala burdinola izana ote zen ez daki esaten.

Besterik da Errotaran Erdikoaz dakiena. Estalpe soil bat zela dio gaur etxea den lekuan eta bere aitak, hargina ofizioz, beste nonbait lanik ez zuen egunak eta orduak aprobetxatuz, pixkaka etxea (horma nagusiak erreka harria eta teila usatuak inguratu ondoan) antolatu zuen oraingo etxea. Badirudi Errotaran Behekoa zela hiruetarik etxe nagusia edo nagusi etxea.

Gaur egun hiru etxeok aldaketa nabarmenak jasan dituzte aurrera nahiz atzera bidean. Goikoa, bi bizileku dituen etxe txukun bat dugu; etxe polit bat Erdikoa ere, eta Behekoa, aldiz, azkenetan daukagu.

Artto" izeneko gizon koxkor eta beltzaran bat bizi izan zen azkenean. Ezkongea. Orain bi familia bizi dira etxebizitza banatan.



Etxea berritu ahala, aitona eta amona joan ziren bizitzera, Joxe Ramon Alberdi eta Kristina Mercader Ugalde. Seme-alaba hauek izan zituzten: Anjel (Teruelgo frontean hila), Joan Migel, Kontxesi, Joxe Manuel eta Joxepa.

Baserri koxkorra eta beste askotan bezala gauza izaten hasi bezain laster lanera edo neskame-morroi eskola zer zen ia ezagutu ere gabe, salbu eta Joxepa etxeko txikiena. Honen alaba Kontxi oroitzen da zein estu bizi izan ziren biak, aiton-amonak, baserrian eta amona nola joan ohi zen astoarekin Donostiara egunero eta gero tranbian. Joxepa alabak (Kontxiren ama) gantxiloa egin nahi, argirik ez eta kandela argiaz ari izaten zela. Haria erosi ahala izateko, lore sortaren bat amari prestatzen ziola, edota, jakingarria, menda-belar sorta arkakusoak galdu edo uxatzeko izaten zena. Kontxi alaba bakarra izan zuten Joan Imaz (ez-izenez "Exkerra") eta Josepa Alberdi senar-emazteek.

Gaur egun, Kontxi hau eta Pedro senar-emazteak bizi dira hor, bakoitza bere erretiroarekin, Errotaran Erdikoan. Aski txukun eta moduz bizi ere, Jon eta Itziar seme-alabak nola bata ala bestea bere bidetik joan arren.





Amaxanea ere deitzen zaio, aitona Amasatik etorria zen nonbait. Haran bildu eta goxo batean babesturik daude, erreka erdian, Errotaran beste biak eta hau batik bat.

Pedro (1935ean sortua), bertako semeak, aita eta ama baino ez zituen ezagutu, aurrekorik ez.

Jeronimo Garmendia Astiazaran, etxeko semea hau ere, aita eta Ixabel Mujika Igeretegi, Andoaingo **Berrezi** baserriko alaba ama. Pedro eta Joana seme-alabak.

Joana kanpora ezkondu eta Pedro gelditu zen gurasoekin, eta Pedro jarraitu, ezkonge, gurasoak hil ondoan.

Bi isuritako etxea, behean ukuilua eta oilategia, bizilekua lehen solairuan eta ganbara goian dituelarik. Aski zaharkitu eta urraturik ageri zaigu gaur etxea.

Bospasei behi, zekor pare bat eta astoa izan ziren gehienean Errotaran Behekoan.

Ama gauza izan zen arte esnea Hernaniko etxeetara eramaten zuten. "Esneak orduan, dio Pedrok, ondo ematen zuen". Sagasti on bat edo beste ere izaten zuten, arto eta babarruna ere bai. Lur gizenak erreka ondoan.

Gurasoak bizi izan ziren arte, Pedrok fabrikan jardun zuen (Norteko papelera), gurasoei baserri lanean lagunduz. Gose urteetan, mutikoa, oroitzen da zenbat talo jan zuten. Goserik ez, hala ere.

Gero, Pedroren baitan geratu zen baserria. Gaur, arreba ezkonduaren etxean bizi da. Baserria, zaharkiturik, hondakinetan.



Galtzada Berrieta



Errraz ulertzeko moduko esanahia du etxe honek. Aurrez aurre Don Fermin-enea baserria duelarik, Osinagako bidean Mendipe pasatu eta Oianeder baino lehentxeago bidearen ezkerrera aurkitzen da **Galtzada Berrieta**.

Aurreko egitura mantenduz, oraintxe bezala bi isuritako etxea zen lehen ere. Azpian ukuilua zuen, bizilekua goian eta ganbara gainean.

Maria, etxekoandre zaharra (82 urte), hona ezkondu zenean, gizonaren aita eta ama bizi ziren. Aita Joan Kruz Lujanbio, bertako semea, eta ama Kontxesi Oiarbide Zuaznabar **Larregain** baserriko alaba. Seme-alaba hauek izan zituzten: Joan Joxe, Manolo, Pedro, Iñaxi, Josefina eta Migel.


Migel, etxerako, Maria Kamio Setien, Urnietako **Portxeta** baserriko alabarekin ezkondu eta hauen seme-alabak: Joan, Inazio (biak istripuz hilak), Mari Koro, Sebastian eta Bernardo.

Orain aiton-amonak eta erraina Izaskun Mintegiaga Leaburuko alaba Joan zenaren emaztea eta Iker hauen seme gaztea bizi dira elkarrekin.

Baserrian hiru behi, baratzea, oiloak eta zerria etxerako hazten zuten urtero.

Aita, Migel, txofer ibilia da bere denboran, Zikuñagatik paper garraioan batik bat. Maria, emazteak, dendatxo bat eduki zuen, janari denda hainbat urtetan.

Garai bat iritsi zitzaien txofertza, baserri lana eta denda batera ezin eramana, eta orduan baserria saldu eta alboan sagastia zeukaten lekuan etxe berri eroso bat eraiki zuten. Benetan dotorea da etxea. **"Borda-Berri"** izena, harri ederrez egina lehen solairua bitartekoan, balkoi zabala eta sarrerako atea biziki egoki landua, marrazki eta guzti (lauburua, Euskal Herriko mapa, aiton-amonen irudia, "Ongi-etorri" idazkuna, laia, haritz hostoa, ikurrina eta atearen alboko horman ezkila polit bat, Iker gaztetxoaren artelana dena.





Horrelaxe, euskal grafia eguneraturik, idatzita dauka izena baserriak fatxadan gailurraren azpian eta leiho nagusiaren gainean. Hala-hala, *"ipar"* eta *"agirre"* edo *agerre* hitzen konposaketa dela ere begi bistan dago. Besterik izango litzateke nondikakoa den **Iparragirre** hori jakitea. Alegia, zinez etxearen izena ote den ala etxeko nagusiren baten deitura hartua ote duen etxeak. Antonio etxeko nagusiak (71 urte) etxearena dela entzun izan du beti.

Osinaga pasatuta Loidiko bidegurutzean ezkerrera jo eta Urumea ibaiaren bihurgunea jarraiki, Altzuetatik hurbil, ibar eskuinean, aurkitzen da Iparragirre baserria.

Obra egin berria, teilatua eta pintaketa lana, etxea lehengo egitura berean mantendu dute. Bi isuriko etxea da izatez, karratua bailitzan, luze-zabalean berdina dena, atzean eranskin bat, sagardotegia, eta alboan oilategi izandako estalpe luzea duelarik.

Fatxada egokia balkoi-terraza eder batekin eta, gauza jakingarria, mandioa fatxadan berean eskuineko kantoian.

Antonio nire solaskidea, ezkonduta Iparragirrera bildu zenean ama alarguna Benita Iguaran Beobide zen, sortzez alkizarra eta seme-alaba hauek bizi ziren: Migel, Mari Karmen, Joana eta Maria Pilar.

Mari Karmen Beobide Iguaran, etxeko alabak Antonio Eguzkitza Arregi Aiako semea senartzat harturik bi alaba izan zituzten: Arantxa eta Ana Mari.



Orain Antonio aitona, alarguna, eta Ana Mari eta Esteban Mateos Diaz (oso haurra zela familiarekin Aranora etorria) senar-emazteak bizi dira Andoni eta Lierni seme-alabekin.

Antonio, ezkondutakoan, nahiko juxtu aurkitzen zen familia. Lehenbiziko lana ukuilua birmoldatzea izan omen zuen honek. Baratzeak betidanik zuen garrantzia etxe honetan. Gainera, dolare koxkor polita zuen familiak garai hartarako. Oilategia ere aski ederra. Gauza jakingarri bezala, ekimen berezi bat burutu zuen familiak, eta hainbat urtetan zehar burutu ere: konpuestoa deitu ongarria egitea lurrarentzat.

Lehen esnea (behi pintoak) eta orain haragia (larreko behi gorriak) dira oinarrizko ekoizpen Iparragirre baserrian, baina horretaz aparte, sagardogintzak hemen zeregin nagusia betetzen duela ere ezin uka.



Nolanahi ere, itsasoaren erreferentzia garbia erakusten du baserri honen izenak eta noski, izanak berebat. "Itxas-Buru" azaltzen zaigu etxearen fatxadan, "Echaspuru" Nomenclator zerrendan (1870) eta "Echazpuru" eskrituretan. Oroitzapen bitxiak gordetzen ditu Asentsio etxeko jaunak. Hala nola, Oianeder/Itsaspuru baserri bion tartean, Zikuñagarako zubi dilindaria baino goraxeago bazen agidanez *"ur bixi"* deitu puntu bat Urumea ibaiak eta itsasoak elkar topatzen zutena. Txalupak ere, dio, garai batean puntu horretaraino heltzen zirela eta Zikuñagako Ama Birjina halaber, arrantzaleen zaindari zela esan dit.

Izokinak izaten omen lehen, 12-14 kilokoak ezagutu dituzte. Lau hortzeko garranga bat erakutsi dit lekukotasuna aitortzeko edo. Aingirak eta amuarrainak ugari, eta nik neuk inoiz entzun ez dudan arrain mota kurtsibat, harrapatzeko zaila dena, zeren eta oilarra bezala xapala omen eta harri edo hondar azpian gordetzen baita, soilik begia erakutsiz.

Osinaga auzoan Portutik Urnietara (Harlimurin barna) doan bidearen eskuinetik mendixkaren hegalean, bidearen ezkerretik Urumea ibaia doalarik, Oianeder pasatu eta auzoari izena eman dion Osinaga baserria baino lehenago aurkitzen da **Itsaspuru** baserria.

Lehen, bi isuritako etxe zabal handia zen, iparraldeko isuria aski handia bazuen ere, hegoaldekoa askoz luzeagoa, luzagarri horren azpian ukuilua babesten zelarik. Etxe barrura sartu eta eskuinera zegoen sukaldea su baxua eta ekonomikaz horniturik. Ezkerrera gorako eskailera, eta hauen azpian etxeak ematen zuen heinean ukuilua bereizten zuen hormaren kontra upelategia, barrikak bi apaletan ipinita. Ukuilu gainean sabaia, belar onduarentzat, atzetik mandioa zuela, eta ganbara zabala etxearen goian artoa eta babarruna, gorde sagarra... edukitzeko, bi leiho aurre aldera zituela.

Obra egin zenean, poste-aldi bat ezarri zitzaion etxeari iparraldetik, gerora berrikuntza gehiagorik izan zuen arren,

ukuilua sagardotegi bilakatuz, belar zuloa dolare eta jangela eta eranskin berriak ezarriz.

Asentsiok (58 urte) aiton-amonak ezagutu zituen. Aitona, **Zabalaga** baserriko semea, Martxial Intxauspe eta amona, **Errotaran-Erdiko** alaba. Eta hauen seme-alabak: Fermina, Joxepa, Maria, Rafaela eta Joxe.

Joxe gelditu etxean. Seme bakarra soldadutzatik libre, baina soldadutzara gerrakoan. Ezkondu, emaztea Justina Aranburu Galdos, **Balastain** baserriko alaba (Sorabilla). Eta seme-alabak: Anjela, Asentsio, Joxe Luis, Mari Karmen, Hilario, Joana eta Iñaxio.

Ondoren Asentsio etxean, Maria Pilar Irizar Isasa, Martuteneko **Lukas-Enea** baserriko alabarekin ezkonduta. Hiru seme-alaba: Igone, Antton eta Karmele. Gaur egun Asentsio eta Pilar senar-emazteak bizi dira baserrian, Pello, etxeko bezala 47 urtetan berekin bizi den apopiloarekin.

Aurreko gurasoek baserriari atxikirik bizi izan ziren. Esnea eta barazkiak izan zituzten orduan (San Martin plaza, Donostia) bizimoduaren oinarri. Dolarerik ez baina sagarra franko bai eta Maiorazko-Enean (Don Fermin-Enea) sagardoa egin ohi zuten. Bestalde, basoaz ongi baliatzen ziren, zura eta su egurra ateratzen zuten. Zura, akazia esaterako, *lera* eta *kurtetxeak* egiteko; platanoa, *arraunerako palak* egiteko; lizarra, aitzur, mailu eta beste *kirtenak* egiteko. Esan gabe doa, ilargiak horretan zer nolako zerikusia daukan. *Artesitu* egiten bestela. Su egurra, bestetik, laguntza polita izaten zela etxerako dio Asentsiok, gurdikada berrogeita hamar duro kobratuz.

Gerora, anartean Asentsio eskolan zebilela aita hil, berak hartu behar izan zuen




baserriaren ardura. Bi oinarri sustatu zituen honek etxean. Sagastiak landatzea, jendea pinua aldatzen ari zen garaian. Erotzat hartu omen zuten batzuek, eta tartean, makurrena, gaur egun sagardogile diren batzuek. Eta abeltzaintza. Astiro baina hamabost behi izateko bideari ekin zion, gero hogeita bost buru izatera heldu bazen ere.

Ondorioz, Donostiarako bidea utzi eta Hernaniko etxeetara esnea, astoa Plaza Berriko barra bati lotuta. Oraindik bai omen du, astoak arbustuak marruskatu eta Rikardo agoazilaren salaketa bat ordaintzeke.

Aldi berean baratzegintza birmoldatzeko bidea urratu zuen, negutegiez horniturik. Zer etekin modu izaten zuten garai horretan galdegin diot. "Urteko berrogeita hamar mila letxu eta hiru mila tomateren ekoizpena", izan da erantzuna.

Ororen buru, sagardotegiaren oinarrira makurtzen joan dira, ganaduak pixkaka gutxitzen eta uzten joan direlarik eta Ibarrako piperra lantzeari eutsiz.



Toponimoa edo leku izena dugu inola ere **Lepa Txiki** izena. Lastaola – Osinagarako bidea gaintxo batera heltzen den puntua lepaxka bat da, "Lepa Txiki", eta hortik datorkio hain zuzen baserriari berea. "Lepachiqui" eskrituretan. Baina, agian, *"Perrapa"* ez-izenez, askoz ezagunagoa zaio hernaniar jendeari.

Perrapa nondik ote duen galdegin, eta hona zer esan didan Joxe etxeko jaunak. Garai batean Karabeleko herreroaren jabetzakoa omen **Lepa Txiki**. Zenbait baserritarrek behiak perratzeko lana ordaintzekorik ez, eta baserrian golde lana edo beste burutuz ordaintzen, nonbait. Eta halako edo beste halakori:

- Nora hoa?
- Lanera. Perrak pagatzera (perrapaga, perrapa, horra).

Lastaolatik Onddi eta Osinagara doan Lepa Txiki mendixkaren lepora iristean eskuinera jo eta beronen gibelaren txokoan aurkitzen da izen bereko baserri, orain, dotorea.

Inon diren birmoldaketa guztiak ezagutu ditu baserri honek bere denboran. Ardi borda noizbait. Oraingoen aitona, edo hobe, birraitona amerikanoak, diru puska batekin etorria, Joan Bta Altuna eta Mikela Garin, senar-emazte berriak ezkontzerako erosia. Aski lan ordaintzen (1890an, hain zuzen), 4.437,50 pezeta ordainduz edo urteko %5eko interesekin lau urtetan ordaintzekotan erosi zutelarik. Orduan antolatu zuten baserri bezala. Bost seme-alaba izan zituzten: Joxe Mari, Patxi, Joakina, Terexa eta Iñaxio.

Aita amerikanoa hil eta Joxe Mari, seme nagusia gelditu zen amarekin etxean, eta amaren babes gozoan. Izan ere, 60 urte zituela, ama faltatu zitzaionean, ezkondu behar zuela ohartu zen. Bitartean ama, baserria, ehiza eta

kaletar ehiztarien zakurrak heztea izan zuen zeregin (Txantxangorri elkartekoek ongi zekiten hezitzaile honen berri).

Joxe Mari ezkondu, Tomaxa Zapirain Zuaznabar, Astigarragakoa sortzez, emaztetzat harturik, alaba bat izan zuten, Arantxa.

Arantxa, etxeko alaba, Joxe Zubiondo Eizmendi asteasuarrarekin ezkondu zenetik sartu zen, agidanez, etxean indar berria eta orduan birmoldatu zen berau bigarren aldiz. Etxe txarra, erabat zaharra eta zintzilik zegoen jada. Etxeko obren oroitzapen "eder" bat gogoan du beti ere Arantxa etxekoandre zaharrak. Ekaina omen zen, obretako tresneriaren artean trabatu, eroriko bat egin, buruko kolpea, 30 puntu eta hamabost egun erietxean.

Bi alaba izan zituzten Joxe eta Arantxak, Kontxi eta Mari Jose. Hau 10 urtera zihoala, traktorea gidatzen, urrats txar bat, azpian harrapatu eta hil zen.

Orain, aiton-amonak, alaba Kontxi eta honen senar Joxe Ramon Amonarriz, anoetarra, eta Usue eta Ander seme-alabak bizi dira baserrian. Baserria erabat birmoldatua, hirugarren aldiz, osagai guztiekin etxea hornituz.

Aitona amerikanoak erosi, baina mendi etxe izaten jarraitu zuen Joxe Mari semearen garaian ere. Baserri txikia. Bizpahiru behi izaten zituztela dio Arantxak. Gainera, behin behizain zebilela tximistak jota behi bat garbitu zuenean eskapada ederra egin omen zuen berak. "Lehen gutxi, eta bat gutxiago gelditu ginan".

Joxek, etxeari ez ezik, soro eta belardiei ere indar berria eman zien. Dolarea bazuten lehen. Orain ez. Sagardorik ez omen edaten etxean inork. Hamar bat karga saldu dituzte aurten.

Joxe, erreleboan, Michelinen ibilia da lanean. Orain autobusetan. Suhia ere kanpora lanera. Bestetik, ganadu saila daukate *Flewich* arrazako behiak, haragitarako, Austriatik ekarriak.





Zer nolabait garbi dago bere esanahia (*oihan* (baso) eta *ederra*, oihanume baso gaztea den bezalaxe. Horrek besterik ere adierazten du. Zera, garai batean inguru guztiok baso ederrez jantziak izango zirela, jakina.

Osinaga auzoan Portutik eta Harlimurira doan bidearen eskuinera kokaturik daude **Oianeder** eta **Oianeder Txiki** baserriak.

Koadroko etxe handia bi isuritako teilatu zabalarekin. Ibaitik hurbil erreka-harriz eginiko hormak ditu, baina kare harrizko kantoi harri dotoreak erakutsiz bi ertzetan. Duela gutxi obra aski handia egin dute, lehen zuen egitura mantenduz, hala ere. Bi bizitzako etxea da aspaldian (*Txurianekoak* alde batekoak, *Trankatx* bestekoak), baina bakarra garai batean, bertako bi ahizpa ezkondu eta bakoitzarentzat etxebizitza bana egin zenez geroztik. Hegoaldekoak etxe-ordekoa dauka aurrean albo batera eta iparraldekoak, aldiz, saihetsean du etxe-ordekoa, terraza zabal baten azpian. Etxetik goraxeago eraikuntza koskor bat, dolarea, nahikoa arrakasta izan zuena bere garaian auzoko baserrien zerbitzutan. Esan beharrik orduan eskuz egin ohi zela bai sagarra jotzea bai eta patsa estutzea. Bolanderak urtero ikusgai San Joanetan herriko plazan.

ARREGI Familia

Nire solaskideak (Hipolito Arregi, 85 urte) ezagutu omen zuen aitona, izenez Iñaxio Mari Iraola, Andoaingo Penabi baserriko semea zena. Begi bakarra zela dio, ardia larrutzen ari zela labana saltatu eta begia galdu zuenetik. Seme-alabak: Inaxi (Otsuane Txiki), Petra (Oianeder), Manuela (Oianeder) eta Martina (Elorribi Etxeberri) eta mutiko bat, hiru urte zituela Osinagako errotan askara erori eta irinetan itota hil zena. Bestetik, gerora, ezkonduta, lau hamarreko deitzen zituzten lau ahizpa hauek, bakoitzak hamarna seme-alaba, ez bat gehiago eta bat gutxiago, izan baitzituzten.



Manuela gelditu zen hegoaldeko etxebizitzan. Petra, berriz, bestean. Manuela Iraola Berasarte Joan Joxe Arregi Lopetegirekin ezkondu zen eta hamar seme-alaba izan: Matea, Inazio, Maria Petra, Agustin, Paulo, Joan Bautista (azken gerratekoan Teruelgo frontean hila), Joxepa eta Benita (bikiak) eta Hipolito.

Agustin etxerako, eta gainerakoak bakoitzak bere bidea. Honek Manuela Perurena Zubillaga izatez goizuetarra hartu zuen emaztetzat eta honako seme-alaba hauek izan zituzten: Inazio, Milagros, Mari Karmen, Agustin (Poliziaren eraso batek granadaz eraila), Kornelio (ñañoa, gorputzez txikia bezain buru argikoa) eta Paulo.

Hau, oraino ezkongai, gelditu da azkenik etxearen kargu.

Bretxako azokara tratuarekin egunero. Atzeko Estazioa deitu puntuan (Atsegindegi) Donostiarako tranbia hartuta, arbolen bati astoa lotu ondoan. Uraren arazorik ez zuten, ibaia etxe ondoan dutelako. Edateko ura, aldiz, "Potxolondegi" iturritik, Mendipe etxetik aurreraxeago zegoen hau, aski poliki ormigoizko arku batez hornitua zen iturria.

ERRAZKIN familia

Petra jarri zen ezkonduta Iparraldeko bizitzan. Senarra **Otsua-Eneko** semea, hamar seme-alaba izan zituztelarik.

Hauetarik, Joxe Julian gelditu zen Manuela Aranburu Etxenike emazte harturik. Seme-alabak: Inaxio, Felix, Petra eta Benito.

Gaur egun Inaxio dugu bertako nagusi, Zelestina Urdangarin Esnal Urnietako **Inbutegi Erdikoa** baserriko alaba emazte duela, eta hiru alaba izan dituzte (Amaia, Mari Kruz eta Marian) kanpora ezkondurik daude. Senar-emazteok, biloba batekin bizi dira (Iñaki Lizarralde Errazkin) gaur egun baserrian.

Bai aita zena eta bai Iñaxio semea, kanpora lanera joan izan ziren beti, baserriko eta fabrikako lana elkarrekin konbinatzen zutelarik.

Lauzpabost behi izaten zituzten eta amona Petra gauza izan zen arte Donostiara joan ohi ziren tratuarekin.

Orain, Iñaxio, jubilaturik dago. Behiak larrera bota, eta udan behintzat soro lan puska bat besterik ez. Bi behi dituzte soilik, lurrak ere asko murriztu zitzaizkien eta. Adibidez, Iberdrolaren Ihartza gaineko zentrala, hauei lurrak desjabetu eta eraikia dago, eta gauza bera izan zela edo makurragoa esan behar da Orbegozo enpresarekin gertatua erriberako lurretan (Akerregi). Ez tratu eta ez deus, goizetik gauera bezala, lurrak kenduta gelditu baitziren. Tripako min handienak jasanez, hamar urte luze auzitan ibili arren, alferreko gauza izan zen dena. Hauentzat eta beste batzuentzat.





Kokorra da benetan etxea Osinagarako bide ertzean Oianeder baserriaren alboan dagoen hau. Diotenez, ikaztegi edo egur ikatzaren biltegi izana antzina, aldamenean sutegia zuela eta ermentari baten lantegia berau. Ikatza, esan beharrik, baso eta oihanetatik mando gainean eraitsi (ohar Oihaneder izenaz) eta hortik banatzen edo hor saltzen zuten, agidanez.

Gerora, baserri bilakaturik ageri zaigu eta bertan Patxi "Bakailo", gerratik zetorkion izena hain zuzen. Ameriketara joan zen artean sasoiko zelarik. Bertsolaria ere bazen Patxi Bakailo. Aski ezagunak dira bere zenbait bertso. Bata, aipatuko dut, alaba jaio eta auzoko etxekoandreari, berria adieraziz, etxeko leihotik bota ziona:

"Bertsoa botako det
leiotik leiora,
bart gure etxe ontan
alaba jaio da;
iñork nai badu etorri
orren bataiora,
aurraren gurasoa
Patxi Bakallo da".

Eta bestea, Zikuñagako ermitaren parean idien aurretik zihoala ijito emazteki bati luzatu ziona:

"Goizian jeiki eta
onen abiyara,
iñun ezer senti badu,
lapurreriya da,
kontzientzi gaiztoko
Judasen kriyada"
Ez ahal zuen ulertuko, bestela...

Ondoren, Domingo Iraola eta familia bizi izan ziren hor. Eta azkenik, Domingoren alaba Justina, morroia eta neskamearekin. "Hiru bat behi, soro, belardi, untxi eta oilo eta baratze ederrez hornitua ezagutu gendun" dio auzoko Iñaxiok.

Justina, azken urteetan, Ameriketatik etorritako Pedro anaiarekin bizi izan zen, harik eta Pedro eta biak zahartzaroan Hernaniko Ospitalera bildu ziren arte.



Hernaniko baserririk onenetakoa izana dugu **Osinaga** baserria, diru-hotsekoa gainera beti. Ez da kasu bakarra. Herri askotan gertatu da horrelakorik. Baserri ona, erosoa, ongi egokitua, aparta eta nahi dena, baina behin gainbehera abiatzean, lur jotzeraino erori ere egin dena. Hauxe da Osinagaren kasua. Etxe nagusia, auzoari izena eman diona, eta gaur egun hondakinetan ia desagertua.



Berrondotarren familia bizi izan zen hor eta oraingoen aitonaren garaian ezagutu zuen loraldirik bikainena baserri honek. Dolarea eta sagardotegia, errota eta argindarraren zentrala zituen osagai.

Osinagak sagardoa eman du gaur bezainbat ardo kontsumitzen ez zen garaian. Osinagak eguneroko ogia eman du, errota eta irina baitzuen berekin, taloak jan ahal izateko, lehengo ogia hain zuzen, orain tarteka baino dastatu nahi izaten ez duguna. Osinagak argindarra egin du hainbat urtetan zehar berak zeukan makinetxean. Argi eskasa, ipurtargia nahi bada, baina aurrerapen galanta izan zela ezin uka aurreko kriseilu eta kandela-argiarekin parekatuz gero.



Alabaina, ororen buru, aro berriek diote aurrea hartu Osinagari eta honek aldi berean ez du jakin denboraren parean ibiltzen. Aurrera egin ez eta atzera gelditu, horra.

Otsua-Enea



Ez dakite nondik heldu den izena. Garbi dago "Otsua" hitzaren esanahia zein den, baina besterik ez. "Otzuania Aundi" "Nomenclator" zerrendan (1870), "Casa Ochoarena" Hamarrenak zerrendan (1610), eta orain, azkenik, **Otsua-Enea**. Izen propioa eta deitura ere izan daitezke eta kasu honetan guztiz antzinako izen zaharra, gainera, euskaldunon izendegian, Lope, Bela, Otxanda, etab. bezalaxe.

Osinaga auzoan, Osinaga baserriaren ondoko zubia pasatuta Harlimurirako bide gainean ezkerrera aurkitzen dira Otsua-Enea eta Otsuane Txiki.

Nahikoa zabala eta luzexka, errektangeluarra da **Otsua-Ene Zaharra**. Eranskin bat dauka goi aldera bi etxeen tartean *"tolare aldea"* deitu izan diotena, nahiz dolarerik ez zuten. Txabola trakets handi bat bide aldetik etxeari aurpegia ezkutatzen diola.

Rita oraingo etxekoandreak, dio, hiru etxebizitza ezagutua dela teilatupe bakarrean: Etxeberria, Anabitarte eta Garin familiak. Gaur, hutsik aurkitzen dira hiru etxeok. Etxeberriatarrek alboan etxe eder moderno bat eraiki zuten, azpian sagardotegia eta goian etxebizitza dutela. Anabitarte eta Garin familiak bizi izandakoak, aldiz, etxejabe diren Rezolatarrek asteburuetarako antolaturik dauzkate.

Nire solaskideak dioenez, ezkondu eta Otsua-Enean bizitzen jarri zenean, artean bizi ziren bertako aiton-amonak, Joxe Manuel Etxeberria Zipitria, etxeko semea eta Joakina Zipitria Zipitria, sortzez Andoaingo **Itsaso** baserriko alaba.

Senar-emazte gazteak, berriz, Joxe Etxeberria Zipitria eta Rita Belaunzaran Kortadi, Urnietako **Ormazarreta** baserriko

alaba. Seme-alaba hauek izan zituzten: Simon, Joxe Manuel, Modesto, Maria Pilar, Joxe eta Maria Anjeles.

Gaur egun, bi alabak kanpora ezkonduta, Rita ama, bere lau seme eta Balentin koinatua bizi dira Otsua-Ene baserrian.

Sei behi, zekorrak, zerri pare bat, oilo, untxi eta abar izaten zituzten. Uztarrirako behiak, eta ez idiak, lur eroso eta arinak ziren seinalea da hau. Ritak esaten dit, azpigarriak ematen ziela lana. Epeleko errekan gora jo behar izaten baitzuten. Bestetik, amona hainbat urtetan zehar eta ama gero, honen alaba geroago eta Simon seme nagusia azkenik, duela lauzpabost urtera arte esnea Hernaniko etxeetara eraman ohi zuten. Gainera, esan behar da aitak eta etxeko gizonezkoek Eziago papeleran lan egin zutela, erreleboan, baserriaz arduraturik.

Lehengo etxean, maizter izan arren, lur zati bat erosi Otsua-Ene zaharraren ondoan, eta etxe berri handi bat eriki zuten sagardotegiarekin. Simon seme zaharrenaren eta beste hiru anaien ideia eta obra dugu hau.

Hala berean, duela zazpi bat urte etxearen jabe eginez, ukuilu berria eraikitzeari ekin zioten, zeren eta baserrian jarraitzekotan ezinezko baitzitzaien lehengo moldeetan jarraitzea. Orain, etxetik aldenduxeago, estalpe zabal handi batean dituzte ganaduak, berrogeita hamar behi eta hogeita bost txahalez horniturik. Jatorriz, *Yersey* arrazako behiak guztiak, duela lau urte, ondo gogoan dute, 97ko abuztuan ekarri zituzten. Ez dira handiak gorputzez. Andereño panpoxak iduri, mutur gaina eta begi ondoak margotuta bezala dituzte. Errape ederrekoak izan arren, esnearen kopurua ez baina, beronen kalitatea dute bereizgarri nagusi, koipe eta proteinaren portzentaia altukoa direnez.

Esan gabe doa, harro sentitzen direla Otsua-Eneko semeok, egindako lorpenarekin, ez Gipuzkoan lehenak eta bakarrak direlako, behi arraza egoki baten jabe egin direlako baizik.

Funtsean, esnea eta haragia batetik, eta sagardotegia bestetik, dira Otsua-Ene baserriko Etxeberria familiaren bizimoduaren oinarriak.



Otsuane Txiki



Otsuane baserriaren ipar-ekialdean eta hortik metro asko gabe kokatzen da **Otsuane Txiki** baserria. Antzinako baserri zaharra duela urte gutxi arte. Orain etxe eder eta berria dute, azpian sagardotegiarekin.

Lehengo hura bi isuritako etxea zen eskuineko hegalaren luzagarri etxe-ordekoa zuelarik. Behean sotoa, majera aurrea eta ukuilua, eta ate bat saihetsetik simaurra, ganaduak... sartu-irten egiteko. Lehen solairuan sukaldea eta etxebizitza, eta ganbara goien.

Argazkian garbiro ageri da: harlanduz eginiko kantoi harriak, erreka harrizko horma nagusiak, inguru horretako etxe guztiak bezala, eta etxe-ordeko handi bat dituela.

Garai batean, Joan Bautista Errazkin Iraola bizi zen **Otsuane Txiki** baserrian. Hura hil eta handik urte mordoska batera, Luis Eizmendi Zabaleta, **Fagollaga**ko semea, ofizioz herrero edo ermentari zena eta Iñaxi Etxeberria Zipitria, **Otsua-Ene**ko alaba, senar-emazteak aurkitzen ditugu bertan, Joxe Mari semearekin. Maixa alaba ordurako kanpora ezkonduta zegoen.

Gaur aita eta ama bizi dira etxean, adinez aurrera eta alabaren laguntza onarekin, zeren semea, Joxe Mari, duela zazpi urte (94-XI-4), ondo gogoan du amak zorigaiztoko egun hura, Iruñetik zetorrela militarren tanke batek jota istripuz hil baitzen. Esan gabe doa, normala, semearen oroitzapen ahantzi ezina duela amak, eta makurrago dena, aitak harrezkero ez duela bururik jaso ahal izan.

Otsuane Txiki zaharrean familia hau bizi izaten hasi aurretik, ermentari (herrero) lanetan, perratoki eta guzti, ari izan ziren aita-semeak. Geroxeago, horretaz aparte, sagardogintzari ekin zioten, oraino Fagollagan bizi zirelarik. Etxea, arrunt zaharkiturik zegoenez, zaharra erauzi eta berria eraiki zuten. Goian etxebizitza, erdiko solairuan bi sala handi eta beheko oinean sagardotegia nahiz dolarea.

Bestetik, aski sonatua da egun Eizmendi sagardotegia, alboan daukan Etxeberria sagardotegia biki-lagun ona duelarik.

Halatan bada, sagarra etxeratu, sagardoa egin, sagardotegiko zerbitzua ematea bere garaian, botilatzea eta banaketa lana alaba Maixaren baitan dago orain.



Ez da batere gauza erraza **Pardiola** izenaren korapiloa askatzea, nahiz eta "ola" atzizkiaren arazoa (burdinola, etxola, lekua) aski garbi dagoen. "Pardi" hitzak norbaitek esan du sagar *muztioa* adierazten duela.

Dena den, horrela ez bada ere, plano zahar baten arabera, Erreka Zaharra eta Uban-Errekak bitarteko hegal horiek guztiak sagasti ederrez horniturik ageri zaizkigu.

Etxeberria familia bizi izan zen hor ia oraintsu arte, hauek etxea bere lurrekin saldu eta orain Iñaki Valle eta Ana Arbiza senar-emazteak bizi dira bertan. Iker, Ainara, eta Asier seme-alabekin.

Hauek goitik behera erabat berritu dute baserria, helburu berri bat eman diotelarik. Landetxe edo landa turismoko etxe bihurtu dute. Ez da hain zuzen nekazal turismo etxe, ez baita baserri (ez dute behi, ardi edo horrelakorik), mendialdeko hotel gisako zerbait da baizik.



Pardiola Goikoa



Aurrekoren bat, oiartzuarra izaki eta Joxepe izenez, normalean Joxepe-Enea du izenik erabiliena, baina **Pardiola Goikoa** du jatorrizkoa.

Osinaga auzoan, Loidi etxearen ondotik gora jo eta bidearen eskuinetik daude lerroan bezala kokaturik hiru Pardiolak: **Pardiola**, **Pardiola Txiki** eta **Pardiola Goikoa**.

Etxea, lehengo moldeetan baina guztiz berritua dago. Bai teilatua eta bai hezurdura, ormigoizkoak ditu orain. Bakarrik, beste sarrera bat ezarri diote etxeari goitik, traktorea sartu ahal izateko. Alboan, duela hamar urte etxe txukun bat eraikia, lehenik ukuilu berria egin behar izan zuten Sanitateak hala exijiturik, eta etxebizitza gero haren gainean.

Joxe etxeko jaunak ezagutu zuen amona alarguna, Joxepa Iraola Lete, Urnietako **Egurrola Borda** baserriko alaba. Gurasoak, Agustin Mitxelena Iraola, etxeko semea, aita eta Joxepa Salegi Egaña, izatez Lasturkoa ama. Honako seme-alaba hauek izan zituzten: Maria Luisa, Joxe eta Maritxu.

Joxe, etxerako, ezkondu eta emaztea Pilar Otaño San Sebastian, Urnietako **Agirita** baserriko alaba, Fermin eta Itziar seme-alabak izan dituztelarik.

Gaur, etxean gurasoak eta Itziar alaba, eta honen senar Xabier Etxarri bizi dira elkarrekin.

Joxe, gaztetxoa zela, bost behi eta idi bat izaten zituzten. Idia behi batekin uztarrian edo idia uztarri motzean arituz, leraz baliaturik ganadu jatena garraiatzeko. Soldadutzatik etorri ondoan, ukuilua hazten joan ziren, hogei behi izateraino, honek garai hartan suposatzen zuen esfortzu guztiarekin.

Amona Donostiara egunero astoan tratua hartuta, Donostiako kaleetan zehar buruxestera erabiliz hartzaileei esnea eraman ahal izateko. Gero, bilobek (Manoli, Maria Luisa, Maritxu) bide bera jarraitu zuten. Azkenik, Pilar oraingo ama Hernanira hainbat urtetan zehar. Orain, esnea utzi eta haragia dute bizimoduaren oinarri nagusi. Lehengo indarrak gastatzen eta sasoia joaten ere bai, dio Joxek, eta etorkizuna, baserri bezala, ez duela oso erraza ikusten.

Dolarea betidanik izan dute eta garai batean sagarra saltzeko eta guzti. Etxerako soilik orain.

Oro har, baserri nekoso eta aldrebesa dela esaten dit Pardiola Goikoa eta izerdia franko ateratako jendea dela bertako familia. Bide txarrak, asto gainean garraiatu behar simaurra, lera bidez ganaduen jatekoa; galtzak bete lan, ordea, azpigarriak ematen omen zien, etxeari dagozkion *zillegi* lurretatik garraiatu ezinik.

Ikusgarria benetan etxe goian oraino daukaten meta saila. Ez dut baserri askotan ikusi Hernaniko herrian.

Pardiola Txiki



Oñati-Enea ere esaten zaio, edo Goñiti-Enea, aurrekoren bat Oñatitik etorria, nonbait, baina **Pardiola Txiki** du izena. "Nomenclator" zerrendan (1870), "Pardiola-Chiqui" azaltzen zaigu.

Osinaga auzoan gora jo Onddi mendi aldera bidegurutzean, ezkerretik Legarralderako bidea eta Lastaolara doana eskuinetik, hortxe kokaturik dago **Pardiola Txiki** baserria.

Aldapan kokaturiko etxetxo polit bat da hau. Goian bizilekua, sarrera goiko bidearen paretik duela eta ukuilua beheko bidetik. Alboan, oraintsu, etxe berria eraikia dute.

Prontxio Elortza etxeko osabak (80 urte) ozta-ozta ezagutu zuen amona Prontxi. Aita, Joxe Mari Elortza Leturiaga bertako semea eta Iñaxi Oiarbide Zuaznabar, **Larregain** baserriko alaba ama. Seme-alabak: Joxe, Joakina, Prontxio, Mikela eta Pilar.

Etxerako Joxe seme zaharrenak eta Prontxio anaia gazteagoak fabrikako lana eta baserrikoa batzeko bideari atxiki zitzaizkion. Joxe ezkondu Joxepa Azpiolea, **Pitikar** baserriko alabarekin eta seme-alaba hauek izan zituzten: Manoli, Joxe Mari (txirrindularia, istripuz hila) Iñaki, Milagros eta Joakina (bikiak) eta Maria Pilar.

Gaur egun, baserrian, Iñaki eta beronen emazte Kontsuelo Muniain Zubillaga,

Galarmendi Behekoa baserriko alaba, bizi dira bertan osaba Prontxiorekin.

Benetan baserri koxkorra zela dio Prontxiok Pardiola-Txiki. Hori izan zen bi anaiak kanpora lanera joan beharraren arrazoia. Joxe Santa Barbarako harrobian *artillero* lanetan eta Prontxio Mendia-Enean ari izan ziren. "Egunero, larunbatak barne, orduan lanegun baitziren larunbatak ere, oinez 6 km eta gurdibide sastar bat baizik ez zenez, neguan eta euri egunetan abarka txar batzuk oinetako eta oinak "txurnioraino lokatzetan ibili ohi ginan sarritan gora eta behera"

"Hiru behi, zekor batzuk, orduan etxean hazten ziran, etxerako baratze eta oiloak, hori zan guztia gurean. Pentsa ezazu nola biziko ginan, pitarra izaten genuen etxeko edari, barrikatxo bat sagardo on eta sagarrik onena saldu egin behar familiarentzat sos batzuk bilduko baziran. Orain, joan ziren lehengo kontuak. Orain, etxera ekartzen dizute ogia, etxera ardoa, pentsua eta behar dan guztia".

Alde onik ere bai omen baserri honek, irastorra edo ganaduen azpigarria etxetik hurbil zuten. "Pilarika egunaren zain egoten ginan, batzuek ebaki eta besteek bildu eta etxera garraiatzeko. Gure orduko sailak sasiak harturik ikusita, amorru bizia sortzen zait begiratu hutsarekin orain".

Eskola arazoa aipatzean, Lepa Txiki eta Usategietatik barna malkarrean behera Fagollagako eskolara joan ohi ziren, "joaten ginanean" dio berak, eta komunio handia egin arte bakarrik, zeren orduan (12 urte) morroi joan omen Larregain baserrira eta hor soldadutzara bitarteko urteak egin. Soldadutza (3 1/2 urte) Burgosen, "ez erdara eta ez Kristo jakin gabe". Gerrakoan, juxtu-juxtu baina libratu omen.

Inguru herrietako festa nagusiez aparte "bilerak" deitu erromeria koxkorrak bilatzen zituzten jai arratsaldetan. Aranoko Benta Berri eta Ereñotzu aipatu ditu bereziki. Sasoia ere bai orduan, baina dena oinez egin behar. Oroitzen da lehendabiziko kotxea ere nork izan zuen Hernanin, Bittor Otxotorenak.

Igandetan 6tako mezetara eta luistarren kongregaziora hilean behin. "Horrelako aldaketarik pentsatzeak ere", baduela dio lanik asko.





Etxe ondoan bertan dago sarobea, edo *xarobea* bertakoek esaten duten bezala. Zer nolabait ardi eta abercei buruzko adierazpena du, dela artegia dela hauek biltzeko edo bazkatzeko lekua.

Osinaga auzoan, Txonkua-Enetik gora Argindegi baserria goian eta honen hegaleko malda barrenean, zabalune batean, kokatzen da **Sarobe** baserria. Garai batean etxebizitza bakarra izandakoa, gero bi egin zituzten, 1947 aldera, anai-arrebak etxe banatan bizitzen jarriz.

Gaspar Aranburu eta Manuela Joxepa Otegi bertako aiton-amonak, zazpi seme-alaba izan zituzten, horietarik bat artean haurra zela hila, hona besteak: Inaxi, Anttoni, Joxe Antonio, Patxiku, Gregori eta Kaximira. Hauetarik, Anttoni, han-hemenka neskame ibili ostean (Maria Kristina hotelean, esaterako) osasun arazoak bitarteko, jaiotetxera itzuli zen berriro.

Patxiku eta Kaximira, bi anai-arrebak Bixenta Miner eta Joan Migel Miner, **Intsusadi** baserriko anai-arrebekin ezkondu ziren.

Kaximirak eta Joan Migelek hiru seme-alaba izan zituzten: Maitere, Manoli eta Patxi. Eta



izenaren harira badu kontatzekorik nire solaskideak. Antza denez, eta ohitura zen bezala, aita Hernaniko epaitegira alaba izan zuela eta, erregistratzera eta izena Maitere jartzera. Bidean zetorrela, ordea, seko ahaztu alabari jarri behar zion izena, eta Portura iritsitakoan Gorria-Enekoari entzun bere alabari "Maitere!" deika, eta orduantxe burura etorri.

Beste alabak ere, Manolik, badu berea; amona izaki honen amandrea, eguraldi oso gaiztoa eta gaixorik ohean haurraren bataio egunean; hala bada, izebak ekarri omen zuen elizara bataiatzera eta berak egin amandretza amonaren izenean.

Manoli etxerako, Tomas Flamarike andoaindarra senartzat hartu eta lau seme-alaba izan: Jon, Nekane, Aitor (bi hilabete t'erdi zituela hila) eta Aloña.

Anaia Patxi, bizikleta zale amorratua, hartara jo zuen bizibide bila eta bere izena aski ezaguna dela Hernani aldean eta txirrindularitza giroan esan behar da.

Beste aldeko etxebizitzan, Patxikuk eta Bixentak zazpi seme-alaba izan zituzten, baina 4 txikitan hil ziren, txikienak bikiak, eta hiru bizitu ziren: Gaspar (dagoeneko hila), Joan Migel eta Frantzisko Mari.

Egun bi semeak (biak ezkonge) bizi dira baserrian.

Aita, Joan Migel, *lorrean* ibiltzen zen, gero Irin Fabrikan eta azkenean "Biyak-Bat" papeleran, eta handik aparte baserrian. Halarik ere, esanik doa baserria bitan banatu zela eta bat handia ez bazen, gero bi koxkor gelditu zirela. Behi pare bat, beste hainbeste zekor, zerria eta zerrama, baratzea ere bai baina gutxi. Oraino gogoan du nola etortzen ziren aitak egindako zaldi-karroan txerrikumeak hartu eta ostegunetako ferian saltzera. Eta honen harira, aita oso artetsua



zela diote, berak egin omen haurrentzako sehaska, eta etxean behar ziren erreminta guztiak. Ttiki-ttikitandik ekarri omen zuen zurgintzarako grina eta abildadea baina bere aitak "etxean sega eta sardearekin nahikoa lan bazegoela" esan eta ez omen zion lanbide horretan sartzeko aurrerabiderik egin.

Aita hildakoan, 1976an, atera zituzten behiak eta egun, garbitzearen alde ematen dituzte belarrak.

Bestalde, Santu Guztien eguna dakarte gogora bi ahizpek, hotza nahiz euria goien-behean izan, krisantemo loreak hartu eta kanposantura joaten zirenekoa, han etxekoen nahiz aldameneko lehengusu aingeruen lurreko hilobiak garbitu eta lore txuri txikiekin R.I.P. hizkiak jartzen zituzteneko garaiak, "guk ez genekien zer esan nahi zuten baina denek jartzen zutenez, guk ere huraxe jarri".

Beste bizitzan, Patxikuk eta bere familiak ere antzeko bizimoldea zuten. Eziago papeleran eta handik kanpo baserrian jarduten zuen senarrak. Alabaina honen semea, Joan Migel, beti baserrian aritu izan da, osasunak lagundu dion bitartean. Orain, ordea, behiak larrera bota, eta jada fabrikatik erretiratutako anaia Frantzisko Mari eta biak bizi dira baserrian.



orochabal" eskrituretan. Ez da jakiten ahal gauza handirik urteetan lau pareta zahar baino (hondakinak egun) erakutsi ez dituen baserriari buruz.

Gain zabal batean, Bortolua-Enea baserria baino beheraxeago dagoela edo zegoela, **Munto** edo *"Muntto"* izengoitik deitu soinujole ezkonge bat zela bertako azken biztanlea eta Rezolatarrak familia dela beraren jabea. "Nomenclator" zerrendan ageri da (1870), hori bai. Baina deus ez hortik aurrera.



Tolareta



Zeregin edo lanbide berezi bati loturik, sagardogintza hain zuzen, ageri zaigu etxe honen izena. Garai batean, orain ez, dolarea eduki zutela, askotan entzuna dute etxekoek. "Tolarieta" ipinita dauka etxeak.

Osinaga bailaran Urnieta aldera jo, Errotaran Goikoa pasatu eta Harlimuriko errekara heltzean ezkerreko bidea harturik luze gabe aldapan kokaturik daukagu **Tolareta** baserria.

Etxearen zati nagusia, bi isuritakoa, saihetsetik ukuilurako sarrera eta aurretik ataria mandioa bailitzan etxebizitzarako atea. Honen gainean ganbara. Alboan, ezkerretik, etxe-ordekoa, etxearekin L hizkia osatuz bezala, bere mandioarekin. Beste estalpe bat etxe aurrean.

Jabier etxeko nagusia (60 urte) dut solaskide. Nagusi bitza aipatzean, hala dio irribarrez:

-"Nagusia? Toki onean! Nik oraindik ez dakit nagusi izatea zer dan. Lehen gurasoek agintzen zuten. Orain seme-alabek dute agintea hemen". Adierazpena ere garbia izan da. Etxe zaharraz goiti oraintsu eraikia dute bi bizitzako berria, baserri zaharraren izenean, jakina, eta agidanez hura egin ahal izateko, bestela baimenik ez ematen, seme-alaben izenera eskubideak pasa behar izan ditu.

Aitona, Paulo Mendizabal Zubeldia, etxeko semea duela gutxi 101 urterekin, mende oso baten gainetik (1899an jaioa) jauzi eginda hil dena; Madalena Lekuona Lekuona, oiartzuarra, amona. Hona seme-alabak: Maria, Teresa, Joxepa, Raimundo, Euxebi, Jabier eta Joakina. Gainerakoak, 13 izan eta txikitan hilak.

Jabier dugu egun Maria Erroizenea Miner, **Fagollaga**ko alabarekin ezkonduta Mertxe eta Xabier bi seme-alabekin etxean, etxe berri dotorean.

Hargina zen ofizioz aitona, goizean lanera baino lehen eta arratsaldean lanetik etorrita baserrian jardunez. Nola harrapatu edo zein sekretu izan ote zuen honek ehun eta gehiago urte bereganatzeko, nik galdegin Jabier semeari:

- Ez zen erretzailea izango?
- "Erretzailea? *Trailerka* bere denboran. Erretzaile porrokatua! Zenbait urtetan etxeko soroan tabakoa landatua zan. Tabakoa txiki-txiki egin eta *xurikinez* moldatzen zitun zigarroak". Errainak edo alabak ere *Kaldo* paketea ekartzen omen egunero kaletik.

Zortzi behi bazituzten, eta amonari ere egokitu zitzaion berea. Esnea kalera eramaten zuten.

Jabier ezkondutakoan, andrearen laguntza zuela noski, baina ganaduak gehitzera jo zuten, horretarako ukuilua berrituz. Anartean astoa izaten zuten esnearen garraiorako, zaldia eta karroa handik aurrera.

Jabier aitak, jubilatzeko gogo bizitan jada, lore eta landare munduan egiten du lan. Jabier semea, *kutxara* deitu tramankuluarekin, berriz, denak baserriaz arduratzen direlarik.

Txonkua-Enea



xanko (txango-ren aldakia *cojo* "defecto en cualquiera de sus extremidades; *zanco* hitzetik ausaz). Txankoaeniak, ordea, interpretapen hau zalantzan utz dezake. (Luis M. Mujika "Euskal Toponimiazko Materialeak" 142. or.).

Errotaran errekak Urumea ibaiarekin bat egiten duen kokagunetik hurbil dago **Txonkua-Enea** baserria, Hernaniko hirigunetik 2 km-tara, Onddi mendirako bidean, Loiditik gertu.

Harriz eta zurez egindako baserri zaharra da. Aspaldikoa oso. Ondoko errekatik ateratako harritzarrekin jaso ziren lau pareta nagusiak eta inguruzko akazia-egurrarekin, berriz, solairuak eta teilatua. Berau hiru isurikoa izaki, bi etxebizitzako baserria izan da duela gutxi arte, karrerapea albo batera duela. Beheko azalera osoan ukuilua, eta goian dolarea, sukaldea eta bost gela handi. Azalera beretsuko ganbara handia, era guztietako uzta (arto, babarrun, intxaur, sagar, patata, etab.) gordetzeko. Bi etxebizitzako baserri handia izan da 1990ko hamarkadara arte. Orain 10 bat urte bota zen baserriaren zati bat Udalak aginduta, horren truke eman baitzion baimena bere jabeari inguruan etxe berri bat egiteko.

GARIN UGALDE Familia

Raimundo Garin eta Dionisia Etxeberria ziren **Txonkua-Ene**ko Joakin Garinen gurasoak. Raimundo aita, ordea, gazterik hil zen eta Dionisia berriro ezkondu zen Seberiano Insaustirekin, beste 4 seme-alaba eman zituen bigarren ezkontza honek: Migel, Anttoni (moja), Joxe Ramon eta Dolores.

Joakin etxerako, Inaxi Ugalde emaztetzat hartu eta sei seme-alaba izan zituzten: Jazinta, Manoli, Joxe Mari, Maria Luisa, Migel eta Mari Karmen.

Joakin Garin gogotik saiatu zen Txonkua-Enea baserriaren jatorrizko nondik-norakoak argitzen. Hernaniko D. Joakin Iturriotz apaizak elizak zeuzkan dokumentu ugari erakutsi zizkion aurreko biztanleen ibilerari buruzko argibide zehatzekin, eta huts handirik egin gabe, esan daiteke 350 urte inguruko antzinatasuna baduela baserriak. Paperek diotenez, Goierri aldetik Hernanirako bidea hartu zuen familia bateko kideak izan ziren Txonkua-Enera bizi izatera etorritako lehen biztanleak.

GARIN eta SALABERRIA Familiak

Aitonak anaiak izaki, bestetxean ere Garindarrak izan dira (zortzi anai-arreba) bertan jaio eta urte askotan bizi izandakoak. Horien guztien buru, Joxemari Garinek (dozenaka marka hautsi dituen atleta ospetsuak) urte asko egin zituen Txonkua-Enean baserriko langintzan. Txofertzako lanak bultzata, baserria utzi eta 1968an kalerako bidea hartu zuen. Nolanahi ere, baserriak izan zuen jarraibiderik ondorengo urteetan.

Garindarrek baserria utzi bezain laster, Goizuetako Joxe Salaberria eta Felixa Narbarte senar-emazteak etorri ziren Txonkua-Enera 1970. urte aldera, beren lau seme-alaba: Joxe, Maria Anjeles, Felix eta Anabel, eta Genaro Salaberria eta Anjeles Apezetxea guraso, eta anaia batzuekin batera.

Maizter berriek berrikuntzak ekarri eta bizitasuna eman zioten Txonkua-Eneari. Ohiko 6-8 buruko ukuilu txikiaz gain, artalde handia eta horrekin batera artzain usadioko hainbat baliabide jorratzeko lan-ohiturak ere (gazta, mamia, larruak, etab.) ekarri zituzten Osiñagako bailarara. Hizkuntzari dagokionez, euskaraz mintzatzeko era eta doinua ere apur bat desberdina, hernaniarron belarrirako arrotz samarra hasiera batean, baina elkar ulertzeko batere eragozpenik gabea. Hogei urte beranduago baserri handiago bat hartu eta utzi zuten Txonkua-Enea Salaberriatarrek (amona oraindik bizi da 96 urterekin!).

Txonkua-Enea baserriaren berezko ezaugarri batzuk aipatze aldera, bizpahiru gertakari berezi nabarmendu beharko lirateke, besteak beste:

Alde batetik, sagardogintzan garrantzi handiko mugimendua izan zuen garai batean. Urte haietan ez zegoen gaurko sagardo-industriarik. Inguruko baserri guztiek (oraingo Otsua-Enea handia bera ere tarteko) Txonkua-Enean jotzen zuten beren sagastietako sagarra eta idiekin garraiatzen norbere kupeletara. Jende asko biltzen zen Txonkua-Enean mokadua jan eta sagardoa probatzera. Bolatokia ere bazeukan baserriak eta hamaika kontu jakiteko topagune aproposa izan omen zen urte askotan. Garai hartako anekdota bitxi eta ugari kontatu izan ditu Joakinek bazkalondoko solasaldietan. Txonkua-Eneak 1987an utzi zion sagardoa egiteari.

Errekaren maila berean eraiki izanak arazo franko sorrarazten zizkion baserriari. Uholdeak gaur egun baino maizago jasan behar izaten zituen Osiñagako bailara osoak eta errekak gainezka egin orduko, bete-betean sartzen zen ura ukuiluan. Ganadua hartu eta atzealdeko kanaletik gora eraman behar izaten zen, euripean, errekako ura bere onera etorri bitartean.

Baserri honen beste ezaugarrietako bat bere jabetzako erriberako lursailek eman diotena izan da. Portualdeko erriberako lur heze emankorrak bertan ereindako era guztietako produktu-sail handia eman du. Eta gaur ez bezala, lurretiko uzta oparoko urteak ezagutu zituen Txonkua-Eneak bere garaian. Gaur egun Hernaniko hegoaldeko saihesbideak zeharkatzen ditu lursail hauek.

Azken hamar urteotan hutsik dago Txonkua-Enea. Baserri zaharra da eta denboraren poderioz hasia dago apur bat kraskatzen. Bertako seme-alabek asteburuko aisialdirako darabilte, baratze pixka bat landu eta inguruak garbi mantentzearren baina baserri gisa, beste askori bezala, amaitu zaio, betirako, bere ibilbidea.



Auzoak

Lastaola

Epela

Ereñotzu

Ugaldetxo-Pagoaga

AUZOAREN HISTORIA LABURRA

Hernaniko herriari buruzko dokumenturik zaharrenetako batean (1141), Gartzia Ramirez nafar erregeak egin lurralde zenbaiten dohaintza bitarteko, Lastaola parajea aipatzen da, halaber "Hurumea" gisa honetan idatzita aipatzen delarik. Antzinakoa da, beraz, Lastaolaren nortasuna Lizarragatik hasita Usategieta bitarteko hegi horretan, ez dago dudarik.

Mendeak geroago Lastaolak baserri egoki bat izan zuen oinarri, bere izeneko beste zenbait inguruan sortuz, hala nola Lastaola Goikoa, Lastaola Sarobe, Lastaola Berri. Orain, ama zaharra esango genukeena, ez aspaldi baina, desagertu zen, aro berriei, egun, aberatsagotzat ematen den industria munduari amore emanez.

Hala, baserri gutxi batzuk eta etxetxo polit bakanak ageri zaizkigu edo gelditu dira Lastaolaren magalean eta pabilioi industrial erosoak beronen oinetan, beheko errepidetik hurbil bertako ibar luze eta zabaletan.

BASERRIAK

- Añarregi
- Gure Sari
- Intsusadi
- Iparburu
- Lastaola (Desagertua)
- Lastaola Berri
- Lastaola Goikoa
- Lastaola Sarobe (Desagertua)
- Lizarraga (Desagertua)
- Montefrio
- Okendo-Enea
- Olaziregi (Putro-Enea)
- Txabola
- Usategieta

SOLASKIDEAK

- Errazkin, Rafael (Añarregi)
- Etxabe Oiartzabal, Manuel (Lastaola Goikoa)
- Etxeberria, Bixente (Lastaola Goikoa)
- Garaiar Otegi, Manuel eta Mila (Lizarraga)
- Garaiar Setien, Anttoni (Lizarraga)
- Garaiar, Ixabel (Lastaola Sarobe)
- Iturralde Vitoria, Agustin eta Mari Jose (Okendo-Enea)
- Loinaz, Luis Mari (Usategieta)
- Mariezkurrena, Joan Mari (Okendo-Enea)
- Oiartzabal Leunda, Maria Jesus (Txabola)
- Otegi Arbe, Gaspar (Lastaola Berri)
- Vitoria Arbe, Rufina (Intsusadi)
- Ugalde, Ramon (Lastaola)
- Villarrolain Retegi, Felipa (Intsusadi)

Añarregi



Rafael, bertako aitona (81 urte) aurkitu dut etxe atarian, eta "ainarraren" esanahia duela etxearen izenak esan dit inolako duda-mudarik gabe. "Ainarra" batetik, "hegia" bestetik, etxe atzeko malkarra ikusi besterik ez dago horretaz jabetzeko.

Lastaola–Lepa Txiki bide nagusiaren eskuinera Okendo-Ene baserrien ondoan daukagu **Añarregi** baserria. Badute beste bide bat, aldapa eta kazkarragoa dena (orain ona hau ere) Altzuetan barna Osinagara doana, eta oinez nahiz astoarekin herrira joateko beti hortik zehar ibili izan direna.

Etxe tente, berri eta modernoa dugu, bi isuri berdinekoa, ezkerretik alderik alde terraza eder bat duena, eta etxetik at, atzean ukuilu libre zabala. Duela 16 bat urte, goitik behera, oinarriak lehen solairura arte salbu, berritua izan zen, hauen erreka harri bitxia agerian utziz. Etxe zaharra egitura berekoa omen, baina apalagoa. Esan behar da, etxearen fatxadan gailurraren azpian hizki dotorez eginik Añarregi izena ezarria daukala.

Aurrekorik, gurasoak ezik, ez zuen ezagutu Rafaelek. Aita, Joxe Antonio Errazkin Garaialde, etxeko semea, eta ama, Bittori Zubiarrain Nazabal, beasaindarra zituen. Eta hona hauen seme-alabak: Joxe Ramon, Manuel, Joan, Joxepa, Felix, Maria, Iñaxi eta Rafael. Rafael, senidetarik gazteena, etxerako. Ezkondu Kandida Setien Setien, **Ierola Goikoa** baserriko alabarekin, eta seme-alaba hauek izan: Antonio, Maritxu, Iñaxi eta Iñaki. Orain, Rafael eta Antonio, aita-semeak bizi dira baserrian, Iñaxi alaba laguntzera etortzen zaiela.

Bizimodua nola antolatu zuten galdegin diodanean, erantzuna hau izan da: "Eskola handirik ez eta hementxe, astoa bezala lan eginez". Bederatzi bat behi, zekor batzuk, zerri bat etxerako, eta idi parea izaten zituzten. Baserri polita. Astoa, gero batera behorra bere orgarekin eta autoa azkenik. Berebat, lursail politak dituzte, etxe atzeko malkarrak (orain betelana egiten) izan ezik. Lehen, esnearekin Donostiara eta Hernaniko etxeetara gero.

Garai batean dolarea ere izan zen Añarregin. Orain etxerako (eta etxekoentzat) soilik sagardoa upelategian. Ondo gogoan du Rafael aitonak etxe gaineko lursaila txara eta zuhaizti zirenekoa eta nola pixkaka-pixkaka garbitu ahala sagasti bihurtu zituzten. Lanik gogorrena, asto-lana, ganaduen azpigarria etxeratzea izaten zela dio aitonak. Aranoko "Karakola" deitu parajera eta Urdaburu azpira joaten omen ziren. Epela errekan ere bazituzten bi lote "herriarenak, bost duro (gero hamarrera jaso zuten) ordainduz".

Gaur egun, etxe atzeko ukuilu libre horretan behi saila daukate, berrogei bat buru, behi eta zekor, guztira.



Gure Sari



Udategieta baserriko lurretan Lepa Txiki alderako bidetik ehun bat metrotara mendixka baten oinean, babesean, eta ipar-ekialdera begira dago garai batean baserri izan zen **Gure Sari** etxea. Arantzatik (Nafarroa) etorria zen familia, Larretxeatar familia, lursail bat erosi eta bertan, izen polit bat ezarriz, etxea eraiki zutelarik.

Guraso eta seme-alabak ziren, eta haiek bizi izan ziren arte lauzpabost behi izan ohi zituzten. Gurasoak faltatu zirenean etxea saldu eta hemendik aldendu ziren. Gaur egun hiru etxebizitza daude, ukuilua izan zen lekuan bat eta goian beste bi.





ALTUNA VITORIA Familia

Ez da batere lan gaitza izen honen ikerketa lana: *"Intsusa"* (zuhaixka mota bat) gehi *di* (ugaritasuna), hots, intsusa ugari den lekua. Leku hezea nahi du intsusak, eta mundu guztiak badaki, erredurak sendatzeko, lehen, baserrietan intsusaz egin ohi zen ukendu goxoa, argizaria eta oliba olioz baliaturik.

Fagollagatik Lastaolara doan herri bidearen azpialdetik dago Intsusadi baserri sastarra gaur egun, baina lehen hiru bizitza zituen etxea, bi bidez azpitik eta goitik hirugarrena. Altunatarrak hemen. Hiru familia bizi ziren, hiru baserri koxkorretan: Villarrolain, Miner eta Altuna familiak.

Altunatarren amona alarguna, Rufina izenez, (78 urte), hartu dut solaskide. Senarra, Migel Altuna Atxaran, amezketarra, eta Rufina Vitoria Arbe, nire solaskidea eta **Okendo-Ene**ko alaba, emaztea. Seme-alaba hauek izan zituzten: Joxe, Ramon eta Luis, bikiak (1), Rosa Mari, Mari Karmen eta Margarita.

Orain, umorez eta txantxetan bezala jaurtiki dit honako esaldia: "hauek egin zituenak ere bazizkin abildadeak" baina senperrenak ikusia zen hauek erditzerakoan. "Haurminak sentitzean, aita bizikleta hartuta medikuarengana lasterka. Auzoko andrea eta gizona izan nitun laguntzaile". Gizonak haurdunaren besoari eutsi honek indar egin zezan, eta andreak haurra erditzen lagundu. Jaio da haurra, lehena, eta sabela handi oraino. Bigarrena ere bai handik pixka batera.

Medikua eta aita etorri zirenerako auzoko andreak beso banatan omen zituen bi mutikoak, horra. Orain, amona Rufina, Ramon semea, beronen emazte Maite Urdangarin Iriondo, urnietarra sortzez, eta Ainitze hauen alaba bizi dira etxe berean.

Besteak beste, Migel eta Rufina ezkondu eta bizimoduari ekin ziotenean, hasiera estua izan zuten: etxea errentan, altzariak *bigarren eskukoak* eta pixkaka pagatzekotan. Oroitzen da 7.000,- pezeta mailegutzat adiskide bati eskatu behar izan zizkiotela urtean 200,- pezeta itzultzekotan.

Aurrena bi zerri eta astoa ekarri zituzten baserria osatzeko. Udazkenean, hura zoritxarra! Bost zaku babarrun baizik ez zuten bildu ahal izan, uholdeak etorri, eta arto eta babarrun denak hondarrez tapatu zizkien eta. Hurrengo udaberrian lehenengo behia eta udazkenean zekor txiki bat etxean hazteko. Hala, joan ziren urtean hiruzpalau behi eta beste hainbeste zekor osatzen. Behorra eta orga zituzten ganadu jana eta garraiorako. Aitak Elektrokimikan lana, baserrikoarekin tartekatuz.

Esnea, gazta egiteko erabili zuten aldi batean, gero goizen seietarako Gurelesari Fagollagara. Iturria, etxetik oso aparte joan gabe. Udan agortu egiten zen eta orduan izaten ziren komediak. Arropa garbitzea, etxe barreneko ibaian.

URBIZU VILLARROAIN Familia

Intsusa zer den galdeginez eman diot hasiera elkarrizketari.

Felipa bertako alabak (78 urte) zera esan dit:
- "Makina bat biltzen genun. Hagineko minaren kontrako, flemoia, erixepela... sendatzeko ibiltzen genuen intsusaren lurrina".

Eta beste erremediorik? Bizpahiru berehalako batean bota dizkit.

- "Belar urik ez da azukrearekin hartu behar. Azukreak sustantzia kendu egiten dio. Goizean baraurik hartu behar da ura".

Beste bat.
- "Hiltze zaharren bat sartu ezkero, bederatzi harri txuri (etxearen ittuzurapetik hartuak), bederatzi erramu hosto eta bederatzi baratxuri ale, denak batera egosi eltze batean, gero eltzea kazuela batean ipurdiz gora ipini, orrazia eta guraizeak gurutzaturik eta hauen gainean orpoa jarri behar da. Ura eltzean barrena biltzen da. Pasmoarentzat erremedio hoberik".

Eta bestea.
- "Osinen (asuna) ura. Gripe hasi baino lehen hartu behar da osinen ura. Udazkenean hostoaren erorian eta udaberrian hostoaren ateeran. Goizean baraurik, hiru egunetan bat. Donostiara xortaka eramaten genitun, 13 urte nituenerako eraman ere".

Baldarra omen zen etxea. Bizitza bakarra izana eta gero bikoiztua, agidanez. Bide aldetik zeukan sarrera, ezkaratza eta alde banatan sukaldeak. Ateak ireki eta elkarrekin hizketan aritzen omen. Bakoitzak hiruna gela eta sala, baina hauek tabike batez bereizirik.

Behean bi ukuilu, oholez banandurik. Lurrak, ezkerrekoak Lastaola aldetik eta Fagollaga aldera eskuinekoak. Dolarea aparte, eta hau ere gerora baserri bilakatu.

Gurasoak, Justo Villarrolain Larburu aita, Hernaniko kalekoa; ama Joana Joxepa Retegi Gurmendi, bertako alaba. Amaren hiru ahizpa bizi ziren, gainera etxean. Jakingarria, bertako lau belaunalditan (oinaldi zioen berak) aitona, aita, senarra eta gero suhia etorkinak, alabak gertatu ziren etxekoak.

Seme-alabak: Joxe Mari, Felipa eta Maria Pilar. Felipa ezkondu etxera, eta Patxi Urbizu Bereau, Nafarroako Arantzan jaioa, Antonio, Maria Luisa, Joxe Mari, Mari Karmen eta Joxe Ramon seme-alabak izan zituztelarik. Maria Luisa etxean, Joxe Zendoia Ansa, Andoaingo Karrikako semea eta Belen eta Mikel hauen seme-alabak.

Bizimoduaz mintzatzen hastean txikitako gauzak aipatu dizkit. Komunio txikia Ereñotzuko elizan, artean ermita, egin omen zuen Felipak. Gero, parrokian Komunio Haundia. Hernanira oinez 6 kilometroko bidea eginez hamabost egunetan dotrinara. Azentzio egunez eta zuriz egin zuen komunio hau.

Ongi oroitzen da autobusean joan zirela eta... etorreran autobusa aberiatu, txerri-kamioian (Laxaro Ibarluze) etxera, "txukunak etorriko ginan". Komunio bazkaria, *extra* izan zela dio: "oilo zopa ederra, oilo egosia piper gorriekin eta arrozesnea".

Aitak eta amak baserritik atera zuten bizimodua. Sei behi, lau esnetarako, bi uztarrirako. Esnea, goizeko bostetan etxetik irten, Donostiara tranbian. "Baratza haundia beti, barazkiekin moldatzen ginan".

Felipa ezkonduta baserri lanean; senarra Pasaiara egunero lanera eta seme-alabak ere kanpora gauza izaten hasi zirenean. Ororen buru, Felipa bakarrik baserri lanerako, erabaki bat hartu behar eta etxea saldu eta Urbizu taberna Ereñotzun.

Gogoko gauza bat galdu zuen Felipak baserriarekin batera. Baserrian arrosarioa errezatu eta garaiz ohera. Tabernan ezin horrelakorik, eta makurrena, goizean 6:00etan ireki ohi zutela.





Harrizko etxe xahar polita, garai batean Errazkin familia bizi izan eta gero Zikuñagako Etxeberria familiak 1939an erosia. Ez dakit zergatik duen **Iparburu** etxeak izena. Kaskoan, bai, badago, ipar haizeak ere ongi joko duela esan daiteke, baina sarrera eta ataria etxeak ekialdera dauzka.



Iduri du lur gogorrak ere ez dituela. Aurtengo udazkenean berean artasoro ederra egon da. Baratzea ere berdin eta sagasti desberdinetan poliki baliatu da Joxe Etxeberria, egun, bertako nagusia dena. Esan beharrik, kalean bizi den arren, egunak dituen ordurik gehienak baserriko zereginetan ematen dituela. Edonori ere gauza bat baino gehiago deigarri gertatuko zaizkio Iparburun, eta ororen buru hau behintzat bai, sagar landare gazteak Joxek berak hazia erein eta nahi duen motako mentua erabiliz txertatzen dituelarik.

Lastaola



Nire solaskide Ramon etxeko semeak (63 urte) garaien batean burdinola izan ote zen errezeloa edo aditzera badu. Dokumentuetan ez da azaltzen horrelakorik. *Lastoa* eta *ola* ditu osagai segur aski izen honek. Edo lastoa gordetzeko lehorpea edota lastoz egin nahiz estalitako zerbait adieraziko luke. Dena den, "Lastola-Becoa" ageri zaigu "Nomenclator" zerrendan (1870) eta "Casa Lastola" Hamarrenak zerrendan (1610). Jendearen ahotan ere, Lastola, entzun ohi da gehienbat.

Goizuetarako errepidean Ibarluzeko, orain Kaminetxeko parean eskuinera jo, Makinetxe deitu zentraleko zubiaren gainetik barna Lepa Txiki aldera doan bidean ezkerrera aurkitzen zen **Lastaola** baserria, gaur desagertua dena. Baserri handia zen izatez, 300 m² bai omen luze-zabalean. Bi isuritako baserri errektangeluarra, inolako eranskinik gabea eta bizidun guztiak (pertsona nahiz abere) bere barne besarkatzen zituena.

Hegoaldetik sarrera nagusia, sartu eta ezkerrera upelategia. Dolarerik ez zuen ezagutu, etxean noizbait izandako aztarrenak baziren arren, eta sagardotegi ere izana. Eskuinetik gorako eskailerak, majera aurrea ganadu jana edukitzeko, ukuilua gibelean eta saihetsetik ate handia simaurra ateratzeko. Oiloak eskailerapean.

Lehen solairuan, aldiz, etxebizitza, sukalde, sala eta bost gelarekin. Ganbara zabala ukuiluaren gainean artoa, babarruna, patata, gordesagarra... edukitzeko. Belar ondua eta azpigarriarentzat metak izaten zituzten etxe ondoan.

Aitona, Joan Martin Ugalde omen zen, **Epele Torre**ko semea. Gurasoak, berriz, aita Joxe Ugalde Astarbe, etxeko semea, eta ama Iñaxi Astarbe Etxeberria, **Epele Torre**ko alaba. Lehengusu ezkontza. Eta hauen seme-alabak: Jesus, Maria, Balentina eta Ramon.

Jesus, seme nagusia, gelditu zen etxean gurasoei lagunduz. Ezkondu, emazte Maritxu Urruzola Loinaz, Urnietako **Elutseta** baserriko

alaba, eta bi alaba izan: Ana eta Jone. Gaur Jesus eta Maritxu, senar-emazteak Lanberri etxean bizi dira.

Baina Ramon anaia txikiena ere etxearen zati batean bizilekua antolaturik, ezkonduta Lastaolan bizitzen jarri zen. Emaztea Mari Karmen Retegi Retegi, Errenteriako **Egiluze** baserriko alaba, Asun, alaba bakarra izan zuten. Jakingarria hau ere, ezkonduta, **hirukien ama** dela Asun, hirurak biziki haur sanoak direlarik.

Baserrian hamar bat behi, zekorrak, behorra garraiorako bere orgarekin, zerri bat edo bi urtean, oiloak eta baratzea, baina ez handia. Garrantzi gehiago soro lanari, arto, babarrun, patata eta arbi. Lur samurrak, erribera lurrak.

"Esnea eta ahal zena hartuz, Ramonek hala dio, egunero Hernaniko plazara. Orain egongo ez litzatekeen bezala, lasai asko egon ohi zen gure behorra Hernaniko plaza nagusian".

Jesus, seme zaharrena, gauza izaten hasi zenean, Zikuñagako papelerara joan zen lanera. Aita eta ama baserriari loturik izan ziren beti. "Baserriko lanaz aparte, aita oso artetsua zen, gurdi, lanabes, erlauntzak barne, aitak eginak ziren gure etxean. Hara, behorrarentzat bi orga genituen, egunero erabiltzeko bata, dotorea bestea, kolore desberdinez jantzia (gurpilak, kartolak...) emaztea eta haurrak hartuta igande arratsaldean batean edo bestean herrira joateko, eta... urtero San Roke egunez Aranora ere bai".

Ramon, aldiz, seme gazteena, "zer ikusi hura ikasi", 18 urtera arte gurasoekin baserrian ari izan zen. Orduan zurgintza lantegi batera (Imaz) eta Erlo lantegira gero eta handik baserri zaharreko bazter batean altzarigintzari ekin zion. Bidea urratu ahala, Jesus anaia zaharrena, fabrikatik irten, eta bi anaiek, serioski heldu zioten altzarigintzari. Gaur egun Lastaolako lurretan "Ugalde sukaldeak" deitu lantegia daukagu abian, baserria betikoz itzali zelarik.

Eskola, Fagollagara, Kasilda Lizeaga maistraren ardurapean. Egurra izan zutela pedagogia dio Ramonek, "izan ere eltxoa baino ume gehiago bai ginan eskola hartan". Igandetan mezetara senide guztiak amarekin aberea eta orga gainean, manta zaharren bat berogarritzat harturik.

Agurtzerakoan, biloba hirukien bila abiatu da Ramon, autoaren atzean hiru aulkitxo gerriko eta guzti poliki antolaturik dituela.



Lastaola Berri



Izen bereko, Lastaola, hiru baserrien artean berau gazteena, zaharrena jada itzalita delarik. Lastaola Goikoa baino goraxeago, Makinetxe–Fagollagako bide nagusiaren eskuinera, bertatik, bidegurutzea, Lepa Txikira adar bat eta Elorribia eta Osiñagara bestea, kokatzen zaigu **Lastaola Berri** baserria.

Gaspar etxeko nagusiak (62 urte) antzina borda izandako susmoak ditu, agian Lastaola borda. Idarreta deitu donostiar familia omen beraren jabe, eta hauek borda edo etxe zaharrari puska berri bat udaldia bertan pasatzeko ezarri ziotenean **Lastaola Berri** bilakatu zen. Gaur egun, kabiera handiko etxe jasoa dugu, alboan, lehengo perratokiak eta beste txabolak, txatarra lantzeko eta bereizteko erabilpena dutelarik.

Oroitzen da amona zenaz, Rufina Etxenike Gorostidi, **Añoa**ko alaba. Gurasoak, aita, Joan Bta Otegi Aranburu, **Okendo-Ene**ko semea, eta ama, bertako alaba, Maria Arbe Etxenike. Honako seme-alaba hauek izan zituzten: Gaspar, Xabier, Iñaxio, Iñaxi, Kandiko, Joxe Luis, Axun eta Paulo. Seme nagusia, Gaspar, etxera ezkondu, emaztetzat Iñaxi Aginaga Aranguren Pardiolako alaba eta seme bakarra, Luis Gaspar, izan dutelarik.

Oinarri bat baino gehiago izan ditu bizimoduak baserri honetan, besteak beste *kontrabandoa* eta *ganadu* tratua aipagarri izanik. Lauzpabost behi izaten zituzten, eta behorra bere orgarekin esnea eta barazkiak Donostiara eramateko. Ongi oroitzen da Gaspar, Hernaniko Plaza Berrin (izen hau orain) zer nolako asto, behor eta zaldi samaldaren ikuskizuna izaten zen, agian, berrogeita hamar bat bai guztira. Burdinazko barra batzuk izaten ziren hor eta horietako batean behorra lotu eta tranbian Donostiarako bidea hartzen zuten. Oroitzen da, halaber, San Joan jaiegunetan behorra Karabelera, lehengusuaren etxera, eraitsi behar izaten zutela. Aita zena "Biyak Bat" papeleran ibiltzen zen lanean.

Idi parea zuten (eta dute oraindik, Hernaniko herrian kasu bakarra, noski), etxeko eta auzoko hainbat baserritako (Lastaola, Ibarluze, Lizarraga...) lurrak gorritzeko eta menditik hara eta hona azpigaia garraiatzeko, San Inaziotan hasi eta Urte Zaharretan kanpaina amaitzen zutelarik. Urte batean, hala zioen Gasparrek, 99 bidaia edo gurdikada ekarri omen zituzten, ehungarrena

ekarri nahi, eta uztarria hautsi, hartan geratu omen ziren urte hartakoak.

Kontrabandoa izan zuten beste bizi-iturria, Joan Bta eta Gaspar, aita-semeok. Zekorrak, 40 bat eguneko zekorrak (100 kilo ingurukoak, etxe azpian hil (etxea berritu ondoan ganbaran) hurrengo eguncan zekorra erdibitu, beraren besoa eta hanka gurutzatu, bakoitza zaku banatan eta barrunbeak beste zaku batean sartu, eta hala-hala igortzen ziren herriko harategietara, Lastaolako zaldi karroan, hau estalia izaki, eta bertako alaba Maritxuren ardurapean heltzen ziren herrira. Halako harategi jakin baten aurrean zaldia lotu, eta bera etxeetara esnea banatzen ari zen bitartean, beste norbait poliki arduratzen zen zekor-okela deskargatzeko. Gero, Gasparrek berak egin zion txanda. Guardia Zibilek garita bat omen zuten Karabeleko zubi ondoan. Beldurra eta komedia franko pasatu zuen agidanez.

Ganadu tratua izan zuen Gasparrek hurrengo zeregina, astero Torrelavegara kamioiarekin. Bost ordu behar izaten zituzten garai hartako errepideetan zehar hara helduko baziren. Baditu zeregin horretako hamaikatxo gertaera kontatzeko, hala fede!.

Azkenik, aposturako zaletasun nabarmena izana da gure Gaspar: *idi-demak*. Bizkaia guztia korritua da (Berriz, Mungia, Getxo...) han-hemenka antolatu idi-dema guztietan parte hartuz, garai batean behintzat, eta Gipuzkoan berdin.



Lastaola Goikoa



ETXEBERRIA Familia

Lehenik dugu bi bizitzako baserria zela aspaldidanik **Lastaola Goikoa**. Eskuinekoa dugu hau, aipatzera goazena, Etxeberria familiarena. Eranskin bat dauka honek ibai aldetik, terraza eta beronen azpian etxe-ordekoa nahiz dolarea, non etxeko eta inguruko baserrietako sagarra jotzen zen; errotan *laka* izan ohi zen bezala hemen *patsa* uzten zen, zerbitzuaren aldera.

Bixente etxeko nagusiari **Lastaola Goikoa** noizkoa den bai ote dakien galdegin diodanean, noizkoa ez baina norena izan zen badakiela izan da erantzuna. "Garai batean, Lastaola Goikoa (bi bizitzak) eta berebat Epele Etxeberri, Epele Borda, Epele Errota eta Epele Torre nagusi berarenak ziren, Rocaverde markesarenak".

Eta jarraian ba al dakizu, bai al dakizu.... bata bestearen ondoren, gauza jakingarrien berri eman dit:

* Minerala ateratzen zutela lehengo denboretan etxetik eta ibai ondoko sakanean, gabarra bidez garraiatzen zuten, agidanez, ibaian zehar. Bertan burdinolaren bat izan zenik ez du uste.

* Teileria ere izan omen zen etxe barrenean noizbait. Oraino urte asko ez dela desegin zen teilak egosteko labe koxkorra.

* Ibaiaren bestaldera pasatzeko, orain Polikloro eta Elektrokimika fabrikak dauden lurzoru horretan lur landua izaten zuten eta, *txanela* erabiltzen zuten ibaia zeharkatzeko.

* Etxeko atari-atarian (lurpean) pasatzen omen da Makinetxe deitu zentralerako uraren kanala. Jakingarria, irundarrek alde batetik eta gailegoek bestetik urratu zutela hau, elkarren lehian bezala jardunez, harik eta elkar topo egin zuten arte.

Pantxika Lizeaga, Ereñotzuko **Olaburu** baserriko alaba zuten amona. Gurasoak, aita Joxe Joan Etxeberria Lizeaga, etxeko semea eta Axentxi Otegi Otaegi ama, Albiztur Santa Marinako alaba. Seme-alaba hauek izan zituzten: Bixente, Mari Tere, Joxe Mari, Xanti eta Pakita.

Bixente etxera ezkondu, emaztea Joxepi Aginaga Aranguren, **Pardiola**ko alaba, eta seme-alabak izan: Gema eta Dabid. Gaur, senar-emazteak Dabid semearekin bizi dira baserrian.

Gurasoak baserritik bizi izan ziren. Gaztetan egur garraioan ibilia omen zen, bai, aita. Donostiara egurra eraman eta harea ekarri

etxerakoan ganaduaren azpietarako. Bost edo sei behi, esnea astoan hartuta tranbia nahiz autobusera. Baratze ederra izaten zuten. Oilasko eta arrautzak esnearen osagarri. Beste osagarri bat ere bazuten: astean behin arropa zikina, garbitu, lisatu eta sos batzuen truke entregatzeko.

Bixente ere baserrian ari izan zen soldadutzara arte. Gero etxeko lurrak murrizten joan ahala, ibaiz handik aldekoak Polikloro eta Petrokimikak irentsi zizkien eta Oronak etxez beheitikoak, lanera hasi beharrean gertatu zen. Berrogei urte lanean leku berean, (Elektrokimika) lan egin ondoren jubilaturik dago Bixente.

Etxe aurrean ur aska bikaina ganaduak edateko nahiz arropa garbitzeko. Duela hogei bat urte behiak kendu eta baratzegintzari soilik eutsi diote.

ETXABE Familia

Bi bizitzako etxea izana da aspaldidanik **Lastaola Goikoa** baserria, nahiz gaur hiru ere badiren, alboan bizileku berria sagardotegiarekin, eraiki zenetik. Izenak adierazi bezala Lastaolatik goraxeago, bidez ezkerretik hau ere, dago Lastaola Goikoa.

Manuel Etxabe Oiartzabal (77 urte) ozta-ozta oroitzen da aitonaz, baina garbi dauka amonaren ezaguera. Aitona Manuel Etxabe, getariarra zen izatez, etxearen ibai aldeko saihetsean *teileria* omen eta teilagintza lanera etorria zen, gero eskuineko etxeko alaba Manuela Etxeberriarekin ezkondu eta ezkerrekoan bizitzen jarri ziren, agidanez.

Gurasoak, Joxe Etxabe Etxeberria, etxeko semea, Martina Oiartzabal Ugalde, **Akola** baserriko alabarekin ezkondu zelarik. Bederatzi seme-alaba izan zituzten: Iñaxi, Dolores, Manuel, Angela, Nikolas, Laxaro, Roxita, Iñaxio eta Luis Mari.

Gero, Manuel gelditu zen etxerako ezkonduta: Rita Zerain Miner, **Larregaingo** alaba emazte eta bederatzi seme-alaba hauek berebat: Iñaxio, Joxe, Iñaxi, Itziar, Esther, Isabel, Maria Angeles, Begoña eta Laxaro. Orain, Manuel aita eta Mari Angeles alaba bizi dira etxean.

Bost-sei behi, zekor batzuk, hiruzpalau zerri, etxerako bat, berrogei bat oilo. Baratze ona beti. Esnea, barazkiak eta arrautzak harturik, Donostiara tranbian, autobusean gero. Hala dio Manuel aitonak: "bai, arrautzak eraman eta sardina zaharra ekarri, hori zen gure



martxa". Hala ere, nire ustetan, egunero Donostiara zihoan amak noizbehinka arrain pixka bat ere ekarriko zuela pentsatu nahi dut.

Manuel soldadutzara joan aurretik harrobian lanean aritua omen; hamar orduko laneguna, *barrenua eskuz* higarazten zuela dio. Sasoiko mutila izango zela esan beharrik. Eskumutur sendoko gizona ageri zaigu oraino.

Ezkonduta gero, Gureolara bizikletan, egunez erreleboan ari izanik. Oporrak baserriko lan boladaren arabera hartzen zirela dio, belar ontzeko garaian edo azpigarria etxeratzekoan. Urdaburu aldetik hau. "Orduan ez zan Benidorm eta horrelako fantasiarik izaten".

Ospakizun handietako (festak,...) bazkariaren berri galdegin diot: "Gisadua, oilasko edo arkume erre pixka bat eta arrozesnea, horra". Kamararik ez orduan, eta zenbait alditan, tarteka edo, bakailaoa edo zezina (ardi bat urtero) jaten zuten, diotenez.

Baserria eta fabrika ongi moldatzeko moduan izan zirela esan diodanean, hala esan dit: "Bai, sobrea galanta, baina barren hutsa". Niretzat harrigarriagoa den zerbait ere kontatu dit. Sobrea, oso-osorik amonari entregatzen ziola, eta ez emazteari. Amonak eramaten, antza denez, etxeko administrazioa.

Amonari eskatu behar amak ere zerbait seme-alabentzat, beretzat, familiarako erosi behar zenean. Benetan, gogorra edo ezin ulertua egiten zait egoera hau! Zergatia? Manuel maiorazkoa izaki eta gero behin edo behin bera izango zela ondasun ororen jabe. Gaurko buruan ez zaigu horrelakorik kabitu ere egiten baina...

Hernaniko herrian Sarobe izeneko bi baserri izaki eta biak ere deituraz Aranburu. Ondorioz, postetxe edo Udaletxeko harremanetan nahaspila sortzen baitzen bata Sarobe soilik (Osinaga) eta **Lastaola Sarobe** bestea (Lastaola), edota Beiner-Enea ere izan omen zuen delako nahasketa hori arintzearren.

Lizarraga baserria errepide ondoan ibaiaz hemendik zegoen bezala, ibaiaz handik aldean eta bata bestearen parean zen **Lastaola Sarobe**. Makinetxeko zubia gainditu eta beheraxeago ezkerrera aurkitzen zen.

Baserri handia zen, sarrera nagusia hegomendebaldetik zuena. Sartuta eskuinera sukaldea, ezkerrera ukuilua eta aterpe berean atzealdetik etxe-ordekoa. Oiloak ukuiluan zuten kota, baina zurezko zubixka bat zeukaten, tunel koxkor bat bailitzan, alanbrez estalia, oiloak "paseatzera" joateko eta ilunabarrena etxera biltzeko. Bestetik, lorez apaindua egoten zela diote etxe aurre guztia, (mahatsa paretean, hortentsiak, arrosak, kalak...) eta bi platanoren gerizpean harlauzazko (pizarra) mahai handia. Halaber, hainbat fruta arbola bai omen zuten, udare, gerezi, etab. Bestetik, Julian aita oso umezalea omen, eta igande arratsaldetan inguruko umeen eta... helduen jolas eta solaserako biltoki izaten zen agidanez.

Isabel Garaiar (84 urte) auzoko **Lizarraga** baserriko alaba eta 14 senideetarik gazteena (bera bakarrik bizi orain), ahizpa zaharrenaren alaba, iloba kasu honetan, berau baino zaharrago zen. Sarobera ezkondu, senarra Julian Aranburu Mendizabal, bertako senar-emazteen iloba zen, ez baitzuten hauek beren haurrik. Seme-alabak: Alberto eta Maritxu.

Gaur egun **Lastaola Sarobe** desagerturik (duela 36 urte) Zikuñagan bizi da Isabel amona Isabel bilobarekin.

Lau behi, zekorrak, astoa garraiorako eta zerri bat etxerako. Esnea hartu asto gainean eta egunero (aste eta jai) herriko etxeetara. Baratzegintzarako ez ziren batere lur onak, diote. Belarra bai, landua (alfafa, pagotxa...) eta berezkoa. Belarra saltzeko ere izaten zuten, 500,- pezeta belar meta, berdin pagotxaren hazia ere. Artoa eta babarruna, berebat, poliki etortzen zen. Etxerako sagarra baino gehiago izan ohi zuten. Izeba xahar bat bazuten, Anttoni izenez, lanerako benetan grinatsua, "hamaika artajorra eta belar ontze eginda joan zan beste mundura".

Zikuñagako festetan (irailak, 8), urteko bazkari nagusia "helatu eta guzti" dio Maritxu alabak. Oilo zahar bat, salda eta gisatua, edota oilaskoa erreta. Pazko egunean urtero arkumea eta mamia, artzainari larreak ematearen ordainez. Lastolako iturritik edateko ura. Ibaira ganaduak eta arropa garbitzera. Oinutsik uretan sartuta, ez zen batere atsegina izaten neguan behintzat.

Eskola Fagollagan. Azpigarria Muniskue eta Epela errekan, erdira, bi gurdi itzainak beretzat eta beste bi Sarobera, beti ere proportzio hau gordetzen zelarik.



Ez du zailtasun handirik izenak. Lizarra ugari den lekua adierazten baitu. Ibarluze baserriaren aldamenean, garai batean "Entidad Epele". Bi isuritako etxea, soila eta ez oso handia, garai batean bi bizitza izandakoa. Dolarea omen, astoarekin erabiltzen zen dolare haietako lehenengoa, berau zela diote.

Hara, 1900. aldera etorri ziren **Lizarraga**ra Roxario Garaiar eta Zeledonia Rekalde Ugaldetxoko **Urruzuno** baserritik bi haur zituztela, baina orotara hamalau seme-alaba izan zituzten, batzuk ordea ttiki zirela hil ziren. Hona besteak: Maria, Lino, Benantxio, Nikolas, Manuela, Teresa, Serapio, Pako, Lorentxo, Periko eta Ixabel.

Lino etxerako, **Ariztegi** baserritik **Bidaurreta**ra joandako Maria Otegi Ugarte hartu zuen emaztetzat eta zortzi seme-alaba izan: Joxe, Julian, Roxario, Benantxio (gazte-gazterik hila), Joana, Anjel, Manuel eta Mila. Anai-arreba gazteak ditut solaskide, eta amari entzuna, **Lizarraga**ra ezkondutakoan artean bertako seme gazteena komunioa egin gabea zela.

Bat eta beste kanpoan lanean hasi eta ezkontzen joan ziren, eta alaba gaztea, Mila, artean ikasten ari zela atera behar izan zuten baserritik, Lastaola industrialdea eraikitzeko egitasmoaren aurrean. Lino eta Mariak Hernani alderako bidea hartu zuten, eta 1965 inguruan eraitsi zuten Lizarraga.

Baserritik bizi izan ziren Lino eta Maria Lizarragan. Esnea oso ona izaten omen anaia zaharrenari entzuna dutenez. *Suiza* behiak baina *holandesa* arrazakoak ere bai, eta behin baino gehiagotan aritu omen ziren aita-semeak, baita Julian eta Manuel ere, bi anaiak alde banatan jarri eta behia jezten.

"Joxe oso abere maitea zen eta ez zuen balio hauek domatzeko, hasieran sufriarazi egin behar baitzaie, eta ezin izaten zuen hori jasan; baina, iaioa benetan zuhaitz txertaketan. Sagarrondoen eta bestelakoen mentuak trukatu, txertatu eta saltzen zituen, bost pezetatan landare bakoitza". Esan behar da aitak lan klase guztiak egiten erakusten ziela. Behiak jezten, esaterako, 9 urterekin ederki omen zekien Manuelek: "behin baino gehiagotan iluntzean Lizarragatik atera eta Bidaurretako izeba Joana alargunarengana behiak jeztera joandakoa".

Bigarrena, Julian, autobusetan hasi zen kobratzaile gisa Joan M. Perurenarekin. Honi erretiratzeko garaia iritsi zitzaionean, autobusa erosteko aukera eskaini zion. Baita hartu ere, eta 1947. urtean bi bidaia egiten zituen Donostiara, bata, goizeko 6:00etan eta eguerdiko 12:00etan bestea. Anaia Roxario ere honetan hasi zen. Hala, 1950ean kamioi baten *chasis*-a erosi eta Ford "Maria de la O" autobusa egin zuten. Handik eta harat, Anjel ere bertan hasi zen lanean, baita Manuel ere, 14 urterekin kobratzaile gisa eta ondo gogoan

ditu orduko tarifak, marmitak eta xisterak. Esaterako, 70-100 marmita egunero, bakoitza 25 zentimo, saskiak 2 erreal, xisterak pezeta eta pertsonak 1,20 pezeta. Tranbia desagertutakoan, 1958an, jarri zuten autobus zerbitzua arratsaldez.

Bien bitartean, Joxe baserrian, baina Lastaola industrialdeak lurrak murriztu eta fabrikan hasi zen lanean. Beti aire librean lanean ohitua izan nonbait eta ezin etsi 8 ordu han barruan. Hala, beste fabrika batzuk muntatutakoan, inguruko bazterrak, loreak eta gainontzekoak zaintzeko ardura eman zioten.

Bada Sebastian Salaberriak idatzi eta **"Ernaniko sagardozaleak"** atalean nire ustez hemen aipatzea merezi duen pasartea:

"Lastaola baserriko aitona Juan Martin Ugalde egun batez Lizarra baserrira sagardotegira etorri omen zan sagardoa edan asmoz; eta bertan pasa omen zituan zortzi egun, jan da lo, etxera joan gabe.

Etzan nunbait jan da sagardoa edaten bakarrik jardun. Lagunartean musean ere bai saio ederrak noski. Egun batez oiloa ere jokatu omen zuan eta galtzea tokatu.

Lizarra baserriko Joxe Garaiar, gaur irurogei ta hamalau urte dauzkan arren, garai artan mutil koskorra, eta aitona Juan Martiñek bialdu omen zuan bere etxera, Lastaola baserrira, esanez:

- Josetxo, joan adi gure etxera, eta esaiok nere emazte Balentinari oilloa galdu dedala jokoan eta emateko etxean dan ederrena.

  Ala, joan omen zan Josetxo Garaiar mutil koskorra eta eman omen zion gertatu zanaren berri Lastaolako amonari, eta bereala oillorik ederrena il, lumatu eta txukun asko paperean bilduta jarri omen zion, eta:
- Tori, Josetxo. Eraman zaiozu gaixo orrek nere senarrari.

  Abiatu omen zan Josetxo oilloa xestoan artuta, eta amonak bereala otsegin omen zion:
- Josetxo, atoz pixka bat mesedez! Gure gizona zortzi egun auetan arroparik aldatu gabe egongo da eta eraman zaizkiozu garbiak" (125, 126. orr.).

SETIEN Familia

Joxe Setien eta Joxepa Antoni Setien (**Ierola** baserritik etorriak edo) omen ziren aiton-amonak. Hauen alaba Felizianak beste bizitzako Nikolas Garaiar Rekalde hartu zuen senartzat eta Oiartzunen jarri ziren bizitzen, eta seme bat izan, Joxe. Honetan, Felizianaren ama, Joxepa Anttoni hil eta 7 urteko ahizpa gaztea hartu



zuten beraiekin. Gerra denbora izaki, Oiartzun bonbardatzen ari zirela eta, **Larrazabal** baserrira joan ziren. "Haiek omen ziren ibiliak –dio nire solaskide Anttonik– emaginik ez, ahizpa 7 urtekoa, 16 hilabeteko seme bat eta bestea bidean! eta hala, Maria jaio".


Handik eta harat, Lizarragan bizi zen aita, Joxe Setien, nahiko bakarrik gelditu zela eta, baserrira itzuli ziren senar-emazteak bi seme-alabekin eta Anttoni jaio bertan. Aita hildakoan, Lizarragak lur sobera ez bi familientzako eta **Usategieta** baserrira joan ziren senar-emazte gazteak eta han egin zituzten lauzpabost urte. Beste bi seme-alaba izango zituzten, Mertxe eta Luis, baina hauek kalera etorritakoan, Hernanin jaio ziren, eta horra orotara bost seme-alaba: Joxe, Maria, Anttoni, Mertxe eta Luis.

Bitarte horretan, ordea, bada kontatzekorik; esaterako, Nikolasi gerrara deitu zioten eta hara joan behar izan zuen bere kamioi eta guzti. Ezkonberria izaki, emaztea, seme bat eta bestea bidean utzita joan ere. Hala, denbora aurrera eta gerra bukatzen ez eta, anaia gaztea, Periko, kupiturik, boluntario presentatu zen anaia etxera etortzearen alde. Esan behar da honek bi hilabeteko alaba artean ezagutzeko zeukala. Esan eta egin, bat etxera eta bestea gerrara, baina Periko beste leku batera bidali zuten eta hobe hala izan zen. Egun gutxira, bonbardaketa bortitz baten ondorioz Nikolasen konpainiako soldadu gehienak eta han utziarazitako kamioia bertan garbitu baitziren.

Baserri txikia agidanez, Nikolas gazterik hasi zen kamioiarekin lanean, Nafarroako erriberatik lastoa eta pentsua Hernaniko Oraienentzat garraiatzen. Ondoren, autobusetan hasi eta jardun zuen lanean.



Jada ageri zaigu "Nomenclator" zerrendan (1870). Erdal izenez ageri zaigu baserri hau. Mendi bizkar edo hegi batean kokaturik den etxe koxkorra, haize klase guztiek jo eta astintzen dutelarik.



Joan deneko berrogeita hamar urte eta gehiagoan hutsik aurkitzen da. Iparragirre baserriaren baitan daude aspaldian bai lurrak bai eta etxea. Ganadu saila ikusten da hor larrean.



Bi bizitzako etxea orain eta aspaldidanik, baina bakarra garai batean (ikus eskriturak). Koxkorra zela diote, han puska eta hemen puska erosten joan, etxea osatzen berebat, eta etxe eta lur bi zati egina. Hona zertan bilakatu zen garapen horren emaitza.

Historiako Okendo almirantearekin ikustekorik izan ote zuen Okendo honek askotan pentsatu eta buruan erabili izan omen du, dio Maria Jose bertako alabak, "baina nola jakin horrelakorik"? Bere horretan utzi dugu izenaren arazoa.

Lastaola–Lepa Txiki bidean gora gaintxo batera heldu eta hortxe kokatzen dira **Okendo-Enea** deitu bi baserriak. Biak sarrera bide aldetik nola iparraldekoak hala hegoaldekoak. Honek ukuilua etxepean eta ezkerrera etxeordekoa; hark, eskuinera, etxetik at, bai ukuilua eta bai etxeordekoa bere ganbararekin. Biak ere erabat berrituak, biak kabiera handikoak eta oraingoz behintzat martxa onekoak. Oraingoz diot, bateko bi anaiak eta besteko semea ezkonge daudelako, hirurak.

MARIEZKURRENA Familia

Berastegitik etorri zen Mariezkurrena familia, handia nolanahi ere. Guraso ezkonberriak, aiton-amonak, lau osaba eta izeba. Seme-alabak hemen jaioak dira denak: Joan Mari, Mari Jose, Martin, Arantxa, Jose Inazio eta Belen. Gaur, Joan Mari etxean, aita hil zenez geroztik, izeba Kontxita laguntzera etortzen zaiolarik.

Lauzpabost behi izaten zituzten, idi parea, zerri bat urtero, ardi ale batzuk, hogeita hamar bat oilo eta behorra orgarekin esnea kalera eramateko. Sagar puska bat izaten zuten, etxerako eta gehiago. Itzain ibiltzen zen aita: etxeko lanaz aparte, basoan, gorriketan eta azpigaia garraiatzen.

Baserritik bizitzeko egungo egoeran Joan Mari *utzi* ala *hartu* aukeratu beharrean gertatu zen orain urte batzuk. Bigarrenari heldu zion. Gaur hogeita hamar behi dauzka Joan Marik, beste hainbeste bigara, oiloak, baratze pixka bat eta hamabost bat ardi. Zerrautsa azpietarako, garai bateko lanik ez Epela erreka eta Onddiko hegaletan behintzat. Segadora, traktore, behiak jeztekoa eta makineriaz inguraturik dago.

Oroitzapen bitxi bat badu. Orain, ogia egunkaria, arraina eta etxera behar dena ateetara ekartzen dizute. Garraio honen hastapenak Ariztimuñotarrek burutu zituztela, bizikletaz bere erremolkearekin ogia baserrietara ekarriz.

ITURRALDE Familia

Iturralde familia. Gurasoak, aita Eusebio Iturralde Iturzaeta, Nuarbekoa jaiotzaz eta ama, Joakina Vitoria Arbe izan ziren. Semealabak: Manoli, Anttonio, Agustin, Gregorio, Luis, Milagros eta Mari Jose. Orain, etxean, Anttonio eta Agustin ezkongeak eta Mari Jose anai-arrebak bizi dira. Hau ezkonduta, senarra Jesus Mari Illarramendi, Martutenekoa, eta Iñaki eta Aritz bi semeekin.

Bost behi, zekorren bat edo beste, zerri bat edo bi, eta zerrama, esnearekin Donostiara joan eta itzuleran txerrijana ekartzen baitzuten etxera. Baserri koxkorrak ziren Okendo hauek diote Agustin eta Mari Jose anai-arrebek. "Pentsa Onddin ere belar zaharra etxeratu behar izaten genun". Aita lanera kanpora familia aurrera aterako bazen. Bizikletaz Pasaiara, erreleboan egunero. Eguraldi txarrean, esku batean aterkia eta bestean bizikletaren manibelari eutsi ezinik, eta zenbait alditan blai-blai eginik lanera iritsi. Bidea nondik orduan?

Okendo abiapuntu, Irin Fabrikatik (laburrago) Martutene – Egia – Jai Alai – Mirakruz eta Pasaiara joan-etorria. Oporrak urriko hilabetean irastorra Muniskue aldetik eta Epela errekatik etxeratuko bazuten.

Aldi batean ama esnearekin Donostiara joan gabe egon behar izan omen zuen. Zergatik eta aitak haur bakoitzeko puntuak jasotzen nonbait eta delako puntu horiek jasoko bazituzten. Miseri bat izango zen guztira ere baina...

Eta nola ote zen, aldiz, aiton-amonen garaiko bizimodua? Dudarik ez, gogorragoa. Hara, nagusiak etxea erosi ala etxetik irten, arazo larriaren aurrean ipini zituen.

Zer egingo eta erostea deliberatu. Ez ziren oraingo milioi hotsak, baina sekulako dirutza zen 25.000,- pta. Lagunarteko jendeari dirua kendu, %4,50 interesa zuelarik. Aita ezkonduta irabazian hasi bitarte, soilki interesak pagatzera iritsi omen ziren "baina tronkoa osorik" beti ere.



Olaziregi (Putro-Enea)



Horrelaxe du jatorrizko izena, **Olaziregi**, nahiz eta aski ezaguna den Putro-Enea bere izen edo ez-izena. Lastaolatik gora Lepa Txiki bidearen eskuinera gertatzen da bi bizitzako etxe hau, lehen bi bizitza zituena eta orain ere bai.



Bi bizitza, bi familia, lehengusuak elkarrekin, Arregi deituraz biak, batean lau senide, lauak ezkongeak, eta beste bi eta ezkongeak hauek ere, bizi izan ziren.

Orain, Pagola anaiak, bakoitza bere familiarekin bizi dira **Olaziregi** etxean. Erabat berritu dute lehengo baserri zaharra, biak birmoldaturik, goikoa harlandu ederrez, baina besteak ere ez dauka inoren lotsarik, baserri ez baina kale etxearen itxura dute biek ere.



Ez dago izenarekin inolako duda-mudarik. Agian borda izan zen baserri baino lehen eta hortik datorkio izena. Bizkar gain batean, Fagollaga aldetik begira jarriz gero, garbi baino garbiago ageri zaigu **Txabola** baserria. Okendo eta Añarregitik Lepa Txikirako bidetik asko aldendu gabe, ezkerrera, aurkitzen zaigu baserri hau.

Bi bizitzako etxe luzexka, bi familia bertan bizi izandako baserria, Arruti familia alde batean (Iradi familiak orain asteburuetarako) eta Oiartzabal familia bestean, baserri jarraitzen duelarik.

Aiton-amonak ezagutu zituen nire solaskide Maria Jesus bertako alabak. Gurasoak, aita, Joxe Oiartzabal Mendizabal, **Izeneder** baserriko semea, eta ama, Anttoni Leunda Zeberio, bertako alaba, honako seme-alaba hauek izan zituztelarik: Antonio, Joxe Mari, Roman, Maria Jesus, Patxi, Joan Mari eta Milagros. Gaur, Joxe Mari eta Roman bizi dira etxean, Maria Jesus arreba laguntzera etortzen zaielarik.

Hamar behi inguru, zekor batzuk, zerri bat etxerako, eta zerrama bat ere bai. Astoa, eta behorra gero, bere orgarekin. Artaldea beti, 150 bat ardi, eta gerora, Erniorako bidea urratzean 300 izatera iritsi omen ziren. Baratze nahiko ona. Egunero Hernaniko herrira Anttoni amak eta alabak esnea, ardi esnea, arkumeak eta gazta harturik bakoitza bere garaian. Amaren eginkizuna izaten zen, gehienbat, gaztagintza etxe honetan. Zeregin hau ez ezik, baita baserriaren martxa ere neurri handi batean, zeren eta aitak, zurgin eta hargin lanean trebezia handikoa, hanhemenka ibili behar izaten baitzuen etxerako sos batzuk gehiago bilduko baziren.

Alabaina, bai ardi bai behi oso ganadu zalea zen aita. Biziro gogotik saiatzen omen behi on eta leunak edukitzen. Hauen sariketak ere gogoko izan zituen. Alabak, ez daki noiz izan zen baina ondo gogoan du Hondarribiko norgehiagoka batean aita bere behi suizoarekin saridun gertatu zenekoa. "Ez zuan gutxitan aipatu gertaera hori".



Usategieta



Nahiko erraz aska daiteke baserri honen izena: *uso* + *tegi*. Ez du inolako misteriorik. Ofizialki Ereñotzu auzoan kokaturik dago, baina askoz egokiago Lastaola bailaran kokatzea, zeren eta Osinagaz handiko hegian aurkitzen baita, tartean, azpialdetik Akerregi nahiz Martindegi dituelarik. Hiru bide desberdinetatik hel daiteke **Usategietara**. Batetik, Osinagan gora jo, Lepa Txiki deitu lepoa gainditu eta behera bidearen ezkerretan dago; Altzuetatik Añarregin gora, eta Lastaolatik barna (Makinetxe) hirugarrena. Mendi hegalaren oinetan aurkitzen zaigu.

Aski berezia gertatzen zen **Usategieta** zaharra. Bi isuritako etxe zabala zen funtsean baina fatxadako bi erlaitzak eroriak bezala baitzituen. Orain atzeko horma nagusiak mantenduz, erabat ari dira berritzen, ormigoizko hezurdura nahiz teilatua ezarriz. Bestetik, fatxadan harria agerian duela etxea antolatzeko asmotan dabiltza. Garai batean bi bizitzako etxea omen. Orain gauza bera egitekotan daude.

Elizondo eta Irazusta familiak ziren lehen Usategietan. Hauei erosi zien baserria orain jabe den Loinaztar familiak. Luis Mari Loinaz Dendategi, **Miramon Zahar** baserriko semea (Donostia, orain Poliklinika eta Euskal Telebista dauden lekuan) eta Joaki Mariezkurrena Aran senar-emazteak eta bi semeok, Jon eta Koldo, osatzen dute familia.

Biak, senar-emazteak, kanpoan egiten dute lan oraingoz, baina denborarekin bertan gelditzeko asmotan dabiltza. Aitak, arratsaldeak libre, eskuak bete lan badauka: bost behi, hogei bat zerri, barazki, lore eta sagasti polit bat, etxerako lain sagardo izateko moduan. Dena den, argi dago gauza, ilusiorik handienez birmoldatzen ari direla baserria eta... beren etorkizuna.



AUZOAREN HISTORIA LABURRA

Ez dakigu "epela" hori nondik heldu den, edo errekako ura hor inon baino epelagoa delako edota zokogune ireki, goxo eta epela delako. Bigarren hau izango da seguraski. Epela parajea **Aranibar** *(Aranybar)* izenez deitzen zitzaioneko dokumentu bat ere bada eta, 1410ekoa hain zuzen.

Garai batean hiru etxeok baizik ez omen bertan: *Dorrea* (jauretxea), *Borda* (baserria) eta **Errota** (eihera). Baina beste elementu bat ere bai eta ez osperik txikiena eman ziona berau, **burdinola**. Honen lekuko, lehengo dokumentu eta historiaz aparte, hor dago **Zepadi** etxea, ola hartako edo haietako (bi izan baitziren) burdin hondakinen (zepa) gainean eraikia.

Orain Epelak, etxe eta industriaz horniturik, ez dauka lehengo itxurarik. Lehena itzali zen (jauretxea, baserria, eihera eta burdinola), aire berria erakusten du egun, gurea, gure garaiari dagokiona eta guretzat, lehena ahantzi nahi ez badugu ere, lehena baino hobea. Ziur gaude horretan, neurri batean behintzat.

BASERRIAK

- Añoa Berri
- Arbelaitz-Enea
- Beheko Teileria (Desagertua)
- Epele Borda
- Epele Errota
- Epele Torre
- Izkue-Enea (Trini-Enea)
- Karobitxulo

SOLASKIDEAK

- Aranburu, Anttoni eta Leonet, Anttoni (Epele Borda)
- Arizmendi, Inazio (Izkue-Enea)
- Larrarte, Patxi (Añoa Berri)
- Lizarralde, Joxepa (Arbelaitz-Enea)
- Ugalde, Joana (Epele Errota)
- Ugalde, Joxe Migel eta Artola, Joxepa (Epele Torre)
- Zubiarrain, Paulo "Ernani Txikia" (Beheko Teileria)

Añoa Berri



Añoa hitzak zer esan nahi duen galdeginik, landare izena ote den entzuna dutela esan didate. Han-hemenka begiratu, aztarnarik ez, eta Lakoizketak azkenean *Añoa* "Pucinia graminum" (Nublo, cast. Nieble, fran.). Ik. *Diccionario de los Nombres Euskaros de las Plantas*. Jose Maria de Lacoizqueta, 183 or., Iruñea, 1888.

Oraingoen aitona eta aita Añoatik etorriak, horregatik **Añoa Berri**. Epela auzoan, Errota eta beronen ondoko bihurgunea pasatu, bidez eskuinetik lautadatxo batean kokaturik daukagu baserria, eta aurreraxeago bidegurutzean ezkerretik Añoara eta Martindegira doana bata, eta Epele Errekan gorantz bestea.

Lursail handiak garai batean Añoak. Haren lurretan aitonak eta aitak eraiki zuten lehenengo etxea, bi zatitan egina, nahiz geroago erabat berritua izan den, aire modernoa eta begirada batean baserri itxurarik ez duena orain. Albo banatan, estalpeak lehen, orain terrazak eta atzean beste eranskin bat, ardi borda dena.

Joxe Antonio Larrarte eta Maria Etxenike izan ziren aiton-amonak. Añoako alaba hau. Hona haien seme-alabak: Eujeni, Anjel, Agustin, Joxepa eta Joxe.

Anjel aita, Anttoni Leonet, **Epele Bordako** alabarekin etxera ezkondu eta seme-alaba hauek izan zituzten: Patxi, Maria eta Maria Pilar.

Gurasoekin Patxi gelditu, eta emaztea Balddo Telletxea Albiztur, Beintza-Labaiengoa jaiotzaz, eta Joan Mari, Anttoni eta Jaione seme-alabak. Orain, Patxi eta Balddo senar-emazteak, Joan Mari semea eta amona Anttoni bizi dira etxean.

Añoa baserriaren hastapenetako gertaera triste bat badute gogoan, aitona eta aitaren artekoa. Behia eta idia uztarrian goldaketan ari omen ziren, eta aitonak aitari: "Harria zetorrek, goazemak etxera". Aitak, lana luzarorako ez nonbait, bukatu egin nahi eta jarraitu egin zuen. Aitona etxera sartzearekin ekin zion erauntsiak goien-behean. Idia eta behia ziztu batean etxera. Behia hurrengo egunean hiltegira. Aita, harriak jota lurretik jaso behar izan zuten. Ondorioz, urtebete gaixorik ohean, hiletsita egon ondoan atera ezinik.

Zortzi behi eta idi parea. Donostiara egunero esnearekin. Baratze handia ez baina fruta asko izaten zuten (sagarra eta melokotoia). Patxi 9 urte zituenerako hasi omen zen amari lagunduz esku batean *marmita esnea* eta txerri janaren *kaldera* bestean. Gero, arreba Mariak bete zuen eginkizun hau, zeren Patxik gazterik hasi behar izan baitzuen auzoko zenbait baserritan goldean eta lurgorritze lanetan idi parea harturik.

Ezkondu eta gero hasi zen kanpora lanera, baserri lanarekin konbinatuz, Zubillaga enpresaren dinamita harrobietara banatzen. Gainera, Añarbeko presa egiteko behar izan zen dinamita guztia, berak garraiatu omen zuen, orduz kanpo garraiatu ere. Goizeko lauretan jaiki, etxera itzuli, eta behiak jetzi andrearen laguntza zuela eta eguna sartzera joaten omen zen.

Behin, goiz batean, aski larri ibiliak izan ziren, agidanez, bera eta gaueko bi guardak polborinean. Dinamita kargatzen ari zirela kaputxadun batzuk aurkeztu zaizkie, gela batean bi eskuak lotuz, lurrean ahozpez etzanarazi eta bertan eduki zituzten, harik eta handik aldi batera ahal zen moduan libratzeko modua egin zuten arte.

Gaur egun, aita jubilaturik, artaldea daukate amaren ardurapean eta familiakoen laguntzaz, baldin eta bazterrak txukun edukiko badituzte.



Arbelaitz-Enea



Donostiako Mirakruz kalean bizi ziren garai batean etxe honen jabeak" dio bertako etxekoandre Joxepak. **Arbelaitz** nonbait deitura eta hortik datorkio etxeari izena. Bestetik, izenaren esanahiak ere ez du batere zailtasunik: *arbel* + *haitz*, hots, pizar harria eta haitza edo harkaitza, horra.

Ereñotzuko bidean goazela, Fagollagako jatetxea eta zubia pasatuta aurreraxeago ezkerrera dago **Arbelaitz-Enea** baserria, errepidearen eskuinetik soro zelai ederrak dituelarik, ibaia eta kanalaren tartean. Hortxe zubiaren alderago aterpe bat eta harrizko eraikin handi bat daude, honek adreiluzko arkudun leiho dotoreak dituelarik. Hor kokatzen zen garai batean **Fagollagako burdinola** famatua ere.

Joxe Lizarralde Lasa, beasaindarra, Garin auzokoa eta Sinforosa Iraola Retegi, bertako alaba ziren aita eta ama. Eta hauen seme-alabak: Joxepa, Joan, Zesareo eta Anbrosio.

Joxepa gelditu zen etxean gurasoekin. Senarra Fermin Marko Otxotorena, **Ierola**ko minetan jaioa. Halaxe esan dit Joxepak. Minetan bai omen baserri sastar bat. Hiru seme-alaba izan zituzten: Milagros, Joxe Mari eta Joxe Ramon.

Orain, Joxepa eta Joxe Ramon, ama-semeak bizi dira etxean. Eta Joxe Mari alboko etxean bere familiarekin.

Lursail politak zituen baserriak lehen. Etxe ondotik hasita, zelai eta malkar, ia **Fagolla**gako eskola zegoen hartarainoko guztian, gaur hor dauden hiru etxe horien lurzorua barne. Baserrian zazpi behi izateraino iritsi zirela gogoan du amona Joxepak. Ibai ondoan bazuten soro eder bat, gainera. Hau errenta. Malkarrak belardi eta sagasti.

Hala ere, aitonak (Joxeparen aitak) Epeleko harrobian sartzen zituen ordu batzuk urtearen zenbait sasoitan, etxerako sos batzuk lagungarri izango baziren.

Bizimodu gogorra eraman zuela dio aldi batean haurrak txikiak zirela. Esnea autobusean Hernanira, etxeetan banatu hau, marmitak okinari utzi eta etxerako zerbait poltsan harturik, etxera mendi bidez. Ama gaixorik, haurrak pixez beterik... Aitonak ahal zuena egiten zuen baina hark bestela ere bazuen lanik asko.

Gero, apur bat arindu ziren gauzak, hala ere. Santa Kruz esneketariari esnea, eta Fermin senarrak ere fabrikara joan behar zuenez lanera (Polikloro) bertan zimenduak altxatzen hasi zirenetik hasia zen hor lanean. Hala, ganaduak gutxitzen joan ziren.

Gaur egun, amonak (80 urte) Fagollaga, Hernani eta Donostiako inguru munduan egiten du bizimodua. Ibiltari hona izan da aspaldiko urteetan, han-hemenka poliki korritua ere bada, orain izutzen hasita dagoen arren. "Izan ere, dio berak, auto guztiak ziztuka pasatzen dira. Inon diran kamioitzarrak bestetik. Mezetara oinez (bi pausura dauka Ereñotzu baina) ez daiteke joan jada".

Alabaina, bizi-pozaren faltan ez dago amona Joxepa.

Paulo "Ernani Txikia" bertsolaria (89 urte) dut solaskide. Garai batean teileria omen hor eta handik eta harat **Beheko Teileria** etxeari izena.

Ereñotzura goazela Polikloro baino lehentxeago, errepidearen eskuinetik aurkitzen zen, orain desagertua industriak irentsita, **Beheko Teileria** baserria.

Bi isuritako etxea omen, errepidera, ekialdera, begira. Behean ukuilua eta dolarea, goian etxebizitza sukalderekin eta aterpe handi bat etxearen atzean, orga, lanabes, belar ondua... edukitzeko. Mandioa ere bazuen. "Zaharkiturik zen etxea guk ezagutu genuenean. Mortairuz egina. Ez zuen harlandurik".

Aiton-amonak, Manuel Zubiarrain eta Teresa Nazabal, goierriarrak ziren (Beasain), hango Bagoi Fabrika egiterakoan (CAF orain) baserria kito eta hona etorriak. Han-hemenka bizpahiru baserri jarri zizkiotela dio Paulok, ardiak gustatzen eta ganaduak izateko egoki iritzi zioten gurasoek eta hauxe, Beheko Teileria hautatu. "Orain desjabetu edo espropiatu eta horrela konpontzen dira arazoak".

Gurasoak, Patxi Zubiarrain Nazabal aita eta Maria Otxotorena Etxeberria, **Epele Torre**ko alaba ama. Eta hauen seme-alabak: Paulo, Teresa, Manuel, Joxe, Joxe Mari, Anttonio, Iñaxio eta Pilar. Pilar eta Iñaxio anai-arrebak bizi izan ziren gurasoekin.

"Baserri polita zan, esaten dit Paulok. Erribera puska bat bai, baina malda asko". Normalean bospasei behi izaten zituzten. Aitari entzuna zuen, nola behi bat, esne behi ona nahi eta, Ordiziatik bere umearekin ekarri zuen berrogeita hamar duro (250,- pta) pagatuta. "Gaur baino merkeago ziran gauzak, orduan ere etzan gutxi izango baino".

Maizter hasiera batean eta gerora erosi omen zuten baserria. Nolako bizimodua zen, Paulo, zure umetan etxean, galdegin diot.

"Zer esango duzu. Tripa betetzen genun, nahiko sagardoa ere izaten zan etxean... Hara, garai hartako heltzekoaren inbidiatan egoten naiz orain. Hemen ere (Zaharren Egoitzan dago) ez dugu kexarik baina babarruna, ardiki edo zezin puska batekin orduko amonek mantso-mantso ondo egiten zuten, bai eltzekoa eta bai sagar erreak. Eta urteko jai seinalatu batzuetan etxean hazitako oilaskoa ere bai".

Bertsozaletasuna nondik norakoa duen aipatu diot "Ernani Txikia" deitu Paulo honi. Aitona omen zen bertsolaria, Joxe Miel Zubiarrain, Txirritaren kideko eta honekin jardun ohi zena.

Agidanez, aitonarekin oso gaztetxo zela Gorostarben (Adarra atzean) ardi kontu zebilela hasi omen zen bertsotan. Aitonarekin, bada, eta senide artean trebatu nonbait gure "Ernani Txikia" bertsolaritzan, gero, han eta hemen ari izateko.

"Lehenengo plaza San Antoniotan egin nun, Hernaniko Ereñotzu auzoan bertan, 17 urterekin. Joxe Oiarbide "Ttanttua" izeneko beste batek eta biok, Txirrita eta Sailbururekin kantatu genuen" (Argia, 01-11-25).

"Txikia zergatik? Halaxe izan naizelako. Ni neu eta beste anaia bat. Gainerakoak tantai galantak izan baitira eta apetitu ederrekoak".

Epele Borda



Ardi borda izana omen, esan beharrik. Anttoni etxeko amona (84 urte) ezkonduta hona etorri zenean, baserri sastarra, baserria baino areago borda zela artean, ziurtatzen du. Epela auzoan, kasko batean kokaturik dago etxea, Anttoni amonak umore onez beterik, "bertatik kukurruku jotzeko moduan" dagoela dio.

Bi isuritako etxea da, biak baserri izanak. Gaur egun erabat berrituak. Maizter izan ziren. Haurrak txikiak zirela, saltzera atera, erosi zuten baserria, hamar mila duro pagatuta. Baserri multzo baten jabe omen zen nagusia, Rocaverde markesa: Alkatxurain, Lastaola Goikoa, Epele Torre...

Ormigoiz eginiko egitura du orain.

ALBIZTUR Familia

Anttoni amona bertako alaba ote zen jakin nahi eta...

- "Bai zea, ni asko korritua naiz. Leaburun jaio, aita eta amarik gabe gelditu, eta Alkizara aiton-amonengana asto saskian sartuta eta handik familia osoa **Lastaola-Sarobera** *ijitoak bezala* astoa eta trasteak hartuta".

Ezkondu, norabait jo behar eta, Epele Bordara. Orduan hemengo familian, amona alarguna Maria Joana Galardi eta aitonaren anaia Eduardo Albiztur. Eta seme-alabak: Joxe, Agustin senarra, Pako (Teruelgo frontean hila), Antonio, Iñaxi eta Isabel, bizi ziren.

Agustin etxera ezkondu, Anttoni Aranburu Mendizabal (gorago esan dugu Leaburun jaioa). Seme-alaba hauek izan zituzten: Joxe, Jeremias, Julian, eta Mari Isabel. Gero, Joxe, etxean gurasoekin, emaztetzat Mari Iturbe Apalategi, Ikaztegietan jaioa, eta Maialen hauen alaba.

Etxean orain Joxe eta Mari senar-emazteak, Maialen alaba eta amona Anttoni bizi dira. Hau, gangrena sortuta ezkerreko zangoaren faltan gurpildun aulki batean. Baina dena ez zaio falta, burua bere lekuan dauka eta umore puntta bat ere badu berekin.

"Bizimodu gogorra benetan. Maizterrak ginan, etxea guztiz zaharkitua, saltzera atera eta erosteko dirurik ez". Lauzpabost behi izaten zituzten, aberea ganadu jatena

etxeratzeko. Esnea Biyak Bat fabrikara. Goizeko 5:00etan jaiki, jai eta aste, 6:00etan esnea eramateko. Amonaren garaian, berriz, hau buruxesteran aza batzuk eta "etxean ziren arrautza guztiak hartuta kalera", etxerako zerbait ekarriko bazuen.

Gero, erriberako lurrak Elektrokimikak jan zizkioten. Salmenta ona egin al zuten galdegin diodanean.

- "Pentsatzeak ere oraindik amorrazioa ematen dit!" Ez dut garbi ulertu amorrazio horren zergatia, edo diru gutxi jaso zutelako ordainez ala lurrik gabe gelditu zirelako. Bigarren hau nik neuk esango nuke. "Eskerrak lehendik lanean hezita ginan! Hala ere, hemen ikasi nun behiak jezten", jarraitzen du esanez.

Aita lanera, erreleboan, Elektrokimikara. Terrenoak bereak, lehenengo langilea izan omen zen bertan, eta han jardun zuen, begitako tentsioa medio, itsutu zen arte.

Behiak kendu, "ez nahi ordurako" dio orain amonak, aitari pena ematen bazion ere.

IRAOLA Familia

Joxepa Lete izan zen bertako amona. Gurasoak, aita Praixku Leonet Oiartzabal, **Izenederko** semea eta etxeko alaba ama, Maria Bikendia Lete. Seme-alaba hauek izan zituzten: Isabel, Iñaxio, Anttoni, Joan Bta. Pilar, Periko, Joan eta Kristina.

Nahiko lana izandako eta zoritxarrak ongi zafratu edo kolpatua izan zen familia da hau garai batean. Kristina jaiotzerakoan ama hil eta 78 urteko amonarekin gelditu ziren, zaharrenak 13 urte, eta segidan beste zazpi, txikiena jaio berria. Isabel bera (buruko gaitzak jota) gazterik joan zen (22 urte), gero Joan Bta. (petxutik, 30) eta Periko (soldadu zegoela, 22 urte).

Pilar etxerako, senarra Alejandro Iraola Ostolaza, **Kaskazuri** (Urnieta) baserriko semea, Joxe, Maria, Anjel eta Joxe Antonio seme-alabak izan zituztelarik.

Joxe etxean gero, Rosario Izeta Pagola emazte harturik. Hau Urnietako **Mozotegi** baserriko alaba. Joxe Manuel, Alejandro eta Ane seme-alabak.

Joxe eta Rosario, senar-emazteak eta amona Pilar bizi dira orain etxean.

Praixku aita harrobira joaten zen lanera (Epele-Etxeberriko harrobira). "Orduan dena eskuz egiten baitzan, batak pistoletari heldu eta bestea mazoarekin joka ari izaten ziran".

Lau behi, baratze pixka bat, erribera lurrak bai, "baina errentan bizi ginen "mila pezeta Eguberritan, dio nire solaskide Anttonik (84 urte), eta kapoi parea eta beste kapoi parea San Joanetan". Arto eta babarrun asko. Neguan babarrun puska bat saltzen omen zuten "esne askorik etzan izaten eta". Oiloek ere, negu garaian batik bat, ez zuten arrautzarik egiten "ez ziren orain bezala gobernatzen ere. Nahiko oilo onak bai, gizenak, arto hutsarekin". Orduko esnearen prezioa, 30-40 zentimo tarte horretan ibiltzen zan honek salmenta ona zuenean, eta txarrean (udaberrian ugariago izaten zenez) 15 zentimotan eman behar".

Plazan (Donostia) aski borroka ibiltzen zuten kimikoekin, agidanez. Behin, Pilar ahizpa gazteagoa, esnearekin joan da eta kimikoak gradu gutxi zeukala, saltzeko ez zegoela kondiziotan esnea eta jendeari dohainik emateko. Honek "saltzeko kondiziotan ez badago doan emateko ere ez" eta arraskan behera bota omen zuen, kimikoari, esaten den bezala, hortzak erakutsiz. Duintasunak ere bazuen (eta badu) bere prezioa, hala fede!.

"Bizimodua? Nahiko zaila, esan dizut. Hamaika urte nituela, neskame joan nintzan dio Anttonik. Hara, hortik atera kontuak. Bi ontza txokolate izaten genitun askaltzeko hiru lagunentzat. Nik txupatuz jaten nun nere zatia, hozkaka amen batean jaten baitzan. Ogia bai izaten zuten (gerra aurreaz ari gara) baina neguan taloa janaz asetzen ginan".

Epele Errota



Joana Ugalde Altuna (76 urte) dut solaskide. "Aberats aireko etxe polit baten aurrean nagoela (lau isuritakoa) uste dut", esanez agurtu dut etxekoandrea. Baietz, halaxe dela erantzunez, xantxa bezala hartu ditu irribarrez nire hitzak.

Epele Errota etxearen gain-gainean kare eta hidraulika egiteko ola zen garai batean. Bidea ere hor eteten zen, zeren Añoa Berri eta Epele errekan gorako bidea mendialdetik baitzen.

Etxeak behean ukuilua eta errota zituen, goian bizilekua eta hemen gela bat telefono eta guzti fabrikaren *bulego* zena.

Joanak ezagutu zituen amaren aita eta ama, **Perropa** baserrian eta aitaren ama ere bai. Aita Ramon Ugalde Gorrotxategi eta ama Joakina Altuna Garin, **Perropa** (halaxe esan dit) baserriko alaba, ezkondutakoan jarri ziren hemen bizitzen. Aurrez Oraiendarrak hemen. Aita *herreroa* (errementaria) zen, *Argintxu* deitzen omen zioten, **Argintxu-Enea** Atzieta kalean bizi izana, nonbait.

Hona hauen seme-alabak: Gilermo, Joana, Anjel, Joxe Mari eta Patxi. Joana gero etxean eta Antonio Pikabea Gonzalez, lesakarra, senarra. Bost seme-alaba izan: Kepa (kartzela batetik bestera dantzan, orain Madrilen), Ramon, Anjel (Osny-ko espetxean, Frantzia), Joxe Mari eta Rosario.

Orain amona Joana, Rosario eta Izaskun senar-emazteak bizi dira etxean.

Aita ofizioz herrero, burdingintzan ezagutu



zuen beti Joana alabak. Artetsua omen guztiz edozein tresna burdinez egiteko, etxerako nahiz lantegietarako, gai omen zen. Harrobietako pistoletak egin edo zorrozten ari izaten zen gehienbat.

Behi pare bat amaren garaian eta honen egitekoa soro lana eta errotakoaren ardura, Joanaren laguntza zuelarik.

Gerra garaian errota itxita, komeria franko ibiltzen zutela dio. Zenbait alditan, hala ere, seme-alabak etxe gainean guardia egiten eta amak irina bitartean. "Egun batean ama irastorra ebakitzera joana, Imugo lepoaren

Epele Errota



azpira eta nik abisua amari Mandazubiko itzainaren bitartez guardia zibilak zetozela eta".

Bitartean Joana ere, gaztetxoa artean, baina ez zen lo egon, errotarriak (ama askotan ikusia nola) garbi-garbi egin zituen. "Guardiak etorri zirenean ez zuten seinale izpirik aurkitu" dio Joanak.

Antonio eta Joana senar-emazteak errotari, asko ez bada ere, jarraitu zioten. "Nola jarraitu, hiru urte eta erdian lau seme izanik? Denak saski batean sartzeko *zozo kabian bezala* gertatzen nintzan. Denak etxean izan nittun, Felisa hernaniar erizainaren laguntzaz. Bularra hilabete apurretan eman eta ahal zan bezala... ibili nintzan. Bat gobernatzen hasi eta besteak negarrez, halako desesperaziorik! Behin baino gehiagotan amorru bizian negarrari eman nion neronek ere horrelakoan".

Beharrik ama hau, aita ere bai (Elektrokimikan lanean) aurrez ondo hezitako jendea zen. Gero ere, semeak hazita, bereak eta bi pasatutakoak dira. Etxean ziren hiru seme eta hirurak iheslari, *ihesari* eman behar izan ziotelarik. Aita eta ama adineko eta anaia zaharra gelditu ziren soilik etxean.

Gainera, duela bost urte, senarra otsailean eta anaia apirilean hil ziren: "Ama honen kalbarioa ere ez duk motza" esan dut nire baitan eta jarraian azken egunotakoa kontatu dit nola *txapel okerrak* etorri, "nahi zuten guztia egin, harrapatutako guztiak eraman, gu etxez kanpoan lau ordu edukita gero".

Ene ustez, apur bat nekatua aurkitu dut gure amona kuraiatsua. Harritzekoa al da, bizitzak hainbat eta halako maneran zafratu izanik?

Nondik atera duen halako kemena galdegin diodanean hauxe izan da erantzuna: "Zer esango dizut? Estuasunean *Gure Jaungoikoa* esan eta aurrera beti".





Epela edo Epele alde batetik, baina Torre hitz honen zergatiaz galdegin diot Joxe Manuel Ugalde etxeko jaunari. Aitonaren aitak kontatzen omen zuenaren berri eman dit, nola egun batean, hura zela 200 urte bai hor nonbait, zaldi gainean aberats itxurako jaun bat aurkeztu, liburu bat atera eta esan omen zion: "Orain 500 urte ola (burdinola) ari zen hemen lanean".

Eta halaxe da, Hernaniko burdinolen artean Epeleko burdinola ageri zaigu. Gainera, bi aipatzen dira "Pela de Suso" eta "Pela de Yuso" (Goikoa eta Behekoa) eta 1410eko datadun dokumentuaren aipua eginez. Ik. *"Hernani eta Hernaniarrak"*, A. Agirre Sorondo, 106 or). **"Torre de Epela"** Hamarrenak zerrendan (1610) eta "Epele Torrea", berriz, Nomenclator delakoan (1870).

Ereñotzu edo Goizuetarako errepidean, ezkerrera, bidetik oso aparte ez, Epela bailarako lautadaren erdi-erdian kokaturik dago **Epele Torre** baserria.

Lehen hiru bizitza, hirurak baserri. Otxotorena familia, bide aldetik hasita, Ostolaza familia erdian eta Ugalde familia mendi aldetik. Lehengo garaietan baserri bakarra izan zela esaten zuten. "Guk ez gendun ezagutu hori" dio Joxe Manuel Ugalde nire solaskide etxeko jaunak. Gero bi, eta hauetarik bateko anai-arrebak ezkontzerako hirugarrena antolatu zuten. Hirugarrena ostera.

UGALDE Familia

Gogoan du aitona, Joan Mari Ugalde Artola, bertako semea. Hona, berriz, honen seme-alabak: Joan, Martin, Luis, Simon, Joxe Migel eta Iñaxi. Hauetarik Joxe Migel etxerako eta Fausta Perurena Zubillaga, goizuetarra, emazte. Seme-alabak: Joxe Manuel, Maria, Joxe Mari, Joana, Joxe eta Simon.

Ondoren, Joxe Manuel gelditu etxean, Agustina Urruzola Loinaz, Urnietako

Elutsetako baserriko alaba emaztetzat harturik. Arantxa, Maria Luisa, Jose Luis eta Jone seme-alabak izan dituzte.

Orain, aita eta ama, Jone alaba ezkonduta, Julian Pagola honen senarra, Mirari eta Julen seme-alabekin bizi dira etxean.

"Francoren garaian, Aranoko errotara, Hernanikoak itxita, ia astean behin edo joaten ginan, kontrabandoan, gauez eta Jainkoak dakien bidetatik barna" dio Joxe Manuelek. Gogoan du nola behin astoari zaku irina tripapera pasa, ezin jaso, mutikoa, eta nola zentraleko langile batek lagundu zion.

Baserrian, bestetik bospasei behi eta idi parea izaten zituzten. Aita kamioiarekin ibiltzen zen, eta gero, kamioia utzita, Mendia-Encko mintegian azken urteetan.

Joxe Manuel bera 17 urterekin hasi zen lanera (Zikuñagako fabrika) eta gero jubilatu arte Polikloron jardun zuen. Honek, etxetik hurbil, bazuen alde onik, baina baita txarrik ere. Gaua edo jaieguna izan, matxuraren bat gertatuz gero, fabrikara joan behar, beste gabe.

Kasik egun osoa fabrikan, nahikoa lotuta, ganaduak utzi beharrean gertatu ziren, salbu ardiak. Gaur egun, hogeita sei ardi, bi zerri eta zekorra baino ez dauzkate.

OTXOTORENA Familia

Joxepa Artola (78 urte), **Larregain Beheko** alaba, ezkonduta familian sartu zenean, senarraren aita, Joxe Manuel Otxotorena Etxeberria, bertako semea, ama, Joxepa Ollokiegi Peruarena, **Aparrain**go alaba, eta bost semeok bizi ziren bertan: Joxe Joakin, Paulino senarra, Luis, Martin eta Manuel. Paulino hartu zuten gurasoek etxerako. Hau Joxepa Artolarekin ezkondu eta Joxe Antonio, Luis Mari, Joxe Inazio eta Maria Rosario seme-alabak izan.

Orain amona Joxepa, Maria Rosario alaba ezkonduarekin, honen senar Felipe Erroizenea eta hauen bi seme-alabak, Agurtzane eta Ander, bizi dira Zepadi alboko etxean.

- Bizimodua?
- Txarra nolanahi ere.
- Berriz pasako al zenuke, Joxepa?
- Ez, kalea txarra izango da, baina baserria...

"Lau behi, zekorrak, hegaztiak, aberea eta zerri pare bat etxerako izaten genitun. Esneketariari eta gero Gurelesari esnea. Erribera lurrak bagenitun, baina mendi malkarrak gehiago".

"Bost senide ziran, bost gizonezko, bostak lanera erreleboan, janaria eta garbitasunaz aparte, batari edo besteari lagundu beharrean gertatzen nintzan beti, mendian, soroan edo baratzean. Eskerrak gaztetan lanean ohitua nintzan. Artzain, gaztagintzan eta aitzurrean ongi laztua nintzan".

Joxepa Epele Torrera ezkondu zenean, baserri zaharra omen erabat hau. Konpontzen hasi eta baimenik ematen ez. Epele Etxeberriko Ramon zen, agidanez, Epeleko etxe hauen administrari. Dorretxe zelako edo zergatik ote zen galdegitean, ez dakiela izan da erantzuna. "Hori bai, etxe zaharrak arkudun labe bat bazun behean". Ola izanaren aztarna ote? Seguru aski.



Izkue-Enea (Trini-Enea) Epela Auzoa



Izkoa-Ene ere ikusi dut nonbait baina "Izcue" edo "Izkue" da agidanez, garai batean etxejabe izan zenaren deitura (Pilar Izcue) halaxe zelako. Bi errezibo ikusi ditut neure begiz. Bata, 1960 urteko errenta baten agiria (90,- pta), eta bestea, "Constribución Territorial, 1939, III Año Triunfal, 8,67,- pts".

Ereñotzurako errepidean, ezkerrera, Fagollaga jatetxearen aurrean, bata bestearen jarraian etxe luze bat, zinez deigarri gertatzen dena zeren, bi isuriko etxea izanik, hegal bat falta baitzaio. Bost hauetarik, lehenengoa, Hernanitik goazela, da **Izkue-Enea** baserria, bere terraza politarekin.

Oraingo guraso zaharren aita eta ama, Joxe Manuel Arizmendi Mujika eta Trini Mendizabal Aldanondo, ezkonberritan eta maizter sartu ziren etxe honetan, honako seme hauek izan zituztelarik: Joan Joxe, Migel, Patxi, Joxe Mari (Kalifornian 37 urte artzain egin ondoan etxera bildua orain), Paulo eta Inazio.

Gazteena, Inazio, gelditu zen gurasoekin etxean. Ezkondu eta emaztea Joana Leunda Elola, Albizturkoa jaiotzaz eta bost seme izan: Joan Joxe, Migel Mari, Joxe Anjel, Iñaki eta Julian.

Hona etxean orain zeintzuk bizi diren: Inazio eta Joana aiton-amonak, Joxe Mari osaba amerikarra, Joxe Mari semea, honen emazte Elena eta Garikoitz hauen haurra.

Aitak baserriko lanaz aparte, Hidraulika fabrikan lan egiten zuen (Epele Errota gainean). Baserrian orduan ez zen ahuntzak, zerri batzuk (udazkenean mendian edukitzen ezkurra eta gaztainarekin gizentzen), eta oilategia eta baratzea baino. Gurasoen garaian ez zen ganadurik Izkue-Enean. Bazuten, ordea, ukuilua eta hor basomutilen mandoak eta idiak egon ohi ziren.

Inazio ezkonduta gero behiak sartu zituzten etxean, hiru behi eta zekor batzuk, haragitarako hauek. Esnea Santa Kruz esneketariari. Honek zenbait baserritako esnea bildu eta Hernaniko etxeetan saltzen zuen, etxerakoan pentsua, kartak... han eta hemen banatzen zituelarik. "Zaldi karroarekin ezagutu genuen eta furgonetarekin ondoren". Gurelesari gero esnea.

Inazio lanera Poliklorora goizeko erreleboan beti, eta ama Joanak ere nahiko lana izaten zuen baserrian. Beharrik, gaztetan lanean ohitua zela! "Bai, horixe dio berak. Bizkarrean makila bati loturik *zakutia* erabiltzen ondo ohituak ginan. Abrigu txar bat erosi behar eta, basora joan, gaztainak bildu, hauek zakuan hartu eta saldutako diruarekin... badakizu; tenaza beroekin ahizpak ilea kizkurtu eta hala egin nuen komunioa ere".

Bost semeak ondo eskolatzen ahaleginak eta bi eginak dira guraso hauek.

Galdera, ea nondikako ote haurrak eskolara bultzatzeko grina hori.
Erantzuna: "Gu erabat ezjakinak ginelako".

Karobitxulo



Karobi izandako aztarnak badaude, agidanez, paraje horretan. Horretaz gain, zokozulo bat da. Izena ez dago gaizki asmatua batere.

Dena den, Epele Errotaren aurre-aurrean hidraulika fabrika bat izan zen (aztarnak badira oraino), Larregaingo harrobitik kablean harria eraitsita karea nahiz hidraulika egiten zutelarik. Fabrika horretan lan egiten omen zuen Pedro izeneko gizon batek.

Zurgina ere bazen, diotenez, eta langile porrokatua. Larregain hegalean bizi zen borda txar batean bere familiarekin. Lantegitik hurbil izatea nahi bizilekua eta orduz kanpo, poliki-poliki moldatu zuen Karobitxulo baserri koxkorra, errotako atzean errekaz beste aldetik.

Pedro Azkoitia zen hau eta Pantxika Otxotorena emaztea. Zortzi seme-alaba izan zituzten: Maria, Luis, Joxe Migel, Jon Gurutz, Patxi, Milagros (*milagroz* jaio eta bizirik irtena), Antton eta Hilari.

Aurrera baino lehen kontatuko dut Milagros haurraren jaiotzari buruzko gertaera, sinestezina dirudiena. Aipaturiko borda xahar hartan bizi omen ziren artean, Pantxika emaztea haurra izateko denborak etorri nonbait, haurminak sentitu eta amarengana abiatu, Epelen bizi zen amarengana. Bidean datorrela Epele Etxeberriko harrobiaren gainean haurra izan, eta haurra besoetan amaren etxera. Horregatik haurrari Milagros izena.

Amak emango ahal zion haurra izan berria zen alabari orduan ohikoa zen "oilo salda eta ardo goxoa".

Denborarekin, Luis semea Ameriketara eta geroago Pantxika amak Hilari alabarekin bide bera egin zuen.

Gerora, Paulo Txiki bertsolariaren anaia Joxe eta honen emazte Iñaxi bizi izan ziren **Karobitxulo**n. Emaztea hil eta Joxe eta Iñaxio bi anaiak azkenik.



AUZOAREN HISTORIA LABURRA



ronologia apur bat jarraituz, lehenengo burura datorkiguna zera da, Ereñotzu deitu etxe nagusia ikusita, beronen eitea eta lekumena ikustearekin bakarrik ospe handiko etxe baten aurrean gaudela, mendeak pasatuta ere, edonor ohartzeko moduan. Ereñotzu etxe nagusia edo nagusi etxea biak bildu baititu bere baitan iraganeko mendeetan honek. Ez zen edonor Ereñotzuko jauna eta ez edozein beronen etxea ere, jauretxe, dorretxe.

Ereñotzuko jaunak eraikia da Hernaniko agustindar lekaimeen monasterioa, eta ez oraintxe. Juan Martinez de Hereñozu jaunak fundatu zuen (1544). Gainera, bertako bi burdinolen jabe ageri zaigu Ereñotzuko jauna garaitsu horretan. Hari honetara, hiruko polita dugu Olaondo, Olaburu eta Bazterrola hiru baserriok osatzen dutena ere esan dugunaren lekuko. Lonja izena daraman etxea ere hor dago eta berdin lehengo burdinola edo errotaren hondakinak.

Elizaren eraikuntza dator gero, 1866an, lehenik ermita, gero parroki bilakatu zena. Auzolanean. Txirritak baditu bertso batzuk eraikin honi buruz. Hona hemen:

Nikolas aundi arotz burua
dana guzien aurrian.
Nere aita eta "Bizarro" berriz
ganaduakin lorrian.
Beste batzuek arriya biltzen
Alkatxuin'go larrian.
Ermitatxo au egin ziguten
Txokolateren lurrian.

Don Agustiñ'ek ateria zan
Lendabiziko idia.
Gizarajua gizon ona zan
prestua eta noblia.
Nere aitak ere izan biar zun
Ontza bat urre botia.
Au egiteko emana zuan
nik biar nuan dotia.

Ondoren Eskola etorriko zen, eta etxebizitza berriak, geroago. Hona bada zer eta nola joan den Ereñotzu etxe izatetik, jauretxe nahi bada, auzo bilakatzera.

BASERRIAK

- Abillats
- Akola
- Alkatxurain
- Arriurdineta
- Bazterrola (Bastola)
- Ereñotzu (Txilibita)
- Iturralde
- Izeneder
- Larregain
- Larregain Behekoa
- Latsa (Hondakinak)
- Olaburu (Goikoetxe)
- Olaondo (Txokolate-Enea)
- Otxakil-Enea (Desagertua)
- Sahatsain
- Txabolategi
- Ubarreto

SOLASKIDEAK

- Altuna, Pilar (Sahatsain)
- Antzizar, Maria Pilar (Iturralde)
- Artola, Jose Luis (Alkatxurain)
- Artola Leonet, Jabier (Larregain Behekoa)
- Lizeaga, Klara (Olaburu)
- Lizeaga Patxi (Ubarreto)
- Miner, Julene (Arriurdineta)
- Oiarbide Elortza, Iñaxi eta Esteban (Ereñotzu-Txilibita)
- Oiarbide Marko, Florian (Abillats)
- Oiarbide, Telesforo (Txabolategi)
- Oiartzabal, Rufina (Izeneder)
- Santa Kruz, Maria (Akola)
- Santa Kruz, Pedro (Larregain Behekoa)
- Urdanpileta, Joxe Mari (Olaondo)



Abilas, Avelaz, Abilla eta Abillats lau molde ezberdinotan azaltzen zaigu, gutxienez, baserri honen izena. Ola izana dela dio Florian (57 urte) bertako semeak eta Hernaniko burdinolen zerrendan ageri zaigu "Abillasko burdinola" (Ik. "Hernani eta Hernaniarrak", A. Agirre Sorondo, 100. or.).

Latxeko fabrika zaharra pasatuta aurreraxeago, ezkerrera dago Abillats, egun, etxe dotorea. Bi isuritako etxe zabala Goizuetarako errepidearen gainetik. Bi bizitzako etxea, biak baserri. Etxetik at oilategia.

Ola izanaren zalantza izpirik ez dauka Florianek, oroitzen baita mutikoa zela errepidez beheitiko sorotik orduko kamioi kozkorretan nola enpresaren batera zepa eraman zuten, pagatuta eraman ere. Bidaia franko egin zuten kamioi haiek. Oroitzen da halaber, kamioiak nola kargatzen zituzten. Atzean kartolarik ez, eta lehenik horma bat bezala pieza handienak atzean ezarri eta gainerakoa, xeheagoa, kamioi barrura. Hala-hala zulatzen eta barneratzen joan ziren heinean arku bat eta lehenengo kanalaren tunela azaldu ziren.

Joxe Iñaxio Oiarbide, ez-izenez "Ttanttua" zuten aitona. *Abadua* edo *abarua* omen zen, alkoholdun edaririk sekula dastatu ez zuena. Inguru guztiko iturrien berri bazekien bere aitonak, dio Florian bilobak. Ur desberdinen zaporeak ere ongi bereizten zituen. **Satsaingo** iturriko ura omen zuen gogokoen. Etxetik

hurbilago beste iturri bat eta hemendik ura eramanez gero, berehala esan ohi zuen: "Hau ez da Satsaingo iturriko ura".

Hona Florian bilobak aitonari eskainitako bertso bat:

Abarua zen nere aitona
nere aita zanaren aita zana.
Bere edari bakarra ura,
iturrietan sortzen dan hura.
Maitea zuan,
edanaz hain atseden gozuan
bere bizitza oso osuan.
(Joana Bixenta Olabe doinua)

Gurasoak, Joxe Oiarbide Albiztur bertako semea aita, eta Dionixi Marko Otxotorena, **Ierolako** alaba ama. Hauen seme-alabak: Joakina, Iñaxio, Joxe Mari, Florian eta Mari Anttoni.

Aita zenaren garaian (duela 40 urte) baserria saldu eta Ereñotzura etorri ziren bertako tabernaren jabe eginez.

Lizeaga familia da beste etxeko familia. Hau ere baserri koxkorra. Nola etxe ondoko lursailak hala apartekoak bitan banatuak baitira eta bi familien artean erdibana erabiliak. Esan beharrik, baserri bakarra lehen eta gero zatikatua izana zela.

Aitonak Fagollagako zentralean lana, eta ordu tarteak baserria eta arrantzaren artean eman zituen, agidanez. Arrantzan bereziki. Nahizu nahizu omen zen garai batean Urumea ibaian arraina: aingira, amuarraina eta izokina. Sarean behin baino gehiagotan erori ohi ziren, diotenez, igarabak ere. Arrain fina, sendagilearen gomendioz gaixoei jatera eramateko aproposa, etxeetan saltzen zuten edota ahaide nahiz lagunarteko otorduetan jaten.

Gurasoen garaian ere baserriak ez zuen sobera hazkunde izan. Bi behi, zekorren bat, zerria eta oiloak izan zituzten. Aitak, Elektrokimikan lana. Baserria osagarri baizik ez. Aita ere aitonaren arrantzarako grinari atxiki zitzaion familiarentzat sos batzuk ekartzeko bidea eginez. Hala, gauez han-hemenka puntu jakinetan sare eta amuak ipini, arrainak bildu eta ama hurrengo goizean Donostiara arrainarekin.

Bertsolari ere azaldu zitzaigun San Antonio batzutan Ereñotzun, Txirrita, "Ernani Txikia" (Paulo) eta Sailbururekin, gure Joxe Oiarbide "Ttanttua". "Bertso zahar eta kantuak barra-barra ematen zituen. Buru argia" zuela dio Florianek.





Aski ezaguna egin zaigu **Akola** aspaldiko urteotan, honako puntu hauek direla medio. **Sagastietako lepoa** (Brontze aroko aztarnak) eta **Akolako Udal Parkea**. Izenak iduri du *ola* atzizkia daraman izen konposatua dela, baina ez da batere erraza gertatzen beraren sustraia argi eta garbi zein den jakitea. Banago Agorrola ez ote den ere. Alegia, ibai edo erreka bazterreko ez den (lehorrekoa) burdinola. Ez dut, ordea, inguruan zepa aztarnak badiren berririk. Bego bere horretan.

Epela aldetik **Larregain**en barna edota Ereñotzutik gora malkar *gaizto* (patar) bat gainditUz, Alkatxuraindik gora igo daiteke Akolara. Paraje polita benetan Akola, aurrez aurre **Urdaburu** eta **Aginaga** mendiak dituela eta eguzkiak irten orduko, egutera, bete-betean jotzen duelarik.

Etxeak, antzina bezalaxe, ez du inolako aldaketarik izan, bigarren karlistadakoan sukaldea lekualdatu zenetik. Karlistada hartako ziri batzuk bai omen ziren sukalde ondoko horman esekita soldaduen arropak zintzilikatzeko ipiniak. Gero, haietaz baliatzen ziren berebat basomutilak (apopilo bertan) eta Ubarretxenatarren zentraleko guardak telefono *trainankulua* esekitzeko. Eskuz eman ohi zioten indarra hauek telefonoari, handik deiak egiten eta han makinetxe ezberdinetako paper-agiriak guarda ezberdinen artean eskualdatzen zituzten.

Aitona Joxe Santa Kruz Karrera, Adunatik etorria eta Dolores Ugalde Setien, **Urmendi** baserriko alaba zen amona. Seme-alaba hauek izan zituzten: Iñaxi, Martina, Pedro eta Joan (ehizera joan eta zakurra ondoan zuela hilik aurkitua).

Iñaxi gelditu zen gurasoekin etxean Gregorio Santa Kruz, aitonaren anaiarekin ezkonduta. Jakingarria, ama-alabak bi anaiekin ezkonduak zirela. Nola daitekeen hori pentsatzeak ere lanik asko badu! Hona hauen seme-alabak: Maria, Joxe, Antonio, Pedro eta Nikolas. Zaharrenak 6 urte eta txikienak bederatzi egun ama hil zitzaienean. Amonak arduratu behar izan zuen familiaz, baina hau ere hil, Mariak 12 urte, eta honek bete zuen gero amaren zeregina.

Maria hau (81 urte) dut solaskide. Etxera ezkondu eta Nikolas **Susperregi**, Errenteriako

Susperregi baserriko semea hartu zuen senartzat. Badu honek ezkontza egunetako historiarik.

"Ezkontzerako besteak hiru pregoi eta guk (lehengusu txikiak) lau, hiru *pregoi* eta *publiketa*. Pobreak al ginen apaizak galdera. Aberatsak izan baginen aixoo, noski".

Bost lagun izan omen ziren ezkontza ospakizunean, eta ondoko bazkarian (Amasako Arantzabi). Ezkongaiak, aitajauna eta amandrea eta Leandro Irazusta txoferra, zeren eta aitak Latxeko fabrikan lan, bertako nagusiaren oparia izan zen egun horretarako autoa eta txoferraren eskaintza.

Bidaiarik ez. "Nola edo nora, etxean bost gizon (aita eta lau anaia utzita)? Gainera hau (senarra) asko biajatua zan Burgostik Somosierrara bitarte horretan gerra guztia hasi eta buka, eta aurretik Nafarroa eta Zaragozan soldadutzakoan urte bete". Seme-alaba hauek izan dituzte: Kandida, Iñaxi, Mari Karmen eta Joxe.


Gaur egun, aiton-amonak, Joxe semea eta Isabel senar-emazteak eta Jon hauen semea Ereñotzun bizi dira. Hala ere, Mariak dio, "txoria kaiolan ez da ondo egoten eta libre behar du biziko bada". Hala, semeak egunero, negu eta uda, goizean eraman eta arratsean ekarri, eguna Akolan pasatzen dute.

Bizimodua aipatzearekin bakarrik, gose urteetako gorabeherak kontatu dizkit.

"Ogirik ez baina artoa eta babarruna izaten genun. Baino Ayuntamentura eraman behar. Etortzen zian, tasatzen zuten eta 150 kilo babarrun eta 350 kilo arto eta... arrautzak. Gaña, okerrena, Orayen itxita Epele edo Pagoaga prezintaturik, Aranotik iriña (Nafarroa, ez nonbait Euskal Herria Frankorentzat) eta mendiz eta gauez, harrapatu ezkeo kendu egiten zuten eta".

"Txerri hiltzea ere debekatua baño guk hiltzen genuen. Berak hiltzen zituen" senarra behatzez seinalatuz".

Aita zena Latxeko fabrikara joan omen zen (40 urtean) lanera. Nikolas eta Maria senar-



emazteok baserriari atxikirik atera zuten bizimodua. Neguan, bai, neguan lanez arinago, baso lanean (pinua aldatzen, bazterrak garbitzen, entresakak egiten...) ari izaten zen Nikolas.

Sei behi, astoa eta behorra. Esne boladan biak behar. Aldapa gogorra, goizean seietarako Ereñotzura esnea. Behiak jezterakoan, arrosarioa errezatu eta afal ondoan, goiz oheratzen ziren.

Orain baratze puska bat, lorezaletasun nabaria ikusten da hemen, eta artalde koxkor bat daukate Akolan, bazterrak garbi edukitzeko batik bat.



Izenaren berri galdegitean, inolako arazorik gabe izan da bere erantzuna: *alka* edo *alka-belarra* (elmitza) duela sustraia izen honek esan dit Jose Luis Artola (61 urte) bertako semeak. Aita Puig, jesuita jakintsuari entzun omen zion lehenbizikoz. Eta halako malda gogorra ikusita, eta bidea? "Bide oso txarra beti, zuloa, lokatza eta ez nolanahiko aldapa. Gogoan daukat ama zena nola igotzen zen xestua buruan zuala".

- Emakume handia?
- "Ez, baina pizkor izugarria; ua zan gure ministra justizia eta ekonomiarena. Zazpi urte zituela ama hil, umezurtz geratu, eta bea zarrenetakoa, beste bost senideren ama bezala izana zan. Jakina, bizimodu hori dana pasata nola ez zan, ba, izango ministro"?

Eta guztiz umore onekoa omen zen. Bertso zaharrak kantatzen iaioa. Uztapide liburuan gutxi-asko hauxe esaten da, agidanez: "Ereñotzun entzundako emakume aotsik politena"

Etxea noizkoa den ez daki, baina agian laurehun bat urte izango dituela bai. Artzainek egindako etxea dela dio. Oso goian, hegal batean eta aldi berean gaintxo batean dago. Jose Luisek dioenez, nahiko leku babesa da "Etxea ez du aize bakar batek ere astintzen". Etxe luze berezia bestetik, Hernaniko herrian bat baldin bada. Errektangeluar luzea oso eta hiru eranskin berezi mendi aldera, benetan bitxiak direnak arkitekturaren aldetik. Lehen ardi borda izanak. Garai batean, gainera, lau bizitza



omen ziren bakoitza bere bordarekin. Oro har, "gaur kalean zortzi bizitzako etxe batean baino ume gehiago biltzen ginan gu an".

Gaur egun hiru bizitza dira bertan eta Artola familiarena baserri bakarra. Beste biak etxe lehorrak dira.

Martin Joxe Santa Kruz Arregi zuten aitona, Adunatik Alkatxuraina etorritako familia. Badu Jose Luisek gogoan orduko bertso bat "Patxi Bakailo" bertsolariak Fagollagan, sagardotegia orduan, harrerakoan bota ziona:

"Adiskide bat Aduna aldetik
gaur Urumea erreka aldera,
da jakin dedanez, gainera,
Alkatxuingo larrera.
Gaur edo biar goatuko zaizu
noiz egin zendun sarrera,
bizimou ona pasatutzeko,
etzatoz leku txarrera".

Seme-alabak: Joxe Antonio (Hueskako partean gerrakoan hila), Dolores, Joan Bta., Maria, Praixku eta Purita. Dolores etxerako. Ezkondu eta senarra Joan Mari Artola Ollokiegi, **Larregain Behekoa** baserriko semea, eta hauen seme-alabak: Jose Luis, Martxiel, Joxe Mari, Begoña, Faustina, Patxi eta Manolo. Etxean Joan Mari eta Joxe Mari aita-semeak bizi dira senideen laguntza dutelarik.

Aitona zena, herriko mendien guarda izana zen. Istorio franko badu aitonaz Jose Luis bilobak, beste baterako utzi ditugunak. Gurasoak gehienbat baserriari loturik, baina aitak baserria eta fabrikako lana tartekatzeko modua egin zuen beti. Lau behi eta ehun bat ardi. Ama gaztagile ona zela dio nire solaskideak. Artoa eta babarruna izaten zuten eta sagardoa etxean. Esnea Latxera Inozentzio esneketariari.

Ura zen arazoa etxe honetan. Etxetik hurbil zuten iturria baina agortu egiten zen uda sasoian. Kilometro eta erdira hurrengo iturria. Harkaitz mokor batean azpian sortzen zen, ur ona eta oparoa zena. Sonatua da harkaitz hau, "Haurra galdutako harria" deritzona, hain zuzen. Hona nola deskribatzen duen Txirritak "Arrano Gorriyari" jarritako bertsoetariko batean:

"Andre gaxo bat mixerablia
ahuntz kontura etorriya,
bere semia xextuan zeukan
zarpa artian jarriya.
Urdaburutik sartu zitzayon,
tranpan, arrano gorriya.
Harrapatuta eraman ziyon,
Ay au aren larriya !
Orain argatik deitzen diyogu
Aurra galdu zan harriya".



Arriurdineta



Julene eta Iñaki ama-semeak izan ditut solaskide. Hauek aita zenari, bertako semea, entzuna zuten. Zera, etxea egiteko garaian lurpean pizarharria (urdina) azaldu nonbait, eta hortik "harri urdin", **Arriurdineta** etxeari izena ezarri ziotela. Ereñotzuko plaza eta eliza pasatuta, Goizuetarako bidean, eskuinera, errepidea ukitzen duela dago **Arriurdineta**, harrizko etxe polita.

Bi isuritako etxea, etxe bildua oso. Behean zuen ukuilua, bi zutabe zituen eta txoko batean, ezkerrera, zurezko kaxa luze bat, komuneko, zurezkoa hau ere, "obramenduak" ukuilura bideratzeko. Gorako eskailerak, eskuinera, bizilekura igotzeko. Errepide parean, oraintxe bezalaxe, sarrera nagusia.

Julene (66 urte) hona ezkondu zenean, ama alarguna bizi zen, honako seme-alaba hauek izan zituztelarik: Xanti, Anjel, Odulia, Bixente eta Prontxio Gorrotxategi Lizeaga abizenak zituztelarik.

Umetan gorriak pasatuak zirela askotan aipatzen zuten senideok, agidanez. Xanti, Anjel eta Bixente bizi izan ziren gero amarekin. Ama hil eta luzaro gabe joan zen Bixente ere. Beste bi anaiek izan zuten baserriaren ardura harrez gero.

Zaharrena Xanti, 18 urte zituela soldadutzara, "etxe hutserako" bazuen ama hark lanik asko. Baserria txikia, behi bat eta ahuntza. Txerritegia, hegoaldera, etxearen kantoi batean. Oraino kontserbatzen dute "txerrien etxetxo" polita.

Senide denak lanera gauza izaten hasi orduko. Xanti, Latxeko fabrikara. Hau bederatzi urte soldadutzan (gerrakoa barne) egina zen. Gosea han ere eta urdaiazpiko bat lapurtu eta kartzelan egona zela soldadutzan esaten omen zuen.

Umetako goseak ere askotan aipatzen zituen, diote, nire solaskide ama-semeok. Nola Olaondoko soroan patata atera eta bertan gelditzen ziren ale txiki hondakinak biltzen zituzten eta nola ziri baten puntan beheko sutan erre eta jaten zituzten.

Gosea bai, baina umorerik ez zitzaien falta, agidanez. Bele bat zeukaten etxean hitz egiten zekiena. **Olaburu–Arriurdineta**, senideak biak, bien artean ibiltzen omen zen Marko! Marko! (deitura) behin eta berriro errepikatuz. Mezetara berandu zihoan jendeari Aguro! Aguro! esaten ere ikasia omen, edo erakutsia, jakina.

Gerra garaiko edo gose urteetako txerriaren istorio bat ere gogoan dute. Kontrol izugarria orduan, txerria isilpean edo kontrabandoan bezala hil behar. Mazoarekin buruan jota hiltzea zela modurik hoberena. Hala, garrasirik ez omen zuen aterako, kolpetik hilik. Jo dute mazoarekin buruan eta txerria han zihoak kurrinka eta garrasi batean Latse alderantz.

Inor ez enteratzeko toki onean!

Bazterrola (Bastola)



Bastola da jendearen ahotan, Basterrola "Nomenclator" zerrendan (1870) eta Bazterrola izatez. Olaren bazterreko baserria izan zitekeen edota bazterreko ola, bazterretxe bazterreko etxea izan daitekeen bezala.

Urumea gaineko zubixka pasatu (Ereñotzu) eta muino batean daukagun etxetxoa da egun Bazterrola, baina jatorrizko **Bazterrola** hortik beheraxeago zegoen errekaren bestaldetik hau ere. Orain harri zahar batzuk baino ez sasi artean gorderik.

Hor zen **Bazterrola** baserria, eta beraz, gaurko Bazterrola, baserriaren borda baino ez zen, agidanez.

"Bastaola eroa" deitu gizonezko baten aztarnak baditu oraino auzoko jendeak. Zer izen zuen ez dakite. Tantaia, gorputzez azkarra eta berealdiko indarra zuela bai. Artabero samarra omen.

Istorio bat kontatu didate. Behin Bortolua-enekoak baso bat beren jabetzakoa Bazterrola inguruan, eta gurdi pertika bat egin nahi. Bota du akazia zuti eta zuzen bat, zuritu du eta besteari.

- Errazena egin diat. Orain etxera eramaten izango dizkiat lanak.
- Hori eramaten? Bi talo emaizkidak eta uztak nere kontu.
- Bi talo? Baita lau ere emango dizkiat.

Hurrengo goizean han omen zegoen goiz asko pertikagaia Bortolua-eneako atarian.

Baserria eroria jada eta lehen haren borda izana baserri bezala antolatu omen zuten gero, ezkonduta bertan bizitzen jarriko baziren Antonio Oiarbide eta Iñaxi Iraola senar-emazteak. Iñaxio eta Asun seme-alabak izan zituzten.

Gurasoak hil zirenean bukatu zen horko baserri kozkorraren bizitza. Orain bikote aleman bat bizi da bertan, diotenez, *okupa* edo horietarik dena. Sentiberatasun apur bat badute, hala ere. Euskal presoen ikurrina daukate ganbarako leihotik zintzilik poliki asko ipinita.





Historia handiko etxea. Hernaniko jauretxeen zerrendan **Altzega** etxearen pareko edo lehen maila zuena dugu Ereñotzu. Ereino (gaur erramua esaten dugu), ereino lekua zen nonbait. Hortik, ez da dudarik, datorkio izena, eta ondorioz, auzoari ere bai. Agian horregatik, izen bereko etxea eta auzoaren artean sortzen den nahasketagatik, **"Txilibita"** izenez ezagunago zaigu orain.

Goizuetarako errepidez goiti, ez metro asko eta San Antonio elizatik aldenduxeago daukagu **Ereñotzu** baserria. Aldapatxoan lurrak, nahiz etxea, baratze ederrez inguratua, eta errepidez bestaldera daudelarik garai bateko burdinola zaharra, errota eta **Lonja** etxea ("enpresaren orduko ofizina" dio nagusiak).

Bi isuritako etxe zabala, euskal baserri handiak bezalaxe. Arkudun ate nagusia beheko solairura sartzeko. Ukuilua orain, hor gezi leihoak eta leiho arkudunak alboan, hauetarik bikiak batzuk, gaztelu eta gaztelukien modura. Kanpotik eskailerak bizilekurako, harlauza mokor landuz eginak. "Garai batean bazekiten lanean. Orain egin behar balira", esaten dit Esteban, etxeko nagusiak.

Gainerakoan, oilategi, garaje... estalpez inguraturik daukagu etxea. Errepidea egin aurretik ia etxea jotzen zuela pasatzen omen zen, antzina, Donostiatik, Erroilaburun behera eta hemendik zehar zihoan **"Nafar bidea"**. Pena da etxe aurreko garaje-estalpe horrek etxeari ikuspegia jatea. Agian egunen batean...

Aiton-amonak beti hika eta noka ari izaten omen ziren elkarrekin, izan ere neskame-morroi etxe berean **(Ibarluze)** egonak baitziren. Ikus, Estebanek kontaturik zahartzaroko haien arteko solas eta istorio hau. Aitona baratzean ari, amonak:

- Iñaxio?
- Zer den?
- Hator hamaiketako pixka bat egitera.

(Atera dio salda, eta honek odolki gustua)

- Odolkia non den ba?
- Hor egongo dek eltzearen ipurdian.
- Hik jan ez bahunan bai.

(Ordurako amonak odolkia irentsia, aitonak ere eltzea miratua).

"Horrelaxe ibiltzen ziren gure aurrekoak".

Iñaxio Oiarbide zen aitona eta Manuela

Beldarrain amona, Añoako alaba. Seme-alaba hauek izan zituzten: Maria, Joxepa, Laxaro, Bixente, Joxe eta Anttoni.

Bixente etxera ezkondu eta emaztea Kontxesi Aranburu Señorena, **Santsanategi**ko alaba. Hamahiru seme-alaba izan zituzten hauek, ez bat gehiago ez bat gutxiago: Iñaxi, Manoli, Maritxu, Joxe, Antonio, Mari Karmen, Kontxi, Mikeli, Pedro, Laxaro, Arantxa, Joan (mugan, poliziak tirokaturik eraila) eta Mari Tere.

Iñaxik jarraitu zuen gero etxean, Esteban Elortza Aranburu, **Fagollaga**ko semearekin ezkonduta. Hiru seme izan dituzte: Patxi, Bixente eta Manolo. Orain Esteban eta Iñaxi aiton-amonak, Patxi eta honen emazte Irene Vitores eta Janire hauen alabatxoa bizi dira etxean.

Aitonak baserri lanean jardun zuen beti. Amonak, aldiz, aberea eta orgarekin Donostian arraina erosi eta **Epele**tik eta **Benta Berri**rainoko guztian arraina saltzeko lanbidea izan zuen. Gero amak jarraitu zion zeregin honi, alaba zaharrenaren laguntzarekin, hauek arraina saskian hartuta goiko baserrietara oinez (**Alkatxurain, Akola...**) eramaten zutelarik.

Hiru-lau behi izaten zituzten, zerri pare bat etxerako eta zerrama. Artoa eta babarrun asko, baratzea etxerako hainbat. Sagasti politak, dolarea eta... sagardotegia garai batean.

Gogoan dute Iñaxi eta Estebanek, erroskilak saltzen zituztela aiton-amonek San Antoniotan, eta neguan, *bilera* orduan Ereñotzun, gaztaina erreak. Gaztainak oro saltzean, dantza saioa eginda, dantzari finak izanak gaztetan, etxeratzen omen ziren. Bistan da jende saiatua, alaia eta bizitorea zela jende hau.

Iñaxik, senide zaharrena zenez, (ama arraina saltzen) amaren zeregina bete zuen: etxeko lanak, senide txikiak orraztu, prestatu, eskolara bidali eta beste.

- Zuek ezkonduta nolako bizimodua egin duzue?
- "Ez zazula uste, geureak eta bi ikusitakoak gara".

Estebanek ezkondu aurretik fabrikan eta mendian lan egin zuen. Fabrikan eta baserrian ezkonduz geroztik. Ganaduak lehengo paretsu, orduan ekin zioten baratzegintzari, serioski ekin ere. Donostiara egunero, orain astean bitan baino ez, barazki eta arrautzekin.

Amaigabeko istorioak dituzte aiton-amonei buruz. Bi kontatuko ditut, amonarena bata, aitonarena bestea. Amona baserri honetara ezkontzean, gizonaren lau anaia omen ziren bertan, lau koinatu, jakina. Behin hauetariko batek:
- "Manula, hik erre ahala talo baietz jan nik."

Koinatuak 18 talo jan, amona aspertu talogintzan, tira dio talo-pala. Bestea ere erne aidean ospa egin omen zuen atetik at.

Aitona zenaren azken urteetako lanerako programa aipatu didate jarraian. Goiz jaiki, goiz bazkaldu, siesta apur bat, baratzera edo. Tximinia ketan hastean, erne, afari-merienda, ondoren ganaduak gobernatu, ganadu maitea omen benetan, oheratu aurretik eskailburuan eserita eta hurrengo goizerako munizioa prestatzen zuen, agidanez. Jakingarria, zigarro paperik ez orduan eta artoaren txurikinez zigarroak moldatzen zituela.





Ez du inolako sekreturik izenak: *iturria + alde*, etxe ondoan iturria. Nomenclator zerrendan (1870) azaltzen zaigu Iturralde baserria. **Latsa** auzoan, fabrika galduaren ondotik gora abiatu, Latxe Zahar baserriaren hondakinak ezkerretan utzita, galtzekorik ez dago, zeren eta trenbideko hiru trabesaz baliaturik bi zutik eta bestea zeharka ITURRALDE izena euskal hizkiz poliki ipinita baitago. **Akola** mendiaren hegaleko zokogune batean, egutera betean daukagu etxea, orain jatetxe dena, aparkaleku txukun bat aurrean eta gordailu bitxia alboan duela.

Mendietxe edo baserri kaxkarra izanaren trazak ditu **Iturralde**k. Gaur egun erabat berritua, lehengo horma nagusietan. Erreka harriaren iduriko harria, zura eta adreilua gainerakoan, elementuok denak agerian. Etxearen barneak museo etnografiko baten airea du, inon diren antzinako lanabes eta tresneria ikus daitekeelarik.

Maria Pilar oraingo etxekoandrea Andoainen jaioa da, ordurako aita eta ama hara joanak zirelako. Aitona, Pedro Joxe Antzizar Lekuona, oiartzuarra eta amona, Tiburtzi Iraola Pagola ziren. Hona hauen seme-alabak: Maria, Mertxe, Joan, Antonio, Manuel, Pepita, Bittori eta Martin. Gerora, Martin seme gazteena bizi izan zen aitonarekin baserrian.

Ekoizpen berezi nabarmena, behi bat edo beste eta etxerako zerriaz aparte, baserri honetan arrautzak ziren. Oilo multzo handia izaten omen zuten, aitari entzunda. Oilo saila, librean, etxe gaineko baso hegalean, oiloak nonahi arrautzak egin eta txitak ateratzen zituztelarik. Hauek, bai, baserriko arrautzak, ez da horretan duda izpirik.

Amona astean bizpahirutan mandoan arrautzak eta barazkiak hartuta kalera, olioa, bakailao pixka bat eta *panpinoa* (arrain merkea, zer den jakitea ere...) etxerako ekarri ahal izateko.

Beste oinarri bat bazuen baserri honetako ekonomiak. Mandazain ziren etxeko gizonezkoak, baso eta mendietatik ikatza eta egurraren garraioa burutuz.

Pilar, nire solaskideak dio, aitaren esanetan, haiek ez zutela sobera gose pasatu zeren eta baba, irina eta beste, batetik edo bestetik (kontrabando puska bat tarteko), zerbait beti etxeratzen baitzuten.

"Gosea edo tripa kontuak aipatzean istorio bat kontatzen zuen beti aita zenak". Aldi batean Aginagako (Usurbil) baserrietan egur garraioan eta simaurketan ibili zirenean, gosaltzeko nola egunero angulak tortillan ematen zizkien. Dena den, gurasoek Andoainen egin zuten bizimodua, aitak beti mandazain izaten jarraitu zuelarik.

Azkenik, senipartekoak banatu eta aitak gelditu zuen jabetzan baserria. Suak erreta erabat abandonaturik zegoen eskuratu zuenean. Etxea birmoldatu eta asteburuetarako prestatu zuten. Mari Pilar eta Lorentxo Mendiola senar-emazteak, andoaindarrak biak, bi alaba dituzte, Aitziber eta Eider. Senarra langabezian gertatu, eta orduan etxea jatetxe bihurtu zuten.

Izenedeer



Etxea eraiki zen garaikoa da, agidanez, Izeneder izena. Etxea eraiki eta hasi dira solasean. "Orain izen eder bat jarri behar zioagu etxeari. Izen eder bat? **Izeneder** orduan".

Eder du, esan beharrik, etxe honek izena eta ez izena bakarrik, izana ere bai. Parajea bera, etxearen goialdea, belardi txukunez jantzia, zuhaitz ederrez inguraturik. Atarian loreak nonahi eta ate gainean IZENEDER poliki aski paratua. Bidea ere txukuna orain, ormigoiz egina, Latsa auzotik eta etxerainoko guztian.

Familia handia, *hamasei senide*, maizter izaki eta "Frankok pagatu erdia etxea erosterakoan" dio Rufina Oiartzabal (55 urte) senideetarik gazteena eta nire solaskideak.

Hogeita bat urteren aldea zaharrenetik gazteenera. Hamaika hilabete edo urtebeteren tartea batetik bestera. Denak etxean jaioak. Rufina gogoratzen da Sabina ahizpa ezkondu zenean (zortzigarrena hau) berak zazpi urte baino ez zituela. Ordurako senide batzuk etxetik aldenduak ziren. San Antoniotan biltzen omen "artalde" osoa, ohean batak alde batetik eta besteak bestetik lo egiten zutela.

"A zer nolako komediak ibili ohi zituen amak sarritan!" Behin oroitzen da, denak oheratuak zituelakoan, erratza pasatzen hasita hor aurkitzen du mahaiaren azpian loak hartuta.

Antonio Oiartzabal Mendizabal zuten aita, bertako semea, eta (lehengusu ezkontza) Tomasa Oiartzabal Almandoz ama, **Larratz** baserriko alaba (Donostiako partean). Hangoen hiletak lehen Errenterian, Astigarragan orain. Seme-alabak. Pedro eta Migel (bikiak), Maria, Manuel, Gregori, Benita, Joakina, Sabina, Dolores, Joxe, Patxi, Pilar, Fermin, Agustin, Mariano eta Rufina. Behar da esan, Gregori eta Benita, txikitan meningitis pasatu izatearen ondorioz mutuak direla, baina erne eta txeratsuak dira biak ere, eta artetsuak, etxeko nahiz sukaldeko lanetan eta ingurua apaintzen.

Fermin etxerako, ezkondu eta Lorentxa Retegi Retegi, **Egiluze** baserriko alaba (Errenteria) emaztea, eta bi alaba: Jaione eta Nagore. Orain, Fermin eta Lorentxa senar emazteak, Jaione eta Nagore bi alabak, Mariano osaba eta Gregori eta Benita izeba biak bizi dira Izenederren.

Rufinak ezagutu zuen ontza erdi txokolatea meriendatzen, eta laurdenarekin pasatzen omen aurrekoek. Sardina zarra berdin. Eltzekoa izaten omen otorduetan (babarruna egunero, "lurrezko eltzean geldi-geldi egina". Irina Oiartzundik zaldi gainean. Taloa eta esnea izaten zuten eta eguerdian "razionamenduko ogia". Latxetik ekartzen. Lau behi, hirurogei bat ardi, etxerako baratzea, zerri bat edo beste, ardi zarren bat. Aita itzain eta mandazain.

Fagollagan eskola. Komunioa zuriz, soineko bakarrarekin senide multzo batek. Etxetik Latxerako bidea, bide kaxkarra, "zortzi egurrezko zubi". Idiak eta abereak erreka zeharkatuz eta oinezkoak ere bai gauez edo eguraldi txarrean. Argia karburoz edo kriseilua, kanpin-gas horietakoak azken aldera. Argindarra, lehenbizian, errekatik motor koxkor batekin, harik eta Iberduero sortu edo sartu zen arte.

Ama ostegunetan kalera arrautzak, onddoak bere garaian, etab. hartuta, etxerako olioa ekarriko bazuen.



Sortaldetik sartalderainoko bide guztian zehar eguzkiak gogotik gozatzen duen gain batean, "larre" eta "gain", kokaturik den baserria da **Larregain**. Ez da harritzekoa bazkaleku ederrez horniturik denez, "larre", ardi eta abereentzat toki aproposa dela aitortzea. Bestetik, tximiniako kea ikustea aski izango da hemen haizea nondik ari den ohartzeko. Haize mota guztiak ezagunak izango zaizkie, esan beharrik.

Epeletik malda gora jo eta Akolarako bidean eskuinera daukagu **Larregain** baserria. Ereñotzura du beste bidea, are aldapatsuagoa dena. Lau isuriko teilatua zuen lehengo etxe zaharrak. Bi isuriko etxe luze eta zabala dugu orain. Ekialdetik hiru terraza, bata bestearen gainean, eta aterpe polit bat mendebaldetik, terrazapea hau ere, eta etxerako sarrera hor.

Ukuilua etxepean lehen, orain etxetik urrunago aterpe txukun batean. Sagardotegia etxepean, sukalde eta jangelaz horniturik, eta upelategia honen alboan lurpean; sagardoa fresko mantentzearren edo. Etxetxo polit bat albo batera etxe aurrean, dolarea dena. Etxetik at izan dute beti dolarea.

Pedro etxeko nagusi zaharra (76 urte) hona ezkonduta etorri zenean aiton-amonak bizi

ziren, eta hala hiru belaunaldi bildu ziren etxean, aiton-amonak, aita eta ama eta ezkonberriak, "hiru matrimonio", eta gauza bera gertatu zen hurrengo belaunaldian ere, Pedroren alaba Ixabel ezkondu zenean.

Aitona, Joan Domingo Zerain, aranoarra eta Martina Oiarbide, bertako alaba emaztetzat harturik, eta honako seme-alaba hauek izan: Rita, Martina, Anbrosio, Daniel, Ines, Joxe eta Prontxio.

Martinak eman zion etxeari jarraipena, Pedro Santa Kruz Oiartzabal, **Akola**ko semea senartzat harturik. Hona hauen seme-alabak: Pedro Mari (elektrokutaturik hila), Gregorio eta Iñaxio (bikiak), Belen (autoa amilduta hila), Ixabel, Joxe Antonio eta Edurne. Gaur, aitona Pedro, Ixabel alaba, honen senar Joxe Lasarte Garmendia, Urnietako **Aierdi** baserriko semea, eta Eider, Oihana eta Arnaitz hauen seme-alabak bizi dira Larregain baserrian.

Lau behi eta idi parea ziren baserrian Pedro ezkonduta etorri zenean. Aita, etxeko lanaz aparte, itzain ibili ohi zen, "izan ere, inon diren zentral, poste eta linea klase guztiak pasatu ziren inguru hauetatik garai horretan (Ubarretxena, Rezola, Puig, Tranbiarenak, Errenteria, Vasco-Navarra)".

Ezkondu aurretik fabrikan lan egin zuen Pedrok (Zikuñaga), gero ere bai, eta Udaletxeko enplegatu geroago. Bi asto izaten zituzten, kaleko mandatuak egiteko bata, ganadu jana edo iturritik ura ekartzeko bestea. Etxetik aski urrun iturria.

Pedrok, astoan ez baina, bizkarrean ekarri ohi zuen ura. Bi ertzetan koskadun haga batean marmita bana ipini eta eskuetan hirugarren bat, horrela ibili ohi ziren. Egun batean, badator ura hartuta, izotzetan hor doa *zilipurdika* eta marmitak ere bai pirikan. Etxera etorri eta esan omen zuen:

- "Urtebete baino lehen ura jarriko det, ba, nik". Eta halaxe izan zen.

Pedroren garaian esne-behiak jartzea, etxearen jabe egitea eta etxea osatzea izan ziren helburu nagusi. Harrezkero, idiak kendu, traktorea ekarri eta sagastiak lantzeari ekin zioten. Joxe eta Ixabel senar-emazte gazteok ere beren ekarpena egin diote etxeari. Behi eta zekor saila daukate eta sagardotegi dotorea, horra.



Larregain Behekoa



Larregain baserriaren azpialdean Ereñotzu alderago kokatzen da Larregain Behekoa izenak ongi adierazten duen bezala. Baserri txikia izango zela bistan dago, nahiz eta erabat berritu eta txukundua dagoen orain, lehengo horma nagusien gain obratua baitago.

Joxe Luis Artola Goñi, bertako semea, eta **Aparrain** baserriko Maria Ollokiegi ziren senar-emazteak eta honako seme-alabak izan: Joan Mari, Manuel, Joxe Mari, Joana eta Joxepa. Joxe Mari etxerako, Aranoko **Abola** baserriko Joana Leonet Perurena ematetzat hartu eta sei seme-alaba izan zituzten: Joxe Luis, Lurdes, Ana Mari, Jabier, Mari Loli eta Asier.

Etxeko nagusiak, ordea, baserria hartu ala utzi atakan jarri zituen eta egoera nahiz aurrerabidea aztertu ostean, kalerako bidea hartu zuten 1977. urte aldera.

Beste batek erosi zuen baserria zerritegia jarri asmoz, baina urte askotan auzokide eta agintariekin auzitan ibili ondoren, bertan behera utzi zuen egitasmoa eta hutsik egon da urte askotan baserria. Egun Joan Salaberriak erosi zaharberritu eta eguna han igarotzen du ardiak eta sagastiak esku onez zaintzen dituelarik; alabaina, ez da baserrian bizi.

Dozena erdi behi eta zekor batzuk zituzten arren, ardiak zituen gogoko bertako aitonak, eta artalde dezentea (150 inguru) izaten omen **Asketa** aldean, eta gazta aski ona egiten bai aitak bai semeak. "Honbreren artaldea" esanda ezagutzen omen inguru hartan, eta hori zer zela eta galdegindakoan, zera esan dit aurrean dudan solaskideak: "Ardiak bere eremutik atera eta auzokoaren barrutira joaten nonbait eta "ezin al dituk ardiak hobeto zaindu, besteen larretan bazkatzen ibili beharrean?". Bestearen erantzuna: "Ahalegina egiten diat baina badakit, bat joaten den lekura denak atzetik..." Orduan besteak "Hi ez haiz gizona" bota omen zion, eta erantzuna: "Honbre deitzen zidatek, ba!". Handik eta harat *"Honbreren artaldea"* omen guztientzat.

Gazterik hasi zen Joxe Mari **Asketa**ko bordan artzain, eta hartan ibili ere ezkondu eta fabrikan lanean hasi zen arte. Baserriari cutsi zion bere emazte Joanaren laguntzaz. Baratzea etxerako lain, baina esne pixka bat bai eta **Epele**ra ateratzen zuten, han ezkonduta zegoen aitonaren arrebak berearekin batera hartu eta kalera saltzera. Kontuak egiteko orduan, amona zen, agidanez, hortaz arduratzen zena. Gazta ederrik ere eramaten zuten behorrarekin karroan hartuta, ordainetan sos gutxi jasotzen bazuten ere. Erleren batzuk izaten omen zituzten.





Latsa da izatez. Toponimoa edo leku izena, orain Latxe esaten bada ere. *Erreka* adierazten du, erreka da bere esanahia eta aski ugaria den deitura, bestetik, esaterako Lasa deitura edo Lasarte herriaren izena, Lasaga, Lasagabaster, Laspiur eta... gehiagorik aipatu gabe ere.

Latxe Zar baserria zegoen hor kokaturik garai batean, orain haren hondakin batzuk baino ageri ez diren arren, sasi edo sastraka artean. **Txirrita** bertsolariaren jaiotetxea zen hain zuzen hau. Hortxe jaioa zen 1860an Joxe Manuel Lujanbio gure bertsolari sonatu eta umoretsua, nahiz eta hor *izpirituak* eta ozpina egiteko fabrika eraiki zenean, baserria bertan behera utzi, zazpi urteko mutikoa omen orduan, eta Errenteriara joan beharrean gertatu zen familia eta errenteriar baserriaren izena, **Txirrita**, izengoitia eramango zuen bere bizitza osoan.

Fabrika eraiki, urte batzuk sasoi ona erakutsiz egin honek, alboan errepidez bestaldetik eite berriko etxe batzuk osagarri zituela, baina itzali zen eta gaur egun baserriaren hondakinak eta fabrikaren itzala baizik ez zaigu ageri Latsa horretan. Etxe horiek izan daitezke salbuespen eta... herritarrek Txirrita ospetsuaren ohoretan eraikitako monumentua bide ertzean, baserri zaharraren aurrean.





Olaburu (Goikoetxe)



Goikoetxe izenez ezagunagoa bada ere, Olaburu du honek bere jatorrizko izena, esanahi handikoa beste gabe ere, oro har bere osotasunean hartuz gero. Baserri patxadakoa izana, Ereñotzu-Alkatxurain bidearen eskuinera eta Nafarroako errepidearen gainean eta orain "Irrintzi" taberna etxearen atzean kokatzen den **Olaburu**. Lursailak ere, batzuk behintzat, ez hain aldrebesak.

Olaburukoa den galdetu eta, ezetz, Goikoetxekoa dela esan dit aurrean dudan Klara Lizeaga Aranburu andereak (57 urte), nolanahi ere, "nire aitak esaten zuen berak bazuela Olaburu deitura baina nahiko atzean" esan dit elkarrizketan sartu orduko.

Aita, Bixente Lizeaga, etxeko semea, eta Anttoni Aranburu **Naparralde** baserriko alaba ama eta honako senide hauek jaio ziren Olaburun: Bixente, Ramon, Joxe, Maria Luisa eta Klara. Ez zituen aiton-amonak ezagutu eta ama ere berak 13 urte zituenean galdu zuen.

Nolako baserria zen **Olaburu** galdegin diodanean, zera esan dit irribarrez: "Baserri handia, etxea ederra eta lursail onak zituena omen zen. Nik hala entzun izan det beti nire jaiotetxeaz. Halare, nik ezin dizut gauza handirik esan, 11 urte nituenean atera bainitzan bertatik eta hango bizimoduari buruz eta, ez dakit gehiegi".

Ereñotzuko elizaren aldamenean izaki, gogoan du herriko festetan koadrilak "Txilibitanetik gure etxera eta guretik hara" ibiltzen zirela. Gau eta egun soinua atergabe, "Tarragona" deitu soinujolearekin. Esan behar, Olaburu sagardotegia izan zela bere garaian. "Sagar asko etxean, fruta arbola ugari izaten zen eta gogoratzen naiz hamar-dozena bat kupel egoten zirela ilaran. Auzokoek ere gure tolarean jotzen zuten sagarra"

Aitari entzuna, apreta zurikin etortzen zela bizikletan Hernanira eskolara, eta garai hartan frantsesa ematera ere iritsi zela. Gero, gerra garaian Afrikara soldadu, eta etxera etorritakoan bi arreben hutsunea aurkitu zuen, moja sartu baitziren bata Azkoitian eta bestea Erroman, hain zuzen ere. "Azkoitira arreba bisitatzera joan omen zen baina Erromara ez".

Aita makinetxen aritu omen lanean, eta handik aparte baserrian, gainontzeko senide, emazte eta seme-alaben laguntzarekin. Zortzi bat behi eta idi parea izaten zituzten, eta behin eta birritan errepikatu dit Klarak berak entzundakoa, baserri ona eta handia zela, alegia. Iturria ere etxeko lurretan bertan zuen.

Ereñotzuko apaizetxea egin aurretik, D. Jose Maria Maidagan joaten omen hara meza ematera eta behin baino gehiagotan Olaburun ostatu hartua. "Txilibita festetan bakarrik irekitzen zutelako eta gurea berriz urte osoan".

Handik eta harat, 1955ean, Lizeagatarrek baserria saldu zuten halabeharrez, eta Donostiako Gisasola andereak erosi, "inbertsio gisa edo". Oilaskotegi bat jarri zuten baina ez zuen aurrerabiderik izan eta gaur egun erdihutsa dago Olaburu edo Goikoetxe baserria.

Olaondo (Txokolate-Enea)



Amerikatan izandako batzuk omen ziren, Urdanpilleta familiaren aurretik Olaondo baserrian. Handik eta harat du etxeak Txokolate-Enea izena, izatez aspaldidanik Olaondo bada ere.

Bestetik, Txirrita bertsolariak jarri zuen dantzan, Ereñotzun ermita eraikitzea zela eta, **Txokolate-Enea**ren izena, dio nire solaskide Joxe Mari Urdanpilletak (72 urte).
"... ermitatxo au egin ziguten Txokolateren lurrian".

Etxea bera ez da egituraz aldatu. Lehena da, bi isuritakoa, goian bizilekua. Orain igoera kanpotik, lehen barrutik. Behean alde batean taberna (ostatua dio Joxe Marik) eta bestean ukuilua zituen. Orain, gainera, etxebizitza bat dauka eranskin modura.

Familia Tolosako Urkizu auzotik etorria da aitona, gurasoak eta anai-arreba zaharrenak (Joxe Mari eta Sebastiana). Joxe Antonio Urdanpilleta zen aitona. Migel Mari Urdanpilleta Kerejeta aita eta Joana Otegi Otaegi ama. Hemen, Olaondon jaiotakoak dira Kontxita eta Migel senide biok.

Joxe Marik hartu zuen etxearen ardura, ezkonduta, Manuela Ormaetxea Mitxelena, Donostiako Egia auzokoa emazte izanik. Joana, Joxe Antonio eta Migel Mari dira semealabak. Orain aita eta ama bizi dira soilik etxean, eta Migel Mari semea Mikeli Etxebeste emaztea, eta Haritz eta Xabier bi semeekin alboko etxean.

Baserritik atera zuten gurasoek bizimodua. "Bost behi eta hiru zekor izaten ziren gurean". Lursail onak, erribera lurrak soroak, "baina ez dira, dio Joxe Marik, erribera hauek, esaterako Epele aldekoak bezalakoak. Hauek hotzago eta hezeagoak dira".

Gainerakoan, Alkatxurain aldeko aldapak, belardi, sagasti eta azpigarriarentzat. Belar zakarra eta otea azpigarri, ez da besterik. Alkatxurain *(alka-zu)* ondo asmatutako izena dela uste du.

Baratzea, etxerako lain baizik ez. Zezenaren zerbitzua zuten, etxe-ordekoan inguruetako baserrietatik etorri behiak estali ahal izateko. Esnea, lehenik Agirre eta gero Santa Kruz esneketariei. Joxe Marik, ordea, hein batean baserriari helduz, fabrikarako bidea hartu zuen (Elektrokimika), bizikletaz, moto koxkor bat gero (Guzzi) eta autoa azkenik. Taxi zerbitzua ere eduki zuen auzoan hamabi bat urtetan.

Oraindik ere Joxe Mari, jubilaturik dagoen arren, ez dago geldi. Behi bat badu etxetik apartexeago aterpe batean, baratze koxkor bat eta sagastia eta... dolarea azken urteotan, ahaide eta auzoko zenbaitek urteko sagardoa izan dezan.



Errepide azpitik eta Urumea ibaiaren hegian Ubarroto baserritik hurbil aurkitzen zen **Otxakil-Enea** baserria. Itxura batean "hotzak hil" dela iduri badu ere beraren esanahiak, ez nago horretan. Interpretazio errazegia izango litzatekeela uste dut. Nik neuk nahiago dut "Otxandi", "Otxabi" edo horrelako izen propio baten bidea hartzea.

Nolanahi ere baserri polita izana dugu garai batean. Sagasti ederrak malkarretan, dolarea eta gainera, sagardotegi izana omen. Gaur horma zahar batzuk baino ez dira gelditzen zuhaitz artean ezkutaturik, eta historia triste baten oroitzapena, horra.

Bi anaia eta arreba omen ziren azken aldera **Otxakil-Enean**. Hauetarik, aldiz, Joxe Mari zeritzona azkenik. Erreka bazterrean etxetik aurreraxeago zuten baratzea, agidanez, eta Joxe Mari hau baratzean ari zen bitartean, bezperan saldu zekorraren dirua (13.000 erreal) ostu zioten.

Ondoko egunean, osteguna, sosik ez eta kutxara diru bila. Hala ere, dirurik gabe etorria etxera. Norbaitek (hobe norbaitzuk) dirua ekarri zuelakoan, larunbat gauean lotan zegoela, dafailaz ahoa itxi, bi besoak ohazurari lotu eta joka eraila izan zen. Bi pezeta bakarrik azaldu ziren etxean.

"Hurrengo goizean angariletan, oinez, bizkarrean harturik eraman zuten Hernaniko hilerrira gorpua. Hori dela 70 urte izango dira", bera mutikoa, esan dit **Txabolategi**ko Telesforok.



Landare izena nolanahi ere. *Sarats* edo *sahats*, udaberrian lehenengoetarik itzartzen den zuhaixka landarea, besterik ez eta erleak biziki maite duena, batik bat polenaren aldetik. *Sahats gain* izan liteke etxe honen izena. Irtenbidea Ereñotzura, Abillatseko zentralera lasterbidea eta berdin gurdibidea, baina hau itzuli handiagoa emanez. Agian, Lepa Txiki eta Lastaolara aiseago joateko bidea.

Etxeak ez du aldaketa handirik jasan, zeren oraintxe bezalatsu baitzen lehen ere. Bakarrik, bi borda zituela, ardi bordak, eta hauetarik bat orain lagunarterako aski ongi antolatua. Etxea, beraz, barne eta kanpo bere horretan mantentzen da. Garai batean, bi bizitzako etxea izana omen, nahiz eta Pilar bertako alabak (63 urte) eta nire solaskideak bakarrekoa ezagutu zuen.

Gurasoak, Patxi Altuna Garin **Lepa Txiki** baserriko semea aita eta Modesta Gastesi San Sebastian ama, lizartzarra izatez. Ezkondu zirenean jarri ziren bizitzen **Satsain** baserrian.

Seme-alabak: Bittori (txikia zela hila), Maria, Joxe Mari, Ramon, Joakina, Ixabel, Pilar, Iñaxi eta Tomasa.

Iñaxi, ezkonduta, etxean gurasoekin, senarra Joan Bta. Artola, Berastegikoa jaiotzez, eta hiru seme hauek izan: Joxe, Patxi eta Migel Anjel. Urteen burura etxea saldu eta familia osoa Ereñotzura jaitsi zen. Gaur egun Lujanbio familiak dauka asteburuetarako antolaturik.

Mendi etxea, behiak eta laurogei bat ardi izaten zituzten. Esnea Abillatsera, Agirre esneketariari. Arkumeekin ere ongi baliatzen ziren. Artoa, babarruna eta baratza. Intxaur asko, gazta, arrautzak, barazkiak... larunbatetan ama kalera, etxerako olioa, azukrea eta xaboia ekarriko baziren. Aita, negu partean, mendiko lanetan, sasi garbiketan, pinua landatzen, entresakak egiten, etab. Bi anaiak ere, gauza izaten hasi zirenean, morroi lehenik, kanpora lanera. Eskola Fagollagan, ez zegoen Ereñotzun eskolarik orduan.

"Nola bizitzen ginan? Ahal zen bezala moldatzen ginan. Ahizpa zaharrena josten ibilia zan eta hark moldatzen gintuan batak bestearen arropak erabiliz eta. Arditan, soroan eta etxeko lanean ondo hezitako neskak ginan".

Urik ez etxean. Etxetik aurreraxeago zuten iturria. "Baina garbi azaltzen ginan nonahi ere. Ama bera, larunbatetan kalera joateko, ura berotu eta *barriñoi* handi batean burutik oinetara garbi-garbi egingo zen. Eta alabak berdin.

Dolarea, bai, bazuten. Pisoia erabiltzen zuten sagarra jotzeko. Zuhaitz enbor mokor bat zen hau, erdi-erdian kirtena zuela. "Sagasti eta sagar ederrak ziran gurean"

Txabolategi



Txabolategi izena, nahiko sonatua bazterrotan, bertan jaiotako Joxe Joakin Erroizenea bertsolariak hedatu zuelako haizearen lau aldeetara. Hernaniko herrian bada **Txabola** izeneko baserri bat ere. Ez honek ez eta Txabolategik dute izenaren esanahiari buruz zailtasun apurrik.

Telesforo Oiarbide (78 urte) etxeko nagusia izan dut solaskide. Gure bertsolariaren etxeko pasadizo bat kontatu dit. Etxe atzeko soroan artoa lapurtzen nonbait eta harkaitz mokor baten atzean *laputxeko* eskopetarekin jarri da, bai lapurra harrapatu ere!

Abillats etxearen aurretik gora jo eta bostehun bat metrotara zelaitxo batean, **Agina** mendiaren hegalean kokaturik aurkitzen da **Txabolategi** baserria, zuhaitzez inguratua eta lore politez estalia duelarik atalondo guztia.

Bi isuriko etxe apala dugu berau. Lehen, sukaldea, ukuilua eta dolarea zituen behean, logelak eta *bainua* goian (oholez egindako komuna), eta ganbara gorago. Aurrean, ezkerrera, ardi borda zuen, orain beronen erdia garaje, eta beste erdia, etxaldetik sarrera, jangela bihurturik, sukalde eta mahai ederrez hornitua. Deigarri, aulki luze sendoak gertatzen dira bertan. Lehengo dolareko oholtzarrak omen. Baserri askotako moduan, senide arteko biltoki eta otorduak egiteko aukerako lekua, nolanahi ere.

Txabolategi bere alaba ezkontzerakoan

Bortoluene Bordara joan ondoan, Telesfororen aita eta ama ezkonberriak jarri ziren hemen bizitzen. Erosi 6.000,- pta pagatuz (1914an) erosi omen zuten.

Antonio Oiarbide Iraola aita, **Fagollagako** semea, eta Maria Zabaleta Perurena ama, **Etxola Berriko** alaba ziren, gurasoak, eta honako seme-alaba hauek izan zituzten: Luisa, Fermin, Martina, Telesforo eta Maria Loren.

Telesforo gurasoekin gelditu zen etxean, Odulia Gorrotxategi Lizeaga, **Arriurdinetako** alaba emaztetzat harturik. Bi alaba izan zituzten, Milagros eta Maria Jesus. Telesforo aitona, Milagros eta Pedro Abad, honen senarra, Eba alabatxoa eta Maria Jesus izeba bizi dira orain etxean.

Baserri koxkorra nonbait, lursail politak bai etxe ondoan, baina malkar hutsa gainerako dena. Bi behi eta berrogei bat ardi, oilo batzuk eta zerri bat etxerako, hori zen guztia. Aita ezkondu aurretik mandazain omen zen, mendietatik egurra eta ikatza garraiatuz, eta lanbide bera izan zuen ezkonduz geroztik ere.

Telesforo bera, norabait jo behar eta 9 urte baizik ez zuela, Santa Barbara hegalean ardi kontu ibilia dugu. Goizuetako mendietan zebilen 11 urte zituela itzainari laguntzen argindarraren linea jartzeko lanetan. **Ubarroton** morroi gero, ikazkin Lesakan eta Aizkorri aldean. Soldadutzatik etorri eta Elektrokimika fabrika eraikitzeko obra-lanetan lau urte.

Goserik pasa Telesforo?

- "Hor nonbait moldatzen ginan. Taloa izaten zan, aza-babarrunak, esnea eta gazta ere bai etxean. Gaztainak eta sagar erreak neguan, sagasti ederrak ziran eta, gure malkarretan".

"Gosea esan dezu? Soldadutzan pasatu genuen gosea, Bilbon eta Berango aldean. Patata eta baba handia azal eta guzti, bokartak edo txitxarro bat erdibana, egosita, oliorik gabe egosita. Etxetik hogei durokoren bat bidaltzen baziguten bigarren egunerako ogitartekoetan xahutzen genun. Elizondo aldera eraman gintuzten gero, makiak harrapatzera, bakar bat ere ez genun harrapatu baina".

Ezkondu gero, eta baserriaren ardura eta fabrikako lana batera eraman zituen. Garabi zain, kamioien karga-deskarga lanetan, Elektrokimika barnean 35 urtetan zehar.

Aurrez jubilatu zen, 63 urte zituela. Emaztea hil eta aldi txarra pasatu zuen, baina orain etxean lantxo batzuk burutuz, eta pentsio polita, jubilatuekin han-hemenka bidaiak eginez, ilusioz beteriko aitona ageri zaigu Telesforo.



Ubarreto



Ubarreto duela etxeak izena esan dit Patxi (58 urte) bertako nagusi eta nire solaskideak. Eta gaizki ez dabilela iruditzen zait. Hala ere, molde desberdinetan azaltzen zaigu dokumentu zaharretan etxe honen izena: Huerratua eta Huarracho (burdinola, 1567); Ubarratua Hamarrenak zerrendan (1610); eta Ubarroto Nomenclator zerrendan (1870). Iduri du zer nolabait *huarre* edo *uharre* dela hitzaren sustraia eta –to edo –*txo* atzizki txikigarria. Esaterako handik asko aldendu gabe badugu beste adibide bat gure baserrien izendegian: Ugaldetxo (*hualde* edo *uhalde* eta –*txo* atzizkia). Bestetik, uharre hitzari atxikiz edonork daki ur arrea zer den. Adibidez, "arreturik dator ibaian ura egunotan" esaldia.

Ereñotzutik aurrera joa, Latsa eta Abillats pasatuta aurreraxeago Nafarroarako errepidez goiti aurkitzen da **Ubarreto** baserria. Sarrera gainaldetik omen lehen, ekialdetik. Ukuiluko sarrera hegoaldetik. Patxik bera ezkontzerakoan handiki berritua izan zen, horma nagusiak lehenean zirela. Bi gela bakoitza bere balkoiarekin zituen hegoaldetik eta ganbara bere leihoarekin, gorago gailurpean zurezko arnasbide bitxia.

Ezkonduta senar-emazteak bizitzen jarri ziren, Patxi Lizeaga Aranburu, Pagoagako semea senarra eta Mari Lurdes Loiarte Ondarrola, goizuetarra emaztea. Seme bat izan zuten: Pedro Mari. Aurrez Izagirre familia bizi izan zen, maizter eta apaiz baten jabetzakoa zen, agidanez. Patxiren aita Joxe Marik erosi zuen bere lurrekin **Ubarreto** baserria. Orain aita eta ama semearekin bizi dira etxean.

Aita, ezkonduz geroztik, kanpoan lanean, baina baserriko lana alde batera utzi gabe. Baserria, hauen kasuan, ardi multzo bat zaintzea eta hauetaz arduratzea izan da beti. Hein batean, harro daude gainera, zeren bertako arraza, "sasi ardia" dio berak, ahal den osokien mantentzeko bidea egin baitute, nahiz eta hain errentagarria ez den. Funtsean, gurea dena mantentzea dute helburu, eta jakina, bazterrak garbi edukitzekoa. "Heze eta iharrak" xahutzen dituen ardi mota dela hau edonork daki.

Urte batzutan mamia egin ohi zuten ardi esnearekin eta arrakastarik aski izan ere bai. Esne ona ardi klase honek eta estimu handiko mamia izaten omen zuten, latxa ardiak askoz gehiago badu ere. Arkumearekin gauza bera gertatzen zaie. Arazoa ulertzeko, libre hazitako oilaskoa hartu liteke konparazio modura. "Footing" egiten duen ardi mota dela esan diot eta erantzuna ere halaxe izan da, "hauen atzetik ibili behar dutenak ere bai". Funtsean sanitatearen aldetik dituzte arazoak eta zer nola konpondu pentsatzen dabiltza.



Ugaldetxo Pagoaga Auzoa

AUZOAREN HISTORIA LABURRA

Ereñotzutik Nafarroako muga (Arano) bitarteko eremuari izen bikoitza ezarri diogu ikus daitekeenez. Esan gabe doa, Pagoagak aldi edo urte batzuetan zehar loraldi ederra ezagutu zuela, harat eta honat sekulako mugimendua izan baitzen zen hor; mendi-bideek nahiz errepideek Pagoaga zuten bilgune eta berebat banagune: egurra eta ikatza, mando eta basomutil, ostatu eta bidaiari.

Pagoagak bere baitan zeukan, gainera, errota, eskola eta eliza, guztiok nortasuna borobiltzen ziotelarik, eta (muga) mikelete etxea. Hau joan zen hankaz gora, errota eta eskola itxi ziren, zutik dirauten arren, eta eliza ere zutik baina duela hiru urtetik hona, Ereñotzuko apaiza hil zenez geroztik, mezarik ez igandetan.

Ordainez, bizia, mugimendua orain, haizearen ufada berria bailitzan, Ugaldetxora lekualdatu da. Jatetxe bipil baten jabe da Ugaldetxo, taberna dauka eta lagunartea bereganatu du bertako eta bidez doazen bidaiarientzat eta frontoi polit bat dauka aspaldian bere alboan. Ura ausarki (ibaia, kanala...) eta aparkaleku zabala, udatiar jendearentzat batik bat bilgune bilakatzen dena.

Ez da, beraz, zentzurik ez duen zerbait Pagoaga-Ugaldetxo izan orde, **Ugaldetxo-Pagoaga** deitura hartzea auzo horrek.

BASERRIAK

- Aparrain
- Arantzadizabal (Hondakinak)
- Auzokalte (Borda)
- Etxola Berri
- Ierola Behekoa
- Ierola Goikoa
- Legarreta (Desagertua)
- Lizarregi (Hondakinak)
- Naparralde
- Pagoaga
- Pagoaga Errota
- Pikoaga
- Pikoaga Etxeberri
- Tximista-Enea
- Ugaldetxo
- Urmendi
- Urruzuno Behekoa
- Urruzuno Goikoa (Leitzanea)

SOLASKIDEAK

- Aizega, Joxe Migel (Aparrain)
- Aranburu, Manoli (Naparralde)
- Arozena Apezetxea, Ines (Ugaldetxo)
- Arrieta, Pio (Tximista-Enea)
- Etxeberria, Maite (Urmendi)
- Etxegoien, Margarita (Lizarregi)
- Galdeano, Joan (Pikoaga)
- Iriberri, Joan Bta. (Urruzuno Behekoa)
- Legarreta, Luis (Legarreta)
- Lizeaga, Joxe (Pagoaga Errota)
- Lizeaga, Lorentxo (Pagoaga)
- Santa Kruz, Gregorio (Ierola Goikoa)
- Zabaleta, Felisa (Etxola Berri)
- Zapirain, Joxe "Enporru" (Ierola)



Hernaniko baserririk urrunena, dio Joxe Migel Aizega nire solaskideak, lehen **Lizarregi** bazen ere", inolako dudarik gabe.

Ugaldetxon gora abiatu, eskuinera jo Pikoaga Etxeberri etxearen gain aldetik eta kilometro pare batera beheko zokoan, leku goxoan, aurkitzen da **Aparrain** baserria, Urumea ibaia alboan eta ibaiaz bestaldetik Benta Berri (Arano) eta "Cruzcampo" garagardo fabrika dituelarik.

Bertan burdinola izan zela aitortzen duen dokumentu bat bada Udal Artxiboan (1536) eta etxetik asko aldendu gabe *karobi* handi bat ere bai. Karobi hau legarrak harturik dago hein handi batean, handia da harkaitz mokor baten kontra eraikia. Itxura batean iduri du karobia ez baina burdinolaren labe izana dela.

Isuri biko etxe luzea benetan, Hernaniko herrian **Alkatxurain** izan ezik besterik ez bezalakoa. Hiru bizitza eta hiru familia bizi ziren garai batean. Baserritik bizi ere. **Izagirre** familia eskuinekoan. Duela 25 bat urte joan zen hemendik hau. Orain, valentziar batzuek daukate asteburuetarako harturik.

Aizega familia bizi zen erdikoan eta oraino ere Patxi bertako semeak jarraitzen du hor.

Balerdi familia, berriz, ezkerrekoan. Hauetarik bi anaiak ziren azkenean, hauek gastatu ziren, baserria bertan behera gelditu zelarik. Joxe Migel Aizega, erdiko etxeko seme batek erosi zuen hau eta obraturik poliki antolatua dauka orain.

Aizegatarrek aita Joan Aizega Otxandorena eta ama Sebastiana Ezkurra Biurrarena zituzten, Saldias (Nafarroa) ezkonberritan etorriak. Aita, nonbait, mendiotan basomutil ari, aurrez begiz joa zuen etxea, Joxe Migelek dioenez. Hauen seme-alabak: Maria, Joxe Migel, Patxi eta Benedita. Gaur egun, Patxi bizi da jaiotetxean eta Joxe Migel, kalean bizi, egunero etortzen da ezkerreko berera, zenbait ordu gustuko lanetan (baratze, erleak, mendia...) bertan emanez.

Aita izatez basogizona zen eta hona bizitzera etorri zirenean nahikoa txukun aurkitu zituztela esaten omen zuen bai baserria bai lursailak. Hiru bat behi, zekor bat edo beste eta aberea ezagutu zituen Joxe Migelek txikitan etxean. Baserri koxkorra zela dio, hobe mendi-etxea erabat. Ardi mordoska bat ere izaten zuten.

Aitari entzunda, ohitura hala zen agidanez, auzoko baserri bakoitzak (Askatxu, Argorri...) nola ardi bana oparitzat eman zioten etorri zirenean. Halaber, auzolanaz oroitzen da *(aldiya)* auzoek elkarrekin urtero bideak errepasatu eta konpontzeko lanaz. Honek zer nolako garrantzia zuen haientzat, Ugaldetxotik ia kilometro pare bateko bidea baitzuten Aparrain etxera.

Pagoagako eskolan ibiliak dira. Ibaiak ur gutxi bazeraman Benta Berrin barna joaten ziren, baina bestela Ugaldetxotik. "Tokitan geratzen huan"!

Gero, gazteak zirela zurezko zubi bat egin omen zuten, dio Joxe Migelek, gimnasia eginez pasa behar izaten zen horietarikoa, eskolara, elizara eta jai arratsaldetan Benta Berrira (bilera garai hartan Benta Berrin).

Eta pixka bat edanez gero? esan diot.
- "Ez zakela uste, ez ginuan ondo ibiltzen. Oraingo gazteengatik esaten diagu, baina guk ere gure parteak sartzen genizkian".





Izatez borda txar bat zen, sukalde bat ezarri eta familia bizi izan zelarik, **Pikoagatik** gora mendi hegalean. Joxe Luis Otxotorena eta Maria Egilegor ziren senar-emazteak, eta bi seme, Jesus eta Joxe Antonio.

Aita urte batzuk Ameriketan egina zen, eta handik etortzerakoan barkua urperatu eta ozta-ozta, soineko arropak soilik, salbatu zena. Arreba Anttoniren laguntza izan zuen. Gerora, ezkondu eta han, Arantzadizabalen, jarri ziren. Beste zoritxar batek kolpatua izan zen Joxe Luis, *itsutu* egin zela. Zer egin?

Oinez, Pikoagara jaitsi, semeak lagunduz, hor hiru gurpileko bizikleta batean aita-semeak Hernanira itsuen txartelak saltzera. Geroago, baserria utzi eta kalean bizitzen jarri ziren, eta itsuen txartelak salduz bizimodua atera.

Auzokalte



Itzairu edo Atxerua-Enea deitzen zuten, gizaseme azkar, tantai eta oso sendoa zelako **Auzokalte** baserrian azkenik bizi izan zen Lino Azkue zeritzona.



Istorio bat bada auzokoen artean ahoz aho dabilena. Etsita zegoela notarioa deitu eta honek:

- Harrizko etxea, etxe ederra duzu.
- Bai, etxe hau oin batetik hasita, neronek egindako etxea da.

Gaur egun Joan Bta. Iriberrik (Urruzuno) erabiltzen du baserria garbitze aldera.



Pentsatzea baino ez dago non dagoen. Hernaniko herritik baserririk aldenduena, urrunena, seguru aski. Felisa Zabaleta (74 urte) bertako alaba dut solaskide eta beronen esanetan bizkor joan ezean ordubeteko bidea Pagoagatik gora, Ierola biak (Behekoa hala Goikoa) pasatuta, behar izaten omen zuten etxera joateko. Gogoan ditu eskolara (Pagoagara, Dionisi Lizeaga maistra), nahiz elizara (Santiago ermita) egindako ibiliak.

Mendi-etxea zen guztiz **Etxola Berri** baserria. Harriz egina eta etxe handia, hori bai, "behar ere denak kabituko baginan", dio Felisak.

Fermin Zabaleta Peruarena zen aita, bertako semea eta Joxepa Balerdi Oilokiegi ama, **Ugaldetxo** baserriko alaba. Oroitzen da, Felisak bost urte baino ez zituen ama hil zitzaionean.

Eta hamalau senide izanak ziren. Hona hemen: Graxi, Joxe Migel, Dionixio, Agustina, Luxiano, Joakina, Baxili, Joana, Lorentza (behizain zebilela belar gainean loak hartu eta eguzkiak muinak urtuta hila), Esperantza, Ines eta Felisa eta beste bi txikitan hilak. Agustinak bete zuen amaren zuloa hein batean, etxean ziren beste senideen laguntzarekin.

Gero, Joakina gelditu zen etxean, ezkonduta, aitarekin. Senarra, Eusebio Aranburu Garaiar, **Pikoaga Etxeberriko** semea. Eta hona hauen seme-alabak: Arantxa, Joxe Mari eta Lurdes.

Maizter ziren eta urrun haurrak eskolatzeko, baserri utzi eta behera jaisteko erabakia harturik, **Irurena** etxea eraiki (Ubarreto baserriaren ondoan) eta bertan bizitzen jarri ziren. **Irurenan** hiru ahizpa ezkonduta kokatu ziren (Ines, Joakina eta Joana) bakoitza bere familiarekin.



Ierola Behekoa



Ierola Goikoa da, agidanez, etxe nagusia, etxe oinarria. Ondo eta bidez, Ierola Berri edo izango litzatekeelarik behekoa. Uste horretan dago nire solaskide Joxe Zapirain "Enporru" aitona (90 urte).

"Enporru" hori nondik norakoa duen galdegin diodanean, ez dit batere aurpegi txarrik ipini; izan ere, edonork eta edonon denek Enporru edo Joxe Enporru esan edo deitu omen.

Agidanez, Hernaniko kalean, garai batean, orain "Cuevas" farmazia eta "Banco Guipuzcoano" dauden tarte horretan, baserria zen, dolare eta guzti, eta hor bizi ziren *enporrutarrak*. Eta hor bizi zirela, bertako osaba, txalekoa alderantziz jantzita (forrua agerian) azaldu eta lagunartean enporru ez-izenez deitu. "Horra nondikakoa degun *enporru* hori".

Bi bizitzako etxea omen Ierola Behekoa ere. Agirretarrak bizi omen ziren iparraldeko etxebizitzan, eta hauek beste Agirre bati, Joxe Kruz Agirre (Urnieta) deitzen denari saldu.

Honek sagasti eder bat dauka aspaldiko urteotan baserriko lurretan landatu eta ustiatzen duelarik.

Hegoaldekoa, aldiz, Lizeagatarrena (Pagoaga), hauek saldu eta Joxe Enporruk erosi, poliki-poliki baserriari lehendik ez zegozkion lursail berriz osatu duelarik. Orain Joxe Zapirain aitonaren izen-deitura bereko biloba bizi da bertan Pili emaztea, eta Axier eta Ixiar seme alabekin, etxea egoki moldaturik.



Ierola Goikoa



Ierola Goikoa txearen eskrituretan (1892) "Iguerola" izenez azaltzen bada ere, "Iyaola" dugu jendearen ahotan, eta Ierola mapa toponimikoan. Sustraian, iduri du eihera igeratik (errota) heldu dela, nahiz eta horrek ez duen itxurarik non kokatzen diren Ierola baserri biak ikusiz gero. "Iyaola" edo Iraola hitza hartuz, hala ere, ihia nahiz irastorra, *ira* eta *ola* (gunea) duen lekua adierazi nahiko lukeelako.

Pagoagatik gora malkar gogor bat, eta oraino malda-maldan kokaturik dago Ierola Behekoa, bizkarragoan **Ierola Goikoa**, eguteran biak ere, ekialdera begira osoki, "leku airetsuan eta haizetsuan" dio Gregorio Santa Kruz (66 urte) solaskideak.

Bi isuritako etxea, sarrera ekialdetik, bi baserri eta bi familia omen ziren Ierola Goikoan bere gazte denboran, eta aurretik hiru entzun izan zuenez. Setiendarrak ziren familia hau, baina berak ez du gogoan noiz joan ziren.

Santa Kruz (edo Otxotorena) familia egin zen hirugarren honen jabe, eta hala, bi bizitzako baserri bilakatu zen, bi familia Santa Kruz eta Mendizabaldarrak bertan geldituz.

Santa Kruz familia, hegoaldetik. Aitona Joxe Kruz Otxotorena, bertako semea. Gurasoak, Blas Santa Kruz, jaiotzaz Adunakoa, aita, eta Anttoni Otxotorena Agirre ama, bertako alaba. Bost seme izan zituzten: Inozentzio, Anixeto, Joxe, Joan Bta eta Gregorio. Arantza eta Margari dira, Inozentzioren alabak, han jaio ziren azkenak.

Ororen buru, bi gazteenak izan ziren etxean, Joan Bta eta Gregorio, gurasoekin. Baserria saldu, eta gaur egun Bittor Oziok dauka asteburuetarako poliki antolaturik.

Aita zena *mandazain* ibili ohi zen Pagoagara, bertako mandoekin, egurra eta ikatza garraiatzen. Seme zaharrenak, Inozentziok, zazpi urte egin behar izan zituen soldadutzan gerrakoan.

Handik etorrita gero, ama-semeek (gero emaztea amaren ordez) zeregin berezi bati ekin zioten. Etxeko esnea hartu aberearen gainean, Pikoagara jaitsi, bide eskasa, eta hor estalpean eduki ohi zuten orga edo karroa ezarri abereari, eta Urumea errekako hainbat baserritako esneak bildu eta Hernaniko kalera etxez etxe esnea banatuz.

Esan gabe doa, Inozentzio edo Santa Kruz *esneketaria*, denborarekin pertsonaia famatu bilakatu zela erreka honetan, esnea bildu kalerakoan eta postari zerbitzua, pentsua eta mandatuak etxerakoan. Azkenik, postari izaten bukatu zuen.

Bospasei behi izaten ziren Ierola Goikoan, bi abere (egun batean batek eta bestean besteak Hernaniko itzulia), hogeita hamar bat ardi eta oilo batzuk.

Mendizabaldarrak familia, iparraldeko bizitza, kalera bildu zenetik, bertako iloba Nikolas Agirreren baitan dago baserria.

Gerra garaian herritik, kaletik etorritako familia zen eta **Ierola Behekoa** deitu baserriaren azpialdean borda txar bat baserri bezala moldatu bere lurrekin eta hor bizitzen jarri zen, **Legarreta**, aitaren deitura Legarreta, etxeak izena izan zuelarik.

Joxe Legarreta Peruarena zen aita, **Txara** baserriko semea (Arano), gaztetan Madril aldera obra lanetara joana (trenbide, errepide, tunel, eraikin...), han andregaia egin, Maria Domingo Sanz, madrildarra, han ezkondu eta Hernaniko kalera bizitzera etorriak ziren.

Seme-alaba hauek izan zituzten: Isidoro, Maria, Dabid (Ierola aldeko argindarraren linean haria eten eta hura jasotzen hasita elektrokutaturik hila), Joxe, Luis, Joxepa eta Mari Karmen.

Baserrian behi pare bat eta 80 bat ardi izaten zituztela esan dit Luis nire solaskide eta bertako semeak. Pagoagara omen zuten irtenbide guztia.

Semea hil ondoren, aitari lana eman zioten *Zelaitxo*, Urruzunoko Zentralean. Senideak bakoitza bere bidetik joan ziren ahal bezain laster: Isidro Argentinara, Maria Parisera... gurasoak senide txikienekin gelditu zirelarik.

Gerora, baserria bere lurrekin saldu eta Fagollagan etxe polit bat harriz egina, **Legarreta-Enea** izenez, eraiki eta bertan jarri ziren bizitzen.

Tokitan zeok ua, baina aixa asko ibiltzen ginan gu garai haietan" dio Margarita Etxegoien (74 urte) bertako alaba nire solaskideak. Arina? Oraintxe ere hala iruditu zait niri eta zenbat pisatzen duen galdegiteko ausardia izan dut. Erantzuna: 50 kg, horra. Zaldi lasterketan aurkezteko moduan dagoela esan diot.

Ugaldetxotik gora etxera joateko, ezker-eskuin, bi bide zituzten. Ezkerrekoa lasaiagoa, aldapatsuagoa bestea. Aparraindik barna, berriz, ibaia zeharkatuz Benta Berrira edota ibaia itzulikatuz Argorrira eta Askatxu nahiz Aranora. "Oraingo gazteak *nekatuta* jaio dirala iruditzen zait. Gu oso betizuak ginan". Eta hala-hala gaztetako pasadizo bat kontatu dit. Errenterian lehengusuak omen. Madalenetan hiru egun pasa han festan, osabarekin mendiz etxeratu, bazkaldu, Santiago eguna, dantzara Benta Berrira.

Etxea nahiko polita bere garaian, **Lizarregi** baserria. Mendietxea, urruti, hori bai. Hegi batean dago eta lizarra ere inguruan izango zuela ez da dudarik *(lizar-hegi)*. Duela hamabost bat urte joan omen zen azkenekoz Margarita hara eta oraino zutik omen zegoen. "Orain, jakin det, arrunt desegiña eta erorita dagoela. Zer egingo dezu? Ni ere ondo nabil oraingoz, baina bista eta belarria bajatzen hasita nago." Fagoagan eskola, baina 9-10 urtera bitarte. Ez omen orduan gogo eta modu handirik, "baina gure umeak bezala ibili banintz, esaten diet, nik ere zerbait egingo nuela".

Gurasoak, Joan Bta. Etxegoien Perurena bertako semea aita (aurrez Arantzakoak) eta Fausta Ollokiegi Perurena ama, Aparrain baserriko alaba, ama. Seme-alabak: Luis, Lazaro (gerrakoan soldadutzan hila), Seberiano, Manuel, Julian, Joxe eta Joan (zazpi mutil segidan) eta Mertxe eta Margarita.



Etxean, gero, Seberiano ezkonduta. Emaztea, Bittori Errazkin Zubiarrain, **Putro-Ene**ko alaba. Duela berrogei urte Lizarregi saldu eta Benta Berrira (Arano) jaitsi ziren eta hor jarri bizitzen.

Aita lineako guarda zen, Lizarregitik (Aparrain-Argorri-Abaño) Abañoko zentralera, Santiagokoa, etab. bisitatu, tramankulu bat (telefonoa) bizkarrean hartuta eta agiriekin egunero Akolara eta hemen Ximelaneko (Ergobia) bere kideari agiriak entregatu, hark Donostiara, eta eguerdirako etxera. Arratsaldea baserriko lanetan. Luis eta Seberiano ere kanpora lanera eta geroago Joxe ere bai.

Hiru edo lau behi izaten zituzten eta hirurogei bat ardi. Belardi ederrak etxetik aurreragoko gain zabalean, "belar mox-motxa eta bista ederrekin". Etxe azpian artasoroa, patata, arbia...

Taloa nahikoa, gazta beti, "ogi puska bezala" jaten, zerri bat eta urte batzutan bi, eta dolarea pitarra egiteko. "Dirurik ez baina jatekoa ez zitzaigun faltatu".

Ugaldetxora esnea, esku bakoitzean zazpi litroko marmitak hartuz. Ugaldetxotik olioa, xaboia eta etxerako gauzak. Behin bere aurreko anaia bai omen zetorren, astoa kargatuta nonbait, eta astoari lepoan hiru litroko ontzi olioa ezarrita etxera, eta Aparraingo gizonak: "Astoari *joale* handia erantsi diok". Horrelaxe ibiltzen zirela dio Margaritak.

Iturria aipaturiko ardien gain zabal hartako larrearen ondoan eta hor etxerako hura eta beste bat handik beherago aska eta guzti, bere harri zabalarekin hornitua, *gobara* egiteko.

Astoa mozkortuta ere ibili omen zuten egun batean. Bezperan patsa prentsatu eta pertza handi batean utzi sagardoa. Gauean astoak dena edan eta hurrengo egunean "zer du asto honek balantzaka"? Zer izango eta sagardoaren mozkorra, hara.





Izenak argiro erakusten du, Nafarroa hurbil duela, alegia. Hernanitik Goizuetarako errepidean, Nafarroako (Arano) muga-mugan, azkeneko etxea dugu **Naparralde** baserria, eguteran, txoko batean eta ipar haizeak jotzen ez duen babesgunean kokaturik. Aitak hiru urte zituela, aitonak antolatu omen zuen etxea gaur egun dagoen bezala bere izen eta guzti, esaten dit bertako alaba Manoli Aranburu (55 urte) nire solaskideak.

Joan Bta. Aranburu, **Aparrain** baserriko semea zuten aitona eta Manuela Peruarena, **Ierola**ko alaba amona. Gurasoak, aldiz, Joxe Migel Aranburu Peruarena aita, Joxepa Arregi Iraola ama, **Oianeder** baserriko alaba hau. Zazpi seme-alaba izan zituzten: Maria Pilar, Manoli, Agustina, Itziar, Ana (bost alaba segidan) eta Paulo eta Xanti.

Senideak bat banaka, bakoitza bere bidetik, sakabanatzen joan ziren, eta azkenik, aita eta ama gelditu bertan, eta aita hil eta ama gero, biloben laguntzaz eta asteburuetan seme-alabak biltzen zitzaizkiolarik.

Aitonak Ubarretxena zentralean lan egiten zuen eta aitak lineak zaintzen eta hauek konpontzen. Gainerakoan, hiruzpalau behi, zekor bat edo beste, ardi multzo bat. Baratzea etxerako, eta artoa eta babarruna. Esnea Agirre esneketariari. Arkumeak saltzen zituzten eta gaztak egin ere bai. Hau amaren zeregina izaten omen.

Ama, **Oianeder**ko alaba, Donostian, (plazan) ongi hezitakoa zen ezkondu aurretik. Aitonak izokinak harrapatu ibaian eta saltzera Donostiara. Urrezko balioa izokinak garai hartan. Haurrek "ea sekula jan zuten izokinik" amari galdera. "Bai, noizbehinka bai, oso puskatutakoren bat..."

Saldu? Ez bakarrik izokinak, baita barazki, arrautza eta frutarik "goxoenak" ere dio, Manolik. Gaztaina inguru guztian zuten hauen ume denboran. Halako gose handirik pasatutako oroitzapenik ez du honek, zeren urtean bi zerri, ardi zaharren bat edo beste zezina egiteko, arrautzak eta izaten baitzituzten. Gorde sagarra, intxaur eta gaztaina ere bai, bestetik.





Lorentxo Lizeaga Aranburu (69 urte) etxeko semea dut solaskide. "Lehen etzan pinudirik, pagadia zan dena eta hortik datorkio Pagoaga" esan dit duda izpirik gabe.

Pikoagatik gora, usu bisitatua den iturri goxoa pasatuta, bihurgunea eta zubiaren ondoan dago **Pagoaga, Benta Berri** (Arano) eta Goizuetarako bidearen ezkerretik. Sukaldearen azpitik pasatzen omen **Errota** aldetik datorren **Sagarretako erreka** deitzen dena. Aurrean errepidez bestaldetik Mikelete etxea zegoen (Arbitrioak), orain desegina. Nahikoa kontrol izaten omen zen hortik pasatzeko. Hala ere, zahagia bizkarrean eta zahatoa eskuan etortzen omen kontrabandoko jende batzuk, trago bat ardo eman mikeleteei eta aise pasatzen ziren. Errota eta eskola zeuden, gainera, aurre-aurrean.

Lorentxok 3 urte zituela (gerrakoan) "Kafetin" delako gaizkile batek etxeari atzetik su eman (ikatz almazena hemen) eta hau erre egin zen. Xehetasunik aski eman dit "Kafetin" pertsonaiaz.

"Cuevas farmazia dagoen horretan zan kafetegia, eta horko semea izan behar zuen. **Otxakil** zena ere hark hil omen. Heriotzako orduan aitortu zuen. Nik beti hala entzun izan dut etxean".

- Politika arazoa edo zer zen tartean etxeari horrela su emateko?

- "Etzan politika arazorik. Gure etxean politika zertzen etzekin inork. Kalte egitea baizik. Taldean zozketa egin eta berari tokatu zitzaiola esan ohi zan".

"Gurasoak, aitona hil zain egonak zian ezkontzeko, 11 urtean hain zuzen". Aitona "Kizkurra" ez-izenez ezagunagoa, ilea oso kizkurra zuelako. Aita, Joxe Mari Lizeaga Agirre zen, bertakoa, eta Luisa Aranburu Rekalde **Errota**ko alaba ama, eta hauen semealabak: Ramon, Lorentxo, Pepita, Ixabel, Pedro, Patxi eta Joxe Manuel. Aita hil eta gerora, ama, etxea salduta, kalera joan zen bizitzera.

Aitonak markatu zien bideari jarraitu zien ondokoek! Egurra eta ikatzaren negozioa zen oinarri Pagoagan, biltegi handi bat funtsean. Ikatza aterpean, eta etxe inguru guztia eta bide ondoa egurrez beterik izaten zuten. Galeretan burutu ohi zuten garraioa, Donostiara gehienik. Etxean taberna eta jatetxea, berriz. Etxea erre eta berritu ondoan, ukuilua etxe ordekora, hemen zegoen upelategia kenduta.

Gerra garaian oroitzen da, doi-doian baina nola auto bat, Fiat berri-berria, Hernaniko herrian lehenengoetarikoa zena, saguraski, eta GMC lau tonako kamioia errekisatu zizkieten.

Ukuiluan bost edo sei behi izaten zituzten eta mando sail handia. Hogeita hamar (30) izateraino ezagutu zituen Lorentxok. Eta basomutil multzoa, handik eta hemendik lanera etorritako jendea. Gehienak euskaldunak. Gogoan du arropa urdina, bi muda, ematen zitzaizkiola bakoitzari lanean hasitakoan. Garai hartarako enpresa koxkor polita dirudienez.

Harrezkero, Lorentxok eutsi dio ahal den heinean egur lanari, baina esan gabe doa gasa eta argindarra etxeetara sartzen hasi zirenetik zer nolako beherakada egin duen egurraren kontsumoak.

Pagoaga deitu etxe nagusiaren aurre-aurrean, errepidez bestaldetik, daukagu, izen bereko **Errota**. Txoko goxo batean babesturiko etxe bildu polita berau. Harriz egina, orain berritua, harria agerian utzi zaiolarik.

Garai batean errota izana, eta ia oraintsu arte dinamo koxkor bat zeukan inguruko baserrietara, **Abillat**setik hasi eta auzoko baserrietara, argindarra banatuz. Ia oraintsu arte, eta halaxe da, baja eman zeneko agirien datak, biak aldi berekoak, ikusi baititut (1965-03-29). Bata "Molino de 102 m2 eta "Producción de electricidad" bestea.

"Argia etzan oso argia izaten, hobe ipurtargia, baina garai hartan estimu handikoa gertatzen zan baserriotan".

Joxe (67 urte) etxeko semea izan dut berriemaile. Gogoan du amona zena, Kontxesi Rekalde Balerdi, **Errota**ko alaba. Aitonaz ez da oroitzen. Entzunda bai nola Ubarretxenatarrek Urumea errekako argiaren zentral horiek martxan jartzerakoan Ameriketatik espresuki ekarrarazia zela, teknikari on bezala, eta halako zorigaitza izan zuela non 1937an elektrokutaturik hil zen **Biureta**ko zentralean (Ezkurra). Hiru seme-alaba zituzten: Ixabel, Kandido eta Luisa.

Ixabel alaba zaharrenak, eman zion etxeari jarraipena, Patxi Lizeaga Agirre, **Pagoaga**ko semearekin ezkonduta. Hona hauen hiru semeak: Joxe, Emilio eta Kandido.

Orain, Emilio eta Joana Joantorena Joanena, sortzez Ezkurrakoa, senar-emazteak eta Joxe bizi dira etxean.


Patxi aitak kamioiarekin txofertzan atera zuen bizimodua, Pagoagako egur eta ikatzaren garraioan bereziki. Soldadutzatik libre gerra aurrean, baina kamioia errekisatu eta beronekin batera joan behar izan zuen (Gernika aldera) gerrakoan.

Errota itxi eta lanik asko izan omen zuten hor ere. Agidanez, prezintua paperezkoa, arratoiek jan hau, artoa ehotzen ote zen susmoak, guardiak maiz etxe inguruan.

Beronen bi semeek ere, Joxe eta Emilio, ofizio bera izan dute, txofertza. Joxek "Pasaiako portutik, dio, Espainia guztira eta Frantziara ere bai". Gaur, Joxe jubilaturik, Emiliok jarraitzen dio lanbideari.







Udazkenean fruitua duen fruta-arbolaren lekua, pikua, adierazi nahi du, inolako zalantzarik gabe. "Herreria de Picoaga" azaltzen zaigu Hamarrenak zerrendan (1610). Joan eta Miren (68 eta 69 urte) senar-emazteak izan ditut berriemaile.

Goizuetarako bidean Ugaldetxo pasata, Urumea ibaiaren gaineko zubia nahiz frontoia ere bai, errepidearen ezkerretik, erribera lurretan eraikitako baserri txukun egokia, bi bizitzakoa, bi baserri eta bi anaia, Pako eta Joan bizi dira bertan bakoitza bere familiarekin. Etxe handi zabala, 200 m2 pasako hedadura duena. Aterpe tente bat dauka etxe aurrean, guztiz deigarri eta bitxi gertatzen diren lau zutaberen gainean.

Joanek esan didanez, Pikoaga ez zen lehengo denboretan baserri, burdinola baino. Eta errota. Ondo gogoan dauka duela berrogei bat urte, frontoiaren atzetik eta etxetik errekara bitarteko horretan zer nolako zepa kopurua (burdin hondakinak) atera zuten, Errenteriara edo, fundizioren batera cramateko. Bost mila durotan (25.000,- pezeta) egin omen zuten aitonarekin tratua. "Bai pozik, ez baitzan diru pila makala!"

Tona kontura atera zuten, agidanez. "Sukalde hau haineko koskak bai. Ugariagorik atera zuten!" Olazarren (Urnieta) eta Abillatsen ere gauza bera gertatu zen.

Aitonak 13.000,- pezeta ordainduz, erosi eta orduan bilakatu zen burdinola baserri. Aitona eta amona ezkontzerakoan. Aitona, Joxe Ramon Galdeano Galdeano zen, Ierolako semea, eta Modesta Lizeaga Narbarte amona, Pagoagako alaba. Hauek baserri bezala moldatu eta bizitzen jarri ziren bertan.

Nafarroako errepidea urratzean, erdi-erditik harrapatu baitzuen burdinola, orduan desegin zen hau. Ura zetorren kanalaren tunela ikus daiteke oraino errepidearen azpian. Eta frontoia eraiki zenean, berriz, desagertu zen errota. Hona zer esaten den etxearen eskritura agirian: "A muy poca distancia y a la parte posterior de la casa, existía un molino de una sola pieza de moler grano, con planta baja y tejado solamente, que estaba rodeado de sus pertenecidos, y tenía cabida en su sitio un solar que es lo único que actualmente existe, diecisiete centiáreas, hoy ocupado por un frontón cubierto".

Etxearen alderdi batean, familiaren bizitegiaz aparte, taberna zegoen garai batean. Ostatua zen, gainera, pasabideko itzain eta





basomutilentzat. Bilera ere izan omen zen hainbat urtetan zehar. Bi sala eta sei logela ziren etxearen ekialdeko alderdian. Eta lehorpe bat edo gehiago etxe ondoan, idi eta abereak nahiz galera eta orgak babestu ahal izateko.

Amonak zeukan ostatuaren ardura. Mandoekin mendietatik ikatz garraioan ibiltzen zen aitona, kontrabando puntta bat eginez, bidenabar. Ostaturako pattarra, esaterako. Barrika kozkor bat zen, oro har, bere tirante eta guzti. Joanek ezagutu zuen barrika hau nolakoa zen. "Norbaitek" gaztaina zulo batean uzten zuen eta aitonak belar onduz estalita poliki asko mando gainean etxeratuko zuen.

Gurasoak, Migel Galdeano Lizeaga, etxeko semea aita eta Kristina Izagirre Loiarte, ama, Aparrain baserriko alaba. Seme-alabak: Pako, Ramona eta Joan. Gurasoek beste modu batera antolatu zuten bizimodua. Aitak Urruzunoko zentralean egin zuen lan bere denbora guztian. Lau bat behi, zekor batzuk eta astoa izan zituzten. Agirre Benta Berriko esneketariari esnea.

Oraingo gurasoek, berriz, erabat bestela jokatu dute. Miren egunero Donostiara, barazkiak (baratze negutegiz hornitua), arrautzak eta akazia nahiz gaztainaren ezti gozoa harturik bere furgonetan. Joan senarrak Urruzunoko zentralean hogei urte eta gehiagotan eta dinamita banatzen (Epeleko polborina) beste hogeitan. Orain, hau, jubilaturik, emazteari lagunduz baratzeko lanetan. Erlezain eta erlezain maratza dugu, gainera, Joan.




Bi bizitzako etxea zen, diotenez, garai batean, biak baserri, eta erribera lur onak zituzten. Sagasti eta belardi ederrak malkarretan.

Bi familia bizi izan ziren bertan: Zugastitarrak bata, Aranburutarrak bestea.

Lehen, etxea bi zatitan (alde bat eta bestea) banatua zen bezala, bi solairutan banatua dago orain, behean eta goian. Duela gutxi berritu dute etxea, baina kale etxe edo bizileku soilak baizik ez dira.

Lursailak, belar zakarrez, ihi eta sasiak harturik, bertan behera utzita daude gaur egun.





Jenio biziko jendea", agidanez. Pio (77 urte) etxajauna dut solaskide.

"Bai, bai, gu ere halaxe gea eta ondotik datozenak (bilobak) *bala bezalakoak*". Hala ere, osaba Joxerengandik "bizi izugarria" eta norbaitek lagunartean *tximista* deitu eta hortik etxeari **Tximista-Enea**. Baina izatez **Bezkita** omen etxearen izena, eta ibaiaz bestaldetik aurrez aurre dagoen **Bezkita** izeneko etxea, Urnietako partean, **Zilegi Etxeberri** dela dio Pio etxeko nagusiak. "Zilegi edo zilegi-lurrak deitu mendi horiek guztiak, esaten dute, emakume baten jabetzakoak ziela, eta *etsia hartu* zuen garaian herrian bizi zien semeentzat utzi zituela".

Etxearen gain-gainean dago Goizuetarako errepidea. "Eskerrak, Joakina etxekoandrearen esanetan, etxea lehendik (errepidea baino lehen esan nahi da) egina zan, bestela botaraziko ziguten. Baserri txiki txar bat zan hau lehen (denboraren batean borda izana, noski) leiho xahar-xahar batzuk, txikiak eta marko urratuekin. Hemen etxe honetan gastatu ditugunak ere, kontatzekoak lirake"! Ukuilua bi puskatan zuen diotenez, batean behiak, ardiak bestean. Orain etxea, barne eta kanpo arrunt berritua, terraza ederrarekin ibai aldeko kantoian.

"Nere akuerdoan aitona Esteban ezagutu nuan". Gurasoak, aita, Joan Arrieta Rekalde bertako semea, eta Anttoni Izagirre Loiarte ama, **Aparraingo** alaba ziren. Hona hauen seme-alabak: Lutxi (gazura txerriei emateko egosten ari zen pertzara erori eta hila), Praixku (hau ere txikia zela hil omen), Joana, Klaudia, Pio, Pello, Sergio (etxe ondoko ibaian itoa), Joxe, Kristina eta Jexuxa.

Ama gazterik hil zitzaien, aita haur txikiekin geldituz. Hauetarik, gero, Pio ezkonduta etxera. Joakina Altuna Gastesi emaztetzat harturik. **Satsain** baserriko alaba hau. Eta hauen seme-alabak: Mari Anjeles, Maritxu, Jone eta Joxe Mari. Aiton-amonak bizi dira orain soilik Tximistanean, nahiz eta bakarrik ez diren sentitzen.

Soldadutzara joan bitarte Piok artzain eta etxeko lanetan jardun zuen. Zikuñagako fabrikara gero eta aita jubilatu zenean, honen ordez, Ubarretxena zentralera (Santiago). Hiru behi, hirurogei bat ardi, eta esnea, Santa Kruz esneketariari. Gaur traktore koxkor bat, segadora ere bai, baina astoa edo bizkarrez (sortaka) ganadu jana lehen. Hamaika astolan eginak direla diote. "Orain dena badugu, baina behar ez den garaian".

Hogei bat ardi dauzkate Joxe Mari semearen ardurapean.



Ugaldetxo



Ura behintzat alde-aldean dauka "muturrez aurrean" esango genuke. Ereñotzutik aurrera jo, Latsa pasatu eta aurrera eginez bihurgune bat eta Nafarrorako errepideak Urumea ibaiaren gaineko zubiaren atarian daukagu **Ugaldetxo** baserria, zubia baino lehen ezkerretik Aparraingo bidea utzi eta zubia gainditurik ezkerrera Pikoaga eta eskuinera Olazarrerako bidea duela.

Gerra garaian "kuartel" gisa erabili zuten. Lehenengo *gorrik*, telefono eta guzti; ondoren *nazionalak* iritsi ziren Goizuetatik eta Ugaldetxon gelditu ziren *gorrik* lehertutako zubia eraiki arte.

Iñaxio Balerdik eraiki zuen **Ugaldetxo** baserria **Urruzuno**eko Pantxika Azkuerekin ezkondu zenean. Garai hartan sagardotegia zen Ugaldetxo eta Iñaxio artzain ibiltzen zen. Hala, hauen seme Joxe Antonio **Olazar** baserriko Joxepa Rekalderekin ezkondu eta 8 seme-alaba izan zituzten: Ines, Pakita, Anttoni, Dolores, Bixenta, Kontxita, Felix eta Trini.

Ugaldetxo, baserrien zerrendan dagoen arren, aski ezagunagoa egin zaigu jatetxe bezala aspaldiko urteetan. Bi etxe daude elkar jotzen, baina aurrekoa izan da beti jatetxe. Sartuta ezkerrera taberna zeukan, eskuinera dolarea eta atzera ukuilua. Goian etxebizitza. Orain erabat taberna, sukaldea eta jangela eta goian etxebizitza (bost gela) eta jangela.

Iñauteriak izugarri ospatzen ziren. Mutil koadrila mozorrotu eta eskusoinua hartu eta dantza batean joaten ziren baserriz baserri, eta bueltan Ugaldetxon egiten zuten bazkaria eta festa.

Ines Arozena Apezetxea (72 urte). "Sekulako jendea (iota ahoskatuz) bizi zen hemen ni ezkonduta etorri nintzenean", dio honek, goizuetarra izaki, nafar euskara politean. Aitaginarreba eta honen anaia, amaginarreba, hauen bi alaba ezkonduak beren familiarekin eta senarra, Felix Balerdi Rekalde, bi etxeetan bizi baina otordua denak batera.

Felix ezkonduta hamar hilabetera bikiak izan zituen Inesek, Jesus Mari eta Mari Isabel, eta... hamabost hilabetera fabrikatik (Zikuñaga) motor txiki batean zetorrela, erorikoa, kolpe txar bat eta ondorioz senarra hil.

Inesek bi haur txiki eta berak hartu behar izan zuen etxearen ardura, bizimodu gogorraren jabe eginez. Esan beharrik seme-alabak ere txikitatik heziak direla lanean.

Tabernatik sos batzuk, fabrikatik alarguntsa eta etxe alboko *alorra* lehen dio berak (soroa), aparkaleku egin eta hor ere sos batzuk bilduz, horrelaxe defendatu da Ines familia aurrera ateratzeko.

Gaur egun, martxa handia Ugaldetxon, baina lan handia ere bai sukaldean nahiz jangelan. Esan behar da, tarteka, bidaia koxkorren bat edo beste egiten ere badakiela gure amonak. "Pixka bat oreatzea ere...".



Hau da parajea hau" izan dira *Egun on!* esanez agurtu ondoko nire lehen hitzak. Eta Maite Etxeberria (62 urte) bertako etxekoandre eta solaskidearen erantzuna ere berehalakoa izan da. "Nik esaten det udan hasiko zirela behintzat etxe hau egiten. Ez da posible bestela. Hau oso leku hotza da".

Izena bederen, **"Urmendi"**, ongi asmatua ez dagoen zalantza izpirik ez dut. *Ura* bada hemen bazter guztietan eta erabat *mendiz* inguraturik, hesi gotorrak bailiran dira mendiak hemen, mendien arteko sakan batean, etxearen biran **Olaberriko erreka**, eraikia dago Urmendi baserria.


Bere lehengo egitura errespetatuz, barne eta kanpo handiki berritua daukate orain etxea. Sarrera bide aldetik, sartu eta eskuinera dolarea omen zuten, eta ukuilua ezkerralde guztian. Orain bi bizitzako etxea dugu Urmendi; albo banatan ezker-eskuin terraza bana eta azpian garajeak. Dolarea zen lekuan sala txukun bat mahai eder eta beheko suarekin, tarteka familiartekoak bildu eta otorduak egiteko.

Aitona eta amona ziren bertan Maite ezkonduta etorri zenean. Joxe Agirre Zugasti aitona, eta Petra Perurena Zabaleta amona, **"Iyola"** baserriko alaba hau, eta bi semeak, Xanti senarra eta Julian koinatua.

Maite Etxeberria Otegi, **Lastaola Goikoa** baserriko alaba. Uraren kontra etorri zela esan diodanean, "bai, halaxe da, esan dit, baina badet uraren kontra areago egin zuan ahizpa bat Goizuetan".

Bi seme eta bi alaba izan zituzten: Beatriz, Xanti, Julian eta Yolanda. Orain etxean, bi bizitza, ama bizi da alde batean Julian semearekin, eta Xanti bestean bere familiarekin.





Arrunt mendi-etxea, dena basoa, dena mendia, *egurketan* (egur garraioan), mando eta kableak bitarteko, atera zuten bizimodua aiton-amonek Urmendi baserrian. Amonak beste zeregin bat ere burutzen zuen, basomutilei jatekoa eta lo-lekuak prestatzea.

Maite etorri zenean behi bat edo beste izaten ziren, etxerako esnea sortzearren, eta mandoak. Gero behiak kendu eta artaldea jarri zuten, inoiz ere basolana utzi gabe. Aitonak ez zuen langintza hau utzi, eta ez bere bi semeek ere (Xanti eta Julian) bizitza osoan.

Ura besterik ez etxe inguru guztian eta etxean urik ez. Iturri txulo bat bazuten arropa garbitzeko. Edateko uraren arazorik ez, erreka arrunt garbia orduan (eta orain) eta gainerakoan etxeko sagardoa. Gaur egun, aspaldidanik jada, etxean dute ura. Etxe aurreko mendi hegalean begi-bistan dago uraren gordailua, aitona igeltsero, amona eta amak peoi lana, egin ondoan.

Beste obralan bikain bat ere bada eginik etxe honen atarian: zubi gaineko ataka, burdin gotorrez eginiko ataka, alde bietan ormigoizko horma sendoa duela, uholdeetatik etxea defenditzearren. Igeltsero eta peoi berdinek egina.

"Hemen etxeko lanez aparte, horrelako lanak izaten zian: soro-lana, egur-lana, mandoak gobernatzea eta bakoitzak ahal zuana".

Haurrak lehenik Pagoagako eskolan ibili omen ziren. Hau itxi zenean, herriko eskolara. Eta zergatik ez Ereñotzura?

"Ereñotzu etxera bazkaltzera etortzeko urruti, eta Ereñotzun bazkaririk ez umeentzat".

Senarra hil eta gero bereak eta bi pasatutakoa dugu Maite. Aitona ere gaixorik eta hala omen zion honek azkenetan zegoela:
- "Zuk lau umerekin ez dezu hemen zer eginik, saldu baserria eta joan kalera".
- "Ez nik ez det salduko, nola edo hala heldu egingo diot etxeari".

Irribarretxo bat atera zitzaion aitonari. Handik hilabetera aitona hil zen. "Zortzi hilabetetan, dio Maitek hunkiturik, hiru gorputz atera ziren etxetik (amona, senarra eta aitona)".

Hurrengo egun batean, kaletik heldu da mandatuekin eta bidera seme zaharrena irten, negar batean. Zer zuen galdegin eta...
- Negar zotinka, "Ama, nik ez det Urmenditik joan nahi".
- "Ez gera joango, zaude lasai".

Hala, ahal zuen bezala aurrera atera zirela dio. "Familiakoek eta adiskideek ere asko lagundu ziguten, egia". Urteen burura, familia hazita, nahiko zuhurtziaz eta patxadan agertu zaigu Maite.

Urruzuno Behekoa



Historiaz beteriko etxea dugu Urruzuno, presa, zentrala, kanala (Abillasko zentralera) eta burdinola, berriz, Urruzuno edo Olazarko burdinola, lehengo garaietan. Iduri du sustraian *urrutz* (guk urritz esaten) daramala. Zailago dira atzizkiari buruzko xehetasunak.

Etxe kozkorra, errekarriz egina. Bi estalpe zituen ezker eskuin, eta dolarea eskuinekoan, etxe aurrean eskailerak etxebizitzara sartzeko, erdi-erdian ukuilurako sarrera eta gailurraren azpian ganbarako leihoa, zurezkoa hau. Joan Bta. bertako seme eta solaskideak dio galdorra oso-osoko enborra zuela eta zuraje oneko etxea zela.

Gurasoak, ezkonduta Argorri baserrian jarri bizitzen lehenik eta handik etorriak ziren **Urruzuno** baserrira. Joxe Antonio Iriberri Zabaleta zen aita, leitzarra, eta Maria Bautista Biurrarena Balerdi ama, arantzatarra. Seme-alabak: Pepita, Joxe Mari, Teodora, Hipolita, Joan Bta. eta Sebastiana.

Azkenean Joxe Mari gelditu zen etxean amarekin, ama hil, gerora Joxe Mari ere bai, eta Ugaldetxo etxejabe honen baitan gelditu zen Urruzuno baserria.

Aita, lehenik, basogizon izana zen, Santiago zentralera gero lanera. Ez da garbi oroitzen Bautista asteko, hamabosteko edo hilabeteko zen baina aitak *duro* bat irabazten zuela bai. Gerra garian aita mendiz ibiltzen omen zen



lanera joateko. Ugaldetxoko zubia botata, errepidea beldurgarri. Hala, Urruzunotik Ierolara igo eta handik Pagoagara, eta hau pauso batera zentraletik.


Bi behi eta ardi mordoska bat baserrian. Patata, babarruna eta artoa etxerako. "Oliorik ez gose urteetan eta tipula eta beste esnetan egiten zitun amak. Errotak itxita, artoan zartagian erre, txiki-txiki egin edo xehatu, hau esnetan egosi eta jaten genun".

Dena errekisatzen zuten, agidanez, artoa, babarruna eta... artilea ere bai. "Alla Kuidados" guarda etortzen zan baserriz baserri, apunteak hartu, neurketak egin artoa eindakoan, eta uzta ona bazan ezpazan, horrenbesteko bat kentzen ziguten edo entregatu behar izaten genun udazkenean".

Urruzuno Goikoa



Anaiak ziren Urruzuno bietako gizonak, biak leitzarrak, eta hortik datorkio Leitzanea Urruzuno Goikoari. Joxe Joakin Iriberri Zabaleta aita, Leitzakoa izatez, eta Maria Anabitarte ama, eta hauen seme-alabak: Lorentxo (txikitan hila), Joxepa, Guadalupe, Florentino, Manuela, Nati, Gregori, Anttoni eta Joxe Mari.



Basagizona aita, egurgilea, egurra egin eta egurra salduz atera zuen bizimodua.

Gainerakoan, behi batzuk, baratzea eta oiloak. Gazteak, gauza izaten hasi ahala, kanpora lanera.

Azkenik, Florentino gelditu zen etxean gurasoekin. Gero, etxea saldu eta Hernanira joan ziren bizitzera. Orain bi emakumezko etxejabe eta hauek bizi dira Urruzuno Goikoan, etxea poliki birmoldatu dutelarik.